



Genero-arrazoiengatiko jazarpena eta asilo eskubidea:
testuinguru globaletik tokiko konpromisora

Espainiako asilo-sistema, emakumeen
eta lesbianen, gayen, bisexualen eta
transexualen giza eskubideen
urraketari dagokionez

Comisión de Ayuda
al Refugiado en Euskadi





Genero-arrazoiengatiko jazarpena eta asilo eskubidea:
testuinguru globaletik tokiko konpromisora

Espainiako asilo-sistema, emakumeen
eta lesbianen, gayen, bisexualen eta
transexualen giza eskubideen
urraketari dagokionez



Argitalpen hau proiektu honetako zati da:
Genero-arrazoiengatikoa jazarpena eta asilo eskubidea: testuinguru globaletik tokiko konpromisora.

Finantziak:



ENPLEGUETIA NEURTZE
OSATZKO SAILA
Gonpain Lanpostuak eta Zerbitzuak
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Cooperación al Desarrollo



BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO
BERRIBERGIAL LANBIDEA
ETA IRERAREN SAILA
AREA DE BERRIBERGIAL
KOOPERAZIOA Y BILGUTAIKIA

Argitalpen hau Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordeak (CEAR-Euskadi) egina da.

Koordinatzaileak eta egileak: Xabier Agirre, Patricia Bárcena, Itziar Caballero, Javier Canivell, Raquel Celis, Suniva Martínez, Ángela Rico, Claudia Alejandra Sepúlveda, Jon Solaguren eta Ane Uria.

Azterlana: Leire Lasa, Izaro López de Lacalle, Estefanía Pasarín eta Iñaki Ramírez de Olano.

Laguntzaileak: ALDARTE. Associació per als Drets Humans a l'Afganistan (ASDHA). Carmen Miguel. CEAR-Pais Valencià. Center for Gender & Refugee Studies. Forum Feminista Maria de Maeztu (FFMM). Grupo Interdisciplinar para el Estudio y Prevención de las Prácticas Tradicionales Perjudiciales (GIPE/PTP) de la Universitat Autònoma de Barcelona. Proyecto Esperanza. Red de No Violencia contra las Mujeres de Guatemala (REDNOVI).

Argitalpenaren urtea eta lekua: 2009, Bilbo.

Diseinua eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios, S.L.

Inprimazioa: Lankopi, S.A.

Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

Lege-gordailua: BI-3510-09

Aurkibidea

Sarrera	9
I. Emakumeen eta LGBT taldearen egoera munduan	11
1. Testuingurua	13
2. Zergatik eragiten du testuinguru horrek are gehiago emakumeen eta lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen bizitzan?	13
2.1. Sexu-genero sistema	13
2.2. Genero-sistema menderatzaileak sustatzen duen gizarte-egitura: patriarkatua	14
3. Nola jartzen da agerian sistema patriarkala?	15
3.1. Emakumeen aurkako egiturazko indarkeria	15
3.2. Sexu-eskubideen eta ugaltze-eskubideen urraketa	17
3.2.1. Emakumeen SUEen urraketak	17
3.2.2. LGBT taldeko pertsonen SUEen urraketak	18
II. Erantzunak egoera horren aurrean: Giza eskubideen sistema	21
1. Giza eskubideak: eraikiz	23
2. Emakumeen giza eskubideak	24
2.1. Historiaren ikuspegia, emakumeen giza eskubideei erreparatuz	24
2.2. Emakumeen giza eskubideen adierazpena eta onarpena	26
3. Sexu-eskubideak eta ugaltze-eskubideak	28
3.1. Zer dira sexu- eta ugaltze-eskubideak?	28
3.1.1. Sexu-eskubideak	28
3.1.2. Ugaltze-eskubideak	29
3.2. Sexu- eta ugaltze-eskubideen adierazpena eta onarpena	29
3.2.1. Joera afektibo-sexualarekin eta genero-identitatearekin lotutako sexu-eskubideen ikuspegia	29
III. Asilo-eskubidea, genero-ikuspegitik	31
1. Asilo-eskubidea	33
2. Asilo-eskubidea, genero-ikuspegitik	33
3. Asilo-eskubidean genero-ikuspegia aintzatesteko egindako aurrerapenak	34

4. Kontzeptuak, genero-ikuspegitik	35
4.1. Jazarpena	35
4.2. Genero-arrazoiengatiko jazarpena	35
4.3. Jazarpenaren eragileak	35
4.4. Jazarpenaren arrazoiak	36
IV. Genero-arrazoiengatiko jazarpen motak edo generoagatiko zapalketaren inbentarioa	39
1. Genero-arrazoiengatiko jazarpen moten tipologia	41
2. Artikuluak eta hausnarketak asilo-eskubideari buruz	45
2.1. Emakume-hilketak Guatemalan	45
2.1.1. Artikulua: <i>Emakumeen aurkako indarkeria Guatemalan</i> . Red de No Violencia contra las Mujeres de Guatemala sarea	45
2.1.2. Asilo-eskubideari eta emakume-hilketari buruzko hausnarketak	51
2.2. Emakumeen eskubideen urraketak Afganistanen	53
2.2.1. Artikulua: <i>Genero-arrazoiengatiko jazarpena: Afganistan</i> . Mònica Bernabé, l'Associació per als Drets Humans a l'Afganistán (ASDHA), Forum Feminista María de Maeztu eta Afgan Women's Network erakundeekin lankidetzan	53
2.2.2. Asilo-eskubideari eta Afganistango emakumeen eskubideen urraketari buruzko hausnarketak	63
2.3. Emakumeen genitalen mutilazioa	63
2.3.1. Artikulua: <i>Emakumeen genitalen mutilazioa: asiloa, nortasuna eta giza eskubideak</i> . Adriana Kaplan eta María Helena Bedoya, Universitat Autònoma de Barcelona unibertsitateko Grupo interdisciplinar para el Estudio y Prevención de las Prácticas Tradicionales Perjudiciales (GIPE/PTP) taldea	63
2.3.2. Asilo-eskubideari eta emakumeen genitalen mutilazioari buruzko hausnarketak	74
2.4. Lesbianen jazarpena	75
2.4.1. Artikulua: <i>Lesbianak: sexu-orientazioagatik jazarritako emakumeentzat asilo-eskubidea</i> . ALDARTE, gay, lesbiana eta transexualen arreta zentroa eta sexu-askatasunei buruzko ikerketa- eta dokumentazio-zentrua	75
2.5. Transexualen jazarpena	82
2.5.1. Artikulua: <i>Sararen historia</i> . Raquel Celis, Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordea (CEAR-Euskadi)	82
2.5.2. Asilo-eskubideari eta genero-arrazoiengatiko (joera afektibo-sexuala eta genero-identitatea) jazarpen mota horiei buruzko hausnarketak	90
2.6. Sexu-esplotaziorako salerosketa	93
2.6.1. Artikulua: <i>Pertsonak sexu- eta lan-esplotaziorako salerosteak</i> . Proyecto Esperanza, pertsonen salerosketaren biktima diren emakumei babes integrala emateko elkarteak	93
2.6.2. Asilo-eskubideari eta sexu-esplotaziorako salerosketari buruzko hausnarketak	101

V. Espainiako asilo-sistema: Asilo Lege berria	105
1. Testuinguru globaletik tokiko konpromisora	107
2. Mehatxatutako eskubidea: asilo-eskubidea Espainiako Estatuan	107
3. Zer aldaketa dakartza Asilo Lege berriak errefuxiatuen babeserako?	108
3.1. Orokorrak	108
3.2. Genero-arrazoiengatiko jazarpenarekin lotutakoak	109
3.2.1. Asilo Lege berriaren atalen inguruko hausnarketak	109
VI. Analisia: genero-arrazoiengatiko jazarpenen	115
kasuetan emandako epaien analisia	
1. Zertan datza asilo prozedura?	117
2. Metodologia	120
3. Analisi kuantitatiboa	122
3.1. Eskatzaileek alegatutako jazarpenak	123
3.2. Errekurtsoak jarri zaizkien Barne Ministerioaren ebazpenei buruzko epaiak	124
3.3. Aurkeztutako errekurtsoei Justizia Auzitegiek emandako erantzunak	125
4. Analisi kualitatiboa: izapidetzeko onartzearen fasea	128
4.1. Analisi honen egituraketa	128
4.2. Genero-arrazoiengatiko jazarpena: alegatutako kausak	130
4.3. Froga	132
4.4. Epaien arrazoiterik eza	135
4.5. Ez onartzearen arrazoiak	136
4.5.1. Iraganbide-herrialdeak: 5/1984 Legeko 5.6 f) artikulua	136
a) 1951ko Genevako Hitzarmena sinatu zuten beste herrialde batzuetan zehar iragaitea	137
b) Herrialde seguru batetik datorren pertsona	137
4.5.2. Eskaeran ez da alegatzen errefuxiatu-izaera aitortzeko aintzatesten den inolako arrazoirik: 5/1984 Legeko 5.6 b) artikulua	139
4.5.3. Eskaeren izapidetzea ez onartzea justifikatzeko 5.6. artikuluko b) atalean oinarritutako beste argudiatze batzuk	141
a) Alegatutako jazarpena ez da ez pertsonala, ez zuzenekoa	141
b) Estatuko eragileek eraginak ez diren gatazka pribatuak eta familiako edo komunitateko gatazkek	142
4.5.4. Eskaera gertakari, datu edo argudio faltsu eta sinesgaitzetan oinarritzen da edo egun ez dago indarrean: 5/1984 Legeko 5.6 d) artikulua	143
a) Asilo-eskaera egin duen pertsonaren nazionalitateari buruzko zalantzak	143
b) Hilabeteko epea iristen denetik eskaera aurkezteko	145
c) Behartutako ezkontzagatik edo genitalen mutilazioagatik asiloa eskatu duen emakumearen adina	147

d) Alegatutako jazarpena delitu gisa tipifikatuta egotea jatorrizko herrialdean	148
e) LGBT taldea: homosexualitatearen despenalizazioa jatorrizko herrialdean	150
f) Administrazioaren eta lehen auzialdiko Auzitegiaren datuen eta txostenen arabera sinesgaitzak diren jazarpenak	151
5. Analisi kualitatiboa: Asilo-Estatutuaren eta Babes Osagarriaren Ebazpena	153
5.1. Analisi honen egituraketa	154
5.2. Genero-arrazoiengatikoz jazarpena: argudiatutako kausak	155
5.3. Froga eta kontakizunaren sinesgarritasuna	156
5.4. Asilo-estatutua ukatzeko kausak	159
5.4.1. Iraganbide-herrialdeak	159
5.4.2. Eskaerak ez du alegatzen pertsona errefuxiatuaren definizioan aurreikusitako kausa bat bera ere: 1951ko Genevako Hitzarmenaren 1.A.2. artikulua	159
5.4.3. Estatuz kanpoko eragileek eragindako jazarpena	161
5.4.4. Alegatutako jazarpena delitu gisa tipifikatuta egotea jatorrizko herrialdean	166
5.4.5. Nazionalitatea eta identitatea	169
5.4.6. Jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa	170
6. Ondorio orokorrak	173
6.1. Analisi kuantitatiboa	173
6.2. Analisi kualitatiboa: izapidetzeko onartzearen fasea	174
6.2.1. Froga eta epaien arrazoitzerik eza	174
6.2.2. Ez onartzeko kausak	175
a) Eskaeran ez da alegatzen errefuxiatu-izaera aitortzeko aintzatesten den inolako arrazoirik: 5/1984 Legeko 5.6 b) artikulua	175
a) 1. Estatuko eragileek eraginak ez diren gatazka pribatuak eta familiako edo komunitateko gatazkek	
b) Eskaera gertakari, datu edo argudio faltsu eta sinesgaitzetan oinarritzen da edo egun ez dago indarrean: 5/1984 Legeko 5.6 d) artikulua	175
b) 1. Asilo-eskaera egin duen pertsonaren nazionalitateari buruzko zalantzak	
b) 2. Hilabeteko epea iristen denetik eskaera aurkezteko	
b) 3. Behartutako ezkontzagatik edo genitalen mutilazioagatik asiloa eskatu duen emakumearen adina	
b) 4. Alegatutako jazarpena delitu gisa tipifikatuta egotea jatorrizko herrialdean	
b) 5. Administrazioaren eta lehen auzialdiko Auzitegiaren datuen eta txostenen arabera sinesgaitzak diren jazarpenak	
6.3. Analisi kualitatiboa: Asilo-Estatutuaren eta Babes Osagarriaren Ebazpena	178
6.3.1. Froga eta kontakizunaren sinesgarritasuna	178
6.3.2. Ukatzearren arrazoiak	178
a) Eskaeran ez da alegatzen pertsona errefuxiatuaren definizioan aurreikusitako kausa bakar bat ere: 1951ko Genevako Hitzarmeneko 1.A.2 artikulua	178
b) Estatuz kanpoko eragileek eragindako jazarpena	179

c) Alegatutako jazarpena delitu gisa tipifikatuta egotea jatorrizko herrialdean	180
d) Jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa	180
Bibliografia	183
1. Bibliografia dokumentala	185
2. Aztertutako epaiak	188
Eranskinak	193
1. Eranskina: Emakumeen eta LGBT taldeko pertsonen giza eskubideak babesteko tresnak	195
2. Eranskina: LGBT taldearen eskubideak aintzatesten dituzten tokiko legeriak	207
3. Eranskina: LGBT taldeko pertsonen aurkako jazarpena	211

Sarrera

Gure garaiko kontraesan handienetako bat giza eskubideen arloko diskurtsoaren eta praktikaren arteko desadostasunean datza. Eskubideak aintzatesten dituzten tresna multzo handi bat dago, baina pertsonen gehiengo handi batek ezin ditu eraginkortasunez erabili. Egoera hori larriagoa da emakumeetan, lesbianetan, gayetan, bisexualetan eta transexualetan (LGTB). Izan ere, jazarri egiten dituzte sexu jakin batekoak izateagatik (emakumeak) edo beren joera afektibo-sexualagatik eta genero-identitateagatik (LGTB taldea). Giza eskubideen urraketa larri edo sistematiko edo etengabe horiei genero-arrazoiengatik jazarpena esaten zaie.

Pertsona ororen oinarritzko eskubideetako bat da asilo-eskubidea. Eskubide horrek zenbait arrazoiengatik (arrazoia, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-talde jakin batekoa izatea edo iritzizko politikoa) jazarpenak direla-eta ihes egiten dutenak babesten ditu, eta generoa arrazoi horien zeharkako alderdia da.

Eskuetan daukagun argitalpen hau CEAR-Euskadik garatutako eta Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak eta Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarrak Bilboko Udal Sailak finantzatutako Genero-arrazoiengatik jazarpena eta asilo eskubidea: testuingu globaletik tokiko konpromisora izeneko proiektuaren zati bat da. Ekimen horren helburua da genero-arrazoiengatik jazarritako pertsonen asilo-eskubidea aintzatestea. Horretarako, informazio eguneratua eta garrantzitsua bildu da, munduan jazarpen hori nola adierazten den erakusteko. Halaber, Espainiako Estatuak azken bost urteetan jazarpenetik ihesi Espainiara heldu diren pertsonen emandako erantzunari buruzko informazioa ere bildu da.

I. kapituluak genero-arrazoiengatik jazarpenaren egiturazko kausa aurkezten da, sistema patriarkala, eta sistema hori nola adierazten den emakumeen aurkako egiturazko indarkeriaren, eta sexu- eta ugaltze-eskubideen urraketaren bidez. Azken kasu horretan, lesbianen eta transexualen aurkako bortxaketak nabarmentzen dira.


Baina zer erantzun ematen ari zaie bortxaketa horiei? Nazioarteak gero eta hobeto daki arazo hori dagoela, gizarte zibilaren (taldeak, gizarte-mugimenduak eta erakundeak) presioari esker. 2. eta 3. kapituluetan gai horren inguruan garatutako bi estrategia nagusiak aztertzen dira. II. kapituluak jasotzen da emakumeen giza eskubideak, eta sexu- eta ugaltze-eskubidea sustatzeko eta babesteko zer nazioarteko tresna sortu diren, eta LGBT taldean eragina dutenak nabarmentzen dira. Kapitulu honetan arreta berezia jartzen zaio giza eskubideen aintzatespenaren bilakaerari eta egungo egoerari. Bigarrenik, argitalpen honen III. kapituluak, asilo-eskubidearen berrikusketan zer aurrerapen garatu diren jasotzen da, genero-ikuspuntutik. Hauek dira edukirik azpimarragarrienak: genero-arrazoiengatik jazarpenaren definizioa (GAJ), asiloaren ikuspuntutik; eta jazarpen horren ezaugarriak direla generoan oinarritzea, eta zigorrak jazarpen dena gizona edo emakumea den kontuan hartuta ezartzea.

Baina, nola gauzatzen da jazarpen hori? **IV. kapituluan** genero-arrazoiengatiko jazarpenari buruzko informazio gehiago ematen da. Jazarpen moten tipologia bat aurkezten da, adibideak emanaz munduko eskualdeetako jazarpen-adierazpenei buruz; emakumeen eta LGBT taldeen giza eskubideak defendatzen eta sustatzen dituzten erakundeek eta taldeek idatzitako GAJaren moduei buruzko artikulua azaltzen dira; eta emakumeen eta asilo-eskubidearen arteko harremanari buruzko hausnarketak egiten dira.

Orain arte, munduko egoera azaldu da, eta orain tokiko konpromisoari buruz jardun behar gara. Zer erantzun ematen die Espainiako Estatuak jazarpen horretatik ihesi datozen pertsoneri?

V. kapituluan Espainiako estatuak asilo-eskubideari dagokionez zer politika- eta lege-esparru duen aurkezten da, eta nabarmentzen da Espainiako Asilo Lege berriak (2009ko urrian onartuak) zer eragin izan duen genero-arrazoiengatik pertsoneri errefuxiatu-estatutua aintzatesten. Hala, kapitulu horrek **VI. kapituluari**, argitalpenaren muinari, sarrera egiten dio: Espainiako Estatuak jazarpen horietatik ihesi datozen emandako erantzunari buruzko azterketa, asilo-sistema nola aplikatzen den analizatuz. Beraz, azterketan Auzitegi Nazionalaren eta Auzitegi Gorenaren epaien analitik ateratako informazioa aurkezten da, eta informazio horren bidez Espainiako Estatuak genero-arrazoiengatiko jazarpenetik ihes egin behar izan zuten pertsonekin duen konpromisoari buruz ateratako ondorioak.

Espero dugu argitalpena, oro har, eta analisia, zehazki, lagungarriak izatea giza eskubideak asmo-adierazpenak baino zerbait gehiago diren mundu bat eraikitzeko; hau da, giza eskubideak pertsona guztien bizitzan errealitatea diren mundu bat eraikitzeko.



I. Emakumeen eta LGBT taldearen egoera munduan

1. Testuingurua

Munduan gaur egun gertatzen ari denera hurbiltzeko, gaingiroki bada ere, beharrezkoa da nazioarteko testuingurua kontuan hartzea. Izan ere, estatu askotan giza eskubideetako asko formalki onartu badira ere, gizadiaren gehiengoarentzat ezinezkoa da eskubide horiek erabiltzea. Eskubide multzoak lantzen aurrerapenak egin diren arren, eskubide horien lorpenean eta berrantzez erabiltzeko aukeran atzera egin da.

Britainia Handia: 2001eko irailetik aurrera eta 2005eko uztailaren 5ean Londresen gertatutakoa-
ren ostean, izu-giroa eta arrazismo-jarrerak sortu ziren, eta gizartean errefuxiatuekiko ikuspegi ez-
korra sortu zen. Emakumeentzat, genero-arrazoiengatik jazarpenagatik asiloa eskatzea are zaila-
goa bihurtu da, paradoxikoa bada ere, hain zuzen ere Mendebaldeko gobernuak emakumeen
aldeko aldarria beste herrialde batzuetan lau haizeetara aldarrikatzen ari direnean¹.

Txina: Presioa areagotu izanaren sintometako bat da 2000. urtean ia 300.000 emakumek bere
buruaz beste egin zutela. Txinatar Emakumeen Federazioko zuzendariorde Deng Li-ren arabera,
"Txina aurrera egiten ari da alderdi askotan, baina emakume askoren bizitza atzera egiten
ari da, ez baitira haiek babesteko arauak betetzen²".

Globalizazioa eskubideak unibertsal bihurtzeko bitartekoa izan liteke. Baina hori logika kapitalistari eta patriarkalari jarraituz ezartzen denez, ez du gutxiengo baten baliabideak areagotzeko baino balio, eta aldi berean gehiengo handien giza eskubideen urraketa errotzen da: ohiko urraketa, egiturazkoa eta sistematikoa. Globalizazioak mugak ezabatzen ditu, edota iraunkor bihurtzen ditu; azken horiei dagokienez, genero-mugei eusten die, emakumeen eta gizonen arteko baliabide-, aukera- eta botere-desberdintasun izugarria dakarren erueda errepikatzen. Sistema horren eragin negatiboak are larriagoak dira diskriminazio- edo jazarpen-egoeran dauden pertsonen bizitzan; esaterako, emakumeengan eta lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen taldean³.

2. Zergatik eragiten du testuinguru horrek are gehiago emakumeen eta lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen bizitzan?

2.1. Sexu-genero sistema

Gayle Rubin antropologoaren arabera, *sexu-genero sistema antolaketa-neurrien multzoa da; haren bidez, gizarteak sexualitate biologikoa eraldatzen du, giza jardueraren produktu bihurtuz, eta bertan, eraldatutako giza behar horiek asetzen dira*. Genero-harremanek ez dute gizonen eta emakumeen arteko harremana soilik definitzen; gizarte-sistema ere bai. Genero-sistemak, gainera, gizartea sailkatzeko eta hierarkizatzen, menderakuntzarako eta botererako tresnak dira. Generoa, gizarte-desberdintasunezko sistema den aldetik, beste diskriminazio-sistema batzuek elikatzen da, hala nola klasea, arraza eta etnia. Gizarte-bazterketako sistema horien eta boterearen arteko erlazioa gizarte-azterketan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdia da, bai eta sortzen diren aldaketa politikorako proposamenetan ere. Izan ere, diskriminazioaren ardatzetako batzuk, hala nola arraza eta generoa, gizarte- eta klase-bazterketaren atzean ezkututzen dira⁴.

¹ Van der Gaag, Nikki (2005).

² Van der Gaag, Nikki (2005).

³ Aurrerantzean, LGBT taldea.

⁴ Ruiz-Bravo, Patricia (1999).

2.2. Genero-sistema menderatzaileak sustatzen duen gizarte-egitura: patriarkatua

Patriarkatua gizarte egituratzeko eta boterea erabiltzeko gizarte- eta kultura-sistema da, eta maskulinoa denaren nagusitasunean oinarritzen da. Sexu-genero sistemaren eraketa jakin bat definitzen du -hau da, generoaren arabera rola definitzen ditu: zer den emakume izatea eta zer den gizon izatea-, emakumeen eta LGBT taldearen diskriminazioa eta jazarpena⁵ iraunarazten dituen aurreiritzi multzo batean oinarrituta. Marcela Lagarde⁶ mexikar antropologoaren ikuspegiari jarraituz, hauek dira nagusietako batzuk:

Sexismoa sexu-nagusitasuna legitimatzen duen balio multzoa da, eta noski, baita sexu-gutxiagotasuna ere; hau da, pertsonen sexuaren arabera, sexometria baliatzen da baloraziorako oinarritzat. Sexismoa ez da balio multzoa soilik; gainera, munduan gertatzen denari buruzko interpretazioak dira. Horrez gain, jokabide motak dira, ekintza jakinak, jarrerak, eta afektuak eta afektibitatea. Sexismoa gizarte menderatzailearen alderdi nagusia eta egituratzailea da.

Matxismoa sexismoaren oinarritzko dimentsioetako bat da. Eta gizona eta maskulinoa denaren gorespen ideologikoa, afektiboa, intelektuala, erotikoa eta juridikoa da. Matxismoa, gainera, naturalista ere bada. Izan ere, atributu maskulinoak naturalizat ditu. Maskulinitasun patriarkaletan modu inplizituan dauden menderakuntza-ezaugarriak goraiatzen eta balioesten ditu bereziki. Matxismoak indarra gorespen du, atributu maskulino positibotzat: indar fisikoa eta intelektuala; indarra, arazoimenaren, egiaren eta indarkeriaren botere gisa.

Matxismoaren oinarrietako bat *androzentrismoa* da: gizonak, erdigunean, hierarkizatuta, eta beti nagusi gisa. Dena hierarkizatzen da, menderakuntzan egozentrismoa dago.

Misoginiak emakumeenganako fobia adierazten du; emakumeen eta femeninoa denaren adierazpenerako kultura eta gizarte modu sofistikatuenetako bat da. Femeninoa denarekiko negatibismoa du oinarri, emakume guztien gutxiespen orokorra; emakumearen eta femeninoa denaren ospea zikintzea da, emakumeak eta femeninoa dena gaitzestea eta baztertzea.

Misoginia funtzionala da matxismoarako, androzentrismoarako eta sexismorako, eta emakumeak genero femeninoa gutxiagotzat jotzen duen balio-eskala batean hezi izanaren emaitza da. Misoginia gizontasun-atribututzat jotzen da.

Homofobia, lesbofobia, transfobia, kastufobia eta *heterofobia* sexismo moduak dira, eta pertsonak menderatzeko, hierarkizatze, baztertzeko edo onartzeko, eta batez ere pertsonak zapalkuntzaren objektu bihurtzeko erabiltzen den sexualitatearen bidez jartzen dira agerian. Patriarkatuan, pertsonak heterosexual izateko hezten gaituzte, heterosexualitatearen gorespene eginez, eta homosexualitatea gaitzetsiz eta harekiko beldurra sortuz. Patriarkatuak ezarritakoaren arabera zuzena den sexu-eredua betetzen ez duten pertsonen praktika, pentsamendu eta afektuekiko izua, bazterketa, axolagabekeria, gaitzespene eta patologizazioa sustatzeko hezten gaituzte.

Historian zehar eta hainbat geografia-eremutan, patriarkatua bizitza publikoko zein pribatuko erakunde guztietan egituratuz joan da, bai familian, bai gizarte-egituren multzoan⁷.

⁵ Honela definitzen dugu *jazarpena*: giza eskubideen urraketa larria, sistematikoa edo jarraitua.

⁶ Lagarde, Marcela (2005).

⁷ Fontenla, Marta (2008).

Ordena horrek gizonezkoen eta maskulinoa denaren nagusitasuna ziurtatzen du, eta horrek be-rekin dakar emakumezkoen eta femeninoa denaren aurretiko gutxiespena. Era berean, ordena horren bidez, gizon batzuek menderakuntza ezartzen dute beste gizon batzuen gain, ezarritako ereduak betetzen ez badituzte; eta emakumeen artean enajenazioa⁸ sortzen du; egoera horrek egiturazko ondorioak ditu, bereziki emakumeengan eta LGBT taldeko pertsonengan.

3. Nola jartzen da agerian sistema patriarkala?

3.1. Emakumeen aurkako egiturazko indarkeria

*Emakumearen aurkako Indarkeria Deuseztatzeari buruzko Adierazpenaren*⁹ 1. artikuluan, hone-la definitzen da indarkeria mota hori: "sexu femeninokoa izatean oinarritutako indarkeria-ekin-tza oro, emakumearen oinaze edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten duena edo eragin dezakeena, edota halako ekintzak egitearekin mehatxatzea, hertsatzea zein arbitra-rioki askatasuna kentzea, bai bizitza publikoan, bai pribatuan". Fenomeno hori da emakumeen zapalkuntzaren modurik muturrekoena, eta hainbat modutan jartzen da agerian: bai hizkuntza-ko forma sotilen bidez, bai giza eskubideen urraketa larrien bidez¹⁰.

Emakumeen kasuan, segurtasunari erreparatzean batez ere segurtasun fisikoarekin lotutako al-derdiak hartu izan dira oinarri, eta hala da oraindik ere. Arlo hori garrantzitsua bada ere, gaur egun onartzen dugu ez dagoela segurtasunik emakumeentzat beste arlo askotan ere, bizi duten segurtasunik ezak –horren aurka borrokatzen dira- bizitzako arlo guztiak hartzen dituela. Beraz, emakumeen aurkako egiturazko indarkeriaz ari gara. Haren jatorria patriarkatuan dago; hori izan da munduko kultura eta gizarteentzako antolamenduaren ardatza.

Menderakuntza-sistema orok, irauteko, beharrezkoa du etengabe legitimatuko duen ekoizpen ideologiko eta sinbolikorako sistema bat. Horrenbestez, patriarkatua emakumeak zapalkuntzaren mende bizitzeko hezten dituen gizarte- eta kultura-engranaje oso bat da. Generoaren arabera-ko sozializazio-prozesua errepresiozkoa eta indarkeriazkoa da, eta prozesu horrek emakumeen aur-kako indarkeria zapalkuntza-sistema horren egiturazko osagai bihurtzen du¹¹. Hala ondoriozta daiteke testuinguru jakin batzuetan gertatzen dena aztertuta; esate baterako, Guatemalan eta Afganistanen¹².

Ez dago emakumeen egoera definitzeko ikuspegi bakar bat; aitzitik, haien esperientziak oso des-berdinak dira. Hori gizarteentzako arabera modu desberdinetan agerian jartzen den arren, patriarka-tua, gutxiestea eta mendekotasuna guztiek bizi dituzten egoerak dira. Ez dira ezohiko egoerak, testuinguru asko eta askotan ohikoak diren bizitzaren eta osotasunaren aurkako erasoak, tortu-rak eta tratu krudelak baizik¹³. Diskriminazio hori jaino aurretik ere gertatzen da, abortatze selek-tiboaren bidez: herrialde batzuetan, fetuaren sexua jakiteko probak baliatzen dira.

⁸ Lagarde, Marcela (1997).

⁹ Nazio Batuen Batzar Nagusiarena, 1993.

¹⁰ Murguialday, Clara eta Vázquez, Norma (2000).

¹¹ Montes, Laura (2007).

¹² Argitalpen honen IV. kapituluak, herrialde horietako egoera deskribatzen da, bi artikuluren bidez: bata, Guatemalako emakumeen hil-ketei buruzkoa; eta bestea, Afganistango emakumeen egoerari buruzkoa. Lehen artikulua Guatemalako REDNOVI sareak idatzia da, eta bigarrena, ASDHA elkarteak (Afganistango Giza Eskubideen aldeko Elkarteak), Forum Feminista Maria de Maeztu eta Afgan Women's Network erakundeekin lankidetzan. Artikulu horien osagarritzat, jazarpen mota horien eta asilo-eskubidearen arteko loturari buruzko hausnarketa batzuk aurkezten dira.

¹³ CEAR-Euskadi (2005a).

India: Fetuaren sexua zein den jakiteko zentroak egoteak emakume taldeen kezka eragin ziotuen; batez ere, iragarki hau azaldu zenetik: "hobe da orain 38 dolar gastatu, fetu femenino bat abortatzeko, aurrerago ezkonsarian 3.800 dolar gastatu baino"¹⁴.

Beraz, emakumeen aurkako indarkeria kultura, arraza, etnia, gizarte-klase eta erlijio guztietan gertatzen da, eta emakumeen bizi-ziklo osoan du eragina¹⁵.

Etapa	Indarkeria mota horren adibideak
Lehen haurtzaroa	Haur-hilketa femeninoa; gehiegikeria fisikoak eta emozionalak; elikadura eta mediku-arreta izateko eskuragarritasun berezilea urtebetetik beherako nesketan.
Haurtzaroa	Neskak ezkonaraztea; genitalak moztea; sexu-gehiegikeriak, familiako kideek zein arrotzek eraginda; elikadura eta mediku-arreta izateko eskuragarritasun berezilea; haurren prostituzioa.
Nerabezaroa	Ikaskideen eta ezkongaien indarkeria; behartutako sexu-harremanak, arrazoi ekonomikoengatik; sexu-gehiegikeriak lanean; bortxaketa; sexu-jazarpena; behartutako prostituzioa; emakumezkoen salerosketa.
Ugaltze-adina	Emakumearen aurkako gehiegikeriak, bikotekide maskulino minak eraginda; emakumezko ezkontidearen bortxaketa; ezkonsariarekin lotutako gehiegikeriak eta hilketak; emakumezko ezkontidearen hilketa; gehiegikeria psikologikoak; sexu-erasoak lanean; sexu-jazarpena; bortxaketa; urritasunak dituzten emakumeen aurkako gehiegikeriak; bortxaketa gerrarako armatzat.
Zahartzaroa	Alargunen eta adineko emakumeen aurkako gehiegikeriak.

Iturria: IESE, L. Pitanguy, J. eta Germain, A. (1994): *Violencia contra la mujer: la carga oculta de salud*, Organización Panamericana de la Salud (OPS), Washington, D.C. Murguialday eta Vázquez (2000) lanetik aterea.

Gero eta gehiago, mundu osoko emakumeen egoerari buruzko datu fidagarriak lortzen ari gara, eta datu horiek agerian jartzen dute emakumeek egiturazko indarkeria pairatzen dutela, bai bake-garaian, bai gerra-garaian. Indarkeria endemikoa da, eta etxeko eremuan zein eremu publikoetan gertatzen da. Indarkeria fisikoa, psikologikoa eta materiala da, zorroztasunez jorratzen da, eta hainbat elementuren bidez berrelikatzen da: etxeetako pertsona arteko harremanen bidez, lan-merkatuaren bidez, antolamendu juridikoaren bidez, ahaidetasunagatiko betebeharren bidez, komunitateetako bizitzaren bidez eta emakumeen lanaren fruituak bereganatuz; hori guztia, elkarri lotutako gizarte asimetrikoen testuinguruan¹⁶.

Duela hamarkada batzuk hasi zen emakumeen bizitzan indarkeriak duen garrantziari buruzko hausnarketa sistematikoa, eta indarkeria hori nola jartzen den agerian eta zenbaterainoko ondorioak dituen aztertzen hasi ziren. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko taxutze kontzeptuak teoria feministetan du jatorria; teoria horiek botere- eta menderakuntza-harremanak hartu zituzten oinarri fenomeno hori azaltzeko¹⁷.

¹⁴ Van der Gaag, Nikki (2005).

¹⁵ Murguialday, Clara eta Vázquez, Norma (2000).

¹⁶ Maquieira, Virginia (arg.) (2006).

¹⁷ CALDH (2006).

Sistema patriarkala ikuspegi kritikoz berrikusteak bide ematen digu jabetzeko emakumeen aurkako indarkeria egiturazkoa, historikoa eta sistematikoa dela. Izan ere, ez dira pertsona jakinek egindako ekintza bakan batzuk, egituratze sozio-kultural unibertsalaren adierazpen esplizituak baizik. Azterbide horiei jarraituz, emakumeen aurkako indarkeria jada ez da banakakotzat eta pertsonaltzat hartzen, emakume taldearen aurkako egiturazko indarkeriatzat baizik; hau da, giza eskubideen urraketarekin lotutako funtsezko arazo multzotzat.

3.2. Sexu-eskubideen eta ugaltze-eskubideen urraketa

Patriarkatuak emakumeak¹⁸ eta LGBT taldea menderatzeko harreman politikotzat ditu sexu-harremanak. Emakumeek eta LGBT taldeak pairatzen duten diskriminazioa eta jazarpenera haien sexualitatearen, ugaltze-gaitasunaren eta gorputzaren kontrolaren bidez gauzatzen da; hau da, sexu-eskubideen eta ugaltze-eskubideen (SUE)¹⁹ urraketaren bidez.

3.2.1. Emakumeen SUEen urraketak

Emakumeen aurkako egiturazko indarkeriaren adierazpen gehienak SUEen urraketaren bidez gauzatzen dira. Historian zehar, emakumeen funtzioa ugaltze-funtziora mugatu izan da. Hori dela eta, ugaltzea kontrolatu nahi izan da, emakumeak kontrolatzeko bitartekotzat; hau da, emakumeek erabakitze gaitasuna izan dute esparru horretan, eta hori kontrolatu nahi izan da: haien gorputza.

Emakumeen aurkako indarkeria mota gehienetan, sexu-ezaugarria izan da ardatz. Emakumeak behartzeko modua zein ohikoa eta espezifikoa den aztertzen badugu, ohartuko gara askotan sexu-indarkeriaren bidez egiten dela; besteak beste, bortxaketa gerrarako armatzat erabiliz, emakumeen genitalen mutilazioaren bidez, eta emakumeen salerosketaren bidez, sexu-esplotazioarako eta behartutako prostituziorako²⁰.

Rita Segato antropologoak, Ciudad Juárezeko emakumeen hilketak aztertzean, galdera hau egiten dio bere buruari: *Zer dela-eta da hain garrantzitsua, gerra modu berri hauetan, emakumearen gorputza bahitzea, torturatzea, suntsitzea, desegituratzea eta desegitea, sexu-erasoaren bidez? Baina, kontuz: akats handia da halakoei sexu-krimen esatea. Izan ere, halako erasoak sexu-bitartekoak erabiliz egiten dira, baina ez dute sexu-helbururik²¹.*

Kalkulu batzuen arabera, munduko hiru emakumetik bat kolpatu egiten dute edo sexu-harremanak izatera behartzen dute, edota bestelako gehiegikeria batzuk pairatu behar izaten ditu, bizitzan zehar. Munduko Osasun Erakundearen txostenen arabera, erailtzen dituzten emakumeen % 70 bikotekideak hiltzen du.

¹⁸ Fontenla, Marta (2008).

¹⁹ Argitalpen honetako II. kapituluaren, eskubide horiek definitzen dira, bai eta oinarriko eskubidetzat onartzeko prozesuaren gaur egungo egoera nolakoa den ere.

²⁰ Hala ondoriozta daiteke argitalpen honetako IV. kapituluaren azterketatik. Kapitulu horretan, genero-arrazoiengatik hainbat jazarpenera mota azaltzen dira, "Grupo Interdisciplinar para el Estudio y Prevención de las Prácticas Tradicionales Perjudiciales" (Universitat Autònoma de Barcelona) taldearen eta Proyecto Esperanza elkartearen bi artikuluren bidez: lehen emakumeen genitalen mutilazioari buruzkoa da, eta bestea, sexu- eta lan-esplotazioarako helburuarekin egiten den emakumeen salerosketari buruzkoa. Artikulu horien osagarritzat, jazarpenera mota horien eta asilo-eskubidearen arteko loturari buruzko hausnarketa batzuk aurkeztu dira. Genero-arrazoiengatik jazarpeneraren fenomenoaren definizioa III. kapituluaren dago.

²¹ Sandá, Roxana (2009).

Munduko arma arinen biktimen % 80 emakumeak eta haurrak dira; gainera, duela gutxiko gatazka armatuetan, emakumeen aurkako indarkeria gerrarako armatzat erabili da.

Ruanda eta *Bosnia Herzegovina*, milaka emakume bortxatu, mutilatu, bahitu eta hil zituzten. Gerora, ekintza horiek gerrako krimenak eta genozidioa direla onartu dute nazioarteko auzitegiek.

3.2.2. LGBT taldeko pertsonen SUEen urraketak

Joera afektibo-sexuala beste generoko, genero bereko edo genero bat baino gehiagoko pertsonetikiko erakarpen emozionala, afektiboa edo/eta sexuala sentitzeko pertsonaren gaitasuna da, bai eta pertsona horiekin harreman intimoak eta sexualak izateko gaitasuna ere. Bizitzeko eskubidea eta norberaren sexu-aukerak adierazteko eskubidea pertsonaren oinarrizko alderdiak dira, eragina baitute haren sentimenduetan, nahietan, gorputzean, identitatean eta besteekiko harremanetan; azken finean, haren duintasunean. *Norberaren sexu-joera askatasunez erabakitzeo eskubidea eta beldurrik gabe adierazteko eskubidea giza eskubideak dira, zentzu osoan*²².

Bestalde, genero-identitatea sexu batekoa edo bestekoa izatearen sentimendua da; hau da, gizon izatearen edo emakume izatearen sentimendua. Nolanahi ere, komeni da argitzea ez dagoela identitate bakarra sexu bakoitzarentzat; aitzitik, hori pertsona bakoitzak modulutzen eta egokitzen du.

LGBT taldeko pertsonen buruzko ikuspegia haien joera afektibo-sexualera eta genero-identitate-ra mugatzen da²³. Testuinguru jakin batzuetan, heterosexualitateki kanpo dagoen oro jazartzen da. LGBT taldearen aurka izandako urraketak askotarikoak dira: judizioz kanpoko hilketak, tortura, tratu txarrak, sexu-erasoak, bortxaketak, esku-hartzeak bizitza pribatuan, atxilotze arbitrarioak, lanerako edo hezkuntzarako aukerak ukatzea, diskriminazio larria eta gainerako giza eskubideak erabiltzeko oztopoak. Urraketa horiek askotan larriagotu egiten dira, beste indarkeria, gorroto, diskriminazio eta bazterketa mota batzuen bidez, hainbat ezaugarritan oinarrituta: nazionalitatea, sexua, arraza, adina, erlijioa, urritasuna, ekonomia- edo gizarte-egoera eta abar.

Lesbianen giza eskubideen urraketak

Emakumeek jazarpena pairatzen dute joera afektibo-sexual lesbikoa izateagatik. Izan ere, halako jarrerak egitura patriarkal tradizionalen aurkakoak dira, eta zalantzan jartzen dituzte genero maskulinoaren edo femeninoaren identitatearen arabera gizonei eta emakumeei esleitutako genero-rolak. Sexualitatea zelatatzea da jazarpen horri eusteko indar nagusia, eta horrek generoan eta generoen arteko desberdintasunean oinarritutako indarkeria iraunarazten du. Lesbianek pairatzen duten jazarpena gizon homosexualak pairatzen dutena ez bezalakoa da. Desberdintasun horren oinarriak sexismoa eta egitura patriarkalak dira; horren ondorioz, lesbianek gizon homosexualak baino gehiago pairatzen dute ikusezintasunaren eta ez existitzearen egoera²⁴.

²² Amnistia Internazionala (2001).

²³ 3. eranskinean, lesbianek, gayek, bisexualak eta transexualek pairatzen dituzten jazarpen moten zerrenda bat aurkezten da.

²⁴ IV. kapituluari, xehetasunez azaltzen da arazo hori, ALDARTE elkartearen artikuluan baten bidez, eta jazarpen mota horren eta asilo-eskubidearen arteko loturari buruzko hausnarketa batzuen bidez.

Transexualen giza eskubideen urraketak

Trans pertsonak, Transcender Europeen²⁵ irizpideei jarraituz, jaiotzean esleitutako genero-rola-rengandik espero zena ez bezalako jarrera edo jokabidea dutenak dira, bai sentitzen dutenagatik, bai janzteko moduagatik, bai gorputza aldatzeko moduagatik. Definizio horretan sartzen dira hauek: transexual femeninoak (gizon izatetik emakume izatera) eta maskulinoak (emakume izatetik gizon izatera), pertsona transgeneroak, trabestiak, ez-generoak, generoaniztunak, intersex pertsonak eta beste genero-aldaera batzuetako pertsonak, bai eta tokian tokiko beste izendapen batzuk ere, hala nola muxé²⁶ pertsonak, hijrak²⁷, etab.

Trans pertsonak bisexualak, heterosexualak nahiz homosexualak izan daitezke, haien genero-identitatea zeinahi izanik ere. Askotan, trans femeninoak gizon homosexualtzat jotzen dira, eta pertsona homosexualak bezala, diskriminatu eta jazarri egiten dira, haien joera afektibo-sexuala zeinahi izanik ere. Horrela, transfobiak eta homofobiak bat egiten dute. Belissa Andia Pérezek²⁸ dioenez, trans maskulino askok "ezkutuan egotearen eta ezezagun izatearen alde egiten dute, maskulinitasuna erabiliz lortutako estatusa ez galtzeko".

Genero-identitatea dela-eta pertsona jakin batzuek pairatzen duten jazarpena ulertzeko, azpimarratu behar da judu-kristau tradizioan genero-identitateak prozesu eskluienteen bidez eraikitzen direla; hau da, emakumezkoari esleitzen zaiona ukatu egiten zaio gizonezkoari, eta alderantziz. XIX. mendearen amaieran, erlijioek eta monarkiek gizarte-ordenaren aurkakotzat jotzen zituzten *bizioak* edo *perbertsio moralak* buruko gaixotasun gisa hartzen ziren, sendatu beharreko patologiatzat. XIX. mendean zehar, medikuntzak legitimazio berri bat eskaini zuen gizartean sexu-disidenteak kontrolatzeko. Desberdintasunak biologizatzea, berdintasunik eza eta errepresioa justifikatzeko, XIX. mendeko zientziaren eta medikuntzaren ezaugarria da, eta joera horrek gaur egun arte iraun du²⁹. Genero-aldaketa etengabe patologizatzen da, buruko nahasmendu gisa.

Belissa Andia Pérezek dioenez, trans femeninoen ehuneko handi batek, bizi duen bazterketa-egoera dela eta (ekonomia-, gizarte eta kultura-eskubideen nahiz eskubide zibil eta politikoen eskuragarritasunean sistematikoki diskriminatzen baitira), "lurralde-inguraketa hausten du, merkataritza- eta bizitegi-eremuetan finkatzeko, sexu-merkataritzarako helburuarekin, gizarte-bazterketa eta estatuaren ardura eza konpentsatzeko. Egoera horretan, trans pertsonak askotariko indarkeria eta gehiegikeriak pairatu behar izaten ditu, eremu publikoan agerian jartzen baitu heteronormatibitatearekiko haustura, bere egindako genero-identitatea dela eta. Horrela, errepresioa pairatzeko arriskua du, ez indar polizialen eskutik soilik; herri-segurtasunerako beste udal kidego batzuen eta auzotarren eskutik ere bai. (...) Horrez gain, krimenaren bideari jarraitzen dioten pertsonak ere zelatan izaten dituzte, trans pertsonengan norberarentzat etekina lortzeko aukera ikusten baitute³⁰".

²⁵ Transgender Europe (2009).


²⁶ *Muxeak* pertsona trabestiak dira, gizon izatetik emakume izatera igaro direnak. Oaxacako (Mexiko) erdialdeko haraneko herri zapotekotan bizi dira, eta kolonaurreko garaitik, hirugarren sexutzat jo izan dira. Muxe batzuek bikote monogamoak eratzen zituzten gizonezkoekin; beste batzuk, taldean bizi ziren; eta beste batzuk, emakumezkoekin ezkontzen ziren eta seme-alabak izaten zituzten. Gaur egun, oraindik ere, herri horiekiko tolerantzia dago, nahiz eta kolonizazioarekin batera hainbat estigma sartu ziren.

²⁷ Indian, hala esaten zaie hirugarren sexuko pertsonei; hau da, genero maskulinoaren eta femeninoaren arteko.

²⁸ Balzer, Carsten: eta Suess, Astrid (2009).

²⁹ Guasch, Óscar (2007).

³⁰ IV. kapituluan, xehetasunez aztertzen da arazo hori, emakume transexual batek pairatutako jazarpenaren historiari buruzko CEAR-Euskadiren artikulua baten bidez, eta jazarpen mota horren eta asilo-eskubidearen arteko loturari buruzko hausnarketa batzuen bidez.



II. Erantzunak egoera horren aurrean: Giza eskubideen sistema

1. Giza eskubideak: eraikiz

Giza eskubideei buruzko ikuspegia aldakorra da, eta eskubide horien esanahia zabalduz doa, herriarrek haiekin lotutako beharrak eta nahiak berriro definitu ahala. Beraz, garrantzitsua da giza eskubideei produktu historikotzat erreparatzea; giza ekintzaren ondorio dira, aldakorrak dira, eta beraz, haien eraikuntza amaitu gabeko prozesua da³¹.

Giza eskubideen zabalkuntza-prozesuan, zenbait etapa izan dira: *positibatzea*: hau da, lege-tes-tuetan jasotzea; *orokortzea*: eskubide horien jabe diren subjektuen multzoa zabaltzea; *nazioar-tekotzea*: NBERen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1948), eskubide horiek unibertsal bihurtzearen aldeko jarrera azaltzen da, eta haien edukari buruzko adostasuna jartzen da age-rian; *espezifikatzea*: pertsona taldeen arteko desberdintasun espezifikoko onartzea: gutxiengoan eskubideak/taldeen eskubideak³². Prozesu hori gertatzen ari da oraindik. Eskubide batzuk etapa horietatik guztietatik igaro dira. Beste eskubide batzuetan, aldiz, oraindik ez da lehen etapa gau-zatzea lortu; hori gertatzen da sexu-eskubide eta ugaltze-eskubide batzuekin.

Giza eskubideak berriro definitu behar dira, gizarte-harreman asimetrikoen eta elkarrekiko lotu- ra globalaren testuinguruan, pertsona guztiak benetan eskubide horiek bereganatzeko eta era- biltzeko aukera izan dezaten, berez dagokien zerbait bezala, eta ez sistema kapitalistak eta pa- triarkalak definitutako ezaugarriak eta baldintzak betetzen badituzte ematen zaizkien pribilegioak bezala.

Argitalpen honetako I. kapituluaz azaltzen denez, erlazio duala dago giza eskubideen eta globa- lizazioaren artean. Globalizazioak, alde batetik, giza eskubideak garatzeko aukera eskaintzen du; baina bestetik, prozesu hori gauzatzeko moduak berekin dakar eskubide horiek ez betetzea eta sistematikoki urratzea. Emakumeen eta LGBT taldearen eskubideak onartzeko eta indarrean jar- tzeko prozesua aztertzean, oso garrantzitsua da maila sistemiko hori ulertzea. Izan ere, ezinbes- tekoa da hainbat dimentsiotan esku hartzea, gizarte bidezkoagoa eta demokratikoagoa lortzeko bidean aurrera egiteko³³.

Testuinguru horretan, gizarte-justiziaren arloari buruzko adierazpenetan, giza eskubideen garapena da ardatza. Mugimendu eta eragile berriak sortu dira, eta, bai munduan bai tokian-tokian, beren es- kaerak entzunarazi nahi dituzte, eskubide horien jabetzat onar ditzaten. Hori egitean, agerian jar- tzen dute zer-nolako kontraesanak dauden idealen eta errealitatearen artean, eta zer-nolako kon- traesanak eta tentsioak dauden eskubideen adierazpenetan; gainera, eskubide horien edukia definitzeko asmoa dute, bai eta zabaltzekoa ere. Prozesu burutu gabe horretan, mugimendu femi- nistak oso zeregin garrantzitsua izan du giza eskubide guztiak berriro definitzeko, eta bide eman du hasierako adierazpenetan eta nazioarteko hitzarmenetan³⁴ aintzat hartu ez ziren emakume talde ja- kin batzuen eskaerak entzunarazteko eta haien bizi-baldintzak agerian jartzeko.

Nazioarteko komunitateak arazo horrekiko gero eta kontzientzia handiagoa hartu du, gizarte zi- bilaren presioari esker –taldeak, gizarte-mugimenduak eta erakundeak-, eta bi estrategia balia- tzen ditu, eskaera horiei erantzuteko.

³¹ Maquieira, Virginia (arg.) (2006).

³² Ibidem.

³³ Ruiz-Bravo, Patricia (1999).

³⁴ Maquieira, Virginia (arg.) (2006).

Batetik, nazioarteko tresna berriak landu dituzte, emakumeen giza eskubideak sustatzeko eta babesteko, bai eta sexu- eta ugaltze-eskubideak ere, bereziki LGBT taldearenak nabarmenduz. Kapitulu honetan, eskubide horien onarpenerako bidean izandako bilakaera eta gaur egungo egoera aztertu dira.

Bestetik, lehengo tresnak berrikusi dituzte, generoaren ikuspegitik; besteak beste, asilo-eskubidea. Argitalpen honetako III. kapituluan, arlo horretan egindako aurrerapenak azaldu dira.

2. Emakumeen giza eskubideak

Giza eskubideen nozioak berekin dakar unibertsaltasuna eta diskriminaziorik eza. Hori dela eta, sektore batzuek argudiatu dute *emakumeen giza eskubideak* terminoa erabiltzea erredundantea izan daitekeela. Nolanahi ere, egiazta daiteke eskubide horiek ikuspegi androzentriko batetik landu direla, eta gizonen esperientziei erantzuten dietela, baina ez emakumeen esperientziei. Hain zuzen ere, Garapenerako Nazio Batuen Programaren (UNDP) Txostenak (1995) azaltzen du gaur egun emakumeek ez dituztela gizonen aukera berak ezein gizartetan³⁵. *Emakumeen giza eskubideak* terminoa erabiltzearen aurka, emakume guztiek ez dituztela ezaugarri eta esperientzia berak argudiatu da askotan. Baina egia da guztiek pairatzen dutela diskriminazioa emakume izateagatik, neurri eta modu desberdinetan, testuinguruaren arabera.

Adibidez: eskubide politikoak aipatzean –zehazki, sufragio unibertsal-, gizadi osoak eskubide horiek balitu bezala hitz egiten da askotan. Baina txosten horretan azpimarratzen da XX. eta XXI. mendeetan hainbat herrialdeetako emakume askok oraindik ez dituztela lortu nazioarteko hitzarmenetan eta komunitate globalean gutxienez formalki onartutako eskubide horiek³⁶.

Saudi Arabia: 2005ean, herrialdeko lehen udal hauteskundeak izan ziren. Barne Arazoetako lehen ministro Nayef bin Abdel Aziz printzeak iragarri zuen, 2004ko urrian, emakumeei ez zitzaiela utziko hauteskundeetan parte hartzen. Hauteskunde Batzordeko zuzendari Mut'ab bin Abdul Aziz printzeak antzeko adierazpen bat egin zuen: "Espero dut etorkizunean emakumeek hauteskundeetan parte hartu ahal izango dutela, erabilgarria ote den edo ez ebaluatzeko azterlanak egin ostean³⁷".

Baina emakumei (Saudi Arabiako biztanleriaren erdia) hauteskundeetan parte hartzen ez zitzaiela utziko giza eskubideekin lotutako eragileek soilik jakinarazi eta hedatu zuten. Horri buruzko albisteetan, ez zen zalantzan jartzen hauteskunde horien legitimitatea.

2.1. Historiaren ikuspegia, emakumeen giza eskubideei erreparatuz

Emakumeen giza eskubideen onarpen-prozesuan gaur egungo egoera nolakoa den azaltzeko, beharrezkoa da prozesu horren bilakaeraren berrikuseta historikoa egitea.

Mugimendu Feministaren kezka nagusia izan da emakumeen aurkako indarkeria motak zein diren eta zenbaterainoko garrantzia eta ondorioak dituzten ulertzea, agerian jartzea eta salatzea.

³⁵ UNDP (1995).

³⁶ Folguera, Pilar (2006).

³⁷ Amnistia Internazionala (2004).

Borroka horren bidez, nazioartean zenbait tresna lantzea lortu da, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa dela eta emakumeen eskubideak giza eskubide unibertsalen parte bananezina eta besterenezina direla onartzeko³⁸. Edozein fenomeno pribatua da, erantzukizun publikoko auzitzat jotzen den arte.

Palestina: Gazako erreforma juridikoaren aldeko palestinar emakumeen mugimenduko abokatu eta aholkulari Saad Hamidek dioenez, arabiar munduko pertsona asko Islamaren testuinguruan emakumeen eskubideen esparruan aurrera egiteko moduak bilatzen ari dira. "Islamean arazoan % 90 konpontzeko irtenbideak daude, bilatu nahi dituenarentzat –dio-. Islamiar jurisprudentziaren zenbait eskola daudela frogatu nahi dugu³⁹."

Historiari erreparatuta, eskubideak lor daitezkeela eta gal daitezkeela ikus dezakegu. Nikki van der Gaag-en (2005) azterbideari jarraituz, giza eskubideak unibertsalak izatea lortzeko bidean izandako aurrerapenetako batzuk aipatuko ditugu, emakumeen egoerari ere erantzun beharra aintzat hartuta:

K.a. 900. Antzinako Sumerian (Irak), Egipton eta Japonian, emakume helduek jabetzak izan zitzaizketen, rol aktiboa zuten merkatuetan, eta klerikoak izan zitezkeen. Kolonaurreko Amerikako kultura batzuetan, antropologian *genero-paralelismoa* deritzona praktikatzan zuten: gizonen eta emakumeen zereginak, bai berdinak bai desberdinak, neurri berean balioesten ziren.

1776. Frantziako Iraultzan, emakume langileek ibilaldia egin zuten Versaillesera, janaria eskatzeko. 1791n, gertaera horrek bultzatuta, Olympe de Gougesek *Emakumearen eta Herritarra-
ren Eskubideen Adierazpena* argitaratu zuen. Baina emakumeen eskubideen alde egin zituen eskaerak baztertu egin zituzten, eta gillotinan hil zuten.

1792. Ingalaterran, Mary Wollstonecraft-ek familiaren ohiko autoritatea baztertu zuen, emakumeen hezkuntza sustatu zuen eta alaba bat izan zuen ezkontzatik kanpo. *Emakumeen eskubideen errebindikazioa* idatzi zuen; lan horrek geroagoko pentsamendu feminista bideratu zuen.

1848. Emakumeen eskubideen aldeko munduko lehen kongresua izan zen (emakumeek zein gizonen parte hartu zuten), Seneca Falls-en (New York); bertan, mugimenduaren oinarriak ezarri ziren.

1850eko hamarkada. Brasilen, emakumeen hiri-egunkariak, hala nola *O Jornal das Senhoras* egunkariak, ezkontza gaitzetsi zuten, "tiranía jasanezina" zela salatuz, eta emakumeek "beren eskubideak erabiltzea" merezi zutela adierazi zuten, hori baitzen "bidezkoa".

1880-1890. Japoniako emakumeen mugimendua sortu zen. Kishida Toshiko astebeterako espetxeratu zuten, emakumeen jomugak "mundua bera bezain zabalak eta askeak" izan zitezkeen aldarrikatu ostean. Gobernuak emakumeek politikan parte hartzea debekatu zuen.

1893. Zeelanda Berriak emakumeen boto-eskubidea onartu zuen; hura izan zen eskubide hori onartu zuen lehen herrialdea.

1923. Huda Sha'rawawi-k Egiptoko Batasun Feminista sortu zuen. Emakumeak abangoardian izan ziren Britainia Handiaren independentziaren aldeko borrokan.

³⁸ Montes, Laura (2007).

³⁹ Van der Gaag, Nikki (2005).

1911. Martxoaren 8a lan-baldintzak hobetzea eskatzeko grebak egin zituzten emakumeak omentzeko eguna izango zela ezarri zuten. Mexikon, Jovita eta Soledad Penak Liga Femenil Mexicanista eratu zuten.

1913. Hegoafrikan, emakumeen erakunde tradizionalak, hala nola Manyano-k, emakume po-breentzako aurrezki-erakunde gisa funtzionatzen zuten. Horrez gain, emakumeak apartheidaren aurkako borrokaren abangoardian izan ziren.

1920. Estatu Batuetan, afroamerikar emakumeak bildu ziren, "emakume zuriekin bat egirik emakume guztien erabateko emantzipazioaren aldeko borroka" nola bidera zitekeen aztertze-ko (Lugenia Burns Hope).

1947. Ghandik erabat gaitzetsi zuen gizonek emakumeen gain ezarritako menderakuntza, eta horren aurka egin zuen. Indiako lehen ministro Jawaharlal Nehruk gizonek emakumeen arteko hezkuntza- eta aukera-berdintasuna eskatu zuen. 1947ko Konstituzioan, bi sexuen esku-bide-berdintasuna jaso zen.

1948. Egipton, Doria Shafik-ek Niloko Batasunaren Alabak sortu zuen. 1951n, emakumeek Egiptoko parlamentua hartzeko ekintza antolatu zuen, eta 1953an, emakumeen alderdi politi-ko bat eratu zuen; baina gobernuak debekatu egin zuen.

1977. Argentinako emakumeek Madres de la Plaza de Mayo eratu zuten, Isabel Perón presi-dentea boteretik kendu zuen junta militar hiltzaileari aurre egiteko.

1975-2001. Mugimendu feministaren sorrera eta hazkundera. Emakumeen nazioarteko le-hen konferentzia izan zen Mexikon, Nazio Batuek Emakumeen Hamarkada aldarrikatu zu-ten, eta mundu osoan emakume taldeak eratu ziren: egunkari feministak sortu ziren, ikas-le- eta langile-erakundeak, eta lesbianen erakundeak. Kopenhageko (1980), Nairobiko (1985) eta Beijing-eko (1995) konferentziak izan ziren. Emakumeen eskubideak herrialde askotako legerietan jaso ziren.

2.2. Emakumeen giza eskubideen adierazpena eta onarpena

Azken 20 urteetan, emakumeen aurkako diskriminazioa amaiarazteko tresna juridikoak landu dira⁴⁰. Hitzarmen horien bidez, organo ikuskatzaile independenteak eratu dira; haiek arduratzen dira aplikazioaren jarraipena egiteaz, ezarritakoa betetzea sustatzeaz eta jarraibideak emateaz. Konferentzia bakoitzean landutako dokumentuak, hala nola Planak eta Ekintza Programak, lagungarriak dira nazioarteko arau berriak lantzeko, eta erreferentzia berriak eskaintzen dituzte nazio bakoitzean giza eskubideei buruzko legeria aplikatzeko. 1990eko hamarkadako konferen-tzietako Ekintza Programak lotesleak ez badira ere, tresna erabilgarri eta praktikoak eskaintzen dituzte nazioetako legeriak eta politika publikoak garatzeko⁴¹.

India: 1992an, emakumeen gobernu kanpoko erakunde batzuek (GKE) demanda bat aurkeztu zuten Indiako Auzitegi Gorenean, lankideek gizarte-laguntzaile bat bortxatu zutelako, denek artean, eta tokiko funtzionarioek uko egin ziotelako gertaera ikertzeari. Baina erakunde horiek Auzitegi Gorenean aurkeztutako arazoa hori baino zabalagoa zen: izan ere, Indian ez zegoen laneko sexu-jazarpena debekatzen zuen legerik. Indiako Konstituzioko xedapenetan babestuta, Emakumeen Konbentzioan eta bertan landutako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko 19.

⁴⁰ 1. eranskinean, nazioarteko zuzenbidean emakumeen giza eskubideetan egin diren aurrerapenen zerrenda bat dago.

⁴¹ Van der Gaag, Nikki (2005).

Gomendio Orokorrean, hau eskatu zioten Auzitegi Gorenari: egiteko lege-proiektu bat, parlamentuaren gelditasuna konpentsatzeko. 1997ko abuztuan, CEDAW⁴² berronetsi ostean eta 1995eko Beijing-eko Emakumeari buruzko Munduko Konferentzian hartutako konpromiso ofizialaren ondoren, Auzitegi Gorenak erabaki zuen Indiak emakumeen giza eskubideei buruzko nazioarteko irizpideak babesten zituela eta, irizpide horiei jarraituz, genero-berdintasunak be-ekin dakarrela sexu-jazarpenaren aurrean emakumeak babestea⁴³.

Hegoafrika: Apartheida amaitu ostean, emakume taldeen koalizio batek –intelektualak, politikariak eta sindikalistak– emakumeen eskubideen gutuna aurkeztu zuen. Horri esker, Hegoafrikako Konstituzioan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko zenbait xedapen daude jasota. Antisexismoa aipatzen da, antirrazismoarekin batera, estatuko balio nagusitzat⁴⁴.

1993an, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertzala aldarrikatu eta berrogeita bost urte geroago, eta Emakumeen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Deuseztatzeko Hitzarmena indarrean jarri eta hamabi urte geroago, Vienako Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzian, 171 herrialdek berretsi zuten emakumearen eskubideak giza eskubideak direla. 1994an, Nazio Batuek Emakumearen aurkako Indarkeria Deuseztatzeko Adierazpena onartu zuten. Horrek bide eman zuen 1994an Kairon izandako Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian eta 1995ean Beijing-en izandako Emakumeari buruzko Munduko Konferentzian genero-arrazoiengatik indarkeriari buruzko atal bat adosteko. Prozesu horrek agerian jartzen du giza eskubideei buruzko nazioarteko esparruak malgutasuna duela kultura-aldaketak aintzatesteko, gertatu ahala⁴⁵.

Emakumeen aurkako Diskriminazioa Deuseztatzeko Nazio Batuen Adierazpena (1967ko azaroaren 7ko 2263 (XXII) ebazpenaren bidez aldarrikatu zuen Batzar Nagusiak). Adierazpen horretan, eskaera hau egin zitzaion estatuei: hartzeko neurri egokiak, “emakumearen aurkako diskriminazioa dakarten legeak, ohiturak, arauak eta praktikak deuseztatzeko”.

Emakumeen aurkako Indarkeria Deuseztatzeko Nazio Batuen Adierazpena (1993ko abenduaren 20ko 48/104 ebazpenaren bidez aldarrikatu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak). Adierazpen horretan, jokabide-ildo batzuk proposatu ziren; ez ziren, zentzu hertsian, arau lotesleak, baina ezta garrantzirik gabeko politikak ere. Adostasun global garrantzitsua izan zen, eta adostutako kontzeptu-esparruak ezarri ziren. Emakumeak berdintasun egoeran giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak izateko eskubidea duela aintzatesi zen, politika-, ekonomia-, gizarte- eta kultura-esparruetan, esparru zibilean, eta beste edozein esparrutan. Adierazpen horretan baieztatu zen “emakumearen aurkako indarkeriak giza eskubideak eta oinarriko askatasunak urratzen dituela, eta emakumeak eskubide eta askatasun horiek erabiltzea oztopatzen duela, erabat edo neurri batean”. Horrez gain, adierazpen horretan onartu zen “emakumearen aurkako indarkeria emakumea gizonarekiko mendekotasun-egoeran egotera behartzeko gizarte-mekanismo nagusietako bat” dela.

Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa (1993ko ekainaren 25eko Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzian onartu ziren). Vienako Adierazpenean eta Ekintza Programan,

⁴² *Emakumeen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Deuseztatzeko Hitzarmenaren* ingelesezko siglak.

⁴³ Van der Gaag, Nikki (2005).

⁴⁴ *Ibidem*.

⁴⁵ Gago, Cándida (2006).

hau baieztatu zen lehen aldiz: "emakumeen eta emakumezko haurren giza eskubideak giza eskubide unibertsalen parte besterenezina eta bananezina direla". Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzian berretsi zen pertsona orok, inolako bereizketarik egin gabe, eskubidea duela, jazarpena pairatuz gero, beste herrialde batzuetan asiloa bilatzeko eta izateko, bai eta norberaren herrialdera itzultzeko eskubidea ere.

Konferentzia horretan adierazitakoa aurrerapausoa izan zen emakumeen giza eskubideak formalki aintzatesteko, hau aldarrikatu baitzuten: "genero-arrazoiengatiko indarkeria eta sexu-jazarpen eta -esplotazio mota guztiak, kultura-aurreiritzien ondorio direnak barne, bateraezinak dira pertsonaren duintasunarekin, eta halakoak deuseztatzen neurriak hartu behar dira, bai legeen bidez, bai nazio bakoitzeko zein nazioarteko ekintzen bidez".

Beijing-eko Adierazpena eta Ekintza Plataforma (Emakumei buruzko Nazio Batuen Munduko Laugarren Konferentzian onartu ziren, 1995eko irailean). Adierazpen horretan, emakumeen eskubideak giza eskubideak direla berronetsi zuten, estatuak emakumearen aurkako indarkeriazko ekintzen erantzukizuna duela ezarri zuten, eta emakumeen genitalen mutilazioa salatu zuten. Beijing-eko Adierazpenean eta Ekintza Platforman, jazarpena pairatzeko arriskua duten emakumei errefuxiatu-izaera onartzea adostu zuten estatuak.

Jazarpen horrek barnean hartzen du generoagatiko jazarpena. Gainera, premiazkoztat jo zuten "emakumeen eskubideak urratzen dituzten ohiko praktika tradizional zein moderno kaltegarriak debekatzea eta deuseztatzea. Gobernuak berehalak hartu behar dituzte neurriak emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei aurre egiteko eta amaiazteko, indarkeriazko ekintza horiek bizitza pribatuan zein publikoan gertatzen direnean, eta estatuak zein pertsona pribatuek eragindakoak edo toleratutakoak direnean".

3. Sexu-eskubideak eta ugaltze-eskubideak

3.1. Zer dira sexu- eta ugaltze-eskubideak?

Eskubide horien helburua da pertsona guztiei, gizon zein emakumei, gozatzeko eta erabakitze-ko gutxieneko ahalmena bermatzea, bai eta begirunea eta duintasuna ere, giza garapenaren oinarrizko bi alderditan: sexualitatea eta ugalketa. Eskubide horien aintzatespena zuzenean dago lotuta genero-berdintasunaren onarpenarekin eta emakumei ahalmena edo boterea eman beharrenekin. Historian zehar, emakumei mugak ezarri zaizkie etengabe eskubide horiek erabiltze-ko eta haien bidez gozatzeko. Hauek dira eskubide horiei dagozkien elementuak.

3.1.1. Sexu-eskubideak

Sexu-eskubideek sexualitatea askatasun osoz erabiltzeko eskubidea adierazten dute. Sexualitatea, 2006. urtean Munduko Osasun Erakundeak emandako definizioaren arabera, "gizakiaren funtsezko alderdia da, bizitza osoan. Barnean hartzen ditu sexua, identitatea eta genero-rolak, erotismoa, gozamena, intimitatea, ugalketa, eta joera afektibo-sexuala. Hainbat elementuren bidez esperimendatzen eta adierazten da: pentsamenduak, fantasiak, nahiak, sinesmenak, jarrerak, balioak, jokabideak, praktikak, rolak eta pertsona arteko harremanak. Sexualitateak barnean har ditzake dimentsio horiek guztiak. Nolanahi ere, ez dira beti dimentsio guztiak esperimendatzen edo adierazten. Sexualitatean, elkarreragileak diren hainbat faktorek dute eragina: biologia- eta psikologia-faktoreek, gizarte-, ekonomia-, politika- eta kultura-faktoreek, etika-, lege- eta historia-faktoreek, eta erlijio-faktoreek zein faktore espiritualek".

Tradizioz, sexu-eskubideak ugaltze-eskubideen barnekotzat jo izan dira. Bi eskubide mota horien artean lotura estua dagoen arren, pixkana bananduz joan dira, ugaltze-helbururik ez duten sexu-praktikak hedatu ahala. Gainera, zientziaren bidez, sexualitate-praktika eta ugalketa bereizi egin dira; batez ere, metodo antikonzeptiboen erabileragatik eta laguntza bidezko ugalketarengatik. Horrela, sexualitateak ugalketa ekar dezake edo ez, eta ugalketarako ez da nahitaezkoa aurretiko sexualitate-praktika.

3.1.2. Ugaltze-eskubideak

Kairoko *Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren* arabera, honetan datza ugaltze-eskubideen oinarria: banako zein bikote guztiei beren ugalketarekin lotutako alderdi guztietan askatasunez eta erantzukizunez erabakitzeke oinarritzko eskubidea onartzean. Horrek barnean hartzen du ugalketarekin lotutako erabakiak askatasunez hartzeko oinarritzko baldintzak eta informazioa eskuragarri izatea, eta erabaki horiek erabat gauzatzea. Horrez gain, estatuaren eta gizarte-eragileen erantzukizuna azpimarratzen dute, oinarritzko eskubide horiek ziurtatzeko.

3.2. Sexu- eta ugaltze-eskubideen adierazpena eta onarpena

Sexu-eskubideak eta ugaltze-eskubideak pixkana ari dira onartzen. 1970eko hamarkadara arte, ez ziren eskubide multzo horiek bilduta adierazi. Orduan, honela definitu zituen mugimendu feministak: "emakumeen eskubidea, beren gorputza kontrolatzeko, beren sexualitatea eta ugaltze-gaitasuna gizonezkoen inposizioerik, hertsatzerik edo indarkeriarik gabe egokituz; horrek berekin dakar gizonezkoek sexualitatea erabiltzean duten erantzukizuna beren gain hartzea" (Vázquez, Norma; eta Maoño, Cristina: 2000). Hala ere, eskubide horiek ez ziren nazioartean onartu 1994. urtean Kairon Biztanleriari eta Garapenari buruzko Konferentzia izan zen arte. Konferentzia horretako Ekintza Programan, eskubide horiek definitzeko gutxieneko alderdi batzuk ezarri ziren.

3.2.1. Joera afektibo-sexualarekin eta genero-identitatearekin lotutako sexu-eskubideen ikuspegia

Lesbianen jazarpenari buruzko ALDARTEn artikuluan⁴⁶, deskribatzen da sexu-eskubideen garapenean eta aintzatestean zer bilakaera izan den. 2. eranskinean, LGBT taldearen giza eskubideetan egindako lege-aurrerapenen zerrenda bat dago. Joera afektibo-sexualarekin eta genero-identitatearekin lotutako sexu-eskubideak formalki onartzeko prozesuan azken urteetan emandako urrats garrantzitsuenetako bat azpimarratuko dugu orain: *Sexu-joerarekin eta Genero-identitatearekin lotutako Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren Aplikazioari buruzko Yogyakarta Printzipioak*.

Testu horretan, oinarritzko erreferentzia-eredu batzuk ezarri ziren, Nazio Batuek nahiz estatuek LGBT taldeko pertsonen giza eskubideen babesa bermatzeko aurrerapenak egin ditzaten. 2006. urtean, 54 estatuk lesbianen, gayen, bisexualen eta pertsona transgeneroen giza eskubideen urraketa larriak salatu zituzten; egoera horri erantzuteko landu zuten aipatutako testua. Horrez gain, nazioarteko zenbait erakundek testu hori babestu zuten, hainbat ebazpen onartuta; esaterako, Europako Parlamentuak, Europako Kontseiluak eta Amerikako Estatuak Erakundeak.


⁴⁶ Ikusi IV. kapituluan.

Testu horren edukiari dagokionez, bi printzipio azpimarra daitezke:

Alde batetik, 4. printzipioa (bizitzeko eskubidea): pertsona orok bizitzeko eskubidea duela ezartzen du. Ezein pertsonari ezin izango zaio arbitrarioki bizitza kendu ezein arrazoiengatik; horrek barnean hartzen ditu sexu-joerarekin edo genero-identitatearekin lotutako arrazoiak. Horrez gain, estatuei eskatzen zaie geldiarazteko sexu-joerarekin edo genero-identitatearekin lotutako arrazoiengatik gertatzen diren estatuak babestutako edo toleratutako eraso guztiak, eta ziurtatzeko, halako erasoak gertatzen direnean, bai funtzionario publikoen eskutik, bai edozein banako edo talderen eskutik, gertaera horiek zorrotzasunez ikertuko direla eta, frogak aurkituz gero, erantzuleak jazarri eta epaituko direla eta dagokien zigorra ezarriko zaiela.

Bestetik, 5. printzipioa (norberaren segurtasunerako eskubidea): adierazten du pertsona orok duela, bere sexu-joera edo genero-identitatea zeinahi izanik ere, norberaren segurtasunerako eskubidea eta estatuaren babes izateko eskubidea, funtzionario publikoek edo edozein banako, talde edo erakundek eragindako norberaren osotasunaren aurkako indarkeriazko ekintzak edo erasoak pairatzen dituenean. Gainera, estatuei esku-hartze hauek egitea eskatzen zaie: a) polizia-neurriak eta beharrezko gainerako neurriak hartzea, sexu-joerarekin eta genero-identitatearekin lotutako arrazoiengatik gertatzen diren indarkeria eta jazarpen mota guztiei aurrea hartzeko, eta erasoak pairatzen dituztenak babesteko; b) beharrezko lege-neurriak hartzea, pertsona baten zein talde baten sexu-joerarekin edo genero-identitatearekin lotutako arrazoiengatik indarkeriazko ekintzak egiten dituztenei zigor penalak ezartzeko, bai eta indarkeria erabiltzearekin mehatxu egiten dutenei eta jazartzera edo indarkeria erabiltzera bultzatzen dutenei ere, bizitzako esparru guztietan, familia barne; c) lege- eta administrazio-neurriak eta beharrezko gainerako neurriak hartzea, biktimaren sexu-joera edo genero-identitatea ez dadin erabili indarkeria hori justifikatzeko edo zuzitzeko, edota halako ekintzei garrantzia kentzeko; d) halako indarkeriazko ekintzak zorrotzasunez ikertuko direla ziurtatzea, bai eta, frogak aurkituz gero, erantzuleak jazarri eta epaituko direla eta dagokien zigorra ezarriko zaiela ere, eta biktimari baliabideak eta ordainak emango zaizkiola, kalte-ordainak barne; eta e) sensibilizazio kanpainak abiatzea, bai publikoari oro har bai indarkeria erabiltzen dutenei edo erabil lezaketenei zuzenduta, sexu-joerarekin eta genero-identitatearekin lotutako arrazoiengatik indarkeriaren atzean dauden aurreiritziak gainditzeko.

Azkenik, *LGBTI Taldeko Pertsonen Eskubideak Babesteko Nazio Batuen Adierazpena* 2008ko abenduaren 18an aurkeztu zen NBEren Batzar Nagusian, eta kontinente guztietako 66 herrialdek babestu zuten. Adierazpen horretan, besteak beste, Ez Diskriminatzeko Printzipioa gizaki guztiei aplikatu beharrekoa dela berronetsi zen, bakoitzaren joera afektibo-sexuala edo genero-identitatea zeinahi izanik ere; gainera, LGBT taldeko pertsonen giza eskubideen urraketak salatu ziren, eta sexu bereko pertsona helduen arteko adostutako harremanak despenalizatzeko eskatu zitzaien estatu guztiei.



III. Asilo-eskubidea, genero-ikuspegitik

1. Asilo-eskubidea

II. Mundu Gerraren ostean, jatorrizko herrialdetik ihes egin behar izan zuten pertsonen egoera nazioarteko komunitatearen erantzukizuna zela onartu zen lehenengoz. Orduan izan zen, Nazio Batuek sustatuta, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmena⁴⁷ (1951); bertan, pertsona errefuxiatua zer den definitu zuten:

Errefuxiatutzat jotzen da bere arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarpena pairatzeko beldur izateko arrazoiak dituen pertsona oro, bere nazionalitateari dagokion herrialdetik kanpo dagoena, eta beldur hori dela-eta herrialde horren babesak izan ez dezakeena edo izan nahi ez duena.

Hitzarmen hori eta New Yorkeko 1967ko Protokoloa⁴⁸ sinatu zuten herrialdeek betebeharra dute beren lurraldera asilo eske iristen diren pertsonak artatzeko eta babesteko.

Historian zehar, ordea, pertsona errefuxiatuak babesteko konpromisoa hartu zuten estatuek egindako asilo-eskaeren interpretazioan, ez dira aintzatetsi genero-arrazoiengatik jazarpena pairatzen duten pertsonen giza eskubideen urraketak; egoera horretan dauden pertsona gehienak emakumeak dira. Hori dela eta, esan daiteke emakume askok pairatzen duten babesik eza 1951ko Ginebrako Hitzarmena modu murriztailean interpretatu izanaren ondorio dela. Jazarpen hori bai gizonek bai emakumeek pairatzen dute, baina batez ere emakumeen aurkako jazarpena izan ohi da, bizi duten diskriminazio-egoera dela eta.

2. Asilo-eskubidea, genero-ikuspegitik

Argitalpen honetako I. kapituluari, genero-arrazoiengatik jazarpenaren kausak deskribatu dira. Kausa nagusia patriarkatua da. Sistema horrek eragina du giza gorputza kontzeptualizatzeko moduan, generoa eraikitzeke moduan eta gure sexu-esperientziak adierazteke moduan. Beraz, esan daiteke gizarteko sektore batzuen menderakuntzan eta ikusezintasunean oinarritutako gizarte- eta kultura-sistema horren izenean, oraindik ere pertsonaren oinarritzko eskubideen aurka egiten duen egoera legitimatzen dela. Izan ere, eskubideak ez dira erlatiboak, eta ez lukete egon behar gizakiak eskura duen aukera-aniztasuna kontuan hartu gabe eraikitako testuinguru baten mende.

Historian zehar nazioarteko legerian asilo-eskubidea jasotzean genero-ikuspegia aintzatetsi ez izanak eragin du estatu askok defendatu duten pertsona errefuxiatuaren definizioa zehaztean ez direla genero-arrazoiengatik ezein jazarpen mota pairatzen duten pertsonak modu esplizituan babesten, ezta LGBT taldeko pertsonak ere; batzuetan, legerian modu esplizituan aipatzen ez delako, eta beste batzuetan, legerian jasota egonda ere, aplikatzen diren politikak ez datoze-lako bat lege-testuekin.

Nazioarteko testuinguruan, Hitzarmen horretan jasotako jazarpenaren arrazoiak interpretatzean -arrazoia, erlijioa, naziotasuna, gizarte-talde jakin batekoa izatea eta iritzi politikoak- genero-ikuspegia kontuan hartu eta txertatu behar dela adieraztean, estatuek ez adituarena egiten dute.

⁴⁷ Aurrerantzean, 1951ko Genevako Hitzarmena.

⁴⁸ *Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloa*: New Yorken egin zen 1967an, eta 1951ko Genevako Hitzarmenaren osagarria da. Protokolo horren bidez, pertsona errefuxiatuaren definizioa unibertsal bihurtu zen. Hitzarmenean jasotako denbora- eta geografia-murrizketak ezabatu baitziren.

Gaur egun, interpretazio-aukerak mugagabeak dira erabat, eta interpretazio horiek ez dute aintzatesten auzi horretan dagoen sakoneko arazoa. Gabezia horren ondorioz, ezinezkoa gertatzen da mundu osoan eragiten diren jazarpen mota asko hautematea, bai eta emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten jazarpena eta lesbianek, gayek, bisexualek eta transexualek nagusi den sexualitatea ez bezalakoa bizitzeagatik pairatzen dutena aintzatestea ere. Halako pertsonen beren herrialdeak utzi behar izaten dituzte, hainbat arrazoiengatik: besteak beste, familia barneko indarkeria, sexu-esplotazioa, genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta joera afektibo-sexuala; baina ez dute beren oinarrizko eskubideak babesteko inolako bermerik.

3. Asilo-eskubidean genero-ikuspegia aintzatesteko egindako aurrerapenak

Emakumeen eta LGTB taldearen giza eskubideen gaia, pixkana, hainbat eztabaidagunetan aztertuz joan da, eta horrela, erabaki berriak hartu dira, bai nazioz gaindiko esparruan, bai nazioartean (argitalpen honetako II. kapituluari, eduki horiek landu dira). Asilo-eskubideari dagokionez, aurrerapen txiki batzuk egin dira, espazio global espezifikoak sortu baitira horretarako; esaterako, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa (ACNUR)⁴⁹. 2002ko maiatzean, Genero Arrazoiengatiko Jazarpenari buruzko Artezpideak⁵⁰ argitaratu zituen ACNURek. Artezpide horien helburua da interpretaziorako lege-gida izatea, bai gobernuentzat, bai eskubide hori erabiltzen dutenentzat, bai erabakiak hartzen dituztenentzat eta epaileentzat, bai tokian-tokian errefuxia-izaera zehazteaz arduratzen diren ACNUReko kideentzat.

Pertsona errefuxiatuaren definizioan genero-dimentsioari buruzko zuzeneko erreferentziarik ez badago ere, oro har onartzen da generoak eragina izan dezakeela jazarpen edo kalte motan, edo baldintzatu egin dezakeela, bai eta tratu horren arrazoiak ere. Beraz, pertsona errefuxiatuaren definizioak, behar bezala interpretatuta, barnean hartzen ditu genero-arrazoiengatiko eskaerak. Horrenbestez, ez da beharrezkoa 1951ko Hitzarmenean jasotako definizioan arrazoi horiek txertatzea.

Genero-indarkeriarekin lotutako asilo-eskaeren atzean, alderdi hauekin lotutako jazarpena egon daiteke: arraza, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-talde jakin batekoa izatea edo iritzi politikoa.

Herrialde batzuk, hala nola Kanada, Suedia eta Australia, aitzindariak izan dira asilo-eskaeren interpretazioan genero-ikuspegi eraginkorra aintzatesten. Herrialde horietan hainbat arlotan garatutako politikak aurrerapen handia izan dira eskubide horien lorpenerako bidean. Kanadak Genero Arrazoiengatiko Jazarpena Pairatzeko Beldur diren Emakume Errefuxiatuen Eskaeren Gida aldarrikatu zuen lehen herrialdea izan zen. Jarraibide horiek 1996an eguneratu ziren, eta gaur egun nazioarteko gida dira; beste herrialde batzuek bere egin dituzte, eta barne-legerietan jaso dituzte.

Nazioartean, badira beste jarraibide batzuk ere; esate baterako, Europako Jarraibideak. Jarraibide horietan ez da genero-arrazoiengatiko jazarpena modu esplizituan aintzatesten, baina azpimarratzen da beharrezkoa dela kontuan hartzea asilo-eskatzailea emakumezkoa edo gizonezkoa den, erantzun egokia emateko.

⁴⁹ 1. eranskinean, xehetasunez azaldu dira helburu horretarako sortutako tresnak.

⁵⁰ *Nazioarteko Babesari buruzko Artezpideak: genero-arrazoiengatiko jazarpena, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Hitzarmenaren 1A(2) artikulua edo/eta haren 1967ko Protokoloaren testuinguruan.*

4. Kontzeptuak, genero-ikuspegitik

4.1. Jazarpena

Asiloaren nazioarteko babesaren ikuspegitik, honela defini daiteke jazarpena: arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoenagatik pertsona baten giza eskubideak urratzea, modu larrian, sistematikoan edo jarraituan.

Definizio hori oinarri hartuta, esan daiteke diskriminaziozko jokabideak eta tratuak bat datozela jazarpenarekin, eta haren baliokideak izan daitezkeela; beraz, halako egoeretan, beharrezkoa da nazioarteko babesa.

4.2. Genero-arrazoiengatiko jazarpena

Genero-arrazoiengatiko jazarpena, asilo-eskubidearen esparruan, honela azal daiteke: pertsona edo talde bati esleitutako genero-ezaugarriak direla-eta eragiten diren giza eskubideen urraketa larriak, sistematikoak edo jarraituak. Eta hori zuzenean dago lotuta gizarte-erakuntzarekin. Izan ere, genero-arrazoiengatiko jazarpena dago oinarritzko eskubideen urraketek zerikusia dutenean pertsona bati sexu jakin batekoa izateagatik, joera afektibo-sexualagatik edo genero-identitateagatik esleitzen zaion rolaekin. Azpimarratu dugunez, jazarpen hori batez ere emakumeen aurkakoa izan ohi da, desberdintasun-egoera dela eta; nolana ere, gizonezkoen ere eragiten die.

Bestalde, sexua dela-eta eragiten diren jazarpen motak eta ezartzen diren zigorrak ere kontuan hartu beharrekoak dira. Izan ere, askotan, emakumeak jazartzeko erabiltzen diren mekanismoak gizonak jazartzeko erabiltzen direnak ez bezalakoak dira; hau da, ezarritako zigor mota pertsonaren sexuaren araberkoa da. Oro har, emakumeak jazartzeko sexu-indarkeriazko ekintzak egin ohi dira, hala nola bortxaketa (adibidez, sexu-indarkeria gerrarako armatzat).

Horrez gain, kultura askotan, emakumeak beste arrazoi batzuenagatik ere jazartzen dira: hain zuzen, familiako edo komunitateko gizonezkoen iritzi politiko, erlijio, gizarte-talde, arraza edo nazionalitate bera esleitzen zaielako. Emakumezkoak horretan kidekoak direla uste izaten da.

Emakumeen aurkako indarkeriaren berezitasuna da batez ere familiako esparruan eta eremu pribatuan gertatzen dela. Horrek ikusezin bihurtzen du indarkeria hori, zailagoa da hautematea eta, beraz, errazagoa da zigorrik gabe geratzea, ez baita erraza halako jazarpenak lekukoan eta frogen bidez frogatzea. Indarkeria horren bidez emakumeak ezartzen zaizkion zigorrak askotarikoak dira: besteak beste, jipoiak, ahaideek eragindako erasoak eta bortxaketak, etxeko itxialdiak eta behartutako ezkontzak.

Estatuek, praktikan, 1951ko Genevako Hitzarmenaren interpretazio murriztailea egiten dute. Estatu gehienetan, Espainia barne, jazarpena edo jazarpen-arriskua dagoela onartzeko, ez da nahikoa jakitea herrialde jakin batean biztanleriaren sektore jakin baten giza eskubideen urraketa larriak eta jarraituak gertatzen direla. Aitzitik, beharrezkoa da asiloa eskatzen duen pertsonak jazarpena pairatu duela edo pairatzearen beldur izateko arrazoiak dituela frogatzea. Baina Hitzarmenean ez dago jasota murriztapen hori.

4.3. Jazarpenaren eragileak

Jazarpenaren eragileak estatuko egituretako kideak izan daitezke edo ez. *Estatuz kanpoko eragileak* kontzeptuak estatuaren eremutik, organoetatik eta eragileetatik kanpo jarduten duten per-

tsanak eta erakundeak adierazten ditu. Estatuak erantzukizuna du bai bizitza publikoan bai pribatuan, eta eragile pribatuek bizitza publikoan zein pribatuan jarduten dute, betiere estatuaren erantzukizunaren esparruan. Amnistia Internazionala erakundearen *Emakumearen giza eskubideak errespetatu, babestu, aintzatetsi...* txostenaren arabera, estatua erantzule da kasu hauetan: estatuaren eskumena den ekintza bat egiteko ardura beste pertsona edo erakunde baten esku uzten duenean, gehiegikerietan nolabait parte hartu duenean edo beste pertsona batzuei horretan lagundu dienean, ez duenean ordain eraginkorrik eskaintzen, etab.

Historian zehar, estatuko eragileek eragindako jazarpena aintzatetsi izan dute gobernuak; ez ordea, estatuaren axolagabekeria edo erantzuteko gaitasunik eza baliatuta eragiten dena; eta genero-arrazoiengatikoz jazarpen mota gehienak hala gertatzen dira. Zer da jazarpena eragitea? Burutzea, sustatzea, toleratzea edo amaiarazteko ez esku hartzea? Jazarpenaren eragilea estatukoa ez denean, bi adarretan banatutako azterbidea⁵¹ aplikatu behar da; haren bidez, lotura ezartzen da, baldin eta: Estatuz kanpoko eragileak jazarpena Hitzarmenean aurreikusitako arazoietako batengatik eragin badu; edo estatuak jazarpen hori toleratzen edo sustatzen badu, edota ez badu gaitasunik kaltetutako pertsona babesteko.

ACNURek azterbide hori gomendatu du, eta hainbat herrialdetako agintariek onartu dute; esate baterako, Erresuma Batuko Lorden Ganberak, Australiako Auzitegi Gorenak eta Zeelanda Berriko Errefuxiatu Estatutuaren Apelaziorako Agintaritzak. Asiloari buruzko Espainiako legeria berriak ere aintzatesten du.

4.4. Jazarpenaren arrazioak

Asilo-eskaera bat aztertzean eta hari buruzko erabakiak hartzean, garrantzitsua da ziurtatzea 1951ko Genevako Hitzarmenean jasotako arrazoi guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta interpretatuko direla. Horrez gain, garrantzitsua da jabetzea genero-arrazoiengatikoz jazarpenagatik egiten diren eskaeretan, jazarpena pairatzeko beldurra Hitzarmeneko arrazoi batek edo gehiagok eragindakoa izan daitekeela; esate baterako, gizarte- edo erlijio-arauen urratzean oinarritutako asilo-eskaeren azterketan, erlijioarekin, iritzi politikoarekin edo gizarte-talde jakin batekoa izatearekin lotutako arrazioak har litezke kontuan. Orain, 1951ko Genevako Hitzarmenean jasotako bost arrazioak azalduko ditugu, genero-ikuspegitik; interpretazio hauek aipatutako ACNURen Artezpideetan oinarritzen dira:

Gizarte-talde jakin bateko kide izatea

Emakumeek gizarte-talde jakin bat osatzen dute; talde horrek ezaugarri bereziak ditu, gainerako taldeenak ez bezalakoak. Talde hori definitzen duen ezaugarria, sexua, jaiotzetikoa eta aldagaitza da, eta funtsezkoa da identitaterako, kontzientziarako eta norberaren giza eskubideak erabiltzeko. Ezaugarri hori dute berdina emakume guztiek, jazarpena pairatzeaz gain. Gainera, emakumeak talde gisa hautematen ditu gizarteak, edota gizarteko azpitalde gisa; eta herrialde batzuetan, desberdintasunezko tratuen eta arauen mende jartzen ditu. Definizio horrek barnean hartzen ditu lesbianak, gayak, bisexualak eta transexualak ere. Bestalde, azpimarratu beharra dago asilo-eskubidearen esparruan garrantzitsua dena dela ea jazarpenaren eragileak pertsona jakin bat talde jakin bateko kideztat identifikatzen duen, eta ez pertsona horrek bere burua talde horretako kideztat duen.

⁵¹ Musalo, Karen (2005).

Oro har, esan daiteke genero-arrazoiengatiko eskaerak arrazoi horrekin lotuta aztertu direla; horregatik, oso garrantzitsua da hori ulertzea. Nolanahi ere, arrazoi horri emandako interpretazioak ezin die garrantzia kendu Hitzarmenean jasotako gainerako arrazoiei.

Iritzi politikoa

Arrazoi hori aintzatesteko, beharrezkoa da eskatzaileak jazarpena pairatzeko beldur izateko arrazoiak izatea, iritzi politiko jakin bat duelako (eskuarki, bere herrialdeko gobernuarena edo gizarteko sektore jakin batena ez bezalakoa izan ohi da), edota iritzi horretakoa izatea egotzi zaiolako. *Iritzi politiko* kontzeptuak barnean hartzen ditu generoen araberako funtzioei buruzko iritzia eta emakumeen zein LGBT taldearen giza eskubideen errebindikazioari eta babesari buruzkoa. Iritzi politikoengatiko eskaerak aintzatestean, kontuan hartzen da eskatzaileak agintariek edo gizarteak toleratzen ez dituen iritziak dituela, edo iritzi horiek izatea egotzen zaiola, eta ikuspegi kritikoa duela haien politika, ohitura eta metodoekiko.

Ez da beti beharrezkoa iritzi hori adierazi izana, ezta lehenago diskriminazio edo jazarpen motaren bat pairatu izana ere. Halakoetan, hau izango litzateke jazarpenaren beldur izateko frogaren oinarria: pertsona horrek bere herrialdera itzuliz gero pairatuko lituzkeen ondorioen ebaluazioa.

Bestalde, azpimarratu beharra dago emakumeei, askotan, beren familien edo familiako kide maskulinoen iritzi politikoak egotzen zaizkiela, eta jazarpena pairatzen dutela horregatik. Halako kasuak ere gizarte-talde jakin bateko kide izatearekin lotutako arrazoiengatiko jazarpen gisa interpretatu daitezke: *familia* izango litzateke talde hori.

Halako eskaeretan garrantzitsua da onartzea, halaber, emakumeak uko egin diezaiokeela jarduera jakin batzuetan parte hartzeari; adibidez, gobernuko soldaduei elikagaiak eramateari. Halako jokabideak aurkako iritzi politikotzat jo ditzake jazarpenaren eragileak.

Erljioa


Erljioak, oraindik ere, funtzio eta jokabide-eredu jakin batzuk esleitzen dizkie gizonezkoei, eta beste batzuk, emakumezkoei. Emakume batek ez badu esleitu zaion funtzioa betetzen, edo obeditzeari uko egiten badio, zigortu egiten dute. Halakoetan, erlijio-arrazoiengatiko jazarpena pairatzeko beldur izateko arrazoiak izan ditzake. Erljio-doktrinek emakumeei jokabide mota jakin bat izatea eskatzen dietenean, aurkako jokabidea izatea iritzi politiko onartezin bat izatearen adierazletzat interpreta daitezke. Gizarte batzuetan, ez dago banaketa argirik erlijioaren eta estatuaren erakundearen artean, legeen eta dogmen artean; gizarte horietan, bereziki nabarmena da halako interpretazioak egiten direla.

Arraza

Arrazagatiko jazarpena hainbat modutan adieraz daitezke, biktima gizona izan edo emakumea izan. Adibidez: jazarpenaren eragileak, talde etniko baten identitatea edo/eta oparotasuna suntsitzeko, gizonezkoak hiltzea, mutilatzea edo espetxeratzea erabaki dezake; emakumeak, berriz, etnia edo arraza horren identitatea hedatzeko arduraduntzat jo ditzake, eta beste era batean jazarri: sexu-indarkeriaren bidez edo ugalketaren kontrolaren bidez.

Nazionalitatea

Nazionalitate-arrazoiengatiko jazarpena, arrazagatiko bezala, gizonen zein emakumeen pairatzen dute. Baina, askotan, jazarpen mota espezifiko bat baliatzen da genero bakoitzarentzat; eskuarki, emakumeen eta emakumezko haurren aurkako sexu-indarkeria.



IV. Genero-arrazoiengatiko jazarpen motak edo generoagatiko zapalketaren inbentarioa

Argitalpenaren III. kapituluaren genero-arrazoiengatiko jazarpenaren definizioa jasotzen da. Esan dugun bezala, hauek dira jazarpen horren ezaugarri nagusiak: generoan oinarritutako jazarpen bat izatea, eta zigorrak jazarria gizona edo emakumea den kontuan hartuta ematea. Baina, nola gauzatzen da jazarpen hori? Kapitulu honetan, genero-arrazoiengatiko jazarpenean sakonduko da, hauen bidez:

- Genero-arrazoiengatiko jazarpen moten tipologia, munduko eskualdeetako jazarpenen adibideak emanaz. Tipologia ACNURek 2002an bere Azterpideetan egin zuen proposamenean oinarritzen da eta hedatu egin dugu, erakunde horrek orduan jaso ez zituen jazarpen-mota batzuk gehituz.
- Emakumeen eta LGBT taldeen giza eskubideak defendatzen eta sustatzen dituzten erakundeek eta taldeek idatzitako genero-arrazoiengatiko jazarpen (GAJ) motei buruzko artikulua.
 - *Emakumeen aurkako indarkeria Guatemalan*. Red de No Violencia contra las Mujeres de Guatemala sarea (REDNOVI).
 - *Genero-arrazoiengatik jazartzea: Afganistan*. Mònica Bernabé, l'Associació per als Drets Humans a l'Afganistán (ASDHA), Forum Feminista María de Maeztu eta Afgan Women's Network erakundearekin lankidetzan.
 - *Emakumeen genitalen mutilazioa: asiloa, nortasuna eta giza eskubideak*. Adriana Kaplan eta María Helena Bedoya, Grupo interdisciplinar para el estudio y prevención de las prácticas tradicionales Perjudiciales (Universitat Autònoma de Barcelona).
 - *Lesbianak: sexu-orientazioagatik jazarritako emakumeentzat asilo-eskubidea*. ALDARTE, gay, lesbiana eta transexualen arreta zentroa eta sexu-askatasunei buruzko ikerketa- eta dokumentazio-zentrua.
 - *Transexualen jazarpena: Sararen historia*. Raquel Celis, Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordea (CEAR-Euskadi).
 - *Pertsonak sexu- eta lan-esplotaziorako salerostea*. Proyecto Esperanza, salerostearen biktima diren emakumeei babes integrala emateko elkarteak.
- Jazarpen mota horiei buruzko hausnarketak eta jazarpenak asilo-eskubidearekin zer lotura duten.

1. Genero-arrazoiengatiko jazarpen moten tipologia

Genero-arrazoiengatiko jazarpen modu hauek daude, besteak beste:

Misoginia: emakumeen aurkako eta femeninoarekiko gorroto-krimenak.

Guatemala: 2008an, 730 emakume-hilketa erregistratu ziren Erdialdeko Amerikako herrialde honetan. Guatemalako Auzitegi Institutuaren kalkuluen arabera, erregistratu gabeko emakumeen hilketak ere badaude, kopuru horren %20-30. 2007an, bi emakume hil zituzten egunean, batez bestean. 2005etik 2007ra, 960 hilketatik 43 kondena baino ez dira izan. Botere Judizialak kasuen %2 baino ez ditu ebazten. Misoginia da emakume-hilketa izeneko fenomenoaren egi-turazko kausetako bat.

Gizarte eskubideen aurkako gizarte-arauetan eta praktiketan jatorria duten jazarpen-legeak

Afganistan: 2009ko apirilaren bukaeran, Afganistango presidentek, Hamid Karzai-k, Justizia Ministerioari agindu zion bi hilabete lehenago sinatu zuen Estatus Pertsonal Xitaren Legea berrikusteko. Lege hori komunitate musulman xitari aplikatzen zaio –biztanleriaren %15 inguru, eta emakumeak senarren sexu-grinak asetzera derrigortzen ditu. Kritiko batzuen arabera, lege hori ezkontza barruko bortxaketak arrazoitzeko erabil daiteke⁵².

Emakume batek legea edo politika betetzen ez dutenean emandako zigorrak, zehapen edo zigorraldiak, torturaren, tratu jasangaitzaren edo umiliagarriaren parekoak dira

Iran: 2003an, gertuko senideek 20 urte baino gutxiagoko 45 emakume hil zituzten, "ohore-arrazoien hilketak" delakoetan, Khuzestan probintzian, bi hilabeteko epean⁵³.

Peru, Bangladesh, Argentina, Ekuador, Egipto, Guatemala, Iran, Israel, Jordania, Siria, Libano, Turbia, Zisjordania eta *Venezuela:* herrialde horietan, Zigor Kodean ageri da leuntzeko «ohore-kontua» esaten zaionean oinarritutako defentsa (A, NBE, 2002).

Froga daitezkeen helburuak dituzten legeak, politikak edo praktikak, baina horiek guztiak implementatzeko metodoek oso ondorio kaltegarriak dituzte

Mexiko: José Luís Soberanes Fernándezek, herriaren defentsariak, Vicente Foxen gobernuari leporatu zion indigenak kontrazepzio-metodoak erabiltzera behartzen zituela, pobrezia aurkako laguntzak kentzeko mehatxupean, hala nola Programa de Educación, Salud y Alimentación (Progres) programa. Halaber, NBEk kargu hartu zion Vicente Foxen gobernuari, 2002ko abuztuan emakume indigenei egindako antzutzeei buruz⁵⁴.

Jazarpen-praktikak, debekatuta egon arren, estatuak onartu eta barkatzen dituenak, edo eraginkortasunez geldiarazi ezin dituenak

135 milioi neskato eta emakume baino gehiagori moztu dizkiete genitalak eta beste bi milioi praktika hori pairatzeko arriskuan daude urtero (eguneko 6.000) (A, NBE, 2002)⁵⁵.

Emakumeen askatasuna edo osotasun fisikoa eta psikikoa larriki murrizten duten gizarte-arauak urratetik eratorritako egoerak

Pakistan: Urtero, ehunka emakume ohorearen izenean egindako hilketen biktima dira. Tirokatuta, erreta edo aizkorakadaka hiltzeko arriskuan daude, norbaitek pentsatzen badu familia lotsatu dutela: beraiek hautatutako gizonarekin ezkontzeko erabakia hartzeagatik, dibortzioa nahi izateagatik, bortxatuak izateagatik, etab.⁵⁶

⁵² Ecodiario (2009).

⁵³ Amnistia Internazionale (2004b).

⁵⁴ Magally, Ilvia eta RUIZ, Miriam (2002).

⁵⁵ Amnistia Internazionale (2004b).

⁵⁶ Amnistia Internazionale (1999).

Familia barruko tratu txarrak

Familia barruko tratu txarrak dira 16 eta 44 urte arteko emakumeen heriotzaren eta desgaitasunaren kausa nagusia⁵⁷.

Hiltzen dituzten emakumeen %70 ezkontidearen edo bikotearen eskuetan hiltzen dira (A, MOE, 2002)⁵⁸.

Pertsonak behartutako prostituziorako edo sexu-esplotaziorako salerostea

Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) arabera, pertsonen salerosketak 2.500.000 pertsonari eragiten die mundu osoan, batez ere emakumeei eta neskatoei.

Espainiako Estatuak: Nazio Batuen Erakundearen (NBE) ustez, pertsonen salerosketaren helmuga-herrialde nagusietako bat da, batez ere emakumeen sexu-esplotaziorako salerosketarena (baina, iraganbide-herrialdea era bada). Biktima gehienak Brasil, Bulgaria, Kolonbia, Ekuador, Nigeria, Ukraina, Errusia eta Errumaniatik datoz⁵⁹.

Joera afektibo-sexualak eta genero-identitateak eragindako jazarpena

2009ko maiatzeko datuen arabera⁶⁰, munduko 80 herrialdek homosexualitatea legez kontratztat jotzen dute:

Iran, Mauritania, Saudi Arabia Sudan eta Yemenen, eta Nigeria eta Somaliako eskualde batzuetan: heriotza-zigorra ezar dezakete ekintza homosexualengatik.

Iranen, harreman homosexual mota guztiak zigortzen dira; hau da, sexu bereko pertsonen arteko –gizon zein emakume- edozein motatako sexu-ukipenak, musu ematea barne, familia bereko kideak ez badira.

Antigua eta Barbuda, Barbados, Bhutan, Dubai eta Abu Dhabi, Cook uharteak, Salomon uharteak, Jamaika, Liberia, Namibia, Nigeria, Sierra Leona, Trinidad eta Tobago, Tunisia eta Zimbabwe: sodomia espetxe-zigorraz zigortzen da. Kode batzuetan zehazten da zigor hori bai gizonekin bai emakumeekin praktikatzen denean ezartzen dela; eta askotan, atal berean animaliekin praktikatutako harremanak eta "bestialismoa" aipatzen dira. 15 urteko espetxe-zigorrek edota bizi artekoak ezar daitezke horregatik.

Emakumeen kontrako tratua eragin dezaketen diskriminazio-ereduak, ondorio oso kaltegarriak izan ditzaketenak

Gutxienez 60 milioi neskatok "falta" dira, eta aurreikusita zegoen zenbait herrialdetan bizirik egongo zirela. Sexuaren araberako hautazko abortuaren ondorioz gertatu da, edo okerrago zaintzen dituztelako, mutikoak baino gutxiago hartzen baitituzte.

Afganistan: UNICEF-en arabera, Afganistango emakumeen %57 16 urte bete baino lehen ezkonarazten dute, nahiz 2003an onartutako Konstituzioak ezarri emakumeek ezkondu ahal izateko gutxienez 16 urte izan behar dituztela. 2004an, Afganistango Giza Eskubideen Batzorde Independentek (AIHRC, ingelesezko siglak) salatu zuen erakundeak egindako azterketa batean emakumeen %38k adierazi zuela borondatez kontra ezkondu zutela.

⁵⁷ Amnistia Internazionala (2004b).

⁵⁸ Amnistia Internazionala (2004b).

⁵⁹ CEAR (2009a).

⁶⁰ Ottosson, Daniel (2009).

Sexu-indarkeria

- a) Gatazka-egoeran: Lehen Mundu Gerran biktima zibilak guztizko heriotzen %15 izan ziren; Bigarren Mundu Gerran, %50. 1990eko hamarkadako gerretan, %80 baino gehiago izan ziren, gehienak emakumeak eta neska-mutilak. Horrez gainera, gerretan, emakumeek gehien jasaten duten eraso bortxaketa da, eta gerretan izaten dira bortxaketa gehienak⁶¹, adibidez, familia barruko tratu txarretan izugarri areagotzen dira⁶¹.

Ruanda, beste genozidioa: NBERen arabera, 1994an 250.000-500.000 emakume bortxatu zituzten Ruandako genozidioan⁶².

Kongoko Errepublika: Iturin, bortxatutako 7.482 emakume artatu zituzten Mugarik Gabeko Medikuen osasun-zentroetan 2003etik 2007ra. Biktimek adierazi zuten beren ohiko jarduerak egiten ari ziren bitartean eraso zituztela, ofentsiba militarretan eta behartutako lekualdatzeetan. Ipar Kivun eta Hego Kivun, herrialdearen ekialdean, Mugarik Gabeko Medikuen taldeek sexu-indarkeriaren 6.700 biktima artatu zituzten 2008an⁶³.

Kosovo: 1999an, emakume albaniar-kosovarrek salatu zuten senarrek beraiei egozten zieten egoera politikarekiko sentitzen zuten haserrea. Berez, tratu txarren salaketak nabarmen handitu ziren telebista-audientzia handieneko orduetan, albistegiek serbiar armadaren aurrerapean berri ematen zutenean.

- b) Gerrarako arma gisa: egunetik egunera, gero eta gehiago aitortzen da genero-indarkeria areagotu egiten dela gatazka armatuetan. Gerretan, bortxaketa masiboak "gerrarako arma"⁶⁴ gisa erabiltzen dira. Garbiketa etnikoekin lotutako gerretan, talde aurkariaren emakumeak bortxatzea gerrarako tresna bihurtu da, eta planifikatu eta gauzatu egiten da, helburu estrategikoak lortzeko⁶⁵. Bortxaketa komunitate baten identitatearen aurkako arma gisa erabiltzen da, batez ere araztasun etnikoa edo erlijiosoa arriskuan daudenean, emakumeak laiotuz gizonak kaltetu eta adoregabatu baitaitezke. Beraz, denen aurkako eraso bat da, baina emakumeek nozitzen dute fisikoki, eta lotsa eta gizarte-ostrazioa pairatzen dute⁶⁶:

Bosnia-Herzegovina eta Kroazia: 30.000 emakume baino gehiago bortxatu zituzten Bosnian liskar etnikoetan. 1992an, Zagrebeko Tresnjevka taldeko Nina Kadic-ek eta Yelja Mrkic-ek komunikabideei jakinarazi zieten bortxaketa- eta heriotza-esparruak zeudela eskualde horretako lurralde okupatuetan, eta esparruen kokapenen zerrenda zehatza ere eman zuten⁶⁷.

- c) Bake-garaietan: Halaber, emakumeek erasoak jasaten dituzte "bake-garaietan". Bortxaketek emakumeekiko nagusitasuna adierazten dute, haien gorputzez bortxaz jabetzearen bidez.

⁶¹ Magallón, Carmen (2006).

⁶² Murguialday, Clara eta Vázquez, Norma (2000).

⁶³ Mugarik Gabeko Medikuen (2009).

⁶⁴ Mugarik Gabeko Medikuen (2009).

⁶⁵ Magallón, Carmen (2006).

⁶⁶ Magallón, Carmen (1989).

⁶⁷ Magallón, Carmen (2006).

Zinbawe: Aids-free World erakundearen azterketa baten arabera, 380 bortxaketa izan ziren guztira herrialdeko eskualde guztietan presidentetzarako 2008ko hauteskondeen bezperan. Erasotzaileak ZANU-PF milizia gazteko kideak –talde horretako burua herrialdeko presidentea da, Robert Mugabe- eta Organización Central de Inteligencia erakunde agentek dira. Biktimak Movement for Democratic Change (MDC) opositorearen aldeko emakumeak izan ziren⁶⁸.

2. Artikuluak eta hausnarketak asilo-eskubideari buruz

Artikulu hauen eta erantsitako iruzkin hauen bidez, adierazi nahi dugu jazarpen hori zer den eta nola gauzatzen den, eta zer lotura duen asilo-eskubidearekin. Horretarako, kasu jakinak deskribatuko ditugu, arazo horiek ulertzeko tresna gisa, logika honetan kokatuta:

- **Emakumeen aurkako egiturazko indarkeria:** Emakumeen aurkako egiturazko indarkeria jazarpen mota gisa definitzean, arazo horrek zer-nolako hedadura duen aintzatesten ari gara. Lan hau bere kausei helduz bideratzeko modu bat da. Bi artikuluk lantzen dute GAJ ikuspuntu horretatik, eta bi kasu hauei jartzen diete arreta batez ere: emakume-hilketa Guatemalan eta emakumeen giza eskubideen urraketa Afganistanen.
- **Sexu- eta ugaltze-eskubideak urratzea:** GAJ gehienak sexu- eta ugaltze-eskubideen urraketak dira. Eskubide horiek ez dira lehen mailako eskubidetzat aintzatesten. Asiloaren esparruan eskubide horiek babestea urrats garrantzitsua da eskubideak aintzatesteko bidetan. Lau artikulu lantzen dira ikuspuntu horretatik: emakumeen genitalen mutilazioa, lesbianen jazarpena, transexualen jazarpena eta pertsonak sexu- eta lan-esplotaziorako salerostea.

2.1. Emakume-hilketak guatemalan

2.1.1. Artikulua

■ *Emakumeen aurkako indarkeria Guatemalan*

Red de No Violencia contra las Mujeres de Guatemala sarea

Egunetik egunera, Guatemalako gizarte-esparruek eta munduak ziurrago dakite Guatemalako emakumeen aurkako indarkeria gizarte-errealitate bat dela. Duela hamar urte eskas, emakumeen aurkako indarkeria oso urruti ikusten zen, eta pixkanaka-pixkanaka, gerturatu egin da. Aurre-rapen hori egin den arren, oraindik ez da behar bezala aitortu oso arazo larria dela. Halaber, fenomeno ez da behar adina ulertzen, ez eta fenomeno hori eragiten duten kultura patriarkalaren sustraiak ere. Testuinguru horrek zerikusia du pertsonen subjektibotasunarekin eta gizarteak fenomenoari buruz duen irudipenekin. Aldi berean, indarkeria mota horren ondorioz, gero eta biktimak gehiago daude. Halaber, gure iragan bortitzetik oinordetzan jaso dugun indarkeria egiteko ohiko moduz gain, beste modu batzuk sortu dira, krimen antolatuen eta zigorgabetasunaren itzalpean sortutako egoeretatik eta eruedetatik hartuak.

⁶⁸ El País (2009).

Itxura baino gehiago

Guatemalan, 2001. urtean⁶⁹ agertu ziren emakumeen aurkako indarkeriari buruzko lehen zifrak. Gertaera horrez geroztik, beste aldi bat hasi zen indarkeria ezabatze eta prebenitzeko borrokan. Hori guztia, 2000. urtetik aurrera *Grupo Guatemalteco de Mujeres* (GGM) taldeak egin zuen ikerketa, gizarte-presio, salaketa eta gizarte-ikuskaritzaren emaitza izan zen. Erakunde hauei egin zizkieten ekintza horiek, besteak beste: *Poliziak Nazional Zibilaria*, *Ministerio Publikoari* eta *Gobernazioari*. *Red de la No Violencia contra las Mujeres* sareak erabakitasunez ekin dio berriz ere borroka horri. Aurten, 213 emakume aurkitu dira hilda, eta erakunde horiek eta prozesuarekin aliatutako beste erakunde batzuek biziki salatu zituzten hilketa horiek komunikabideetan, *Por la Vida de las Mujeres ni una Muerte* izeneko kanpainaren bidez. Hala, ezin dugu ziurtatu data horretatik aurrera hasi zela emakumeen aurkako indarkeriaren bolada, baina bai indarkeria hori areagotu egin zela.

2008ko estatistika ofizialen arabera, egunero emakumearen aurkako tratu txarren 30 kasu salatzen zaizkie agintari arduradunei⁷⁰, baina benetan, kopuru hori handiagoa izan daiteke. Izan ere, beldurra dela eta, emakumeek ez dituzte tratu txarrak salatzen, ehuneko handi batean. Beldurra- ren testuingurua ulertzeko, beharrezkoa da kopurutan adieraztea indarkeria zer muturretaraino hel daitekeen. Ia egunero azaltzen da emakume bat hilda, baina estatistika ofizialek datu kezka- garriagoak ematen dituzte: iaz soilik, eguneko bi emakume hil zituzten batez beste.

Gizarteko komunikabideek gertaera horien berri ematen dute saio garrantzitsuetan, baina gertaeren benetako kopuruak handiagoak dira, jakinarazten diren kopuruak baino. Oso kazetaritzalan gutxietan aipatzen dituzte aurrerapen judizialak edo krimen horien aurka emandako zigor-epaiak, ia ez baitago zigor-epai bat bera ere. Gertaerak interpretatzeko eta fenomenoaren azalpena ikertzeko ahalegin gutxi egiten dira. Jende gehienari iristen zaion informazioa gorpuak aurkitzean egiten diren oharren bidez sortzen da. Sarritan, gorpuek torturaren arrastoak dituzte, eta ia beti, sexu-bortxaketaren arrastoak. Beraz, biztanleriak ekonomia-egoerarekin eta segurtasun-gabezia orokorarekin lotutako arazoez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa ere badu. Emakumeen aurkako indarkeriak ezintasuna eragiten du, biztanleriak ez baitu fenomeno hori ulertzen eta ez baitaki fenomeno horri nola aurre egin. Halaber, ez du uste estatuak arazo hori desagerrarazteko ezer egingo duenik.

Guatemalako emakumeen aurkako indarkeria sistema zapaltzailean, diskriminatzailean eta baztertzailean oinarritzen da. Sistema horrek ez ditu emakumeen eskubideak eta askatasunak aintzat hartzen, gizonen baldintza beretan. Estatuak ez du zigortzen, eta permisibitatea eta tolerantzia handia du emakumeen aurkako indarkeriaren kasuetan ?ez dituzte kondenatzen emakumeei tratu txarrak ematen dizkietenak, ez eta emakumeak hiltzen dituztenak ere?, eta horrek guztiak egoera larriagotzen du. Estatuaren axolagabetasuna ez da fenomenoaren kausa, baina oztopo nagusia bilakatu da emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko. Testuinguru hori eragozpen handia da, zigorrak jartzeko eta justizia aplikatzeko.

Sarritan, kontzeptuak argi ez izatea oztopo bat da, eta emakumeen aurkako indarkeria geldiarazteko erantzunak eta ekimenak ahultzten ditu. Adibidez: herrialdearen iragan bortitza indarkeria-

⁶⁹ Ikus 1. taula: *Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko zifrak. Emakume-hilketa Guatemalan, 2000-2008.*

⁷⁰ Ikus 2. taula: *Emakumeen aurkako indarkeriaren estatistikak. Emakumeen aurkako indarkeriaren eta indarkeria ekonomikoaren delituengatik Organismo Judicial erakundearen ingesatu diren kasuak, 2008.*

ren arrazoiekin lotzen da, baina ez da nahikoa. Izan ere, gatazka armatuan emakume asko hil zituzten arren, orain ere asko hiltzen dituzte, inolako gatazkarik izan gabe.

GGM taldeko ikerketen arabera, kalean, etxean edo lanean hiltzen dituzte emakumeak, toki bazuak aipatzearen, baina batzuetan, hiltzaileek gorpuak beste toki batzuetara eramaten dituzte, aztarnen bilketa zailtzeko. Hori dela eta, sarritan, hilketa horiei buruzko informazioa galdu egiten da, estatuaren ikerketa-sistema makalaren erruz. Etxekoandreak, ikasleak, langileak edo sexu-langileak; ugaltzeko adinean dauden emakumeak dira. Datu horiek aurkitu dituzte, besteak beste, eta krimenen misterioa argitzeko erabili nahi dira, xehetasun asko aurkitzeke dauden arren. Hala ere, arrasto gutxi izanda ere, zehaztu ahal izan da gertuko pertsonak (bikotekideak, bikotekide ohiak) edo taldeko lagunak (emakumeekin harremana zuten, edo ez) izan direla hiltzaileak, ehuneko nabarmen batean. Aurreko guztiak frogatzen du gizartean bake-garaia denean ere emakumeak hiltzen dituztela Guatemalan, emakumeentzat benetako gudu-zelaia etxea, lantokia, kalea edo beste edozein toki izan baitaiteke. Hori dela eta, emakume horietako asko ez dute modu berean hil, baina haien hiltzailearekin zuten harremanak azalpen garrantzitsuak eman ditzake. Izan ere, emakume horiek hiltzeko arrazoia, ehuneko handi batean, emakume horien sexualitatea izan zen. Hau da, emakumeak zirelako hil zituzten.

Guatemalan eta gainerako Erdialdeko Amerikan, Argentinan, Txilen eta beste herrialde batzuetan, joera hori eta emakumeak hiltzeko arrazoiak identifikatzeko, mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduak hilketa horiei *emakume-hilketa* esaten diete. Izan ere, talde horiek *emakume-hilketak* agenda publikoan jartzeko borrokan ari dira, eta gizarte-mobilizazioa lortu nahi dute, hilketa horiek desagerrarazteko, eta hilketa horiek eragiten dituzten arrazoiak deuseztatzeko. Horrenbestez, *emakume-hilketei* buruzko azterketak gai horri buruzko ikerketa-ahalegin handiak izan dira. Halaber, lagungarriak izan dira hilketa horiek ulertzeko, baita hilketa horiek geldiarazteko politikak diseinatzeko oinarriak ere.

Baina, halaber, *emakume-hilketa* terminoak kategoria bat adierazten du, 2000. urtetik aurrera hilketa horiek salatzeo aukera eman duena. Hilketa horiek zapalkuntzako sistema desorekatu baten baitan gertatu dira, emakumeak bigarren mailako herritartzat dituen sistema batean. Era berean, termino hori tresna bat izan da, zuzenbidean eta politikan egin beharreko aldaketak eskatzeko, ohiko praktika horiek prebenitu, zigortu eta buka daitezzen. Hilketa horiek nabarmentzen dute gizartean oraindik zer misoginia- eta zigorgabetasun-maila dagoen.

Latinoamerikan, duela gutxitik dute *emakume-hilketa* kontzeptuaren berri, eta ez da asko kontzeptu hori erabiltzen dutela. Horrez gainera, gai horri buruz gutxi eztabaidatzen da. Diana Russell-ek eta Jill Radford-ek erabili zuten lehen aldiz sistematikoki beren liburuan: *Femicide: The Politics of Woman Killing*. Egile horiek planteatu zuten *emakume-hilketa* emakumeak zirelako gertatzen zela; hau da, haien genero-egoeragatik. *Emakume-hilketa* emakumeek gizartean bizi dituzten zuzentasun-gabeziako eta bazterkeriazko harremanekin lotuta dago, eta emakumeen aurkako indarkeria sexistan adierazten da. Ez da gai pribatua, fenomeno historikoa baizik, gizartekoa, eta gizarte patriarkaletan gizonen boterea iraunarazteko gertatzen da⁷¹.

Dela hilketen arrazoiengatik edo eragingarriengatik, dela hildako emakumeek hiltzaileekin zuten harremanagatik edo hilketen indarkeria izugarriagatik, *emakume-hilketa* sexu-indarkeriarekin

⁷¹ Ana Leticia Aguilar TH: "Femicidio la Pena Capital", Grupo Guatemalteco de Mujeres, Buletina, 3. zenb., 3. urtea. 2006.

lotuta dago kasu guztietan. Laburbilduz, *emakume-hilketa* emakumeen aurkako indarkeriarik muturrekoena da.

Nola bizitzen da indarkeria?

Guatemalako emakumeek oinazez eta etsipenez bizi dute egoera hori. Denbora osoan beldur dira. Beldurra barneratu egiten dute, emakume izatearen zati bat balitz bezala: aitaren, anaiaren, maisua-
ren, ikaskidearen, mutil-lagunaren, bikotekide eta bikotekide ohiaren beldur dira. Kalera ateratzeko, lanera joateko, ikasteko, garraio kolektiboa hartzeko eta erasoari erantzuteko beldur dira. Hala, egu-
nero, emakumeen jarrera baldintzatzen da eta pertsona gisa dituzten aukerak mugatzen dira. Beren
bizitzako lehen urteetatik, emakumeek uste dute munduak ez dizkiela denei aukera berak ematen,
mundua emakumeen etsaia dela, eta onartu egin behar dela bertan bizirik irauteko.

Era berean, agintariak emakumeen aurkako indarkeriaren errua leporatzen diete emakumei pu-
blikoki, eta egoera hori erakunde arduradunen kargu dauden langileek emandako arretan ikus-
ten da. Emakume batzuen hilketak justifikatzeko, agintariak argudiatzen dute krimen antolatua-
rekin, narkotrafikoarekin edo taldeekin edo "marekin" lotuta zeudela, baina gai horri buruz
ikertzeko asko dago oraindik.

GGMren 2007ko txosten batek adierazten du hilketak gehiago gertatzen direla hiri-guneetan, hi-
riburutik gertu: Guatemalan, Villanuevan eta Mixcon, batez ere. Nahiz eta justizia-zerbitzuek es-
taldura onargarria izan, fenomeno horri buruzko sentsibilizazio gutxi dagoenez eta sistema oso-
an kultura patriarkala nagusi denez, oso zaila da zerbitzu horiek erabili ahal izatea.

Guatemalako Errepublikaren barrualdean, hiriburutik urruti dauden zenbait eskualdetan, sistema
diskriminatzailea eta baztertzaila berezia eta odoltsua da. Emakumeen aurkako indarkeriari da-
gokionez, justizia-sistema fisikoki urrun dago, eta kulturalki ez da ohikoa sistema hori erabiltzea.
Emakumeak oso sarritan bortxatzen dituzte, eta batzuetan, baita hil ere. Tokiko agintari politiko-
ek, sozialek eta erlijiosek araututako sistema patriarkal bidegabeak gertaera horien errua egoz-
ten die emakumei. Sexu-bortxaketak edo abusuzko ekintzak ohikoak dira garraio kolektiboetan,
kaleetan eta ikastetxeetan ere. Zaila da biktimak laguntza jasotzea, eta gertaeraren berri ematen
badu, gaitzespen kolektiboa jasan dezake, eta gaitzespen horrek botere handia du komunitate
horietan. Horrenbestez, justizia lortzea bi aldiz zailagoa da, pobrezian bizi baitira eta pobrezia
horrek arlo horretako zerbitzuak eskuratzea zailtzen baitu. Batzuetan, bulegoak oso urruti daude
eta ez dago baliabiderik bulegoetara iristeko. Horrez gainera, gizarte-presioak ez die uzten lege-
aren babesa bilatzen. Gainera, tratu txarrak salatuz gero paira ditzaketen arriskuak ikaratzen ditu
batez ere emakumeak; izan ere, tratu txarrak salatuz gero, aukera gehiago daude erasotzailearen
indarkeriazko erantzun azkarra jasotzeko, legearen erantzuna jasotzeko baino. Oso gutxitan, bik-
timak Guatemala hirira joaten dira justizia bila, eta distantzia fisikoaz baliatzen dira, inork seina-
latu gabe salatzeke. Horretarako, zailtasun askori eta aurrerapen gutxiri egin behar diete aurre.

Beste alde ahul bat da ikerketa-prozesuan ez dagoela koordinaziorik erakunde arduradunen ar-
tean, batez ere hauen artean: *Polizia Nazional Zibilaren* eta *Ministerio Publikoaren* artean. Hala-
ber, ekimenak bikoizteko beste modu bat aipa daiteke, hala nola *emakume-hilketari* aurre egite-
ko batzordea. Batzorde hori *Coordinadora Nacional para la Prevención de la Violencia
Intrafamiliar y contra las Mujeres* (CONAPREVI) erakundearen agintepean zegoen. Horrez gaine-
ra, azken urteetan sortu diren beste ekimen sakabanatu batzuk ere badaude.

Aldaketaren adierazleak

Emakumeen eskubideen aldeko mugimenduaren borroka eragin zuen emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten saiatzen hasia. Mugimendu hori nazioarteko iritzi publikoaren korrante bat da eta eragina du herrialdearen barrualdean, nazioarteko kooperazioak lagunduta. Borroka hori emakumeen erakundeen baitan sortu zen, eta hamarkada bat baino gehiago darama lanean. Gobernuko erakundeetan edo gobernuz kanpoko erakundeetan erabakiak hartzen dituzten pertsonen arreta lortu du, bai eta emakumeen erakundeen eta giza eskubideen aldeko mugimenduen arreta ere. Hori dela eta, gaur egun, erraza da fenomeno horri buruzko informazioa lortzea. Hala ere, hori guztia ez da nahikoa sustagarri izan, erakundeen erantzuna erabat aldatzeko, aurrerapen batzuk egin diren arren.

GGM taldeak eta Red de la No Violencia contra las Mujeres sareak, feministek, erakunde aliatuek (hala nola *Sector de Mujeres de la Sociedad Civil* erakundeak) eta emakumeen beste erakunde batzuek emakumeen bizitzaren alde egiteko eskaera indartu dute, eta eremu politiko garrantzitsuak bereganatu dituzte. Erakunde horien eragina dela eta, Guatemalan emakumeen giza eskubideen aldeko erakundeetako ordezkariak egon dira, eta ordezkari horiei esker, agintari eskudunei nolabaiteko presioa egin ahal izan zaie. Adibidez:

Sareak CONAPREVIri eskatu zion Emakumearen aurkako indarkeriaren, indarkeria horren kausen eta ondorioen Nazio Batuetako kontalari berezia, Yakin Ertürk, Guatemalara etortzeko. Azkenean, 2004ko otsailean lortu zen bisita hori.

Halaber, *Red de la No Violencia* sareak egindako salaketaz geroztik, hauek bisitatu dute Guatemala: *Comisión Interamericana de Derechos Humanos* (CIDH) batzordeko emakumearen aurkako indarkeriaren kontalariak, Susana Villaráne, CIDH batzordeko beste ordezkari batzuek eta Amnistia Internazionalak. 2006. urtean, ezohiko batzaraldian, *Red Feminista Centroamericana* sareak eskatutako audientzia bat egin zen, emakumeen aurkako indarkeria salatzen.

Emakumeen aurkako indarkeria geldiarazteko hartu den erabaki nagusietako bat koordinatutako ekintzak bultzatzea izan da, eragin handiagoa egiteko eta epe luzera aldaketak lortzeko. Gai horren harira, gizarte zibilak, estatuko erakundeekin koordinatuta, lan handia egin du CONAPREVI sortzen eta sustatzen. Hori dela eta, emakumeen erakundeak ozenago hitz egiten hasi dira, CONAPREVIrako finantza-laguntza eta CONAPREVI sendotzea eskatzeko, PLANOSI 2004-2014 planean jasotako estrategia martxan jarri ahal dezan. Estrategia horrek sendotasun handiagoa lortu du urte honetatik aurrera, batez ere nazioarteko laguntzari esker, estatuaren aurrekontua ez baita nahikoa. Estrategia horrek alderdi hauei emango die garrantzia epe laburrean: arazoak zergatik irauten duen ikertzea eta erregistratzea, arazo horri buruzko informazioa sistematizatzea, erakundeak sendotzea, arretaren kalitatea hobetzea, eta prebentziorako prozesu nazionalak sustatzea.

Era berean, ezinbestekotzat jo da *Emakume-hilketen* eta emakumeen aurkako beste indarkeria mota batzuen kontrako Legea onartzea, delitu horiek tipifikatzen baititu.

Helburua zen legeria koherente eta eraginkor bat izatea, emakumeek justizia erabili ahal izatea sustatzeko, eta ikerketa eta errudunen zigorra errazteko. 2008. urtean onartu zuten Lege hori.

1. taula: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko zifrak

Emakume-hilketak Guatemalan – 2000/2008												
Indarkeriaz hildako emakumeak	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	Guztira	%	
Ez dakite emakume-hilketa izan den ala ez	117	118	154	243	262	284	333	435	527	2.473	57	
Emakume-hilketa izan dela uste da	9	15	11	25	30	77	44	64	98	373	9	
Ez da emakume-hilketa izan	14	29	22	15	58	50	61	44	53	346	8	
Emakume-hilketa	42	64	63	134	197	213	203	41	153	1.110	26	
Guztira	182	226	250	417	547	624	641	584	831	4.302	100	

Kasuen %43an baino ez zen lortu informazioa, emakume-hilketak ziren ala ez identifikatzeko. Kasuen %43 horretatik, kasuen %26 emakume-hilketa izan zen, %8 ez zen emakume-hilketa izan eta kasuen %9 emakume-hilketa izan zela susmatzen da.

Kontuan izan behar da Alta Verapaz departamenduaren 2007ko datuak falta direla oraindik.

2. taula: Emakumeen aurkako indarkeriaren estatistikak

Organismo Judicial erakundearen aurkeztu diren kasuak, emakumeen aurkako indarkeriaren eta indarkeria ekonomikoaren delituengatik			
Departamendua	Emakumeen aurkako indarkeria	Indarkeria ekonomikoa	Guztira
01. Retalhuleu	192	0	192
02. Guatemala	182	5	187
03. Chiquimula	164	6	170
04. Suchitepéquez	161	10	171
05. Santa Rosa	140	9	149
06. Quiché	112	4	116
07. Escuintla	111	0	111
08. El Progreso	109	1	110
09. Petén	102	1	103
10. Huehuetenango	92	2	94
11. Jutiapa	91	3	94
12. Quetzaltenango	80	6	86
13. Chimaltenango	78	2	80
14. Sololá	71	2	73
15. Baja Verapaz	68	4	72
16. San Marcos	64	1	65
17. Izabal	64	0	64
18. Zacapa	44	4	48
19. Sacatepéquez	36	0	36
20. Alta Verapaz	34	0	34
21. Jalapa	34	0	34
22. Totonicapán	1	0	1
Guztira	2.030	60	2.090

Iturria: *Grupo Guatemalteco de Mujeres* taldea *Organismo Judicial* erakundearen ingesatu diren kasuak, emakumeen aurkako indarkeriaren eta indarkeria ekonomikoaren delituengatik, Guatemala 2008, eta *Organismo Judicial* erakundearen emandako informazioa.

Familia barruko tratu txarrak 2003tik 2008ra erregistratutako kasuak							
	2003	*2004	**2005	2006	2007	***2008	Guztira
Alta Verapaz	777	791	1.050	2.380	2.472	2.473	9.943
Baja Verapaz	323	324	1.852	471	552	490	4.012
Chimaltenango	1.219	962	1.207	1.525	1.622	919	7.454
Chiquimula	560	262	345	717	969	919	3.772
El Progreso	1.173	500	1.205	1.145	1.342	1.035	6.400
Escuintla	2.067	741	2.621	2.707	3.630	1.927	13.693
Guatemala	4.651	2.387	6.018	9.885	11.924	13.400	48.265
Huehuetenango	1.673	745	1.978	1.840	1.731	1.027	8.994
Izabal	841	594	774	750	761	867	4.587
Jalapa	636	410	601	807	1.154	621	4.229
Jutiapa	617	249	275	264	1.047	917	3.369
Petén	1.647	1.167	1.295	1.583	1.657	1.031	8.380
Quetzaltenango	3.606	1.951	3.484	3.429	4.097	3.328	19.895
Quiché	539	428	1517	1.129	1.296	1.204	6.113
Retalhuleu	887	558	192	124	222	341	2.324
Sacatepéquez	163	47	1782	1.874	1.972	1.687	7.525
San Marcos	1.020	786	1.316	1.559	1.437	757	6.875
Santa Rosa	1.220	401	1.166	1.537	1.527	1.701	7.552
Sololá	467	311	441	554	819	690	3.282
Suchitepéquez	1.012	568	1.170	1.298	1.910	1.786	7.744
Totonicapán	1.409	601	1.207	1.259	1.270	1.249	6.995
Zacapa	253	162	567	854	1.265	1.031	4.132
	28.763	14.945	32.063	37.691	44.676	39.400	195.535

*2004. urteko datuak urte horretako urtarriletik ekainera bitartean erregistratu ziren kasuak dira.

**2005. urteko datuak urte horretako urtarriletik irailera bitartean erregistratu ziren kasuak dira.

***2008ko datuak partzialak dira, ez dira guztizkoak.

Iturria: Grupo Guatemalteco de Mujeres –GGM- taldea, eta Polizia Nazional Zibilaren eta Organismo Judicial erakundearen informazioa.

2.1.2. Asilo-eskubideari eta emakume-hilketari buruzko hausnarketak

Emakume-hilketa jazarpen mota bat da

Guatemalan gertatzen dena adibidetzat hartuko dugu, emakume-hilketak bizilekuz aldatzera derrigor dezaketela, eta biktimari errefuxiatuaren estatusa aintzatets dakioketela ohartzeko. Hauek nabarmen ditzakegu: iaz, Erdialdeko Amerikako herrialde horretan *22-2008 Dekretua Ley contra el Femicidio y otras Formas de Violencia contra la Mujer* onartu zuten. Guatemalako legediak emakume-hilketa honela definitzen du: *emakume baten indarkeriazko heriotza, gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman desberdinen testuinguruan sortua, emakumeen aurkako genero-boterea erabiliz*. Definizio horrez gainera, Grupo Guatemalteco de Mujeres taldeak dio⁷²

⁷² Grupo Guatemalteco de Mujeres (2009).

fenomeno hori emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpenik muturrekoena dela eta hiru kategoria aurkezten ditu:

- Intimoa: biktimak hiltzailearekin nolabaiteko intimitate-maila edo harreman afektiboren bat edo senidetasunezkoa izan duenean, edo hiltzaileak biktimarekin horrelako harremanen bat ezarri edo berrezarri nahi izan duenean.
- Ez-intimoa: hiltzailea biktimak ezagutzen ez duen norbait denean. Biktimak ez zuen inolako harreman afektiborik edo senidetasunekorik hiltzailearekin, eta hiltzaileak ere ez zuen halakorik nahi biktimarengandik.
- Loturazkoa: emakume bat eraso edo hiltzen saiatu zen gizon baten indarkeria-lerroan hildako emakumeak dira; hau da, beste emakume bat erasotzea edo hiltzea eragozteko esku hartu zuten emakumeen hilketak.

Definizioak esaten duen bezala, emakume-hilketa heriotzan amaitzen da. Hala ere, gertatutakoa argitzen lan egiten duten pertsonentzat beste ondorio mota batzuk ditu. Azken emakume-hilketa mota hori batez ere aipagarria da asilo-eskubidearen kasuan. Beraz, hauek dira emakume-hilketaren ondorioak, besteak beste:

- Gertatutakoa argitzeko eta errudunak epaitzeko lan egiten duten biktimen senideak jazarzea. Adibidez: Mehatxuak, xaxatzeak, erasoak...
- Giza eskubideen urraketa horien kausak eta ondorioak deuseztatzeko lan egiten duten giza eskubideen defendatzaileak jazarzea.
- Gertatutakoa ikertzen duten eta berria hedatzeko lan egiten duten kazetariak jazarzea.

Emakume-hilketa intimoetan, genero-indarkeriak eragindako ihesak ere gerta daitezke. Etxe barruko edo familia barruko tratatu txarregatik asilo-eskaerak egiten direla esan dezakegu, aldeaz aurreko harreman afektiboa zegoenean, edo erasotzaileak biktimarekin harreman bat ezarri nahi zuenean.

Jazarpenaren eragileak

Emakume-hilketaren kategoriaren arabera, jazarpena eragile batzuek edo besteek eragiten dute. Tradizioan, estatuz kanpoko jazarpen-eragileek urratu dituzte emakumeen giza eskubideak, baina hamarkada honetan identifikatu dira jazarpen-eragile mota horiek:

- Biktimarekin harreman afektibo bat zuten pertsonak (edo harreman afektibo bat izan nahi zutenak): kalkuluaren arabera, emakumeen inguruneke pertsonak dira emakumeen aurkako indarkeria kasuen 2/3 eta ?aren eragileak.
- Estatuko segurtasun-indarrak.
- Krimen antolatua (marak, narkotrafikoa eta pertsonen salerosketa-sareak):
 - Guatemalako Estatuan lotura dago armadaren eta krimen antolatuaren artean.
 - "Gizarte-garbiketaz" arduratzen diren estatuko agenteak eta agente paraestatalak.

Estatuaren erantzukizuna

Emakume-hilketa estatuko krimena da, estatua eta gizartea ez baitira emakumeen bitzitza eta giza eskubideak ziurtatzeko gauza. Erakundeak gainezkatuta daude, ez baitaude egokituta egoerari aurre egiteko, eta delitu-sareekin lotutako pertsonak zenbait erakunde hartuta dituzte. Horrez gainera, zabarkeriaz jarduten da, ikerketetan profesionalismo gutxiz aritzen dira, eta biktimek ezin dute justizia erabili. Halaber, agintarien eta gaizkileen artean konplizitatea eta kolusioa dago, eta horren ondorioz, zigorgabetasun handia. Zigorgabetasun horrek fenomeno ugaltzea eragiten du. Halaber, zigorgabetasunak, printzipio politiko, juridiko eta judizial gisa hartuta, biktima kopuru handia eragiten du⁷³.

Beraz, estatua arazoan zuzenean sartuta egon daiteke bere egituren bitartez, edo zeharka sartuta, emakumeen aurkako indarkeria adoretuz edo toleratuz. Beste kasu batzuetan, ez da arazo horri aurre egiteko gai. Estatuak arazo horrekiko zer erantzukizun duten aintzatestearen adibide adierazgarria eta funtsezkoa da Mexikoko kasua. 2009ko azaroan, Corte Interamericana de Derechos Humanos⁷⁴ gorteak Mexikoko gobernuaren erruduna zela deklaratu zuen, 2001ean Ciudad Juárezen hildako bi emakumeren bermeak urratzeagatik, krimenaren errudunak behar zen bezala ez ikertzeagatik eta ez zigortzeagatik. Comisión Interamericana de Derechos Humanos batzordeak bere eskaeran argudiatu zuen, beste alderdi batzuen artean, Mexikoko Estatuak erantzukizuna zuela, biktimek babesteko, krimenak prebenitzeko eta hilketen ikerketan beharrezko prestutasunez aritzeko neurriak ez hartzeagatik, eta biktimen senideei justizia eta ordain egokia ukatzeagatik⁷⁵.

2.2. Emakumeen eskubideen urraketak Afganistanen

2.2.1. Artikulua

■ *Genero-arrazoiengatiko jazarpena: Afganistan*

Mónica Bernabé, l'Associació per als Drets Humans a l'Afganistán (ASDHA), Foro Feminista María de Maeztu eta Afghan Women's Network erakundeekin lankidetzan

Emakumeen aurkako indarkeriaren kausak Afganistanen: talibanen erregimena

Tradizioan, emakumea indarkeriaren biktima izan da Afganistanen; batetik, gizartea erabat patriarkala, kontserbadorea eta islamikoa delako; eta bestetik, 23 urteko gerraren ondorioz, ez delako inolako bilakaerarik egon.

Horrez gainera, kontuan izan behar da Afganistan talibanen mendean egon dela bost urtean. Erregimen horrek ez du parekorik herrialde bakar batean ere, eta emakumeak bizitza publikotik baztertu eta herrialdea kanpoaldetik erabat bakartu zuen.

Talibanek emakumeen aurkako arau multzo bat ezarri zuten, haiek boterea lortu baino lehen Afganistanen zegoen gerra-egoera orokorrean oinarrituta. 1992tik 1996ra, talibanek Kabul-en kontrola eskuratu zuten urtera arte, fakzio militarrek ankerki borrokatzen ziren herrialdean, biztanleria zibilak jasan zitzaizkeen kalteak axola gabe. Aldi horretan, emakume askok lanera joateari eta etxetik ateratzeari utzi zioten, emakumeen bortxaketak eta bahiketak ugaritu egin baitziren.

⁷³Lagarde y de los Ríos, Marcela (2005).

⁷⁴Erakunde hori Washington-en dago, eta Organización de Estados Americanos (OEA) erakundearen sistemaren kide da.

⁷⁵La Haine (2009).

Egoera hori oinarritzat hartuta, talibaneek erabaki zuten emakumeek ezin zutela etxetik kanpo lan egin. Izan ere, hala, emakumeen segurtasuna bermatzen omen zuten (talibaneek web-orri bat egin zuten, www.taleban.com, 2001eko otsailera arte, eta bertan beren ideien xehetasunak azaltzen zituzten). Talibaneek esaten zuten etxean geratzearen truke erregimenak soldata bat ordainduko ziela emakumeei, baina sekula ez zuten halakorik egin.

Era berean, dekretuz agindu zuten lehentasuna eman behar zitzaizkion mutikoen hezkuntzari, eta emakumeek eta neskatuek garai hobekak irabazteko zuzentzea, Afganistan gerra-egoeran baitzegoen, eta horrenbestez, larrialdi-egoeran. Beraz, emakumeen hezkuntza-eskubideari ere betoa jarri zioten. Halaber, osasun-eskubideari ere betoa jarri zioten. Izan ere, emakumeek ezin zuten lanik egin, ospitaleak eta klinikak emakumeak artatzeko emakumezko langilerik gabe geratu ziren. Horrez gainera, sexuak erabat bereizteko arau talibaneek zirela eta, gizonezko sendagileek ezin zituzten emakumeak aztertu.

Baina talibaneen murrizketek emakumei eragiteaz gain, biztanleriari osoari ere eragin zioten.

Esaterako, talibaneek musika –Afganistan musika-tradizio handiko herrialdea da–, argazkiak, telebista eta beste edozein dibertsio-mota debekatu zituzten, baita kometei hegaz eginaraztea ere, Afganistango haurren jokorik ohikoenetako bat. Horri guztiari gehitu behar zaio NBEk erregimen horri zigorrak ezarri zizkiola, eta horren ondorioz, herrialdea are gehiago bakartu zela (adibidez: Afganistanera joateko hegaldi komertzialak eten zituzten). Erregimen talibanean bizitako egoera hori zela eta, emakumeen aurkako indarkeria ohikotzat jotzen da Afganistanen, eta gizarteak indarkeria hori onartzen du. Halaber, egoera horren ondorioz, gaur egun, Afganistango gizarteak kontserbadoreagoa eta patriarkalagoa da duela hogeita hamar urte baino, eta atzerakada hori batez ere hirietan da nabarmena. Mendekotasuna hain onartuta dagoenez, emakumeek berek ez dute zalantzan jartzen senarrek tratatu txarrak ematea, eta ez dakite zer eskubide dituzten. Horrez gainera, uste dute, edozelan ere, familiaren barruan gertatzen diren tratatu txarrei buruz ez dela eztabaidatu behar publikoan, etxetik kanpo.

Emakumeen aurkako indarkeriaren larritasuna Afganistanen, eta kasu gehienak non gertatzen diren

Afganistanen, emakumearen oinarritzako eskubide guztiak urratzen dira: emakumeak "pertsonek" izateari uzten dio, askatasun osoa eta erabakitzearen ahalmena galtzen baititu. Gizonak (senarrak, aitak, anaiak, etab.) hartzen dituzten emakumei buruzko erabaki guztiak, eta emakumeak ez du bere bitzita zuzentzeko inolako aukerarik.

Zaila da jakitea zenbat emakumeri eragiten dion arazo horrek, Afganistanen ez baitago inolako estatistika ofizialik, ez eta eroldaririk ere. Are gehiago, 2009ko abuztuaren 20an izan ziren presidentetzarako hauteskundeak eta hauteskunde probintzialen hautesle-eroldaririk ere ez dago.

UNIFEMen (Emakumeen Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa, ingelesezko siglak) 2008ko datuen arabera, Afganistanen 23,6 milioi biztanle daude, eta biztanleen %48,9 emakumeak dira. Berez, emakume horiek guztiak aurreko atalean azaldutako arazoa jasan behar dute. Izan ere, azaldu dugun bezala, arau patriarkal gogor batek zuzentzen du Afganistango gizarteak, eta emakume guztiengan du eragina, emakumeak edozein gizarte-, ekonomia- edo hezkuntza-egoera izanda ere.

Hala ere, arazo hori larriagoa da landa-eremuetan, emakumeentzat zailagoa baita hezkuntza eta osasun-arreta eskuratzea, eta auzitegirik ez dagoenez, indarkeriaren egileei ez zaie inolako zigorrik ezartzen. Ezkontzen erregistrorik ere ez dago, eta hori dela eta, ezinezkoa da neskak zer adinetan ezkontzen diren kontrolatzea, eta horrenbestez, ezin da eragotzi 16 urte bete baino lehen ezkontzea, Konstituzioak ezartzen duen bezala.

Landa-eremuen artean, Afganistango hegoaldean eta ekialdean gertatzen dira maizago urraketak horiek, eremu horietan taliban ugari baitaude. Hori dela eta, eremu horietan, emakumeen aurkako indarkeria esparru pribatuan gertatzeaz gain, indarkeria publiko handia ere badago, bai eta egiturazko indarkeria ere. Egiturazko indarkeria horrek eragiten du emakumeak diskriminatzeko dituzten eta adinez txikikoak balira bezala tratatzen dituzten legeak indarrean egotea.

Emakumeen aurkako indarkeria Afganistanen

Sistema erabat patriarkalak zuzentzen du Afganistan, eta sistema horretan, emakumeak "fami-liaburuaren" jabetzat hartzen dira; hau da, lehenbizi, beren aitaren jabetzak dira, eta ondoren, beren senarrarenak eta familia politikoarenak. Horren ondorioz, emakumeek ez dute erabakiak hartzeko inolako ahalmenik, eta ezin dute eskubide bat bera ere erabili. Horrez gainera, gizon baten agindupean eta babespean egon behar dute beti, emakumearen adina, hezkuntza-maila edo estatus ekonomikoa edozein izanda ere.

Halaber, Afganistango tradizioaren arabera, emakumeek familiaren ohorea gorde behar dute, eta ohore hori haien kastitatearen bidez neurtzen da. Ohore hori babesteko, emakumeei etxetik ateratzea galarazten diete, haien bizitza etxeko eremura mugatuz, eta ez diete uzten beste sexuko pertsonekin harremanak izaten. Emakumeek ezkondu arte birjintasunari eustea ezinbestekoa da. Izan ere, sexu-harremanak ezkondu gabe izaten badituzte, adulteriotzat jotzen da, eta espetxe-aldi-zigorrak ezartzen dizkiete.

Hori dela eta, emakumeak ahalik eta azkarren ezkontzeko ahalegina egiten da. Bestalde, Afganistanen ezkonsariaren tradizioa ere badago; hau da, gizonak ordaindu egin behar du, emazteztzat hartu nahi duen emakumearen truke. Ezkonsaria diru-kopuru handia izan ohi da, 4.000 dolarrekoa ere izan daiteke, eta funtzionario batek batez beste hileko 70 euro kobratzen ditu. Beraz, gizonak ahalegin ekonomikoa handia egin behar dute (urteetan lan egin edo mailegu bat eskatu), emakume batekin ezkondu ahal izateko. Hori dela eta, ezkontzen direnean, emakumea erositako jabetzat hartzen dute, eta harekin nahi dutena egin dezaketela uste dute. Horren ondorioz, gizonak uste dute emakumearen bizitza erabat kontrolatzeko eskubidea dutela. Gizonak erabakitzen du emakumea etxetik atera daitekeen ala ez, ikasi, bidaiatu edo osasun-laguntza jaso dezakeen, bai eta amatasuna planifikatu behar duen ala ez ere.

Era berean, emakumea erosten den ondasuntzat hartzen denez, senarra hil eta emakumea alargun geratzen bada, familia politikoak familiako beste gizon batekin ezkontzera derrigortzen du. Emakumeen "balio ekonomiko" hori landa-eremuetako zenbait tradizioetan ere nabarmentzen da, non trukeak egiteko erabiltzen dituzten. Praktika hauek egiten dituzte, besteak beste:

- Emakumeak eta animaliak trukatzeko edo zor bat kitatzeko erabiltzea. Gerra-urteek eta po-breziak sortu zuten tradizio hori. Sarritan, familiek beren alabak eskaintzen dituzte, animaliak ordaintzeko, zorrak kitatzeko edo alabaren truke lur bat lortzeko.

- *Bad.* Hala esaten zaio bi familien artean krimen bat, lapurreta bat, bortxaketa bat eta abar konpentsatzeko tradizioari. Kaltea konpentsatzeko, iraina egin duen familiak alaba bat ematen dio iraindutako familiari. Eskuarki, tokiko kontseiluek edo komunitateko agureek (hau da, justizia-sistema ez-formalek) esku hartzen dute eta zer motatako konpentsazioa eman behar den erabakitzen dute.

Halaber, Afganistan oso herrialde txiroa denez, eta ezkonsaria eman behar denez, familia askok, batez ere landa-eremuetan, beren alabak ezkontzeko ematen dituzte lehen hilerokoa izaten dutenean, dirua lortzeko. Praktika horrek beste arazo bat sortzen du: haurren ezkontzak. UNICEFen arabera (Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa), nesken %57 16 urte bete baino lehen ezkontzen da, nahiz eta Afganistango Konstituzioak (2003an onartuak) ezarri adin hori dela emakumeak ezkondu ahal izateko gutxieneko adina.

Ezkontideen familiek beti moldatzen dituzte ezkontzak. Askotan, ezkontideek ez dute elkar ezaiztzen ezkondu baino lehen, edo behin edo bitan baino ez dute elkar ikusi. Afganistango Giza Eskubideen Batzorde Independentek (AIHRC, ingelesezko siglak) 2004an egindako ikerketa baten salatu zuen emakumeen %38 gogoz kontra ezkondu zela, eta %50 ez zegoela pozik bere familia-bizitzarekin. UNIFEMen 2008ko datuen arabera, Afganistango emakumeen %70-%80 ezkontzera derrigortzen dituzte, familiak haientzat aukeratu duen norbaitekin. Izan ere, behartutako ezkontzak dira Afganistango emakumeen eskubideen urraketa nagusia. AIHRCren ikerketak adierazten du hauek direla praktika hori egiteko arrazoi nagusiak: gizarte-tradizioa, familien prestakuntza-gabezia eta pobrezia, eta Afganistanen praktika hori ez zigortzea. Ez dago egitura judizialik, eta baldin badago, erabat ustela da.

Epaileek eta abokatuek prozesuaren partaideek ematen dieten ordainsarien arabera egiten dute lan. Horren ondorioz, emakumeek ezin dute ezer egin, inoiz ez baitute ordaintzeko baliabiderik. Gainera, gizonen (ia epaile guztiak gizonak dira) beti garrantzi handiagoa ematen diote beste gizon baten hitzari, emakume batenari baino.

Kontuan izan behar da egitura judizial hori hiri handietan dagoela soilik. Landa-eremuetan –eta Afganistan, funtsean, landa-herrialde bat da–, justizia-sistema tradizionala aplikatzen da, ez-formala, gerra-urteen ondorioz eta estatu-egiturarik ez dagoelako. Justizia-sistema tradizional hori ez da berdina probintzia guztietan, baina, arau orokor gisa, tokiko buruzagiek edo komunitateko agureek (beti gizonak dira) osatutako *jirga* edo *shura* bat da (batzarra). *Jirga* horrek erabakiak hartzen ditu, tokiko tradizioetan, kode tribaletan, lege islamikoan eta iritzi pertsonaletan oinarrituta.

Testuinguru horretan, etxe barruko genero-indarkeria edo familia-liskarrak familia handiaren baitan konpontzen saiatzen dira lehenbizi, eta besterik ezean, irtenbiderik lortu ez bada, *jirga* edo *shura* batzarrera jotzen da.

Afganistango beste tradizio errespetatu baten arabera, ezkondu ondoren, emakumeak bere familia politikoaren etxera joan behar du bizitzera senarrarekin, baina baita bere aitagarreba eta amagarrebarekin, koinatekin eta koinatuekin... ere. Han, abusuak eta tratu txarrak jasaten ditu, are gehiago neska gaztea baldin bada. Izan ere, gizarteak onartu egiten du esparru pribatuan emakumeei tratu txarrak ematea (fisikoak nahiz psikologikoak), eta ohikotzat jotzen dira. Ildo horretatik, esanguratsua da Afganistango Giza Eskubideen Batzorde Independentearen txostena.

Txosten horren arabera, elkarriketatutako emakumeen %50 baino gehiagok esan zuen etxeko indarkeriaren biktima izan zela bere ezkondu-bizitzako uneren batean. Halaber, UNIFEMek gai horri buruzko ikerketa bat egin zuen (*Violence against women. Primary database*), eta antzeko ondorioak atera zituen. 2006ko maiatzaren eta 2007ko urriaren artean, emakumeen aurkako indarkeriaren 2.011 kasu jaso zituen guztira, eta kasu horien %22 eraso fisikoak izan ziren. Kasuen %30ean, senarra izan zen indarkeriaren egilea; eta %53an, familiako beste kideren bat.

Zenbaitetan, indarkeria-egoera hain jasanezina da, ezen emakume batzuek beren buruaz beste egiteko erabakia hartzen baitute, zenbaitetan metodo beldurgarrien bidez. Esaterako, Herat probintzian, Afganistango mendebaldean, urtero, emakume asko beren burua hiltzen saiatzen dira, "bonzo" erara immolatuaz.

Ez dakite eremu horretako emakumeek zergatik hautatzen duten buruaz beste egiteko modu batusati hori. Hala ere, uste da Irlandik gertu egoteak eragina izan dezakeela, herrialde horretan ere ohikoa baita su emanda suizidatzea. Afganistanen, suizidatzen saiatzen diren emakume gehienak neska gazteak dira –asko nerabeak–, eta normalean, nahi ez zuten gizon batekin ezkontzera derrigortu zituzten, eta ezkondu-bizitzan, genero-indarkeria pairatu zuten etengabe. Emakume horietako batzuk Iranen errefuxiatuta egon ziren gerra-garaian, eta orain, Afganistanera itzultzen direnean, erabateko frustrazioa sentitzen dute, beren askatasun pertsonalak murriztuta daudela ohartzen baitira.

Horrez gainera, legeak gizonak emakume batekin baino gehiagorekin ezkontzea baimentzen duenez, arazoak eta tentsioak askoz gehiago areago daitezke. Zehazki, Afganistango Kode Zibilaren 86. artikulua ezartzen du gizon bat lau emakumerekin ere ezkon daitekeela egoera haueetan: emakumeen artean bidegabekeriak izateko arriskurik ez dagoenean; gizonak emakume guztien ardura ekonomikoa berdintasunez bere gain har dezakeenean, eta emakumeei arropa, janaria, etxea eta medikuaren zainketak eman; eta lehenengo emazteak seme-alabarik izan ez dezakeenean edo tratamendu zaila duen gaixotasun bat duenean. Praktikan, gizonak emakume batekin baino gehiagorekin ezkontzen dira, batez ere landa-eremuetan, baina egiatan, ez dute Kode Zibilak adierazitako hiru egoeretatik bat bera ere betetzen.

2009ko uztailaren 8an, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Bulegoak eta NBERen Afganistango misioak 32 orrialdeko txosten bat argitaratu zuten. Txostenean ohartarazten zen emakumeen aurkako indarkeria hazten ari zela, esparru pribatuetan nahiz publikoetan.

Esparru pribatuari dagokionez, txostenak salatzen du emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren kasuak nabarmen hazi direla. Afganistanen sexua gai tabu bat izateak egoera larriagotzen du, eta bortxatutako emakumeak isilik geratzen dira, eta ez dute salaketarik jartzen. Izan ere, salatuz gero, haiei adulterioa leporatzeko arriskua dute, gizonak argudia baitezake sexu-harremana baimendua izan zela, eta auzitegi batean, gizonaren hitzak beti indar handiagoa du emakumearekin baino.

Esparru publikoan, haiek eragiten dute emakumeen aurkako indarkeria: batetik, gerrako antzinako jaunaren edo beste buruzagi militar ospetsu batzuen mehatxuek –1990eko hamarkadaren hasieran Afganistango gatazkan parte hartu zuten, eta oraindik beren fakzio armatuak dituzte–; eta bestetik, talibanek. Azken urteetan, talibanek neskatuen ikastetxe ugari eraso dituzte eta kargu politikoak zituzten emakumeak hil edo azidoa botaz eraso dituzte. Emakume politikarien aur-

kako erasoak batez ere herrialdearen hegoaldeko probintzietan gertatzen dira. Izan ere, probintzia horietan, haien aurkako errepresioa gogorragoa da, eta ia ez dute bizitza sozialik edo publikorik. Adibidez: Kandahar probintzian, 2009ko apirilean, Setara Achekzai, kontseilu probintzialeko kidea tiroz hil zuten. 2008ko irailaren 28an, Malalai Kakar izan zen biktima. Afganistango poliziako maila handieneko emakumea zen, bai eta emakumearen aurkako delituen saileko zuzendaria ere. Motozikletan zihoazen bi gizonen haren kontra tiro egin zuten, autoan bulegora zihoanean. Eta 2006an, Safia Ama Jan balaz josita hil zuten, Kandahar probintzian Emakumeen Gaietako saileko arduraduna izan zena.

Familia: ia emakume guztiak pairatzen dute indarkeria familiaren baitan

Ez dago indarkeria neurri handiagoan pairatzen duten emakumeen profil jakinik. Lehen esan dugun bezala, Afganistango emakume guztiak jasaten dute genero-indarkeria, baita Parlamentuko diputatuak, gobernuko karguek, giza eskubideen ekintzaileak eta abarrek ere, baina beste intentsitate batekin.

Global Rights GKEren *Living with violence: a national report on domestic abuse in Afghanistan* txostenak –herrialdeko 16 probintziatako 4.700 etxeetan egindako elkarrizketetan oinarrituta– nabarmentzen du etxe barruko tratu txarrak erabat normalizatuta daudela Afganistango gizartean. Horren normalizatuta daude, ezen emakumeek ziurtatzen zuten ezkondu-bizitza ona zutela, eta aldi berean, aitortzen zuten beren senarrak tratu txarrak ematen zizkiela.

Informe horren arabera, etxeko indarkeriaren indize handienak eremu hauetan daude: talibanen kontrolpean dauden Afganistango eremuetan edo emakumeentzat oso gizarte-ingurune zapaltzaileak dagoen eremuetan. Estatu-egitura gehiago dituzten eremuetan, eta batez ere hirietan, berriz, indize horiek txikiagoak dira. Edonola ere, txostenak azpimarratzen du ia emakume guztiak etxeko tratu txarren biktimak direla, tratu txar fisikoen nahiz psikologikoen biktimak.

Afganistango Diana Saqeb zinema-zuzendariaren *25 Darsad* dokumentalak ere ezin hobeto adierazten du egoera hori: Afganistango zenbait diputatu emakumezkoren testigantza jasotzen du, Parlamentuan bereziki gogotsu ari direnak eta gizarte-babesa dutenak. Emakume horien bizitza pribatua, ordea, Afganistango edozein emakumerenaren antzekoa da: senarraren nahien eta erabakien mendean dago, edo senarrak izan ezean, gizonen baten mende.

Aipatu dugun UNIFEMen ikerketaren arabera (*Violence against women. Primary database*), indarkeria sexista jasandako 2.011 kasu gehienetan, biktimak neska gazteak ziren, 20 eta 25 urte artekoak, eta landa-eremuetan bizi ziren. Emakume horien %62 ezkondua zegoen, %42 analfabetoa zen –izan ere, ez zuten ikasteko inolako aukerarik–, eta %37, etxekoandrea. Horrenbestez, etxetik ateratzeko oso aukera gutxi zuten.

Joan-etorriak egitea oso zaila denez, emakumeek ezin dute ihes egin, indarkeriatik babesteko

Afganistango emakumeentzat oso zaila da toki batetik bestera joatea. Gizarteak ez du onartzen emakume bat bakarrik bizitzea edo bakarrik bidaiatzea –adina, gizarte-klase edo hezkuntza-maila zeinahi izanda ere– gizon baten babesik gabe. Bakarrik bizitzeko edo bidaiatzeko ahalegina egiten badu, zailtasun handiak izango ditu, hala nola ostatua bilatzeko edo zenbait zerbitzu erabili ahal izateko.

Horiek horrela, indarkeria-egoerak jasaten dituzten arren, Afganistango emakumeek ez dute etxetik ihes egiteko ohitura, haien egoera erabat muturrekoa denean izan ezik. Ihes egiten badute, hiri handi batera joaten saiatzen dira –batez ere hiriburura, Kabulera– eta gobernuko erakunderen batean edo GKE batean laguntza eskatzen dute. Afganistango Emakumeen Gaietarako Ministerioak probintzietan dituen bulegoetara joan ohi dira. Hala ere, gutxi joaten dira poliziara, ez baitira fidatzen Afganistango segurtasun-talde horretaz.

Ihes egiten duten emakumeen patua beti ez da bera, joaten diren tokiaren arabera da. Emakumeen Gaietarako Ministerioaren bulego batera edo GKE batera iristen badira, litekeena da tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-etxeren batean onartzea. Gaur egun, oso baliabide gutxi daude. Lau harrera-etxe baino ez daude Afganistan osoan (bi Kabulen, bat Herat-en, eta laugarrena Mazar-e-Sharif-en, iparraldean), eta bakoitzean, hogeit hamar emakumeentzako tokia dago.

Polizia-etxera joaten diren emakumeek berriz, kartzelara joateko aukera handiak dituzte, adulterioa leporatzen baitzaie, etxetik ihes egiteagatik eta gaua non pasatu duten ez jakiteagatik (esan gabe doa, norekin pasatu duten ez jakiteagatik kartzelaratzen dituztela).

Laburbilduz, Afganistango gizartearen egiturazko indarkeria oso sustraituta dagoenez, emakumeen aukera bakarra herrialdetik ateratzea da. Hala ere, ihes egitea ia ezinezkoa da, haien egungo baldintzak kontuan hartzen baditugu. Oraingoz, ez da agertu enbaxada batean babesa eskatu duen emakume bat bera ere.

Afganistanek berretsitako Emakumeen Giza Eskubideen Hitzarmenak eta Afganistango barne-legeria

Afganistanek hitzarmen hauek berretsi ditu: Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena (ICCPR), Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena (ICESR), Emakumeen Aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Deuseztatzeko Hitzarmena (CEDAW), Haurren Eskubideen Hitzarmena (CRC), Emakumeen Eskubide Politikoen Hitzarmena, eta Balio bereko lanaren truke gizon eta emakume langileei berdintasunez ordaintzeko Hitzarmena.

2003. urtean onartutako Afganistango Konstituzioaren 22. artikulua debekatzen du “edozein motatako diskriminazioa eta pribilegioa Afganistango herritar guztien artean”, eta ezartzen du gizonak eta emakumeak berdinak direla legearen aurrean. Eta 54. artikulua Estatua beharrezko neurriak hartzea derrigortzen du, familiaren ongizate fisikoa eta psikologikoa, batez ere seme-alabena eta amarena, bermatzeko. Halaber, Islam erlijio sakratuaren printzipioen aurkako tradizioak kentzea xedatzen du.

Artikulu horiek, ordea, adierazpen batzuk baino ez dira, berdintasun formal hutsa. Praktikan, artikulu horiek ez dute inolako zeresanik, ez baitago eskubide horietako bat bera ere bermatuko duen erakunderik.

Bestalde, eta lehen esandakoarekin kontraesanean, emakumeak diskriminatzen dituzten lege ugari daude.

Afganistango Kode Zibilak, 1977koa denak, emakumeak diskriminatzen ditu ezkontzan, dibortzioan eta oinordetzan.

- Ezkontza

Mutilek 18 urte eduki behar dituzte legez ezkontzeko, eta neskek, 16. Hala ere, neskek 15 urte dituztela ere ezkon daitezke, aitaren edo auzitegi eskudun baten baimena baldin badute (70. eta 71. artikulua).

Gizonek emakume batekin baino gehiagorekin ezkontzeko eskubidea dute, baina baldintza batzuk bete behar dituzte (86. artikulua).

- Dibortzioa

Gizon bat ahoz nahiz idatziz dibortzia daiteke bere emaztearengandik (139. artikulua). Emakumeak auzitegi baten bidez soilik dibortzia daitezke, eta kasu jakin batzuetan baino ez: senarrak gaixotasun sendagaitz bat baldin badu, emaztea mantentzen ez badu, etxetik kanpo hiru urtean baino gehiagoan egon bada inolako arrazoirik gabe, edo hamar urtean baino gehiagoan kartzelan egon bada.

Emakumeak ezin du frogatu dibortziatuta dagoela. Hori dela eta, bigarren aldiz ezkontzen denean, kartzelara joan daiteke adulterioagatik edo etxetik ihes egiteagatik, bigarren ezkontza legezkoa izan arren.

- Oinordetza

Kode Zibilaren arabera, alabek eta alargunek jabetza bat oinordetzan hartzeko eskubidea dute, baina praktikan oso zaila da hori betetzea. Afganistanen, ordea, ez da uste emakumeek beren kabuz zerbait administratzeko behar adina heldutasun dutenik. Hain zuzen ere, gizar-teak ez du onartzen emakumeak bakarrik bizitzea, gizon baten edo familiaren babesik gabe bizitzea. v

- Emakumearen mugikortasuna

Emakume ezkondu baten mugikortasuna senarraren baimenaren mendean dago, eta era berean, emakume ezkondu batek ezkontidearen sexu-grinak ase behar ditu (122. artikulua). Legeak ez du ezer esaten esplizituki, baina ezkontzaren baitan bortxaketak izateko aukera ematen du. Horrez gainera, kontuan izan behar da sexua gai tabua dela Afganistanen, are gehiago emakumeentzat. Jada zaila bada emakumeentzat arrotz batek bortxatu dituela salatzea, senarrak bortxatu dituela salatzea ia ezinezkoa da.

1976ko Zigor Kodeak, gaur egun indarrean dagoenak, emakumeak zigortzen ditu delitu moralengatik:

- *Zina* (edo ezkontzaz kanpo izandako sexu-harremanak):

Ezkontzaz kanpo izandako sexu-harremanak bost eta hamabost urte arteko espetxealdi-zigorren bidez zigortzen dira (100.1. artikulua).

- Bortxaketa:

Kode Zibilak ez du jasotzen bortxaketa delitu gisa, eta dena *Zina* kontzeptuaren baitan biltzen da. 429. artikulua soilik xedatzen du hau: pertsona batek beste pertsona baten (gizona nahiz emakumea) kastitatea bortxatzen badu indarkeriaren edo mehatxuen bidez, edo koitua hasten badu, espetxealdi-zigor luzea ezarri behar zaio, eta zigorrak ez du zazpi urtekoa baino luzeagoa izan behar. Pertsona irainduak 18 urte baino gutxiago baditu, akusatua espetxealdi-zigorra bete beharko du, eta kartzela zigorrak ez du 10 urtekoa baino luzeagoa izan behar.

Praktikan, bortxaketa baten biktimak izan diren emakumeei *Zina* (ezkontzaz kanpo sexu-harremanak izatea) delitua leporatzen zaie, errugabeak direla frogatu ezin badute. Horren ondorioz, sarritan, bortxaketen biktimak kartzelaratu egiten dituzte adulterioagatik, eta haien familiek iraindu eta arbuiatu egiten dituzte. Hori dela eta, biktimek ez dute sexu-abusuak salatzeko ohiturarik.

- Etxeko tratu txarrak

Zigor Kodeak ez ditu etxe barruko tratu txarrak delitutzat hartzen, baina bai beste pertsona bat jotzea (407. artikulua). Hala ere, eskuarki, familia-auzitegiek uste dute indarkeria-mota horiek emazteak aginduak bete ez dituelako gertatzen direla, eta ez dute zigortzen. Guztiz aurkakoa egiten dute: emaztea senarrarekin itzultzera derrigortzen dute.

- Etxetik ihes egitea

Afganistango emakumeak atxilotu eta kondenatu egiten dituzte etxetik ihes egiteagatik, nahiz eta Zigor Kodeak ez ezarri delitu bat denik. Egiatan, karteletan dauden emakume askoren hutsegite bakarra etxetik ihes egin izana da. Gizon batekin ihes egiten badu, Zina delitutzat hartuko da, gizon horrekin sexu-harremanik izan ez duela frogatzen den arte. Horretarako, birjintasunaren proba egin beharko du.

- Behartutako ezkontzak

Kode Zibilak 15 urte baino gutxiago dituen neska bat ezkontzea debekatzen du. Zigor Kodeak, berriz, 18 urteko edo gehiagoko emakume bat ezkontzera behartzea delitutzat hartzen du (517. artikulua): "Pertsona batek alarguntsa bat edo 18 urte edo gehiago dituen neska bat gogoz kontra ezkontzera derrigortzen badu, espetxealdi-zigoro laburra ezarriko zaio".

Horren ondorioz, ez da delitutzat hartzen 18 urte baino gutxiago dituen neska bat ezkontzera behartzea, 15 urte baino gutxiago dituzten nesken ezkontzak debekatuta dauden arren.

Global Rights GKEk lehen aipatutako Afganistango etxeko tratu txarrei buruzko txostenean hau nabarmentzen du: Afganistanen etxeko tratu txarrei aurre egiteko lehentasunetako bat 517. artikulua aldatzea da, neska eta emakume guztiak kontuan hartzeko, ez 18 urte edo gehiago dituztenak soilik.

Afganistango estatuak ez du ezer egiten emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko

Estatuak ezer gutxi egiten du emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko. Ez da inolako zigorrrik jartzen emakumeen eskubideak urratzeagatik, eta ez dute ez jazartzen, ez ikertzen, ez epaitzen.

Esan bezala, Afganistango estatuak giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmen nagusi guztiak berretsi ditu, baina ez du inolako legeriarik edo erakunderik egin, hitzarmen horietan aurreikusitako eskubideak betearazteko. Adibidez: ez dago segurtasuna babesten duen araudirik, eta Zigor Kodearen hutsuneak direla eta, etxeko indarkeria-mota jakin batzuk ezin dira zigortu, edo zigorrak oso arinak dira.

Era berean, estatuak ez du genero-indarkeriari buruzko sentsibilizazio-kanpainarik egin, eta ez ditu funtzionarioak prestatu, gai hori lantzeko. Halaber, huts egin du, indarkeriaren biktimak diren emakumeei zerbitzu-motaren bat eskaintzeko orduan. Afganistango harrera-etxe apurrak GKEen mende daude. Etxeko genero-indarkeriaren kasuak ikertzen dituen polizia-indarrak edo sistema formalik ere ez dago.

Estatuak Emakumeen Gaietarako Ministerioaren bidez baino ez du lan egiten arlo horretan. Ministerio horrek muturreko indarkeria-kasuen emakumezko biktimak Afganistango harrera-etxeren batera bidali ohi ditu, eta irtenbide legal bat bilatzen die, nahiko zaila den arren. Esaterako, polizia nazionalan izena ematen duten nesken kasuak daude. Izan ere, neska horien irtenbide bakarra da, nolabaiteko babes izateko eta familiarekin itzuli gabe harrera-etxea utzi ahal izateko.

Emakumeen elkarteak Afganistanen: aldaketaren eragileak

Gizarte zibilak, eta zehazki emakumeen elkarteak, lan handia egiten ari dira, emakumeen eskubideen urraketa deuseztatzeko. Lehenik eta behin, Afganistango emakumeen lau elkarte ari dira kudeatzen tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako lau harrera-etxe bakarrak.

Era berean, Afghan Women's Network (AWN) sareak –65 erakundez osatutako emakumeen elkarten sare bat da eta Afganistango gobernuarekin hitz egiten du– etxeko tratu txarren aurkako legearen zirriborro bat idatzi du. Txosten bat ere idatzi du, non argudiatzen duen legez ezkontzeko gutxieneko adina handitu behar dela (informazio gehiago lortzeko, ikus www.afghanwomensnetwork.org web-orria).

AWN sarea 1995. urtean eratu zen erbestealdian, eta talibanen erregimena erori zenetik, gizarte zibilaren ordezkaria izan da eta haren izenean hitz egin du Afganistango gobernuarekin emakumeen gaietaz. Halaber, kontzientiazio-kanpaina garrantzitsuak egin ditu emakumeen eskubideei eta ahalduz buruz. Adibidez: AWNek egindako lobbyari esker, egungo Afganistango Konstituzioak emakumeen eta gizonen eskubide-berdintasuna aitortzen du.

Sare horren lanen artean nabarmen daitezke hurren ezkontzen aurkako kanpainak, hauteskundeetan parte hartzeko edo emakumeen hezkuntzaren alde emakumeak mobilizatzea. Bestalde, AWN sarean integratutako elkarte batzuek erasotzeko errazenak diren emakumeen taldeekin lan egiten dute, pairatzen dituzten erabateko diskriminazio-egoerak hobetzeko ahaleginean (adibidez: emakume presoekin).

Afganistanen emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko proposamen batzuk

- Emakumeak diskriminatzen dituzten legeak aldatzea eta erakundeen mekanismoak sendotzea, berdintasuna aldarrikatzen duten legeak betetzeko.
- Ezkontzen eta jaiotzen erregistro bat sortzea.
- Ezkontzeko ezkonsariaren indargabetzea sustatzea.
- Bortxaketa eta ezkontza behartuak delitutzat hartzea Zigor Kodean, eta gizonen testigantzari balio handiagoa ematen dioten prozedura-legeak aldatzea.
- Familiak beren alabak eskolatzera behartzea.
- Emakumeen independentzia ekonomikoa sustatzea.
- Emakumeen ahalduz ematen duten GKEak eta emakumeen elkarteak sendotzea.

Aldaketa horiek lortzeko, ezinbestekoa da nazioarteko presioa eta Afganistango Gobernuari laguntzen dioten herrialdeek laguntza emateko baldintzak jartzea: Afganistango Gobernuak biztanleria osoaren giza eskubideak errespetatu beharko ditu, eta batez ere emakumeenak.

2.2.2. Asilo-eskubideari eta Afganistango emakumeen eskubideen urraketari buruzko hausnarketak

Genero-arrazoiengatiko jazarpen mota guztien adierazpena

Emakumeen egoera Afganistanen batez ere adierazgarria da genero-arrazoiengatiko jazarpenari dagokionez. Kasu honetan, aurreko atalean tipifikatutako jazarpen mota ia guztiei buruz hitz egin dezakegu. Izan ere, emakumeen aurkako indarkeriak bizitzako eremu guztietan du eragina. Arazo horri buruzko artikuluan ikusi dugun bezala, Afganistanen emakumeak emakume izateagatik jazartzen dituzte, eta rolak, erantzukizunak eta debekuak ezartzen zaizkie beren sexuan oinarrituta (horiek guztiek beren garapen pertsonala eta sexu-garapena larriki mugatzen dituzte). Horrez gainera, gizonekin alderatuta, ez dizkiete zigor berak ezartzen egoera berdinetan.

Afganistango estatuak jazarpena toleratzen eta gauzatzen du

Emakumeen aurkako indarkeria egiturazkoa da, eta eremu pribatuan nahiz publikoan nozitzen dute. Jazarpenaren eragileak familia nahiz komunitatea dira, bai eta Afganistango Estatuak bera ere. Estatuak emakumeen aurkako indarkeria baimentzeaz gain, zuzenean erabiltzen du haien aurka politiken eta legeen bidez.

Asilo-eskubidea eskuratzeko zailtasunak

Afganistango emakumeek Espainiako asilo-sistema erabili ahal izateko zailtasunak dituzte. Hauek nabarmen ditzakegu:

batetik, eta artikuluan azaltzen den bezala, lekuz aldatzeko ezintasuna, ihes egiteko. Afganistango pertsona ororen ihes egiteko berezko zailtasunez gain, emakumeek berariazko arazoak dituzte, besteak beste: bakarrik bidaiatzen badute, gizarteak errefusatu egiten ditu, eta poliziara joaten badira, kartzelara joateko aukera handiak dituzte. 2008an, Espainiako Estatuan asiloa eskatu zuten Afganistango 50 pertsonetatik 2 baino ez ziren emakumeak.

Bestalde, babesa lortzeko beste oztopo handi bat da Espainiako asilo-politika oso murriztailea dela. Argitalpen honen V. kapituluaren egoera horri buruzko xehetasun gehiago ematen dira. Une honetan hau nabarmen dezakegu: Espainiako Estatuak, alde batetik, 2008an Afganistanen soldaduak izatea justifikatu, eta 2009ko azken hiruhilekoan soldaduen kopurua handitu zuen; baina bestetik, ez zituen babestu herrialde horretatik etorri eta babesa eskatu zuten pertsonak.

2.3. Emakumeen genitalen mutilazioa

2.3.1. Artikulua

■ *Emakumeen genitalen mutilazioa: Asiloa, nortasuna eta giza eskubideak*

Adriana Kaplan eta María Helena Bedoya, Universitat Autònoma de Barcelona unibertsitateko Grupo interdisciplinar para el Estudio y Prevención de las Prácticas Tradicionales Perjudiciales (GIPE/PTP) taldea

Artikulu honek helburu hauek ditu: emakumeen kontrako mutilazio genitalaren egoera berrikustea, gure herrialdean duen zuzeneko eragina erakutsiz; eta jakintza-alorren arteko ikuspuntutik hausnartzea alderdi antropologikoak eta legalak garrantzitsuak direla arazoaren alderdi guztiak ulertzeko, asilo-eskubideari dagokionez.

Kalkulu araber, Saharaz hegoaldeko Afrikako 28 herrialdeetako 130 milioi emakumeri baino gehiagori, modu batean edo bestean, moztu dizkiete genitalak. UNICEFen 2005eko txostenaren arabera (Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa), kalkulatu da urtero 3 milioi neskato inguruk dutela genitalak mozteko arriskua. Migrazio-fenomenoen ondorioz, mundu osoko migraziozaitelen komunitateetan ere emakumei genitalak mozten hasi zaizkie (hala nola Europan, Estatu Batuetan, Kanadan, Australian eta Zeelanda Berrian). Tokiko arazo hori mundu mailako arazo bihurtzen ari da, eta emakumeen genitalen mutilazioa hedatzen ari da.

Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde askotan, ohikoa da emakumei genitalak mozteko, haurtzarotik helduarora pasatzeko errituen kultura-testuinguruan, eta neskatoak sozializatzeko elementu gisa. Sinesmen kulturalen, tradizioen eta gerontokrazien sare bat dago, eta emakumeen osotasun fisikoaren aurkako ebakuntza horiek iraunarazten ditu⁷⁶.

Zer da emakumeen genitalen mutilazioa?

Emakumeen genitalen mutilazioa emakumei sexu-organoak erabat edo zati bat erazteko da. Praktika horrek ez du helburu terapeutikorik, arazoi kulturalak eta/edo sozialak direla eta egiten da.

Denbora askoan, praktika horri *emakumeen zirkunzisia* esan izan zaio, baina kontzeptu horrek pentsaraz dezake gizonen zirkunzisia antzekoa dela, eta ez da hala. Bi praktika horiek erabat desberdinak dira. Emakumeen eta neskatoen osasunean eta ongizatean ondorio larriak eragiten ditu, eta giza eskubideen aurkako atentatu larria da.

Esparru akademikoetan, zehazki gizarte zientzien eta biomedikuntzaren esparruetan, *emakumeen genitalak ebakitzea* terminoa erabiltzen da gehien. Nahiago da praktika hori termino horren bidez izendatzea, modu neutro bat baita, ez ebakuntzari buruz hitz egiteko, baizik eta ebakuntza egiten duen biztanleriari buruz hitz egiteko. Hala, ez da praktika hori iraintzen edo ankertzen, eta ez da hari buruzko epai moralik egiten.

Emakumeen eta emakumeen giza eskubideen defendatzaileek proposatzen dute *Emakumeen Genitalen Mutilazioa* (EGM) terminoa erabiltzea. Termino horrek terminologia-joera eta kontzeptu-joera aldatzen ditu. Mutilazio hitzak ekintza horren larritasuna nabarmentzen du, eta emakumearen organismoko zati funtzional eta osasuntsu bat anputatzea dela defendatzen du. Horrenbestez, ekintza horrek emakumeen eta neskatoen osotasun fisiko eta psikikoari erasotzen die, bai eta haien eskubide oinarrikoenei ere. Nazioarteko foro batzuk termino hori erabiltzen hasi dira, Batzorde Inter Afrikarra bera ere bai, eta Munduko Osasun Erakundeak (MOE) eskatuta, Nazio Batuen Erakundeak erabaki du agiri batzuetan erabiliko duela, zenbait praktika tradizional, kultura, erlijio eta komunitate ez kriminalizatzeko. Termino hori erabili ezean, eta praktika horien eraginak jasaten dituzten kulturak errespetatzearen, beste termino hau ere erabiltzen da, ekintza definitzeko: "Emakumeen eta neskatoen osasunean eragin kaltegarriak dituzten praktika tradizionalak".

Artikulu honetan, Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EGM) terminoa erabiliko dugu, nazioarteko agendetan hala erabiltzen baita, eta praktika horrek emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak bortxatzen baititu, eta egiturazko genero-indarkeria iraunarazten baitu.

⁷⁶ Kaplan, A.: "Mutilaciones Genitales Femeninas: entre los derechos humanos y el derecho a la identidad étnica y de género" in *Multiculturalidad y Justicia. Cuadernos de Derecho Judicial, Consejo General del Poder Judicial, Madrid* (2002), 197-216 or.

Tipologia eta geografia

MOEren arabera, lau EGM mota daude, ebakuntzaren gogortasunaren arabera. **I. mota** edo **klitoridektomia**: klitoriaren prepuzioa kentzea da, klitoria osorik edo klitoriaren zati bat moztuta edo moztu gabe. Islamaren munduan, *sunna* esaten zaio, eta sarritan emakumeen zirkunzisia esaten zaionaren baliokidea da, Afrikan, gizonen zirkunzisiorekin parekatzen dute. **II. mota** edo **eszisioa**: klitoria erauztea, eta ezpain txikiak osorik edo ezpain txikien zati bat erauztea; ezpain handiak ez dira ukitzen. **III. mota** edo **infibulazioa**: mutilazio mota gogorrena da: klitoria, ezpain txikiak eta ezpain handiak erauzi eta aluaren bi aldeak josten dituzte; zulo txiki bat uzten dute, gernua eta hilerokoaren odola atera ahal izateko. **IV. mota**: sexu-organoetan egiten diren zenbait praktika hartzen ditu baitan, denek ez dute gogortasun bera eta helburu terapeutikorik gabe egiten dira (*piercing, dry sex, stretching*, klitoria kauterizatzea eta abar).

IV. motako praktika horietako batzuk Mendebaldeko herrialdeetan egiten dira. Emakumeek beren borondatez egiten dituzte, gorputza edertzeko edo beste kultura batzuetatik etorritako modei jarraitzeko. Horretan desberdintzen da, batez ere, I., II. eta III. motetatik. Izan ere, I., II. eta III. Mutilazio-motetan, neskatoei ebakuntza hori egiten diete, eta ezin dute erabaki beren gorputzei eta osotasunari buruz.

I. eta II. mutilazio-motak nagusi dira Saharaz hegoaldeko Afrikako mendebaldeko herrialdeetan. Ekialdeko Afrikan, berriz, III. EGM mota da ohikoena, batez ere Sudanen, Somalian, Eritrean eta Etiopiako eremu batzuetan. Banaketa horri buruz hau zehaztu behar da: emakumeen genitalen mutilazioa ez da Afrikako herrialde guztietan egiten, eta herrialde bereko talde etniko guztiek ez dute egiten. Adibidez: Senegalen (emakumeen %20ri mutilatzen dizkiote genitalak) biztanleria-ren gehiengo wolof etniakoa da, eta etnia horrek tradizioz ez du mutilaziorik egiten.

Osasunean zer ondorio dituen

Ohikoa da emagin tradizional batek egitea prozedura hori. Emagin horrek jakintza eta trebetasun bereziak dituela esaten da. Gehienetan, ebakuntza inolako anestesiarik gabe egiten da, tresna zorrotz baten bidez (aiztoak, bizar-xaflak, beirak...), eta tresneriaren asepsia- eta higiene-baldintza txarretan.

Halaber, emakumeei egiten zaien mutilazio-mailak eragina du epe laburrean, ertainean eta luzean. Infibulazioa jasan duten emakumeek ondorio larriagoak izaten dituzte (III. mota).

EGMren berehalako ondorioei dagokienez, kontuan izan behar da aluaren ingurua oso eremu baskularizatua eta inerbatua dela. Klitoria eta ezpain txikiak erauzteak min handia eragiten du, bai eta beldurra eta larritasuna ere. Sarritan, minak gernua egitea eragotz dezake, eta gernerretentzia eragin. Era berean, klitoriaren anputazioak odoljariora eragiten du. Odoljariora zenbaitetan handia da, eta neskatoari shocka eragiten dio eta haren bizitza arriskuan jartzen du. Epe ertainean eta luzean, mutilazioak eragindako odoljariorak anemia larria eragin dezake, Afrikako eremu batzuetako malnutrizio eta herentziazko anemiekin batera.

Ebakuntza esterilizatu gabeko edo gaizki esterilizatutako tresnak erabiliz egiten bada, zauriak infektatu egin daitezke, eta infekzioaren ondorioz, zorne-zorroak eta septizemiak ager daitezke, bai eta ehunak gangrenatu ere. Halaber, gernu- edo ginekologia-infekzioak ere ager daitezke. Gainera, erabiltzen diren material ez-aseptikoek tetanosa, B-C hepatitis eta giza immunoeskasiaren bi-

rusa (GIB) kutsa ditzakete. Kontuan izan behar da errituak ia beti taldeka egiten direla, eta neska-guztiek tresneria bera erabiliz egiten zaiela ebakuntza. Horren ondorioz, ingurune horietan epidemia-kate suntsitzaila dago, bai eta seropositibo-kopuru handiak ere. Dandash-en ikerketak⁷⁷ adierazten du EGM kasuen %26an konplikazio larriak eta/edo azpi-larriak izaten direla.

Epe luzera, mota askotako ondorioak ager⁷⁸ daitezke⁷⁹. Azpimarragarriak dira obstetrizia-konplikazioak, batez ere infibulazioa jasan duten emakumeetan (III. mota), fetuaren sufrimendua eta amen heriotza-tasa areagotzen⁸⁰ baitu⁸¹. Eszizioak (II. modua) eragin gutxiago du ugaltze-osasunean⁸². Hala ere, erditzean ohikoa da orbaina urratzea, perineoaren eremuan ez baitago dilatatze behar adina elastikotasun, ehunen eszizioaren eta kisteen sorreraren eraginez.

Halaber, nabarmendu behar da epe luzera sexu- eta ginekologia-konplikazioak izaten direla. Klitoria emakumeen sexu-organoen zatirik sentikorrena da. Klitoriaren zati bat edo klitori osoa erauzi ondoren, sexu-sentikortasuna ezinbestean aldatzen da, eta orgasmoa izatea zail dezake, bai eta orgasmoa galarazi ere. Ginekologia-ondorioak behin betikoak izan daitezke, eta antzutasuna eragin dezakete.

Genitalen mutilazioak osasun mentalean eta sexu-osasunean zer eragin duen, eta emakumeek zer bizipen dituzten oso gutxi ikertu da. Hala ere, gai horri buruzko literaturan ere jasotzen da informazio hori⁸³. Emakumeek iraina, lotsa edo gaueko izu-ikarak sentitzen dituztela nabarmentzen da. Bartzuetan, buru-nahasmenduak ere ager daitezke, batez ere larritasuna eta depresioa.

Ez dago zalantzarik: EGMrekin lotutako faktore horiek guztiek osasun-egoera eta bizi-kalitate okerragoa izatea eragiten dute. Halaber, neskato batzuen bizitza arriskuan jartzen dute, eta genero-desberdintasuna eta emakumeen diskriminazioa iraunarazten dute⁸⁴.

Zer diote tradizioak eta erlijioak?

Emakume batzuek praktika horri eusten diote, eta praktika hori aldarrikatu, defendatu eta gauzatzeko dute. Argudiatzen duten arrazoi nagusia garbitasuna da: zirkunzidatutako emakumea emakume garbia da. Gizonak ere garbitasun-kontuak direla-eta zirkunzidatzen dira: gizon zirkunzidatua gizon garbia da.

Bi zirkunzizioen arteko alderik oinarritzakoa kultura horiek zirkunzizio bakoitzari ematen dioten erlijio-kutsuaren arabera da. Diotenez, gizonen zirkunzizioa Koranetik datorren betebeharrak bat da, eta horrenbestez, derrigorrezkoa da. Gizon musulman guztiak, baita juduak ere, zirkunzidatuak daude, baina emakume musulman guztiak ez daude zirkunzidatuta, batzuk baino ez. Emakumeen

⁷⁷ Dandash, KF; Refaat, AH; Eyada M.: "Female Genital Mutilation: A descriptive Study" *in* J Sex Marital Ther 27 (2001) 453-458. or.

⁷⁸ Toubia, N.: "Female circumcision as a public health issue" *in* N Engl J Med 331 (1994), 712-716. or.

⁷⁹ American Academy of Pediatrics. Committee on Bioethics. Female Genital Mutilation. Pediatrics 102 (1998), 153-156. or.

⁸⁰ The Royal College of Midwives. Female Genital Mutilation (Female Circumcision). Position Paper 21, Londres, 1998.

⁸¹ Munduko Osasun Erakundea. Eliminating Female Genital Mutilation. Geneva, Suitza, 2008.

⁸² Morison, L.; Scherf, C.; Ekpo, G.; Paine, K.; West, B.; Coleman, R.; Walraven, G.: "The long-term reproductive health consequences of female genital cutting in rural Gambia: a community-based survey", *in* Trop Med Int Health 6 (2001); 643-653. or.

⁸³ El-Defrawi, MH.; Lotfy, G.; Dandash, KF.; Refaat, AH.; Eyada, M.: "Female Genital Mutilation and its Psychosexual Impact", *in* J Sex Marital Ther 27 (2001), 465-473. or.

⁸⁴ El-Defrawi, MH.; Lotfy, G.; Dandash, KF.; Refaat, AH.; Eyada, M.: "Female Genital Mutilation and its Psychosexual Impact", *in* J Sex Marital Ther 27 (2001), 465-473. or.

zirkunzioa *sunna* bat da; hau da, tradizioaren zati bat da eta gomendagarria da, baina ez derri-gorrezkoa. Garrantzitsua da azpimarratzea islamaren aurreko praktika bat dela, eta Koranak ez duela praktika horri buruzko aipamenik egiten txatal batean ere. Bibliako Itun Zaharrak, aldiz, gizonen mutilazioa aipatzen du.

Kulturan eta gizartean, zirkunzioa, gizonena nahiz emakumeena, haurtzarotik helduarora pasatzeko errituaren zati bat da. Horrenbestez, erritu hori ezinbestekoa da neska-mutilak helduen munduan sartu ahal izateko, alde batera utzita nerabezaro sozial bati buruz ari garela, eta ez nerabezaro fisiologiko bati buruz. Beste kultura askotan bezala, mundu hori argi eta garbi definituta eta bereizita dago: emakumeen ezkutuko mundua eta gizonen ezkutuko mundua daude. Zirkunzioa behin betiko "marka" bat da, eta pertsona hori taldera bizitza osorako lotzen dela sinbolizatzen du. Beraz, gizarte-kohesioari eta gizartearen kide izateari buruzko gai bat da; barruan zaude ala kanpoan zaude⁸⁵.

Afrikako emakumeek arrazoi hauek ematen dituzte klitoridektomia eta eszisia egiten jarraitzeko (I. eta II. motak), eta haien ustez "arrazoi praktikoak" dira: garbitasuna, estetika, erditzea erraztea, gizarte-kohesioa sustatzea, promiskuitatea prebenitzea, ezkontzeko aukerak areagotzea, birjintasuna babestea, emakumea gizonengandik urrun egotea eta senarrari leiala izango zaiola ziurtatzea, emankortasuna sustatzea, osasun ona izatea eta lehenengo haurdunaldian dauden emakumeen haurrak hilda jaiotzea prebenitzea (izan ere, jaioberriak jaiotzean buruarekin klitoria ukitzen badu, hil daitekeela edo buru-nahasmendua izan dezakeela uste⁸⁶ dute⁸⁷).

Egitan, emakumeek ez dute ekintza horren justifikazio espliziturik ematen, zuzenean betetzen dute, besterik ez. Eta galdetzen zaienean, asko jota, tradizioa, erlijioa, estetika ("gehiegi haz daiteke, zakila bezala"), osasuna ("garbiagoa da") eta babesia ("birjintasuna babesteko", "promiskuitateaz babesteko") aipatzen dituzte argudio gisa.

Praktika horiei eusten dieten kulturen presioa eta gizarte-egitura oso indartsuak dira. Izan ere, tradizioak sendotzen eta sustatzen ditu, bai eta zaharren esperientziak, amek, erlijio-mezu nahasiek eta lege anbiguoek ere. Hala, Jartum-go Unibertsitatean (Sudan)elkarrizketatuko ikasle gehienek eta EGM egitearen alde zeudenek esaten zuten arrazoi erlijiosoetan oinarritzen zela⁸⁸.

Espainiako egoera

Azken 20 urteetan, Saharaz hegoaldeko Afrikako zenbait herrialdeetatik datozen mugimendu migratzaileen helburu bihurtu da Espainia. Kontinenteek ez dute emigratzen, ez eta koloreek ere, baizik eta pertsonak eta beren kulturek. Osasunaren, hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen eta justiziaren arloko profesionalak, besteak beste, beste kultura-errealitate batzuk ezagutu behar izan dituzte eta beste laguntzazko erronka batzuei aurre egin⁸⁹, talde horien akulturazio- eta gizarte-ratze-prozesu konplexuen baitan.

⁸⁵ Kaplan, A.: *De Senegambia a Cataluña: Procesos de aculturación e integración social*, Fundació La Caixa, Bartzelona, 1998.

⁸⁶ Lacoste-Dujardin, C.: *Las madres contra las mujeres. Patriarcado y maternidad en el mundo árabe*: Universitat de València, València, 1993.

⁸⁷ Little, C.M.: "Female genital circumcision: medical and cultural considerations", *in* J Cul Divers 10 (2003), 30.-34. or.

⁸⁸ Herieka, E.; Dhar, J.: "Female genital mutilation in the Sudan: survey of the attitude of Khartoum university students towards this practice", *in* Sex Transm Infect 79 (2003), 220.-223. or.

⁸⁹ Kaplan, A.; Torán, P.; Bedoya, M.H.; Bermúdez, K.; Castany, M.J.: "Las mutilaciones genitales femeninas en España: Posibilidades de prevención desde los ámbitos de la atención primaria en salud, la educación y los servicios sociales" *in* Revista Migraciones 19, Madrid (2006).

Familia ugari etortzen ari da gure gizartera, EGM oso sustraituta dagoen zenbait ingurune geografiko, historiko, sozial eta kulturaletik datozen familia ugari. Egoera horrek eragiten du praktika tradizional mota horien aurrez aurre egotea, eta praktika horiek oso kaltegarriak dira gure herrialdean jaio eta bizi diren komunitate horietako emakumeentzat eta neskeentzat. Bestalde, talde horiek gero eta garrantzi demografiko handiagoa dutenez, datozen urteetan, ohikoa izango da gure ingurunean EGM jasateko arriskuan dauden neskek egotea⁹⁰.

Horrenbestez, laguntzako esparrua gainditzeko duen osasun-arazo bat da: emakumeen eta neskatuen giza eskubideak urratzen ditu (osotasun fisikoaren, osasunaren eta aukera-berdintasunaren eskubideak), pertsonen identitatearekin estuki lotutako gaiei zenbait kulturatako ikuspuntuetik heldu behar zaie, eta praktika tradizional horiek galarazteko konpromiso morala hartu behar da. Izan ere, praktika horiek emakumeei diskriminaziozko tratu umiliagarria eta mingarria eragiten die, eta batzuetan, haien bizitza arriskuan jartzen du.

Espanian, lehenengo kasuak Katalunian azaldu ziren 1993. urtean. Osasunaren arloko profesionalak salatu zituzten kasu horiek, baina neskatuen gurasoak absolutu egin zituzten, hau alegatuz: "min emateko asmorik ez izatea eta debekatuta zegoela ez jakitea". Bitartekotza antropologiko bati esker, erritua ulertu ahal izan zen, Afrikako kulturen bizi-zikloaren testuinguruan kokatuz. Halaber, egiaztatu zen gurasoek ez zutela Espainiako legeriaren berririk, ez eta praktikak ekar zitzakeen ondorioen berririk ere. Aldi berean, kasuak hauteman ziren udalerrietako immigranteen komunitatearekin konpromiso bat lortu zen: hemen praktika horiek ez egitea. Orduetik, ez da berririk izan Espainian halako ebakuntzei buruz, baina jakin badakigu familia batzuek beren jatorrizko herrialdeetara egiten dituzten bidaiak aprobetxatzen dituztela, beren alaben inimizazioa egiteko.

Zer dio legeak?

Nazioartekak EGMren aurkako iritzia eman du foroetan, hitzarmenetan eta adierazpenetan, Nazio Batuen zenbait agentziaren (OME, UNICEF⁹¹, UNFPA⁹²...) eta Europar Batasunaren bidez. Giza eskubideei, eta emakumeen eta neskatuen eskubideei erasotzen dieten praktikak direla uste da.

Nazioarteko ebazpen horien babesean, Mendebaldeko herrialde gehienek EGMren aurkako legeak egin dituzte. Afrikako gobernu batzuek aspaldiko praktika horiek debekatu dituzte, eta beren parlamentuetan praktika horiek zigortzeko berariazko legeak onartu dituzte, hala nola Senegalek, Malik, Burkina Fasok, Mauritaniak eta Ghanak. Hala ere, oraindik ez dago praktika horiei buruzko legeria bateraturik. Legeria sortzean, gobernuak aurrerapen handia egin dute oinarriko eskubideak aintzatesten. Halaber, legeriak lan egiteko esparru juridiko bat sortzen du. Hala ere, orain arte, eragin txikia izan du genitalen mutilazioa jasan duten emakume-kopuruan⁹³. Esaterako, Etiopian gertatzen dena paradigmatikoa da: Konstituzioak praktika hori debekatu du, baina oraindik, emakumeen %85i genitalak moztu dizkiote.

⁹⁰ Bledsoe, C.L.; Houle, R.; Sow, P.: "High fertility and the policies of selection among Gambian immigrants in rural Spain", in MPIDR-EAPS Workshop, Anthropological Demography of Europe, Rostock, Alemania, 2005eko irailaren 30-urriaren 1.

⁹¹ Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa, ingelesezko siglak.

⁹² Nazio Batuen Biztanleriaren Funtsa, ingelesezko siglak.

⁹³ Demographic Health Survey on Female Genital Mutilation, New York, (2008).

Zigor-zuzenbidea tresna baliagarria al da arazo horri aurre egiteko?

Garapen hori Mendebaldeko herrialdeetan egiten ari diren programetan ere aplikatu daiteke, kulturaren aldaketa eta prebentzioa sustatzeko joera duten neurri legalekin eta ekintzekin batera.

Delitu horiek gizakiaren osotasunaren aurkako erasoak eta emakumearen aurkako indarkeriazko ekintzak dira. Zuzenbideak nola berma ditzake berariazko delitu-mota horien aurkako ekintzak, kulturaren ikuspuntua galdu gabe?⁹⁴ Espainiako Zigor Kodeak zer arautzen du emakumeen genitalen mutilazioari buruz?

Emakumeen genitalen mutilazioa, edozein motatakoa izanda ere, Zigor Kodean⁹⁵ tipifikatutako lesio-delitua da, *irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoak* (BOEko 234. alean argitaratua, 2003ko irailaren 30ean, asteartean), *hiritarren segurtasunaren, etxe barruko tratu txarren eta atzerritarren gizartratzearen inguruan neurri zehatzak ezartzen dituenak*, egindako erreformaren arabera.

Zigor Kodeko 149. artikulua:

1. Norbaitek, edozein bide edo prozedura erabiliz, beste bati eragiten badio organo nahiz gorputz-adar nagusi edo zentzumen baten galera nahiz gauzaeza, edo inpotentzia, antzutasuna, itxuragabetasun larria, edo gaixotasun psikiko edo somatiko larria, orduan, pertsona horri sei urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.
2. Norbaitek beste bati genitalak mutilatzen badizkio, edozein modutako mutilazioa, orduan, pertsona horri sei urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio. Biktima adinez txikikoa edo ezgaia bada, guraso-ahalaren eskubidea, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaikuntza-zigor berezia aplikatu ahal izango da lau urtetik hamar urte arteko aldian, epaileak adinez txikikoarentzat edo ezgaiarentzat egokia dela irizten badu.

Delitu horietan babestutako ondasun juridikoak zuzenean aitortzen du Konstituzioaren 15. artikuluan⁹⁶ jasotako osotasun fisikorako eta moralerako eskubidea:

- a) Gorputzaren osotasuna edo osotasun fisikoa; hau da, gorputzaren egoera barne- eta kanpo-osotasun anatomiko/funtzionalean egotea. Gorputzaren osotasuna urratu egiten da, gorputzeko edozein organo, atal edo zati galtzean, gauzaez bihurtzean, kaltetzean edo desitxuratzean.
- b) Lesio-delituetan gorputzaren osotasuna eta osasuna babestutako ondasun juridikoa dela aipatzeak doktrina- edo jurisprudentzia-harrera handia merezi izan du.

⁹⁴ Ikus taldean egindako artikulua hau, medikuntza-aldizkari espezializatu honetan argitaratua: "Las Mutilaciones Genitales Femeninas: reflexiones para una intervención desde la atención primaria", *in* Atención Primaria 38, 02.alea. ISSN: 0212-6567: www.elsevier.es/revistas/ctl_servlet?_f=7064&articuloId=13090438

⁹⁵ Gaiari buruz sakontzeko, ikus Bedoya Muriel, María Helena: lege-testua hemen: *Guía de actuación para profesionales sobre la prevención de la Mutilación Genital Femenina* (MGF). IDIL proiektuaren barruan (*Instruments to develop the integrity of ladies*- Neskatoen osotasuna babesteko tresnak) hasi zen, Europar Batzordeko Justizia eta Gizarte Gaietako Zuzendaritza Nagusiaren 2000-2003 DAPHNE programaren baitan. Gaur egun, "Las mutilaciones genitales femeninas en España: procesos de aculturación e integración social. Formación y prevención desde los Servicios de Atención Primaria" proiektuan kokatuta dago. Proiektu hori Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Gizarte Antropologia sailekoa da, eta Adriana Kaplan Marcusan doktoreak zuzentzen du. 2004ko urtarrila.

Evaluating the impact of existing legislation in Europe with regard to Female Genital Mutilation, Spanish National Report, 2003ko urtarrila-2004ko martxoa, Javier De Lucas (zuzendaria), Daphne programaren babesarekin.

⁹⁶ EEko 15. artikulua: "Guztieki bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea dute, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor eta tratu jasanezin edo apalesgarrikeria ere (...)."

- c) Gizakiaren osotasuna eta osasun pertsonala, fisikoa nahiz burukoa, MOEren "osasun" hitzaren definizioaren arabera.
- d) Adinez txikikoaren garapen psikikoa eta fisikoa.

Delitua jazartzea: lurraldetasun-printzipioa

Delitua jazartzeari dagokionez, *Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren* 23. artikulua adierazten du EGM zigor daitekeela, Espainiako lurraldeetan egiten bada. Atzerritar batek edo bertako herritar batek egindako ekintza ez balitz Espainian gertatu, praktikan gertatzen diren kasu gehienetan bezala, garrantzia hartzen dute zigor-legearen lurraldetasun-printzipioak eta haren zabalkundeek eta salbuespenek, zehazki lurraldez kanpokotasunak. Lurraldez kanpokotasuna jasota dago lege honetan: *uztailaren 8ko 3/2005 Lege Organikoa, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duena, emakumeen genitalen mutilazioa lurraldez kanpo jazartzeko*. Lege horrek g) epigrafea gehitu zion 23. artikulua 4. paragrafoari:

4. Espainiako jurisdikzioak eskumena izango du bertako herritarrek edo atzerritarrek lurralde nazionaletik kanpo egindako ekintzen berri izateko, Espainiako zigor-legearen arabera tipifika daitezkeen ekintzak direnean. Esaterako, delitu hauetako bat denean (...) g) Emakumeen genitalen mutilazioari buruzkoak, baldin eta erantzuleak Espainian badaude.

Praktika tradizional kaltegarri bati aurre egiteko zigor-zuzenbidea bakarrik erabiltzeari "gehieneko zigor-zuzenbidea" esaten zaio. Hau da, uste da Zigor Kodeak gizartearen balioen edo interesen aurkako egoera guztiak jaso beharko lituzkeela.

Aitzitik, *Grupo de Estudios de Política Criminal* taldeak, eta haien artean Gonzalo Escobar Marulandak⁹⁷, uste du "gutxieneko zigor-zuzenbidearen" printzipioari eutsi behar diogula, immigrazioaren arloko Europako politika kriminalari dagokionez, eta estatuak baldintza hauek betetzen diren egoeretan soilik zigortu behar duela: oso ondasun juridiko garrantzitsuak erasotzen direnean, ondasun horiei oso eraso larriak egiten zaizkienean, eta gatazka zuzentzeko beste modurik ez dagoenean.

Beharrezkoa al zen Zigor Kodea aldatzea? Zer ondorio ditu erreforma horrek?

11/2003 Lege Organikoa, hiritarren segurtasunaren, etxe barruko tratu txarrak eta Espainian atzerritarren gizarteratzearen inguruan (hiritarren segurtasunaren izaera handiagoa du gizarteratzearena baino) *neurri zehatzak ezartzen dituenak*, Zigor Kodea erreformatu zuen. Erreforma horren bidez, legegileak tresna eraginkor eta pragmatiko bat bilatzen du zigor-zuzenbidean, Espainian dokumenturik gabeko atzerritarren presentzia kontrolatzeko eta murrizteko. Hala, Zigor Kodean egindako erreformak lagungarriak dira gutxieneko esku-hartzearen printzipioa okertzeko: ahal den gutxiena esku hartetik aukera txikienean esku hartzera pasatu da.

Patricia Laurenzo Copellok⁹⁸ esaten duen bezala, besteak beste, erreforma horri buruz hitz egitean, paradoxikoa da zer arrazoi eman zituen, Espainian atzerritarren gizarteratze-maila handiagoa lortzeko nahiari buruz. Egilearen arabera, egiatan, printzipioen adierazpen horrek neurri-multzto bat ezkututzen du. Neurri horiek arlo horretan zigor-ordenamenduak emandako azken

⁹⁷ Escobar, M.; Gonzalo, J.: Seminario sobre Derechos Humanos, UPF-SOS RACISME, 2008ko urriaren 22a: www.sosracisme.org/acciones/iniciativa.php

⁹⁸ Laurenzo Copello, Patricia: "últimas reformas en el derecho penal de extranjeros: un nuevo paso en la política de exclusión". Lan hori Zientzia eta Teknologia ministerioaren "el papel de las diferentes instituciones, en el ámbito de la inmigración" ikerketa-proiektuaren baitan egin zen, BJI-2001-2881.

urratsak katalogatzeko aukera ematen du soilik, immigranteak baztertzeko eta markatzeko politika finkatzeko.

Hala, Parlamentuko debatean, Emakumeen Eskubideen aldeko Batzorde Mistoan eta Kongresuko osoko bilkuran (VI. eta VII. Legealdia) izandako debateetan gertatu zen bezala, Zigor Kodearen 149. artikulua erreformatzearen aldeko argudioak eman ziren. Argudio guztietan, gaia zuzenean lotu zen kontzeptu hauekin, besteak beste: *immigrazioa, giza eskubideak, kultura eta erlijioa*. Gai horrek kausalitate-lotura inplizitu bat ezartzen du pertsona atzerritarren, giza eskubideen urraketaren, atabismoen, eta oro har, "gizarte-desordenaren" edo portaera kriminalaren seinaleen artean. Argudio hori hobeto ulertzeko, ezinbestekoa da iturrira jotzea; hau da, *hiritarren segurtasunaren, etxe barruko tratu txarren eta atzerritarren gizarteratzearen inguruan neurri zehatzak ezartzen dituen Lege Organikoaren Proiektuari* buruzko legegintzako ekimen osoaren Parlamentuko Debatera⁹⁹.

Garai hartako Justiziako ministroak hitz egin zuenean, Gobernuak proposatutako erreforma defendatu zuen:

Michavila Nuñez Justiziako ministro jauna (12.546 orrialdea): "Gauza bera esan daiteke gure herrialdean ere zoritxarrez gertatzen ari den praktika gaitzesgarri horri buruz, emakumeen genitalen mutilazioari buruz, alegia. Praktika matxista izateaz gain, praktika iraingarria eta gaitzesgarria da. Praktika benetan ankerra da, eta ez dago gure Zigor Kodean adierazita, jaun-andreok. Eta hala esaten du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, eta hala esaten du Auzitegi Goreneko bigarren aretoan errepikatutako jurisprudentziak ere. Une honetan, gure Zigor Kodeak ez du zigortzen praktika gaitzesgarri eta anker hori. Hori dela eta, ezinbestekoa da erreforma hori egitea, beharrezkoa da hobeto defendatzea fede onean gure herrialdera lan egitera datozen immigranteak. Horretarako, eraginkortasun handiagoz borrokatu behar da lanerako baimen faltsuak salduz immigranteen fede onaz neurritz kanpo baliatzen direnen aurka. Halaber, borroka egin behar dugu etorkinen itxaropenekin, ilusioekin, bizitzarekin eta duintasunarekin trafikatzan dutenen aurka, sexu- edo lan-esplotaziorako immigranteak esklabo bihurtzen dituzten horien aurka."

Une hartan, Parlamentuko talde sozialista zen oposizioko alderdi nagusia, eta alderdi horretako ordezkariak hau esan zuen bere txanda heldu zenean;

López Aguilar diputatu jauna (12.556 orrialdea): "Orain, lehen aldiz, klitoriaren erauzketa, eta horrenbestez, genitalen mutilazioa ere delitutzat hartuko dela esan nahi da. Eta hemen galdetuko dugu erretorikoki: nor egon daiteke erreforma horren aurka, nor izan daiteke horren demagogoa, klitoriaren erauzketaren delitua tipifikatzearen aurka egoteko? Hau da erantzuna: gure zigor-ordenamenduak jazartzen du klitoriaren erauzketaren edo mutilazioaren delitua –eta Justiziako ministroak ezin hobeto daki, eta ez badaki, ezjakin hutsa izango da–. Ez ordena publikoko kontuengatik soilik, baizik eta Zigor Kodearen 149. artikuluan kasu hori ezin hobeto aplika dakioken mutilazio generikoko delitua dagoelako. Espainian klitoriaren erauzketaren delitua ezin dela jarri aldarrikatzea, ezjakina izatea baino gehiago da, demagogia inozoenean erortzea da. Izan ere, delitu hori jazartzeko aukera ematen duen Zigor Kodearen 149. artikulua dugu. Halaber, 1978. urtetik indarrean dagoen Konstituzio bat dago, bai eta Konstituzioaren 16. artikulua ere. Artikulu horrek pertsonaren askatasunik oinarritzeko arautzen duenez (hau da, sinesmenen eta erlijioaren askatasuna),

⁹⁹ Gorte Nagusiak, Bilkura Egunkaria, 245. Kongresua, 2003ko apirilaren 10a.

Konstituzioaren ordena publikoa mugatzen du, eta horrenbestez, gainerakoen eskubideak eta askatasunak bermatzen ditu. Beraz, erlijio-sinesmen bakar batek ere, kredo bakar batek ere, eta noski, nazionalitate-egoera bakar batek ere ezin dio eraginkortasunez aurka egin Espainian pertsonen oinarrizko eskubideak zorrozki indarrean egoteari eta denentzat berdinak izateari. Eskubide horiek berdin-berdinak izan behar baitute nazionalentzat nahiz atzerriarrentzat, gizonentzat nahiz emakumeentzat. Horrenbestez, ordena publiko konstituzionalari edo pertsonen oinarrizko eskubideei buruz ari garenean, erlijio-sinesmenak, nazionalitateak edo eskubide matxistak –tribuna honetatik entzun dugun bezala– ezin dira pertsonen duintasuna bermatzearen aurka egon. Izan ere, Konstituzioak denen duintasuna babesten du berdintasun osoz, gizonena, emakumeena, nazionalena nahiz atzerriarrena. Indarrean dagoen Konstituzio bat dago, indarrean dauden oinarrizko eskubide batzuk daude. Beraz, ez da zentzuzkoa esatea ordena publiko konstituzionalarekin bat ez datozen lege matxistek Espainian goberna dezaketela, alde batera utzita aplikatzen den Konstituzioaren eremua edo Espainiako jurisdikzioa. Horregatik guztiagatik hain zuzen, ondoko parlamentuzko prozeduran, sozialistok legea aldatzea proposatuko dugu, eta aldaketa horren bidez –Botere Judizialaren Lege Organikoaren 23. artikulua erreformatzea– hau bermatuko dugu: klitoriaren erauzketaren edo genitalen mutilazioaren delituak atzerrian egiten direnean, delitu hori Espainian jazarri ahal izatea, delitua egin duen pertsona Espainian dagoenean. Izan ere, hori eginez gero, ordena publiko konstituzionalak aurrera egingo du, duintasun pertsonalaren aurkako atentatu horiek jazarri ahal izateko. Izan ere, egungo Zigor Kodean delitu horiek ez dira argi eta garbi ageri.

Ondorioa

Zigor Kodearen 149. artikuluan “genitalen mutilazio” lesio larrien berriazko formatzat zehaztu zen horretarako premiarik gabe. Hori dela-eta, nolabaiteko iritzi publikoa eratu zen; izan ere, zigor-legeriaren edukien berririk izan gabe, iritzi publikoaren zati bat kezkatu egin zen, Espainian afrikar jatorriko neskatoei klitoria erauzi zietela jakin zutenean. Hala, jarrera horiek jada Zigor Kodearen 149.1. artikuluan lesio larritzat hartzen zirela azaldu eta gizarteko sektore horiek lasaitu beharrean, espainiar legegilea berriz ere zigor-zuzenbideaz baliatu zen, erkidegoko arazoei bizkor eta tinko aurre egiten ari zelako itxura egiteko.

Beraz, adierazi zuen zigor-zuzenbidea zela arazo horri aurre egiteko balio zuen modu bakarra. Adibidetzat har ditzakegu aipatu dugun 11/2003 Lege Organikoaren arrazoiak. Lege horrek “us-tezko arrazoi erlijijosoak edo kulturalak” lotzen ditu Espainian atzerriarrek gizarteratzeko duten moduarekin. Horren ondorioz, zenbait nazionalitate jakineko atzerriarrek kultura primitiboak eta basatiak dituztelako herri-sineskeria sendotzen da.

Landutako edukietatik ondorioztatu dugunez, legeria garatzea lehen urratsa da emakumeen genitalen mutilazioari aurre egiteko, baina ez da nahikoa. Ez da ahaztu behar praktika hori deuseztatzeko planteatu ditugun estrategiek aldaketa sozial, erlijijoso eta kultural sakonagoa eskatzen dutela. Aldaketa horrek derrigorrez eragina izan behar du kulturaren eta genero-harremanen sustarrietan. Ez da debeku legalen edo dekretuen bidez garatu behar soilik.

Zer estrategia planteatzen dira?

Baldin badakigu zer arrazoi ematen dituen biztanleriak emakumeen genitalen mutilazioari eusteko, ohartuko gara arrazoi horiek alda daitezkeela eta beharrezkoa dela ebakuntza horien ohiko

ondorio nabariak behin eta berriz nabarmentzea, hala nola zauriak eragin ditzakeen antzutasuna, infekzioak eta odoljarriak. Izan ere, hala, emakumeak zer arazo duten kontura daitezke, ondorio horiek pairatzen baitituzte.

Beste estrategia baten helburua komunitate-lana egitea da, gizonen parte hartzeko eta informazioa jasotzeko, bai eta ohartzeko zer erantzukizun duten beren emakumeei eta alabei zuzenean eragiten dieten arazo horiekiko. Halaber, arazo horiek ondorioak dituzte komunitatearen ongizatean, eta ondorio sozioekonomikoak eta psikologikoak eragiten ditu familian. Gizonak erabaki horretan parte hartzera bultzatzea oso lagungarria gertatzen ari da, praktika hori desagerrarazteko.

Afrikan duela gutxi egin diren esperientzia batzuek (hala nola Gambian) frogatu dute bigarren eta hirugarren faseen (marjinazioa eta elkartzea) erritu-egiturak praktikatzeko jarrai daitezkeela eta zati fisikoa kendu, inimizazioaren erritu-zentzua erabat galdu gabe. Izan ere, inimizazio horrek etnia- eta genero-identitatea ematen die gizarteko kideei¹⁰⁰.

Artikulu hau bukatzeko, bi nazioarteko adierazpen transkribatuko dira. Adierazpen horietan, EGMren inguruko erronka nagusiak azaltzen dira, bai eta diasporan praktikatzeko diren kasuak ere:

Bartzelonako Adierazpena (Espainia)

1. Ongietorria ematen diogu Kataluniako eta Espainiako gobernuek emakumeen genitalen mutilazioaren prebentzioa garatzeko eta sustatzeko eman duten laguntzari.
2. Kezkatuta gaude, pasaporteak atxikitzen dituztelako eta neskatoei bidaiatzea debekatzen dietelako. Halaber, kezkatuta gaude sei hilean behin, 18 urte bete arte, neskatoen genitalak aztertzen direlako. Hori guztia pribatutasunaren eta intimitatearen oinarritzko eskubideak urratzea da.
3. Legeria onberago baten alde gaude, immigratutako afrikar komunitateak beheratuko ez dituen legeria baten alde.
4. Gure ustez, orientazioa, prestakuntza, informazioa eta komunikazioa nagusitu behar dira, osasuneko, gizarte-laneko eta hezkuntzako profesionalak, besteak beste, eraginkortasunez inplikatzeko.
5. Nabarmentzen dugu arlo horri buruz ikertzea oso garrantzitsua dela, komunitatean, erlijioan eta politikan eragina duten esku-hartzeak diseinatzeko.
6. Nazioarteari arren eskatzen diogu otsailaren 6a Emakumeen Genitalen Mutilazioa ez onartzeko Nazioarteko Eguntzat hartzeko.

Bartzelona, 2004ko uztailaren 31
Emakumeen Mundu Foroa

Brubuteko Adierazpena (Gambia)

Hau aditzera ematen dugu:

1. Emakumeen genitalen mutilazioa (EGM) mundu osoko arazoa da, eta Afrikan nahiz afrikar diasporan bizi diren emakumeei eragiten die.

¹⁰⁰ Kaplan, A. eta Risler, S.: "La Iniciación sin Mutilación". Bideo dokumentala, Ovideo TV, (2004). www.mgf.uab.es web-orrian ikus daiteke.

2. Praktika Tradizional Kaltegarriak (PTK), eta batez ere emakumeen genitalen mutilazioak, giza eskubideak, eta emakumeen eta neskatuen duintasuna urratzen dituzte.
3. Erljioa oker interpretatzen da, praktika tradizional kaltegarriari eta emakumeen genitalen mutilazioari eutsi behar zaiela justifikatzeko.
4. Emakumeen genitalen mutilazioa deuseztatzeko lanean ari diren erakundeek eta eragileek oraindik erronka eta oztopo asko dituzte.
5. Zientzia-jakintza funtsezkoa da, praktika tradizional kaltegarriak eta emakumeen genitalen mutilazioa bertan behera uzteko politikak formulatzeko eta aplikatzeko.

Hauek eskatzen ditugu:

1. Erljio-adituei aktiboki inplikatzeko.
2. Unibertsitatei buruzagitzak intelektualak izateko, emakumeen genitalen mutilazioaren eta beste praktika tradizional kaltegarri batzuen alorrean.
3. Arduradun politikoei eta nazioarteko erakundeek zientzia-jakintza zehatzean oinarritutako proiektuak babesteko.
4. Gizarte zibilari eta gobernuei hezkuntzaren eta giza eskubideen inguruko oinarria duten komunitate-ekimenak babesteko, inplikaturako biztanleria iraindu gabe.
5. Inplikaturako guztiei diasporaren eta jatorriko herrialdeen artean lankidetzaren estuagoa sustatzeko.

Brufut, Gambia, 2009ko maiatzaren 7a

Praktika Tradizional Kaltegarriari buruzko Nazioarteko Foroa

Estrategiak eta praktika onuragarriak aztertzea.

From local to global.

2.3.2. Asilo-eskubideari eta emakumeen genitalen mutilazioari buruzko hausnarketak Emakumeen genitalen mutilazioaren aintzatespenaren esanahia

Emakumeen genitalen mutilazioa (EGM) asilo-eskubidearen esparruan jazarpen mota gisa aintzatespen hau dakar berekin:

- Emakumeen aurkako indarkeria moduak oinarritzko eskubideen urraketak direla aintzatestea. EGMa GAJ motatzat hartzeak giza eskubideen urraketa gisa zer-nolako hedadura duen ohartarazten du. PGM motatzat hartuta, emakume horiek babestu behar direla eska dezakegu, nazioarteko defentsa-tresnen eta giza eskubideen sustapenaren bidez.
- Estatuak zer erantzukizun duten aintzatestea, batetik, indarkeria mota horiek deuseztatzen, eta bestetik, praktika horietatik ihesi etorri direnei babesa ematen.

Espainiako Estatuaren erantzuna

Espainiako Estatuari dagokionez, azpimarragarria da EGMri buruzko berriazko legediak argi uzten duela praktika hori onartezina dela, eta delitu gisa tipifikatzen duela. Beraz, beharrezkoa da koherentzia izatea emakumeentzat kaltegarriak diren praktika tradizionalak eragiten

dituzten egiturazko kausei buruzko lanaren eta praktika horien ondorioei buruzko lanaren (besteak beste, derrigortuta lekuz aldatu behar izatea) artean. Nola hitz egin daiteke modu horretan EGMri buruz eta ez babestu praktika horretatik ihesi datozen emakumeak? Bai genitalak mozten zaizkien emakumeen kasuan, bai alabei genitalak moztea eragotzi nahi duten gurasoen kasuan.

Botere Judizialaren *uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen Lege Organikoari* esker, Espainiako Estatuak emakumeen genitalen mutilazioa Espainiatik kanpo jazar dezake. Lege horrek agerian uzten du kontraesan handia dagoela emakumeen giza eskubideak defendatzeko Espainiako politiken eta asilo-politiken artean. Argitalpen honen VI. kapituluko analisisan ikusi den bezala, Espainiako Estatuak praktika horretatik ihesi Espainiara etortzen diren emakumeei asilo-eskubidea sistematikoki ukatzeko politikari eusten dio.

Kausa eta ondorioetan esku hartzea

Asilo-eskubidea oinarrizko eskubideen urraketari emandako erantzun aringarri bat da, eta pertsona edo talde baten oinarrizko eskubideak urratu direnean, edo urratuko direla uste denean, jartzen da abian. Erantzun aringarri bat denez, aldaketa lortzeko beste estrategia batzuekin batera erabili behar da, batzuek besteak sustatu ditzaten eta denek sistema patriarkalaren egiturazko aldaketa lortzen lagun dezaten. Izan ere, aldaketa horren bidez sexu- eta ugaltze-eskubideen urraketak bukatuko dira. Beraz, Espainiako legedia, EGMren alorrean, bi ikuspuntutatik irakur daiteke, eta gure ustez, bi ikuspuntu horiek osagarriak izan behar dute.

Batetik, EGM deuseztatzeko lan egiten duten pertsonak eta taldeak erantzun kriminalizatzaile baten aurka daude, eta lana prebentzio- eta hezkuntza-estrategietan kontzentratzearen alde daude. Ildo horretan, Adriana Kaplanek eta bere taldeak gai horri buruz egindako lana har dezakegu adibidetzat: "iniziazioa mutilazioarik gabe". Giza taldeen berezko kultura-pautei eutsiko dien esku-hartze bat planteatzen dute, baina emakumeei kalterik egin gabe. Talde horren ustez, estrategiaren arreta osoa zigor-ekintzan ezartzea kriminalizazio bikoitza da: neskatoei genitalak mozten dizkiete, eta aldi berean, haientzat kaltegarriak diren neurri batzuk aktibatzen dira (adibidez: gurasoengandik bereizten dituzte). Hori dela eta, egiten zaien kaltea bikoitza da.

Bestetik, Lege horrek ezartzen du EGM emakumeen giza eskubideen urraketa larria dela, eta hori dela eta, asilo-eskubidearen defentsan lan egiten dugun erakundeentzat baliagarria da praktika horretatik ihesean dabiltzan emakumeak babesteko neurritzat aldarrikatzeko.

1. **eranskinean** genero-arrazoiengatiko jazarpenari buruzko ACNURen Artezpideen laburpenak daude, bai eta Europako Parlamentuak EGMri eta asilo-eskubideari buruz egindako ebazpenen laburpenak ere.

2.4. Lesbianen jazarpena

2.4.1. Artikulua

■ *Lesbianak: Sexu-orientazioagatik jazarritako emakumeentzat asilo-eskubidea*

ALDARTE Gay, Lesbiana eta Transexualen arreta zentroa, eta sexu-askatasunei buruzko ikerketa- eta dokumentazio-zentroa

Arazaoren deskribapena: Emakume lesbianak, zenbait motatako diskriminazioa

Guztiok dugu sexu-orientazio jakin bat¹⁰¹, baina horiek "normaltzat" jotzen denetik urruntzen direnean, maiz, era guztietako diskriminazioen eta bidegabekeriaren jo-puntu ustez legitimo bilakatzen dira pertsonak.

Munduan milaka eta milaka pertsonak exekuzioari, kartzelari, torturari, jazarpenari eta diskriminazioari aurre egin behar izaten diote beren sexu-orientazioaren ondorioz. Baina, hori gutxi baltz, estatu askok gai hau plazaratzea bera ere giza eskubideen oinarriko printzipioen aurkako mehatxua dela uste dute. Hainbat herrialdetan, lesbiana, gay edo transexual izatea gaitz gisa hartzen da, eskubidea izan beharrean. Herrialde horietan homosexualitatea bekatua, gaixotasuna, edota desbideratze soziala edo ideologikoa da; eta pertsona homosexualiei, maiz, beren kultura propioari traizio egitea leporatu izan zaie.

Normalean, gobernuek ukatu egin ohi dute beren lurretan giza eskubideak urratzen direnik, eta salbuespenak direla diote. Estatu askok, ordea, inongo erreparorik gabe onartzen dute –kulturren, erlijioaren, moralitatearen edo osasun publikoaren izenean– gay eta lesbianen aurkako errepresio praktikoa, eta lege-erabaki zehatzekin errazten diote bidea aipatu errepresio horri. ILGA elkartearen (Gay eta lesbianen nazioarteko elkarte) azken txostenaren arabera, 2007an, gutxienez Nazio Batuetako 85 estatu kidek kriminalizatzen jarraitzen zuten sexu bereko bi helduk adostasunez sexu-harremanak izatea, eta horren ondorioz, erakunde bidez gorrotoaren kultura sustatzen zuten¹⁰².

Sexu bereko pertsonekin eremu pribatuan sexu-harremanak izateagatik gizon-emakumeak kartzelaratzeko (normalean) legeak ezartzea giza eskubideen urraketa larria da.

Zehazki intimitaterako eskubidea, diskriminaziorik ez jasateko eskubidea eta adierazpen- eta bileren askatasunaren eskubidea urratzen ditu. Eskubide horiek guztiak, gainera, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak babesten ditu, baita Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak, eta Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura- Eskubideen Nazioarteko Itunak ere (PIDESC). Nahiz eta errepresiozko lege horiek herrialde askotan ez aplikatu, lege horiek egoteak soilik kultura hori sendotzen du, non biztanleriaren segmentu handi batek ezkutuan ibili behar duen gainerako gizartearen beldur. Estatuak lesbianen eta gayen aurkako gorrotoa eta indarkeria justifikatzen duen kulturetan, jendeak ezkutuan bizi behar du, eta egiatan zer den ukatzera behartuta dago.

Emakume lesbianen kasuan, gainera, diskriminazio eta jazarpen horiek konnotazio bikoitza dute, hain zuzen, emakumea eta lesbiana baitira aldi berean.

Emakumeak beren sexualitatea erabakitzeko eskubidea duten izaki indibidual gisa onartzen ez diren bitartean, indarkeriaren biktima izaten jarraituko dute, gizartean beheragoko maila batean baitaude. Hala, sexismoa eta homofobia gailentzen diren gizarte honetan, lesbianek gehiegikerien, jazarpenen, indarkeriaren eta diskriminazio bikoitzaren biktima izateko arrisku handia dute, hain zuzen, beren sexu-orientazioak dakarkien "gutxiagotasun" izaeragatik.

¹⁰¹ Dokumentu honetan, "sexu-orientazioa" terminoa erabiltzen da, esperientzia homosexualari eta lesbikoari buruz jarduteko, batez ere arrazoi praktikoengatik, ez terminoarekin teorikoki ados gaudelako. Sexu-zaletasuna, -aukera edo -nahia terminoak ez dira erabili. Izan ere, beharrezkoa zen irakurleek uler zezaketen testu bat egitea, eta gizon eta emakume gehienek errazago bideratu eta ulertuko dute norberaren sexu-esperientzia "sexu-orientazio" kontzeptuaren bidez.

¹⁰² Informazio gehiago lan honetan: Ottosom, Daniel: *Homofobia de Estado*, 2007ko apirila, www.ilga.org web-orrian.

Emakume lesbianen eskubideen urraketa ezkutatu egin ohi da eta, horren ondorioz, zigorrik gabe gelditzen da, gehienetan. Egoera hau munduko herrialde guztietan ikus daiteke nola edo hala, baina erro bakarra du: emakumeek emakume izateagatik jasan behar duten diskriminazio unibertsala.

Herrialde askotan, emakumeek ez dute eskubide aitorturik, batez ere sexu-eskubideei dagokienez. Gizonak eraturako kulturak eta praktikak mekanismoak ezarri ditu, emakumeek sexu-eskubiderik ez dutela ziurtatzeko. Emakumeak ez dira izaki sexualtzat hartzen, eta haien gorputzei eta sexualitateari buruz erabakitzeke gaitasuna ukatzen zaie.

Era berean, jada tokikoa edo nazionala soilik ez, mundu mailakoa den erlijio-fundamentalismoak ere neurriak eskatzen ditu emakumeen eta lesbianen eskubideen aldeko ahots berri hau isilarazteko. Erlijio-fundamentalismo horren ustez, emakumeak bere gorputzaren kontzientzia hartzeak mehatxatu egiten ditu tradizioei hain lotuak jarraitzen duten gizarteetako sostenguak, zutabeak, arauak. Hainbat erlijiotako lider espiritualak elkartzen ari dira, sexu-eskubideen aurka egiteko.

Herrialde askotan, emakumeek ezin dute aukeratu norekin eta noiz izango dituzten sexu-harremanak. Ezin dute erabaki noiz eta norekin izango dituzten seme-alabak, ez eta zenbat izango dituzten eta zenbateko tartearekin izango dituzten ere. Familiako gizonezkoek edo senarrak hartzen dituzte erabaki horiek.

Baldintza horietan, emakume lesbianek sexualitateari buruzko erabakia hartzeko ausardia izaten badute eta sexu-orientabidearen arabera bizitzea hautatzen badute, zenbait modutako diskriminazioak paira ditzakete.

Emakume izatea ez da soilik fenomeno biologikoa, fenomeno horren gainean jokaera-modu bat eraikitzen baita, gizartean bere rola betetzen duena. Hori dela eta, lesbianismoak kolokan jartzen ditu gizarte tradizionalak sostengatzen dituzten baloreak: ezkontza, familia, emakumearen gizonarekiko mendekotasuna, eta gizonezkoen zein emakumezkoen rolak. Era berean, lesbiana izateak ere balore tradizionalak mehatxatu egiten die, sexua jada ez baita ugalketara mugatzen, sexua plazera baita.

Ikusezintasuna: beste indarkeria era bat

Indarkeriak forma asko ditu, eta ikusezintasuna da okerrenetako bat; hau da, ez izatea eta sexu-orientazioa ezkutuan eta klandestinitatean bizi beharra, lesbianismoa ez igartzeko moduan. Sexismoak eta homofobiak sorturiko presio sozialek eragindako ikusezintasuna da.

Lehenago indarkeria era moduan aipatu dugun ikusezintasuna, batez ere emakume lesbianekin erabili ohi da. Ez die berdin eragiten gizonezko edo emakumezko homosexuali, hain zuzen, lesbianismoa historikoki, ez baita existitu. Lesbianismoak jasan behar duen ikusezintasuna soziala izateaz gain, legala ere bada. Hau da, sarritan, gizonen homosexualitatea esplizituki debekatuta dago, baina herrialde askotan, ez dago emakumeen sexualitateari buruzko araudi ofizialik, nazio askotan emakumei ez baitaie sexualitateari aitortzen. Zenbait herrialdetan, beraz, gizonen homosexualitatea legez kanpokoa da, baina emakumeena ez da aipatu ere egiten. Hala, estatu askok emakume lesbiana ez existitzera kondenatzen dute ofizialki.

Horrenbestez, zenbait herrialdetan, Afrikan eta Arabian batez ere, gizonezkoen homosexualitatea legez kanpokoa da, eta emakumezkoen homosexualitatea, aldiz, ez da inon aipatzen. Horrek ez du legezkoa denik esan nahi, guztiz alderantzizkoa baizik, ez baitu kontuan hartu ere egiten emakumezkoek haien artean libreki eta hala nahi dutelako harremanak izan ditzaketela. Hala gertatzen da Botswanan, Ghanan, Kenya, Mozambiken, Nigerian, Tanzanian eta Ugandan, adibide batzuk aipatzearen.

Historian, emakume lesbianak ezkutuan bizitzera behartuta egon dira, gai hauek direla eta: homofobia, axolagabetasuna, eta gizarteak eta legeak lesbianak daudela ez aitortzea. Horrez gainera, gai horiek lesbianen aurkako errepresioaren berariazko ezaugarriak dira, gayen aurkako errepresioan ez horrenbeste. Gay direnei guztiz aurkakoa gertatzen zaie¹⁰³; hau da, legeek eta gizarteak gay izatea jasotzen eta zigortzen dute. Horrek guztiak ez du esan nahi lesbianismorekiko tolerantzia sozial handiagoa dagoenik gizonen homosexualitatearekiko baino. Alderantziz, askoz ere jarrera mespretxuzkoago baten adierazlea da. Jarrera hori misoginiaren isla da, eta emakumeen sexualitatea gizonen nahien isla bihurtzen duenez, emakumeen arteko harreman afektiboak eta erotikoa ezin pentsatuzkoak dira¹⁰⁴.

Emakumeen sexualitatea sexismoaren ikuspuntutik behatu da beti, eta sexismo horrek eragin du lesbianen sexualitatea mendeetan zehar ezkutuan egotea. Halaber, ikuspuntu sexista horrek nabarmen baldintzatzen ditu lesbianek beren burua hautemateko modua, beren sexualitateari buruzko sentimenduak, beren lehen esperientzia afektiboak bizitzeko modua eta gainerako pertsonekin sortzen dituzten harremanak. Empar Pineda¹⁰⁵ militante feminista eta lesbiana historikoak hau gogorarazten du: "gure inguruko jendea ez da ohartzen hor gaudenik ere. Horrek guztiak gure gisara ibiltzeko aukera handia ematen digu, aurkako erreakzioak pairatzeko arriskurik gabe, baina gizarte-kostu handia du. Mugak hausten ez dituzun artean, lasai samar bizi zaitezke, inork ez du *susmatuko* lesbiana zarenik. Izan ere muga horietatik haratago, ez dago nahasteko aukerarik, ez eta oharkabean ibiltzeko aukerarik ere. Baina, zeren truke egin behar dugu hori guztia? Zure ikusezintasuna erabatekoa izatearen truke. Egia, *ez zara inor*".

Nork darabil indarkeria?

Jarrera sexistak eta homofoboak gailentzen diren gizarte honetan arriskuan daude lesbianak, batez ere, eguneroko egoera horietan: etxean, lanean, komunitatean...

Emakume askoren arazoa da beren eskubideak familian bertan urratzen zaizkiela. Hartara, are zailagoa da egoera horiek salatzea, estatuak tradizionalki egin baitio ihes alor horretan esku-hartzeari, pertsonen ingurune intimoa dela argudiatuz. Familia alor pribatutzat hartzeak, mendeetan, etxe barruko tratu txarrak ezkutatzeko balio izan du. Komunitateak eta familiak askotan behartu izan ditu emakumeak gogoz kontra ezkontzera.

Herrialde askotan, ulergaitza da emakume bat ezkongabea izatea, eta arrazoi hori nahiko da hura baztertzeko edo erasotzeko. Gainera, lege jakin batzuek gizonezko baten agindupean jartzen dutenez, maiz, emakumeek ez dute erabakitzeke inolako gaitasunik.

¹⁰³ Gai horri buruz gehiago hausnartzeko, ikus: Mujika Flores, Inmaculada: *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi*, "P. Francisco de Vitoria" Derechos Humanos bilduma, Ararteko, 2007.

¹⁰⁴ Borrillo, Daniel: *Homofobia*, Ed. Bellaterra, Bartzelona, 2001, 30. or.

¹⁰⁵ Pineda, Empar: "Lesbiana, yo soy lesbiana, porque quiero y me da la gana": Herrero Brasas, J.A.: *La construcción de una cultura queer en España*, Ed. Egales, Madril, 2007, 318.-319. or.

Askotan, gizarteek lesbianen aurkako indarkeria bultzatu edo, gutxienean, onartu egin ohi dute. Poliziak edozein modutan sartu izan ditu lesbianak ospitale psikiatrikoetan, sexu-orientazioagatik baino ez, eta maiz, senideek edo lagunek hala eskatuta gertatu da. Kontuan hartu behar da OMEK¹⁰⁶ 1992an ezabatu zuela orientazio homosexuala Gaixotasunen Nazioarteko Saillkapenetik.

Familiaren ohorea zikintzea edo komunitatean auzo-lotsa sortzea leporatzen zaien gizarteetan, emakumeekiko erakarpena sentitzen duten emakumeek dute batez ere erasoak jasateko arriskua, beren burua lesbianatzat definitu nahiz ez.

Maiz, beren hautu sexuala azaltzen duten lesbiana gazteak ezkontzera edo gizonzkoekin sexu-harremanak izatera behartzen dituzte senideek, lesbianismoa "sendatzeko". Emakume lesbianek bortxaketak, birjintasun-testak edo behartutako haurdunaldiak jasan behar izaten dituzte, eta horiei, homosexual izateagatik pairatu behar dituzten indarkeria ekintzak gehitu behar zaizkie. Batzuetan, eta atxilotetak sexualitatearekin inongo zerikusirik ez izan arren, poliziak galdekete-tan atxiloturiko emakumearen lesbianismoa haren aurka erabili ohi du. Askok sexu-erasoak jasan behar izaten dituzte behin eta berriz, eta batzuek sexu-indarkeria jasan behar izaten dute, baita bortxaketa ere. Agintariak gai jakin batzuk lantzen ez dituztenean, hala nola indar polizialen sexismoa eta homofobia, bortxaketei bidea erraztu baino ez zaie egiten.

Nola darabilte indarkeria hori?

Kamerungo neska gazte baten¹⁰⁷ kontakizunak argi eta garbi islatzen du nola egiten diren emakume lesbianen aurkako presioak: neska hori familia dirudun bateko senide zen, eta esaten zuen ezin zituela gehiago jasan presioa eta beldurra, gurasoek salatu baitzuten bere sexu-orientazioagatik. Atxilotu ondoren, poliziak behin eta berriz iraindu zuen komisarian, lesbiana zela ukatu zuen arte. Une hartan, aske utzi zuten.

Aministia Internazionalak etengabe salatzen du irakasleek, lagunek, senideek edo ikastetxeetako zuzendariak jartzen dituztela salaketa gehienak. Izan ere, pertsona bat homosexuala dela dakitenean, salatzen ez badute, arazo bat izango dutela uste baitute.

Zimbaweko emakume gazte batek kontatu zuen bere familiak gela batean giltzaperatu zuela. Ondoren, gizon zaharrago batek bortxatu egin zuen, bere sexu-orientazioa sendatzeko. 2001eko otsailean, fabrika batean lan egiten zuen Birmaniako lesbiana gazte bati hau gertatu zitzaion: gau batean, etxera itzultzen ari zela, fabrika berean lan egiten zuen gizon talde bat gerturatu egin zitzaion. Bidea itxi eta esan zioten oso polita zela eta tamalgarria zela lesbiana izatea. Ondoren, arroz-soro batera eraman zuten bortxatzeko eta sexualitate "normaleko" pertsona bihurtzeko. Gizonetako batek emakumea hartu zuen, eta hau esan zien lagunei: "sendatu lesbiana anormal hau, emakume bihur dadin¹⁰⁸".

2009ko martxoan, Hegoafrikan, gayen eta lesbianen aldeko taldeek salatu zuten lesbianen aurkako indarkeria areagotzen ari zela, eta gero eta emakume gehiagok salatzen dituztela "sendatzeko" helburua duten "bortxaketa sendatzaileak". Hegoafrikan paradoxa bat gertatzen da: Kons-

¹⁰⁶ Munduko Osasun Erakundea.

¹⁰⁷ DIVERSIDAD, sexu-gutxiengoei eta giza eskubideei buruzko buletina, 23. alea, Amnistia Internazionala, 2009ko martxoa.

¹⁰⁸ DIVERSIDAD, sexu-gutxiengoei eta giza eskubideei buruzko buletina, 3. alea, Amnistia Internazionala, 2003.

tituzioak sexu-orientazioagatiko diskriminazioa debekatu du, eta duela bi urte, gay zirenak ezkontzea legezatu zen. Vanessa Ludwig-ek, gayen eta lesbianen eskubideak defendatzen aritzen den Triangle GKEko zuzendariak, hau esaten du: "Emakumeen aurkako indarkeria, eta batez ere lesbianen aurkakoa, areagotzen ari da oro har. Izan ere, lesbianak desafio bat dira maskulinitasun berri horrentzat". "Horrenbeste bortxaketa daude, ezen batzuetan ezin dugu jakin biktima lesbiana zelako gertatu ziren ala emakumea zelako eta han zegoelako soilik gertatu ziren", dio Ludwigek. Ludwigek elkarteak 10 lesbiana artatzen ditu hilero. Hegoafrikan, salatutako bost bortxaketetatik bat baino ez da kondenatzen, eta 1998an hildako lesbianen 38 kasutatik hiltzaile bat baino ez da zigortu.

Emakumearen indarkeriaren aurkako Nazio Batuetako Kontalari Bereziak, indarkeria horren kausak eta ondorioak kontuan hartuta, zera esan du¹⁰⁹: *kolektibitatearen arauen arabera sexualki kaltegarritzat jotzen den jarrera duen emakumea zigortu egiten da. Hainbat gizartetan, emakumeek ezin dute sexu-jarduerarik eduki, beren komunitate bereko gizonen batekin ezkontuta ez bada. Komunitateak gaitzetsiriko eran jokatzeko erabakitzen duten emakumeak (dela ezkontzatik kanpo edo beren etnia-, erlijio- edo jatorri-komunitatetik kanpo harremanak izatea, edota heterosexualak ez diren harremanak izatea erabakitzen dutelako) indarkeria ekintzen eta tratutarren biktima izaten dira maiz.*

Emakumearen eskubideei buruzko nazioarteko itunak sinatu dituzten estatuek komunitatearen eta familiaren praktika kultural horiei aurre egiteko betebeharra dute, baita erabaki horrek tradizioari edo erlijioari aurre egitea badakar ere.

Emakume lesbianen aurkako eraso guztiak ezjakintasunez eta aurreiritziz beteriko gizarte-egoeran gertatzen dira, diskriminazioaren, errepresioaren eta, azkenik, zigorgabetasunaren ondorioz. Gainera, testuinguru horretan, oso zaila da datuak lortzea. Estigma eta aurreiritziak direla eta, oso gutxitan salatzen eta dokumentatzen dira alor honetan egindako gehiegikeria eta erasoak. Errepresalien, mehatxuen, irainen edo irrien beldurrez, indarkeria-ekintza asko eta asko jatorriko herrialdean bertan ere ez dira salatzen, maiz, instantzia ofizialen aurrean egindako salaketen erantzun bakarria indiferentzia izaten baita.

Sexu-eskubideak giza eskubideak dira

1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zenetik, pixka bat zaila izan da pertsona batek erantzukizunez zer nahi atsegingarri eta sexual dituen adierazteko eskubidea izatea. Izan ere, 1990eko hamarkadatik aurrera hasi ziren aitortzen eskubide hori, batez ere mugimendu feministak eta LGTB mugimenduak egindako eskarien ondorioz. Hasieran, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak pertsonen eskubide intimoak hartzen zituen kontuan, pertsonen pribatutasunari arduratzen eta eragiten dioten eskubideak, hala nola ezkontzeko, familiak osatzeko, seme-alabak hezteko, etxean intimitatea izateko edo adierazpen askatasunaren eskubideak. Hala ere, ez zituen kontuan hartu sexualitatea eta sexualitatea askatasunez adierazteko eskubide zabala.

1993. urtera arte, ez zen agertu sexualitateari buruzko aipamen bat bera ere, sexu biologikoaz haratago, giza eskubideei buruzko nazioarteko testu ofizialetan. Urte hori inflexio-puntu bat izan zen, *Vienako Giza Eskubideei buruzko Konferentziari* esker. Konferentzia horretan, emaku-

¹⁰⁹ Mtetwa, Phumi: "Nunca más discriminadas"; Careaga-Pérez, Gloria: *Orientación sexual en la Lucha de las mujeres*, El Closet de Sor Juana, WS. ILGA, Mexiko Hiria, 2003, 26. or.

me-talde baten lobby-lanari esker, "sexu-eskubideak" giza eskubidetzat hartu ziren. Vienan, lehen aldiz lortu zen aitortzea sexu-indarkeria giza eskubideak urratzea zela. Halaber, "sexual" terminoa lehen aldiz giza eskubideen testuinguruan erabiltzen hasi zen.

1994ko *Biztanleriari eta Garapenari buruzko Kairoko Konferentzia*n, emakumeen sexualitateari buruzko eztabaida testu askotan agertu zen. Halaber, "sexual" eta "sexua" terminoak etengabe erabiltzen hastea aurrerapen handia izan zen. Hala ere, ez zen gayen, lesbianen edo transexualen sexu-eskubideei buruzko aipamen espliziturik egin.

1995ean, *Beijingen, Emakumeen IV. Mundu Konferentziari* esker, emakumeen eskubideen ikuskerak aldatu egin zen, eta giza eskubidetzat hartzen hasi ziren. Konferentzia horretan, lesbianen eskubideei buruz eztabaidatu zen, eta eztabaida horrek polemika handia sortu zuen. Konferentzia horren bukaerako testuan ez dira ageri zenbait termino, hala nola "lesbiana" eta "sexu-orientazioa". Hala ere, Beijingko konferentziari esker, NBEen sexu-orientazioari buruz eztabaidatzen hasi ziren lehen aldiz, eta Nazio Batuen programa asko sexu-orientazioa beren foro eta mekanismo askotan sartzen hasi ziren, besteak beste NBEren Giza Eskubideen Batzordea, Giza Eskubideen Komitea, Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Mandatari Nagusia, UNESCO eta beste batzuk.

Beijingen, lehen aldiz, giza eskubideei eta sexu-eskubideei buruz hitz egiten hasi ziren, eta ordutik, beti eztabaidatu da gai hori.

Emakumeen IV. Mundu Konferentziatik gaur egun arte, aurrerapen handiak egin dira gayen, lesbianen eta transexualen eskubideen eskaeretan. 1997. urtea oso garrantzitsua izan zen:

- Abuztuan, *Valentzian izan zen Sexologiari buruzko 13. Mundu Batzarrak* Sexu-eskubideen Gutuna aldarrikatu zuen¹¹⁰. Gutun hori Sexologiari buruzko 14. Mundu Batzarrean berrikusi eta berretsi zen 1999an, (Hong Kongen, Txinako Herri Errepublikan). Adierazpen horretan, hau aitortu zen: *sexu-eskubideak giza eskubide unibertsalak dira, eta gizaki guztiei atxikitako askatasunean, duintasunean eta berdintasunean oinarritzen dira. Gizarteek sexu-eskubideak aitortu, sustatu, errespetatu eta defendatu behar dituzte, beren baliabide guztiak erabiliz. Sexu-osasuna sexu-eskubideak aitortzearen eta errespetatzearen emaitza da.*

Adierazpen hori oso garrantzitsua izan zen bere esanahiagatik. Izan ere, batetik, sexu-eskubideak tradizioan herritarren eskubidetzat hartu diren eskubideen barruan sartu zituen (esku-bide zibilak, politikoak eta sozialak); eta bestetik, aditzera eman zuen gero eta garrantzi handiagoa dutela gizartearen pertsonak sexualitatea bizitzeko ditugun modu anitzek eta sexualitatea bizitzeko moduak askatasunez adierazteko eskubideek.

- Urrian, Europar Batasuneko estatu kideek *Amsterdamgo Ituna* sinatu zuten. Itun horren 12. eta 13. artikuluetan eskatzen edo gomendatzen zen sexuan, etnia-jatorrian, erlijioan, ideologian, desgaitasunean, adinean eta sexu-orientazioan oinarritutako edozein diskriminazio motaren aurka borrokatzea. Gayen eta lesbianen eskubideak aitortzen eta sustatzen pauso handia eman zen. 1999ko maiatzaren 1ean jarri zen martxan, eta gomendio bat baino ez ze-

¹¹⁰ Hamaika sexu-eskubide daude: 1) sexu-askatasunaren eskubidea; 2) gorputzaren sexu-autonomiaren, -osotasunaren eta -segurtasunaren eskubidea; 3) sexu-pribatutasunaren eskubidea; 4) sexu-zuzentasunaren eskubidea; 5) sexu-plazeraren eskubidea; 6) sexu-adierazpen emozionalaren eskubidea; 7) sexu-elkarketak askatasunez izateko eskubidea; 8) ugalketari buruzko erabaki askeak eta arduratsuek hartzeko eskubidea; 9) zientzia-jakintzan oinarritutako informazioa eskuratzeko eskubidea; 10) sexu-hezkuntza integralaren eskubidea; 11) sexu-osasunaren arreta jasotzeko eskubidea.

nez, eta ez lege bat, estatu kideek nahi badute aplikatuko zuten. Era berean, ezin da gomendio hori erabili epaitegietan erreklamazioen oinarri gisa.

2006. urtean, Yogokartan, Indonesian, giza eskubideetako adituen talde batek aho batez onartu zituen *Yogokartako Printzipioak. Printzipio horiek Sexu-orientazioarekin eta Genero-identitatearekin lotuta Giza Eskubideen Nazioarteko Legediaren Aplikazioari buruzkoak ziren*¹¹¹. Printzipio horiek giza eskubideen arau sorta handi bati buruz jarduten dira, bai eta sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko arazoetan arauak aplikatzeko moduari buruz ere.

Printzipio bakoitzean, gomendio zehatzak daude estatuentzat eta adierazten dute estatuek giza eskubideak ezartzeko oinarritzko betebeharrak dutela. Hala ere, adituek nabarmentzen dute eragile guztiek erantzukizunak dituztela giza eskubideak sustatzen eta babesten. Halaber, printzipioetan gomendio osagarriak daude beste eragile batzuentzat, NBEren giza eskubideen sistemarentzat, giza eskubideen sistema nazionalentzat, komunikabideentzat, gobernu kanpoko elkarteentzat eta finantza-agentzientzat.

Sexu-eskubideak, emakumeen eskubideak edo haurren eskubideak 1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala izan zenaren aurrerapena eta abantzamendua dira. Urteak joan ahala, gizarte-mugimenduen aldarrikapenei esker, eskubideak konplexuak eta anitzagoak egin dira, eta "eskubiderik gabeko" pertsonatzat hartu diren eta ezkutuan eta gizarte-ostrazioan egon diren pertsonak ere eskubide horietaz gozaten hasi dira.

Giza eskubideen ikuspuntu hori, batez ere LGTB taldeari dagokiona, nahiko berria da. ALDARTEN badakigu giza eskubideen eragile guztiek eta gizarteak ez dutela iritzi bera ikuspuntu horri buruz. Horren ondorioz, bigarren mailako eskubidetzat jotzen dira, Giza eskubideen nazioarteko tresna legeetan jasotako eskubideekin alderatuz gero. Egoera horrek nabarmentzen du beharrezkoa dela ahalegin gehiago egitea, eskubide horiek formalki aitortzea lortzeko.

2.5. Transexualen jazarpena

2.5.1. Artikulua

■ *Sararen historia*

Raquel Celis, Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordea (CEAR-Euskadi)

"Prostituta bat hiltzen baduzu ez da ezer gertatzen; trabesti bat hiltzen baduzu, are gutxiago."

Sara, koloniar errefuxiatua (Lekukotasun honekin lotutako izen guztien ordezkari) alegiazko beste izen batzuk erabili dira.

Nire familiak bazekien ni ez nintzela gizona izango. Amari galderak egiten nizkion, baina hark ezin zuen erantzun; hau esaten nion: -Ama, ni heldua izatean emakumea izango naiz, ezta? Amak ihesbideren baten bidez erantzuten zidan. Hau esaten zidan: *Zer polita zaren!* edo zerenahi; edozer asmatzen zuen. Kateatuta sentitzen zen, ezin zidan egia esan. Agian ni xaloegia nintzen... Beharbada, beste haur batzuk azkarragoak ziren, eta beldurra ematen zien sentitzen zutena adierazteak, horren ondorioen beldur baitziren.

¹¹¹ Printzipio horiek web-orri honetan kontsulta daitezke: www.yogokartaprinciples.org

Sara 1987an jaio zen, Medellingo familia apal batean. Sararen aita hil egin zuten, bere ibilgai-lua lapurtzen saiatu zirenean. Garai hartan, Sarak 7 urte zituen. Sararen amak bi alaba izan zituen lehen senarrarekin, Sararen aitarekin; eta beste alaba bat, bigarren senarrarekin. Baina bai aita bai amaren bigarren senarra hil egin ziren.

Amak eta biok asko maite genuen elkar; denbora asko ematen genuen biok bakarrik, eta bata besteari laguntzen genion. Nire aita hil egin zen. Nik 7 urte nituela, hil egin zuten. Denbora askoan egon ginen bakarrik, amak beste bikotekide bat aurkitu zuen arte. Amak bere bizitza berregin zuen: beste alaba bat izan zuen, beste familia bat. Ni amarekin bizi nintzen, baina banandu egin behar izan nuen, pertsona haiekin bizitzea niretzat infernua baitzen, *egoera biziezina* zen.

Amaren bigarren bikotekideak oso gaizki tratatzen zuen Sara; jarrera homofoboz iraintzen zuen, eta askotan, jo egiten zuen. Eraso eta diskriminazio horien ondorioz, familiaren etxetik joan behar izan zuen, 14 urte zituela.

15 urte bete zituenean, Rosa lagunarekin batera lanean hasi zen, kaleko prostituzioan, Medellingo San Diegoko eremuan, *zona arrosa* izeneko bulegoen eta merkataritzaguneen eremutik gertu; leku horretan, emakumeak aritzen dira prostituzioan. Kanean, beste lagun transexual batzuk egin zituen: Carmen, Claudia, Estrella eta Lucía (azken bi horiek hil egin zituzten).

Medellinen, ikasle-egoitza batean alokatutako gela batean jarri zen bizitzen, futbol-estadiotik hurbil. Egoitza horretara joan ostean, lagun berriak egin zituen, eta mutil batek bularrak jartzeko ebaketa egiteko dirua utzi zion.

Prostituzioaren munduan sartu nintzen. Nik neskatzat identifikatzen nuen neure burua, eta ez neukan arazorik; neska nintzen, eta orain baino neska itxura handiagoa nuen. Noski, orduan 15 urte nituen. Oso ederra nago. Eta kanean nago, lanean ari naiz, oso ondo doakit, eta nire bizimaila nahiko altua da.

Neska guztiak adin txikikoak ginen. Guztiok genituen 15 edo 16 urte. Nire ustez, leku hura ospetsua zen han denok 15 genituelako. Rosa zen zaharrena, eta haren neskalaguna eta beste hainbat ere baziren. 15 urteko 50 neska inguru ginen.

Nesken eremua zen, eta nik neskatzat aurkezten nuen neure burua. Izan ere, ezin dut mutila naitzela esan, bestela ez baitut bezerorik izango; nesken eremua da, eta nesken bila joaten dira. Beste eremu batean trabestiak daude, eta bezeroak trabestien bila joaten dira hara. Pentsatu zenbat sufritu behar nuen nik, jatekoa irabazteko. Ez baitizu inork ezer oparitzen, aurpegi polita izateagatik edo ondo jantzita ibiltzeagatik.

Ni bezeroekin joaten nintzen, eta gero ematen nizkien azalpenak. Hotelera iristean, badakizu mutila zarela esango duzula, eta okerrera itxaroten duzu: kolpe bat emango dit, edo hil egingo nau... Nik beti okerrera geratuko zela uste nuen, beti, ez nuen inoiz ezer onik itxaroten. Oso urduriz jartzen nintzen: lhes egingo dut?, zer egingo dut?, dirua itzuliko diot?

-Jauna, hartu zure dirua, sentitzen dut, mesedez... Eta jaunak horrelako zerbait esaten zidan: *Ez da ezer gertatzen, benetan, geratu nirekin*, edo *ez da ezer gertatzen, hartu dirua eta joan*, edota *hitz egin dezagun*, edo *egidazu hau edo beste hau*. Izan ere, ni ez nintzen zakarra bezeroekin, eta hori baliagarria zitzaidan haiek gaizki ez tratatzeko eta minik ez emateko.

Inork ez zekien zenbat sufritu eta pairatu behar nuen nik janzteko eta jateko. Neure buruaren mantenurako. Ondo mantentzen nintzela? Bai, dirua irabazten nuen. Baina horrek arazoak sortzen ditu, beste pertsona batzuek ez baitzuten nik adinako diru-sarrerarik lortzen, eta nire dirua lapurtzera etortzen ziren, estortsio egitera: zuk ezin duzu hemen egon, hau nesken eremua da.

Eta noski, nik, estortsio egiten zidatenei eman baino, nahiago nuen diru pixka bat Rosari eman, hark zaintzen eta babesten baininduen.

Talde horiek ez diete estortsio egiten prostituta guztiei; trabestiei soilik. Sara mundura irten da eta bi bide daudela ohartu da. Eta Rosak esandako bidea aukeratu du: *Zuk emakumea izan nahi duzu? Bada, ibili emakumeekin; ez baduzu gizona izan nahi, ez duzu trabestiekin ibili behar; zu neska zara.* Eta orduan, neskekin egotea erabaki nuen. 15 urte nituen.

Eremu horretara talde antolatutak joaten ziren estortsio egitera, eta dirua kentzen zieten indarrez prostituzioan aritzen ziren transexualei. Talde mafiosoak eta homofoboak ziren. Transexualak zein homosexualak iraintzen zituzten, eta mehatxu egiten zieten; dirua indarrez lapurtzen zieten, edota ematera behartzen zituzten. Halako taldeek indarkeria handia baliatzen zuten; dirua lortzeko, jo egiten zituzten eta eraso egiten zieten; batzuetan, aurpegia desitxuratzten zieten edo hil egiten zituzten.

gutaz pixka bat arduratzen ziren bakarrak ebanjelikoak ziren. Ogitartekoak eta beste gauza asko eramaten zizkiguten. Pertsona ondo heziak eta ikasiak ziren. Pentsa! Eremu horretan gurekin batean egotea oso arriskutsua zen. Gogoan dut zer esaten zidan haietako batek: *Begira, nik zuri azalduko dizut, oso gaztea zara eta: Sagar bat badaukazu eta sagar horretatik jaten baduzu, eta gero beste bat etortzen bada eta sagar horretatik jaten badu, eta alboan igaro den beste batek ere sagar bera dastatu nahi badu, oso distiratsua delako eta gustatu zaiolako, zer geratuko zaizu? Ezer ez.* Emakume hark beti adibide hori jartzen zidan, sagarxoaren adibidea.

Bestalde, polizia zegoen: neskak bortxatzen zituen. Atxilotu eta hau esaten ziguten: *egin nirekin eta kanpoan utziko zaitut.* Estortsio egiten zieten eta bortxatu egiten zituzten, bai, noski, bai, bai. Eta haiek, pozik, egun osoan larrua jotzen. Oso pozik. Egokitu egiten zitzaigun. Sarekada egingo zigutela mehatxatuz, poliziako bururen bat etortzen zen gurekin hitz egitera, eta hau esaten ziguten: *Neskak, dakizuen arazo bat dago, eta gaur beste bati egokitzen zaio talde osoaren izenean aurpegia ematea; bestela, guztiak polizia-etxera eramango zaituztet. Zer iruditzen zaizue?* Orduan, elkarri begira hasten ginen: *Ai, zoaz zu, jo larrua harekin; Ai, ez, a zer nazka, zahar higuigarri hori; Ai, ez, joan zu, berehala joan eta etorriko zara, bestela guztiok atxilotuko gaituzte, mesedez.* Trukea zen, trukaketa.

Polizia oinazegarria zen guretzat: ez gintuen inoiz lapurren edo lapurtzen zigutenean aurrean babesten, ezta estortsio egiten zigutenean aurrean ere. Baina gurekin larrua jotzera etortzen ziren, hori bai. Nolanahi ere, nik ez nuen inoiz poliziarekin larrua jo; baina neskekin egiten zuten, eta kito. Gurekin paso egiten zuten: emagaldutako bat hiltzen badute, berdin zaie; eta trabesti bat hiltzen badute, are gehiago. Haiek hilerok jasotzen dute beren soldata, oso ondo bizi dira eta ez zaie ezer gertatzen. Gu kalean gaude, eta guri bai, gertatzen zaigu; hil egiten gaituzte eta kito.

Rosak esan zidanez, bazen eremu horretan berarekin batera zegoen trabesti bat; 15 urte zituen, eta hil egin zuten. Oso ederra zela esaten zidan, nire antza zuela. Olivako lorategian hil zuten.

Sastada eman zioten bihotzean. Hil egin zuten, eta inori ez zitzaion axola izan, inork ez zuen ezer egin; izan ere, trabesti bat hiltzea inurri bat hiltzea bezalakoa da, ez da ezer gertatzen. Hemen, trabesti bat hiltzen baduzu, hori da. Bat-batean emagaldu bat hiltzen baduzu, agian senarra, seme-alabak edo familia izango ditu.... baina trabesti bat hiltzen baduzu ez da ezer gertatzen, inurri bat hil eta ezer ez gertatzea bezalakoa da; sortuko dira gehiago.

Neska horren kasuan... 15 urte zituen, eta ez zuen inork ezer egin, ezta familiak ere. Inork ez zuen inork haren gorpua eskatu. Zain egon ziren Zainketa Intentsiboetako Unitatetik ateratzeko, baina gehiago itxaro ezin zutenean, inork eskatzen ez dituen pertsonen gorpuak lurperatzen dituzten hilerrian lurperatu behar izan zuten. Pentsatu: Medellingo hilerrian, trabestien zenbat hilarri daude? Milioika. Trabestien milioika hilarri. Milioika pertsona eta familia daude, arimarik eta bihotzik gabeak, inoiz gorpu horiek eskatu ez dituztenak, eta zergatik hil zituzten, nork hil zituzten eta non hil zituzten jakiteko kezkarik agertu ez dutenak. Inurri bat gutxiago bizitzan, hemen ez da ezer gertatu. Ni ere inork eskatu gabeko gorpuak lurperatzen dituzten hilerriko horietako bat izan nintzen ia-ia.

Talde bat dirua eskatzera etortzen zitzaidan, baina ez zuten dirurik jaso; nik uko egin nion eta ni hiltzen saiatu ziren.

Talde horiek Sara erasotzeko eta hiltzeko bi saio egin zituzten; lehenengoa, 16 urte zituenean. Mutil batzuk ibilgailu batetik jaitsi eta zeraman dirua emateko eskatu zioten Sarari. Baina ezetz esan zuen, eta bezero baten autoan sartu zen berehala; bezeroak autoa azeleratu zuen, baina mutiletako batek sastada egin zion ezkerreko besoan. Oraindik eraso horren orbaina dauka.

Sara beldur zen talde horiek berriro ere eraso egingo ote zioten, eta Panamara ihes egin zuen; han, lagun batek lagun bat zuen, eta lagunduko zion.

Ezin zuen infernu horretan bizitzen jarraitu. Amak hilean 100 euro bidaltzen zizkidan; hori zen niri laguntzeko zuena. Eta nik, diru horrekin, gela bat ordaintzen nuen ikasle-egoitza batean. Hara joan ziren bizitzera nire lagunak. Eta ikasle-egoitza horretan erabaki nuen ez nuela Kolonbian kalean lanean jarraitu nahi, eta Panamara joan behar nuela.

Guk ez geneukan dirurik txartela ordaintzeko. Nire lagunak, papera eta arkatza hartu, eta zirkulu txiki bat egin zuen, beste zirkulu txiki bat, beste bat... *Zirkulu txiki bakoitza zeharkatu behar duzun uharte bat da*, esan zidan. *Indiarrei 50.000 peso eman behar dizkiezu, uhartez uharte eramane zaitzaten*. Motorrik gabeko txalupa txiki horietan eramaten zaituzte, arraun eginez, honela egin –*aulkia mugitzen du eskuaz*- eta hondoratzen diren txalupetan.

Saiatu ginen lehen aldian, berriro Kolonbiara eraman gintuzten. Nik ez nuen identitate-zedularik, ezta herrialdean sartzeko baimenik ere, adin txikikoa bainintzen. 16 urte nituen. Itzuli egin behar izan nuen, eta zedula lortu, eta sarte-gutuna eman zidaten.

Orduan Capurganára iritsi ginen, eta Capurganatik Miellera igaro ginen. Nire lagunak egina zuen bidaia hori; esan zidanez, Miellera iritsi zirenean gurutze-ontzi bat zegoen: Gurutze-ontziko gizonak neskatan egin zuten, eta neskek, mutiletan; eta dena erraza egin zitzaien.

Guk dirua biltzea lortu genuen; nire lagunak, 300.000 peso; eta nik, beste 300.000. Gero, gehiago lortu genuen, eta diru horrekin ordaintzen genituen txalupak, janaria eta hotela; eta aurrez-ten saiatzen ginen. Baina Panamara iritsi ginenean, edo, hobeto esanda, Mielera, mugara, Miel igarota Oihana baitago, armadak geldiarazi gintuen.

Gelditu, dokumentazioa eskatu, eta guri begira geratu ziren, esanez: zer da hau? Oso arraroa da. Nire lagunak gizon itxura du bere pasaporteko argazkian. Nik aurrea hartu eta esan nion lagunari: - Utzi niri haiekin hitz egiten, nik azalduko diet, ez izutzeko.

Nik ere banuen pasaporte: Sararen argazkia zuen, eta ikusten ninduten bezala ageri nintzen pasaportearekin. Ez nuen haiek izena ikusterik nahi, baina gizon hark pasaportearekin kendu zidan. Miatu egingo naute. Negarrez hasi nintzen. Eta esan nion: - Barkatu, zuk ezin nauzu miatu, emakumea naiz-eta, zuk ez nauzu miatuko, ez, ezetz. Eta hark esaten zidan: *Zuk zerbait daukazu, droga daukazu*. Eta nik: - Ezetz, zuk ez nauzu miatuko.

Azkenean, emakume bat ekarri zidaten, kuartelean zegoen bakarra. Zortea izan nuen. Miatu egin ninduen. Bularrak ikusi zizkidan, eta esan zidan ez zegoela arazorik, ez neukala ezer, eta neska nintzela; eta Panaman sartzen utzi zidaten. Baina nire lagunari ez.

Panamara iritsi nintzenean, trabesti eremu batera joan nintzen, taxi batean; trabesti bat eza-gutu nuen, eta taxira igotzeko eskatu nion. Agurtu egin nuen: -Kaixo, ni Sara naiz, asko pozten nau zu ezagutzeak. Nire egoeraren berri eman nion: -Ez dakit zer egingo dudan.

Oso adeitsua zen. Aitana zuen izena. Hau esan zidan: *Utzi pentsatzen zer egin dezakedan, agian nire etxera etortzeko esan diezazuket. Baina nire ama aurkeztuko dizut; bera da, hemen, Panaman, trabesti guztiaren ama*. Familiarekin bizi zen: amarekin, eta neba-arreba txikiekin. Baina nahikoa zen etxeok hura egunero ikustea; beste trabesti bat etxean ikustea ere... Orduan, lagunari deitu zion, eta hark bere etxean hartu ninduen, aldi baterako.

Panaman prostituzioan aritzea munduko gauzarik okerrera da. Panaman polizia-etxe antzeko bat dute; *Corregidora* esaten diote, uste dutelako hara eramaten duten jendea onbideratu egingo dutela. Baina hori gezur hutsa da. Ni atxilotu egin ninduten gau batean.

Atxilotu nindutenean, galdetu nuen: -Zergatik atxilotu nauzu?, zer izen duzu?, zein da zure plaka-zenbakia? Eta poliziak erantzun zidan: *30 dolar emango dizkizazu; bestela, Corregidora-ra eramango zaitut*.

Nahikoa da bularraldea agerian ikustea edo prostituta zarela pentsatzea; berehala mehatxatzen zaituzte, eta ez zaie batere axola. Agian oker egon daitezke, agian ez zara prostituta; baina 30 dolarrek ordaindu ezean, zuzenean *Corregidora*-ra eramaten zaituzte. Nahiz eta ez egin ezer. Txosten bat egiten dute, ezkutuko prostituzioan ari zinela edo gauze bide publikoan prostituzioan ari zinela ipinita.

Corregidora-ra eramaten zaituzte, eta han, funtzionario batek galdetzen dizu ea polizia esaten ari dena egia den.

Eta nik ezetz esan nion: -Ez da egia. Ni Panama hoteletik irten eta etorbidea zeharkatzen ari nintzela, mehatxu egin eta 30 dolar eskatu dizkit.

Eta hau erantzun zidan: *Ez, hemen ez du jartzen poliziak 30 dolar eskatu dizkizunik.*

Eta nik zer gertatu zitzaidan azaldu nion: -Poliziak mehatxu egin dit, orain zuregana ekarri naute, eta zu ni epaitzen ari zara, gaizkilea banintz bezala.

Eta hark hau erantzun zidan: *Jakin ezazu oraintxe esan didazunak autoritatearekiko begirunerik eza adierazten duela eta 350 dolarreko isuna ordaindu beharko duzula. Dolar bakoitza espetxe-egun baten baliokidea da.*

A zer emakume krudela... Egun horretan odol-malkoak isuri nituela esatea ere gutxi litzateke. Ez nintzen inoiz lehenago hain umiliatuta sentitu, hain zanpatuta.

Eta nik hau esan nion emakumeari: -Jainkoaren gainean ez dago inor eta Jainkoa dena ikusten ari da.

Eta emakumeak: *Amaitu dugu.*

Esan nion ez nuela dolar bakar bat ere ordainduko, eta gainera, ez neukala hainbeste diru.

Kolonbiarren pasaportean adierazten da eskubidea dugula gure enbaxadan laguntza eskatzeko eta gure herrialdeko abokatu bat izateko. Deitu nuen, baina ezin zuen inork etorri. Ziegan sartu ninduten eta esan zidaten bi eguneko epean ordaintzen ez banuen, gizonen espetxera eramango nindutela.

Nire lagunak neska bat bidali zuen nire bila. Ez ninduen ikusten, eta pentsatu zuen zer gertatu zen: *Zoaz Vía Españako Corregidora-ra, kolonbiarra atxilotuta daukate.*

Neskak dirua utzi zidan: *Niri gertatu zait hori lehenago. Badakit amorrua ematen duela ezer ez egin eta ordaindu beharrak, baina hemen, Panaman, halakoak dira legeak. Ordaindu egin behar duzu, edo bestela espetxera joango zara; zer duzu nahiago, espetxean 350 egun egon edo ordaindu?*

Aho betean esan dezaket poliziak, ez dakit Espainian, baina bai Kolonbian eta Panaman, prostituten etsai okerrenak direla. Poliziak ustelak dira. Nolatan ordaindu behar duzu 350 dolar ez baduzu ezer egin? Eta haiek hau esaten zuten: *350 dolarrek ordaindu behar dituzu zentza zaitzenen, prostituzioan aritzeari utz diezaiozun.* Bada, ez, ez diot prostituitzeari utziko; prostituitu egin beharko dut isuna ordaintzeko. Horrela, are eta prostitutagoa bihurtzen naute.

Panaman kalean lan egin nuenean, poliziak etengabe jazartzen ninduen, zoratu egiten ninduten. Ni ezagutzen ninduten, oso erraz harrapatzen ninduten. Ilهوري bakarra nintzen. Haiek nik baino beltzaranagoa dute larruazala. Zerbaitengatik behartzen zaituzte. Kolonbiarra zara. Eta 30 dolarrek ordaintzea egokitzen zitzaidan, behin eta berriz. Haiei ordaindu beharra. Gaez lan egiten dutenek eta prostituzioaren eremura joaten direnek soldata hirukoitza jasotzen dute: estatuak ordaintzen diena, prostitutei kobratzen dietena eta kentzen dizutena. Bizitza oso bidegabea da; inor ez zarenean eta ezeren gaineko botererik ez duzunean, halakoak gertatzen zaizkizu.

Ni Panaman ez nintzen inoiz prostituitu kalean geldirik jarrita. Kalera irten eta izkina batean gertatuz gero, 4 edo 5 auto gelditzen badira eta azkena poliziarena bada, bezero guztiak eramaten

ditu edo ni atxilotzen naute. Han hotel batzuk daude, eta kasinoen bidez daude elkarri lotuta. Giro jendetsua da, eta zu giro horretan mugitzen zara. Alde guztietako jendea dago. Bat-batean, gizonen bat hurbiltzen da, eta zuk zer zaren, zer egiten duzun eta zenbat kobratzen duzu esaten diozu; eta bere erabakia da.

Kasinoetara iristeko, txakur txiki batekin irteten nintzen kalera, paseatzera joango banintz bezala, oharkabean igarotzeko. Panaman, prostituzioa izugarria da.

Sarak ez zuen babes eskatzeko aukerari buruzko aholkurik jaso, eta ez zuen asilo-eskaerarik egin. 2005ean iritsi zen Panamara. Hiru hilabeterako egonaldi-baimena zuen. Epe hori igaro ostean, polizia atxilotu egin zuen eta Kolonbiara bidali zuen. Sarak adierazi zuen itzultzearen beldur zela, berarentzat oso arriskutsua zelako; baina hala ere, itzularazi egin zuten.

Berri Kolonbian zela, ama, 2004. urtetik Espainian zegoena, hari laguntzen saiatu zen. Bidaia-agentzia batekin jarri zen harremanetan, Europan zehar bidaiatzeko aukerez aholkua eskatzeko; alaba Kolonbiatik atera nahi zuen, babesteko. Bidaia-agentzeak *Amestutako Europa* bira eskaini zion. Hegaldia Frantziara iristen zen, eta gero beste herrialde batzuetan zehar jarraitzen zuen birak; besteak beste, Espainian.

Sara Bogotako Frantziako enbaxadara joan zen bisa eskatzera; baina, azkenean, ukatu egin zioten. Hori ukatu ondoren eta ihes egiten saiatu ostean, jakin zuen besoan sastada eman zion gizona kaleko liskar batean hil zela. Baina herrialdetik ihes egiteko aukerarik ez zuenez eta baliabiderik ez zuenez, berriro prostituzioan aritu behar izan zuen. Medellinen itzuli zen kalera; han zeuden bere lagunak.

Lehen nengoen leku berera itzuli nintzen. Kalera irten behar nuen berriro, eta hau esaten zidaten: *Zuk kontu handiz ibili behar duzu, zerbait egingo dizute-eta*. Esan nion nik Rosari, nire lagunari: -Beldur-ikaraz nago, ez dakit zer egingo dudan, hil egingo naute.

Pentsatu eremu horretan polizia eguneko 24 orduetan ibiltzen dela, 30 edo 50 aldiz igarotzen dira handik. Baina salaketa jartzera joanez gero, hau esaten dizute: *Eta hori gertatu zitzaizun zuri eremu horretan? Eremu horretan polizia asko dago baina...* Hiriko eremu jendetsua da, ondo zaindua, eta merkataritzaguneak dituena. Eremu zoragarria da. *Eta, nolatan gertatu zitzaizun hori?, nor izan zen? Baina, polizia asko dago-eta... non zegoen polizia?* Baina gertatzen zaizunean, polizia ez dago inoiz. Ez da inor etortzen.

Noski, esaten ari naizen hau niri gertatu zait. Ni salaketak jartzera joatean, hau esaten zidaten: *Zuk nor salatu nahi duzu?, Estatua? Hara! Zertara zatoz?* Bada, ezer ez.

Sarak jasan zuen bigarren eraso beste hilketa-saio bat izan zen. Berriro ere, Sara eta bere lagunak prostituzioan aritzen ziren eremuan gertatu zen, Rosa lagunarekin zegoen egun batean. 2005. urteko urriko gau batean, transexualak jotzen dituzten eta estortsio egiten dieten talde homofoboetako 4 edo 5 mutil iritsi ziren auto batean, eta zeraman dirua emateko eskatu zioten. Hark uko egin zion dirua emateari. Rosa lagunak zorroa hartu zion eta lasterka ihes egin zuen, lapur ez ziezaioten, eta laguntza eskatu zien beste neska batzuei.

Sara bakarrik geratu zen, eta mutiletako batek, dirua ez zutela lortuko ikusirik, pistola bat atera zuen, aurpegian jarri zion eta oso gertutik tiro egin zion. Tiro egitean, bala masailbohezurretik sartu zen, eta masailezurrean geratu zen. Sara lurrera erori zen, aurpegia odolez

beteta, eta erasotzaileak joan egin ziren. Gero, ospitalera eraman zuten. Gaur egun, Espainian ebaketa egin dioten arren, oraindik ere bala zatiak ditu sartuta, eta horrek arazoak sortzen dizkio ahoan.

Nik banekien nire bila zetozela. Egun horretan lan asko egin nuen. Kokarekin lotutako gizon horietako batekin egon nintzen; halakoek gau osoa ematen dute... ordu askoz eta askoz aritu nintzen. Orduan, nire lagunak zorroa kendu zidan, lapur ez ziezadaten, eta lasterka hasi zen. Lehenago estortsio egiten zidaten berberak ziren. Beti berberak dira; batzuetan, batzuk bidaltzen dituzte; eta beste batzuetan, beste batzuk. Gaizkileen armada bat bezalakoa da: transexualei estortsio egiten diete.

Ospitalean esnatu nintzenean, munstro batek bezalako aurpegia nuen. Neure burua munstro bat balitz bezala ikusten nuen... ispiluaren kontra bota nuen neure burua, ispilua hautsi nahi nuen... eta ebakiak egin nituen eskuetan. Erizainek geldiarazi ninduten, eutsi egin zidaten, minik ez hartzeko. Neure burua ikustean, hau izan zen lehen inpresioa: aurpegia suntsitu didate... Une horretan, hil egin nahi nuen, ez nuen bizi nahi. Erizainek garbitu egin ninduten. Gero, lagun bat etorri zen. Izan ere, ama hemen zegoen, Espainian; aitona-amonak ez zeuden Kolonbian; eta nire ahizpak txikiak ziren. Ni lagunarekin soilik nengoen.

Une hori ezin da inola ere irudikatu, benetan: larritasuna, izua... Are gehiago: nire familiak hilda nengoela esan zien nire lagun guztiei, amonaren etxera nitaz galdetzeraz joaten ziren guztiei. *Hil egin zen, hilda dago. Hil egin da. Errautsak erre ditugu eta amari bidali dizkiogu, Espainiara.*

Ospitaletik irten eta gero, hilak eta hilak eman nituen itxialdian. Landa-eremuan egon nintzen, kanpoko mundutik aldentuta, lagun baten etxean. Nire laguna oso familia pobre batekoa zen, baina han zeruan bezala nengoen, ez bainintzen ateratzen. Oso familia pobrea zen, jatorriz oso-oso pobrea. Eta haren maitasunak erabat betetzen ninduen. Zopa edo patatadun ura ematen zidatenean eta jaten nuenean, familia haren maitasunak arima, bihotza, sabela eta dena betetzen zidan. Bat-batean, nire familian bizi izan ez nuena bizi izan nuen; nire familiako pertsonak bestelakoak dira... Eta azkenean, kanpoko mundura irtetea lortu nuenean, Espainiara etorri nintzen.

Pentsatzen nuen amaitu zela amesgaiztoa, eta dena hobeto joango zela. Baina ez da hala izan. Izan ere, existitzen ez den pertsona baten izena daukat.

Eta nik ez dut prostituzio gehiagorik nahi. Izan ere, kalean bizi izan nuena ez diot inori opa, izugarria izan zen. Beraz, ez diot berriro mundu horri aurre egin nahi, errealitate krudel horri; orain nahiago dut maite nauen gizon apal baten maskota izan. Ez naiz inoiz bakarrik irteten etxetik. Eta kalean zerbait egin behar badut, taxian joaten naiz. Uste dut jendeak antzeman egiten didala transexuala naitzela, eta beldur naiz; kalean nabilenean, norbait nire atzetik dabilela iruditzen zait. Taxia hartu behar dut edonora joateko. Beldur naiz, ez soilik nik bizi izan nuenagatik; nire kideei gertatutakoengatik ere bai; adibidez, Flor, oreztak zituena, eraman eta sastatu egin zuten. Izugarria da, edozein kaletan geratuko nautela eta hilko nautela sentitzen dut. Badakit haien eta nire artean milioika kilometro, ur litro eta denetarik dagoela, baina nik sentitzen dut ezetz, ezin dudala.

Nik hona etorri eta abokatuarekin hitz egin nuen; hau esan nion: -Uko egitera nator. Izan ere, ez daukat argudiorik hau esateko: -Bai, ni Sara naiz. Naizena naiz eta sinetsi egin behar duzu... Ni ez

naiz inor. Eta ez daukat adorerik asiloaren auzi horretan borrokatzeko. Uko egitera etorri nintzen, baina hark esan zidan: *Zuk ez egin ukorik, itxaron zer gertatzen den ikusteko.*

Sarak 2006ko ekainean eskatu zuen asiloa Espainian; bere eskaeraren izapidea Barajasko aireportuan onartu zuten. 2009ko irailean, asiloa ukatzen zion ebazpena jaso zuen. Asiloa ukatzeko argudiaketan, Espainiako estatuak argudiatu zuen haren kontakizunean kontraesanak zeudela. Sarak, amak hala aholkatuta eta lotsa sentitzen zuelako, ez zion azaldu aireportuko polizia prostituzioan aritzen zela. Asiloa ukatzeko beste argudio bat izan zen ez zegoela alegatutako jazarpenaren nahikoa froga, nahiz eta Sarak oraindik ere bala zatiak dituen masailuzurrean. CEAREko abokatuak kasua berraztertzeko eskaera egitera bultzatu zuen. Berrazterketaren eskaeraren izapidea onartu egin dute.

2.5.2. Asilo-eskubideari eta genero-arrazoiengatik (joera afektibo-sexuala eta genero-identitatea) jazarpen mota horiei buruzko hausnarketak

LGBT taldearen jazarpenari buruzko hausnarketa komunak

1. Asilo-eskubidearen eskuragarritasuna

Oso herrialde gutxik hartzen dituzte sexu-joeragatik eta genero-identitateagatik jazarpenak ihes egiteko arrazoitzat eta asilo-estatutua emateko arrazoitzat. Sarritan, asiloari buruzko legediak 1951ko Genevako Hitzarmenaren interpretazio batean oinarritzen dira. Hitzarmen horrek arrazoi horiengatik jazarritako pertsonak diskriminatzen ditu, nahiz eta gomendatu "gizarte-talde jakin batean" sartu behar direla, gainerako arrazoi posibleak (arrazoia, erlijioa, nazionalitatea edo iritzi politikoak) alde batera utzi gabe, eta kontuan hartuta zenbait arrazoi egon daitezkeela aldi berean, jazarpenaren beldur izateko. Pertsona baten kasuaren baldintzen arabera, arrazoi bat edo arrazoi bat baino gehiago egon daitezke, bai eta aplikatu ere. Fenomeno hori ez da gizarte-taldearen arrazoiagatik sortzen soilik. Adibidez: "iritzi politikoa" kontzeptua asilo-eskaera arrazoitzeko azpiko arrazoitzat edo arrazoi alternatibotzat hartuta, zentzurik zabalean ulertu behar da, eta zentzu horretan, estatu-, gobernu-, gizarte- edo politika-aparatua sartuta dagoen edozein iritzi edo jarduera kontuan hartu behar da. LGBT taldeko pertsonak beren sexu-joera argi eta garbi adierazteaz gain, beren egoerari buruzko iritziak ere adierazten dituzte, beren eskubideak defendatuz. Jazarpen-eragileak erronkatzat har dezake egoera hori, eta horrenbestez, errepresioa eragin. Berez, ez dago jarduera politikorik edo apolitikorik. Kasuaren testuinguruak zehazten du kasu bakoitza zer-nolakoa den.

Giza eskubideak defendatzeko nazioarteko eta Europako tresnak kontuan hartuta, eta halaber, ACNURen gomendio bera aintzat hartuta, sexu-joeragatik eta genero-identitateagatik jazarpena argi eta garbi bat dator Genevako Hitzarmenarekin. Horrenbestez, arrazoi horiengatik jazarritako pertsonak errefuxiatutzat har daitezke. Horrez gainera, LGBT taldeko zenbait sektoreri egindako jazarpenak genero-osagai erantsiak izango ditu, bai emakume izateagatik, bai emakumeak balira bezala jokatzegatik, bai gizartean emakumeentzat soilik ezarritako rolak ez onartzeagatik.

2. Jazarpenaren eragileak

- Estatuak: politiken, legeen eta egituren bidez gauzatzen du jazarpena. Azken horien artean bereziki nabarmena da segurtasun-taldeek (polizia) egindako jazarpena. LGBT taldeak arris-

ku hauek pairatzeko handia du: estatuko agintariek haien aurkako hautazko atxiloketak, tra-
tu ankerrak, jasanezinak eta umiliagarriak egitea.

- Estatuz kanpoko eragileak, hala nola familia, komunitatea eta gizarte-garbiketaz arduratzen diren talde paraestatalak.

3. Estatuaren erantzukizuna

Argitalpenaren beste atal batzuetan nabarmendutako alderdiez gain, LGBT taldearen kasuan, beste alderdi batzuk gertatzen dira.

LGTB taldearen aurkako erasoak ikertzen badira, erasoen egileak identifikatzeko ikerketak oso eskasak izan ohi dira. Horrez gainera, munduko herrialde gehienetan ez dago gertaera horiek prebenitzeko eta zigortzeko, eta talde horrek pairatzen duen diskriminazioa desagerrarazteko berariazko politika publikorik.

Era berean, harrera-gizarteetan ere homofobia eta transfobia egoerak ere aurki ditzakete, eta horren ondorioz, ez dira fidatuko herrialde horietako agintariez. Izan ere, asilo-estatu batzuetan, pertsonak jazarpenak edo diskriminazio-egoerak nozitzeko arriskuan daude. Hori dela eta, pertsona askok ez dute asilo-eskaerarik egiten, bai aukera hori dagoenik ez dakitelako, bai azkenean erabaki hori hartu dutelako.

4. Jazarpena egiaztatzea

Giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeek ez dute gutxiengo horien aurkako jazarpenei buruzko dokumenturik. Hori dela eta, batzuetan, oso zaila da jazarpen hori egiaztatzeko iturri fidagarriak erabiltzea.

Arazo bat da frogak ezin direla erabili: herrialde askotan datu gutxi daude gayek, lesbianek eta transexualek nozitzen duten jazarpen mota horri buruz, eta datu horiek erabili ahal izateko zailtasunak jartzen dizkiete biktimei nahiz datuak biltzen hasi diren gobernuz kanpoko erakundeei. Era berean, batzuetan, LGBT taldeari gehiegizko frogak eskatzen zaizkio.

Beste arazo bat da oso gutxitan dokumentatzen edo salatzen direla egindako gehiegikeriak, sexu-joerari eta genero-identitateari buruz dauden estigmaren eta aurreiritzien ondorioz, Batetik, erakunde ofizialetan egindako salaketa apurrei gehienetan ez zaie inolako jaramon ofizialik egiten. Bestetik, gehienetan, salaketarik ez jartzeko arrazoi nagusiak erasoek biktimarengan eragiten duten erruduntasuna eta lotsa dira. Lesbianak izateagatik eraso dituzten emakumeen ustez, beren jatorrizko herrialdeetan ez dute nozitutako erasoak salatzeke eskubiderik. Izan ere, pasatu zaien guztia beren izaeraren ondorioz gertatzen dela pentsatzen dute, eta nolabait, merezi zutela, familiari eta komunitateari ezbeharrak ekartzeagatik, eta gizarte-mailak eta "zer esango dute" esamoldeak pertsonen arteko harremanak arautzen dituzten gizarteetan desohorea eragiteagatik.

Lesbianen jazarpenari buruzko hausnarketak

Faktore ugari direla eta, jazarpenaren biktima izan diren lesbianak ez dira legeen babesaz baliatzen, edo ez diete legeei etekinik ateratzen. Batetik, lehen esan bezala, herrialde gehienetan ez dietelako asilo-eskubiderik aintzatesten lesbianei eta gayei; eta bestetik, eskubide hori aintzatesaten zaien herrialdeetan oso zaila delako jazarrita daudela frogatzea.

Horrez gainera, sexu-joera dela-eta bizia galtzeko arriskuan egoteagatik jatorrizko herrialdeetatik ihes egiten duten emakumeek hiru diskriminazio motari aurre egin behar diete: emakumeak

izateagatik, lesbiana izateagatik eta migrazio-prozesu bat hasteagatik arrisku handia izan dezaketen baldintza txarretan (sexu-bortxaketa, salerosketa-mafiek atzematea...).

Espainiako Estatuan egindako asilo-eskaera batek nozitutako diskriminazioaren adibidea da hau: 2009ko otsailean, Espainiako administrazioak ez zuen onartu 2007ko uztailean Espainiara iritsi zen Kamerungo neska gazte lesbiana baten asilo-eskaera izapidetzea. Kamerunen, neska horren sexu-joera delitu gisa tipifikatuta dago (sei hilabete eta bost urte arteko espetxealdi-zigorren bidez zigortzen da). Izapidegiek pentsatu zuen neskaren historia "sinesgaitza eta bateraezina" zela. Izan ere, ezin omen zuen lesbiana izan Espainiara haurdun iritsi bazen.

Neska hori "familia dirudun" bateko senide zen, eta esaten zuen ezin zituela gehiago jasan presioa eta beldurra, gurasoek salatu baitzuten bere sexu-joeragatik. Atxilotu ondoren, poliziek behin eta berriz iraindu zuten komisarian, lesbiana zela ukatu zuen arte. Une hartan, aske utzi zuten. Orduan, neskak erabaki zuen afrikar herrialdea uztea bere bikotekidearekin batera. Bere bikotekidea hil egin zen, itsasartea igarotzen ari zenean. Marokon prostituitu behar izan zuen, Espainiara joateko bidaia ordaindu ahal izateko, eta horren ondorioz, haurdun geratu zen.

Transexualen jazarpenerari buruzko hausnarketak

2006ko urtarrilaren 20ko E/CN.4/2006//009 txostenean, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioak Kolonbiako giza eskubideen egoerari buruz adierazi zuen emakume transexualek "gizarte-garbiketa", judizioz kanpoko exekuzioak, hilketak eta hautazko atxiloketak nozitzeko arrisku handia dutela.

Colombia Diversaren 2005eko txostenean¹¹², "gizarte-garbiketako" zenbait kasu aipatzen dira, eta Kolonbiako Estatuak ez du deus egin haiei aurre egiteko.

Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antokundeak (ESLA) hau adierazten du gorroto-krimenei¹¹² buruzko 2007ko txostenean: "Gorroto-krimenek eta gertakari homofoboek sarritan indarkeria- eta ankerkeria-maila altua dute. Sarritan, biktimek jipoiak, tortura, mutilazioa, kastrazioa eta sexu-erasoak pairatzen dituzte. Biktima hiltzeko aukera asko daude. Dirudienez, pertsona transgeneroak errazago erasotzen dituzte kategoria horren baitan".

Gorroto-krimen transfoboak sarritan gorroto-krimen gisa erregistratzen dira, edo "homofobia" kategorian sartzen dituzte. Beraz, pertsona transexualen giza eskubideen urraketari buruzko datuak ezkutuan geratzen dira LGBT kolektiboak pairatzen dituen urraketari buruzko datuen artean. Erakunde askok aintzatetsi dute erasoak nozitzeko arrisku handiagoa duela talde horrek, baina erasoak ezkutuan geratzen dira, aztertutako ezaugarrien artean "genero-identitatea" ez dagoelako, ez eta transfobiaren aipamena ere.

Hori dela eta, talde horrek estigmatizazio eta diskriminazio handiago bati egin behar dio aurre. Egoera horren ondorioz:

Pertsona transexualek ihes egiteko eta beste herrialde batean asiloa eskatzeko aukera gutxiago dute, LGBT taldeek baino: Espainiako Estatuan ia ez dago genero-identitateagatik jazarritako

¹¹² Colombia Diversa (2005).

¹¹³ Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antokundeak (ESLA) hau adierazi zuen duela gutxi argitaratutako Europako testuinguruko gorroto-krimenen legediari buruzko gida praktikoko batean: *Gorroto-krimenak intolerantziatzko adierazpen bortitzak dira, eta eragin handia dute berehalako biktiman, bai eta biktima identifikatzen den taldean ere. Komunitatearen kohesioa eta gizarte-egonkortasuna kaltetzen dute. [...] Berez, gorroto-krimenak herrialde guztietan gertatzen dira, neurri handiagoan edo txikiagoan.*

pertsonak aurkeztutako asilo-eskaerarik (argitalpen honen VI. kapituluko azterketan ikus daitekeen bezala).

Asiloa eskatzeko garaian dituzten oztopoak (izandako gehiegikeriei buruzko frogak, dokumentazioa edo salaketa... eskura izatea) are konplexuagoak dira.

Sararen kasua (bizitzaren historia) Espainiako Estatuan emakume transexual batek egindako asilo-eskaera apurretako bat da. Ikusiko dugu bere asilo-eskaera berriz aztertzeko eskaera, eskatutako babesak ukatu ondoren, sekula ebatsi behar ez zizkioten eskubideak berrezartzeko lagungarria den ala ez.

2.6. Sexu-esplotaziorako salerosketa

2.6.1. Artikulua

■ *Pertsonak sexu- eta lan-esplotaziorako salerostea*

Proyecto Esperanza, pertsonen salerosketaren biktima diren emakumeei babes integrala emateko elkarte

Deskribapena: zer gertatzen ari da? Esanahi soziala eta kulturala

Pertsonak sexu- eta lan-esplotaziorako salerostea, gizonak nahiz emakumeak, errealitate historikoa da, eta gizateriak oso aspalditik bizi izan du. Giza eskubideak konkistatzeko historia oso historia luzea da, zailtasunez betea, eta ez da bukatu inolaz ere. Pertsonak sexu- eta lan-esplotaziorako salerostea, batez ere emakumeak eta haurrak, kaltegarria eta ohikoa da, eta horrez gain, ezkutuan gordetzen da. Halaber, arazo horrek adierazten du oraindik oso urrun dagoela pertsona guztientzat eskubideak eskuratzea.

Pertsonen salerosketa egiteko kausak anitzak eta konplexuak dira, baina kategoria batzuk defini ditzakegu: pobreziaren feminizazioa, balio patriarkalak, eta pertsonak ikusezin bihurtzea eta salerostea.

Pertsonak salerostea pobreziaren adierazle da

Biztanleriari eta Bizi Kalitateari buruzko Batzorde Independentearen arabera¹¹⁴ pobrezia hainbat modutara adierazten da, besteak beste: errentak eskuratzeke zailtasuna izatea, norberaren bizitza ezin zuzentzea eta norberaren etorkizuna ezin bideratzea, indargabe sentitzearen lotsa izatea, etsipenean erortzeko erraztasuna, eta nork bere buruarenganako konfiantza galtzea. Hala, Batzordeak dio pobrezia dagoela gutxiengo onargarri batzuk dituen bizimodua lortu ezin denean.

Beraz, eskubideak erabiltzeko ezgaitasun gisa definitzen da pobrezia. Definizio horren bidez, biztanleriaren segmentu batzuk identifika ditzakegu herrialde askotan, pertsonen salerosketaren biktimak izateko arriskua dutenak.

"Ahultasun" horren baitan, genero-aldagai bat bereizi behar dugu ezinbestean: emakumeek eta neskatok eskubideak erabiltzeko are aukera gutxiago dute beren parekoek baino, gizarte- eta ekonomia-segmentu beretan. Estatuak eskubide gutxiago ematen eta bermatzen dizkiete emakumei gizonei baino, emakumeak izateagatik soilik.

¹¹⁴ "Elegir el futuro – Un programa Radical para la Mejora Sostenible de la Calidad de Vida". Biztanleriari eta Bizi Kalitateari buruzko Batzorde Independentea, IEPÁLA EDITORIAL, 1999.

Pertsonen salerosketaren eta pobrezia-arteko lotura*		
Ekialdeko Europako jatorri-herrialdeetako lagina	Pertsonen salerosketan identifikatutako biktimak (2000- 2003ko ekaina)	Egunean bizitzeko 2\$ baino gutxiago duen biztanleria (%)
Albania	2.241	11,8
Moldaviako Errepublika	1.131	63,7
Errumania	778	20,5
Bulgaria	352	16,2
Ukraina	293	45,7
Kroazia	3	< 2
Txekiar Errepublika	2	< 2
Polonia	1	< 2
Hungaria	1	7,3

* Datu horien bidez, pertsonen salerosketaren eta pobrezia-arteko lotura ilustratu eta adierazi nahi da soilik.

Iturria: Counter-Trafficking Regional Cleaning Point, *op. cit.*, 10. or.; Munduko Bankuan emandako pobrezia-arteko buruzko datuak; *op. cit.*, 2.5. taula.

Pertsonak salerosketaren indarkeriaren adierazle "ikusezina" da

Aldi berri honen hasieran, errealitatea bere erreferentzia-zentroa aldatzen ari da. Ohiko kodeen bidez errealitatea ulertzeko balio duten ezaugarri nabarmenak aldatu egin dira. Adibide hauek aipa ditzakegu: *inmaterializazioa* (ekonomia-prozesuak *dira*, produktuak ez du garrantzirik, bai ordea zer irudi adierazten duen; tresnak ez du axolarik, jakintzak axola du), *kontzeptualizazioa* (artean, literaturan) edo *bertualizazioa* (informatikaren eta aisialdiaren ingurune osoan). Ildo horretan, bazterkeriaren munduan, jendea *ikusezin* bihurtzen da.

Gizarte-sektore handiek oraindik ez dituzte argi hautematen esklabotza-modu berri horiek, inmaterializazioaren prozesu berri horietan buru-belarri sartuta daudenak. Izan ere, gizarte-sektore berri horiek ez dituzte eskuratu esklabotza-modu horiek identifikatzeko kode berriak. Gaur egun, esklabotzari buruz pentsatzen duenak oraindik beste arraza batzuei buruz pentsatzen du, katez lotutako pertsonen buruz, kotoi-sailei eta abarri buruz, alegia. Errealitateak ikurrak aldatu ditu, eta oraindik ez gara gauza ikur berri horiek identifikatzeko. Izan ere, oraindik ez gaude behar adina sentsibilizatuta eta ez ditugu beharrezko balioak, esklabotza gaur egun zer den ulertzeko.

Hiri baten kanpoaldeko auzo batean, kale-argi baten azpian emakume bat ikusteak emakume horren giza eskubideei buruzko hausnarketa eragin beharrean, gaitzespen etiko bat, diskurtso moralizatzaile bat, gizarte-estigma bat edo antzeko beste hainbat gauza eragiten ditu.

Teknologia-, zientzia- eta kultura-errealitate berrietan ibiltzeko hezten gaituzte. Lengoaia berriak, hizkuntza berriak eta kode berriak ikasten ditugu. Hala ere, eskubideetan eta justizian sentsibilizatzeko lan handia dugu egiteko.

Pertsonen salerosketa: merkatuko errealitate bat

Pertsonen salerosketaren fenomeno kultura-, gizarte- eta politika- sustriak dituen errealitate bat baino gehiago da. Funtsean, merkatuko errealitate bat ere bada. Merkatua arauz betetako toki bat da, eta arau horiek gutxi gorabehera mundu osoan balio dute. Era berean, merkatuan zenbait eragilek negoziatzen dute. Merkatuak banako etekinak eta interesak maximizatzeko logika du, eta mugak jartzen ez badizkiogu, munduko gizarte osoaren ondasuna (ekologikoak, kulturak eta sozialak) inbaditu eta suntsitu ditu.

Gizakiak esplotatzeko negozioia			
Bortxazko langileak salerosketatik ateratako etekinaren urteko batez bestekoaren balioespena (Estatu Batuetako dolarretan)			
	Sexu-esplotazio komertzialaren biktimeetatik ateratako etekinak	Beste ekonomia-jarduera batzuetan esplotatutako langileetatik ateratako etekinak	Etekinak guztira (milioitan)
Herrialde industrializatuak	67.200	30.154	15.513
Trantsizioan dauden herrialdeak	23.500	2.353	3.422
Asia	10.000	412	9.704
Latinoamerika	18.200	3.570	1.348
Saharaz hegoaldeko Afrika	10.000	360	159
Ekialde Erdikoa	45.000	2.340	1.508
Munduko guztizkoa			31.654

Iturria: SAP-FL.

Gizakiak sexu- eta lan-esplotaziorako salerosketa nazioartean tipifikatutako delitu bat da.

XXI. mendeko merkatu liberala zuzenbide-estatuak eraikitzeari gailendu zaio, alde handiz. Nazioarteko oinarritzko harremanaren dinamika nagusia ez da gertatzen eskubideak dituzten herritarren artean, baizik eta kontsumitzaileen artean, gasturako ahalmena duten kontsumitzaileen artean, alegia. Muturreko kasuetan (hala nola pertsonen salerosketak berekin dakarren esplotazioan), errenta eskuratu ezin duena ez da herritarra. Pertsona beste batzuen kontsumorako salgaia bihurtzen da, beste horiek errenta eskuratzeko aukera baitute.

Pertsonen salerosketa negozio handi bat da, eta azken finean, onartuta dauden nazioarteko finantza- eta ekonomia-egituretatik ateratzen du etekina. Salerosketa horren mutur nabarmena soilik errefusatzeko du gizarreak, hein batean; hau da, biktimek indarkeria izugarria pairatzen dutenean.

Gizakiak sexu- eta lan-esplotaziorako salerosketa nazioartean tipifikatutako delitu bat da

Krimen Antolatuaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmen berria dela eta (*Nazioarteko Delinkuentzia Antolatuaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmena. Palermo 2000 eta Pertsonen, batez ere emakumeen eta haurren, salerosketa prebenitzeko, menderatzeko eta zigortzeko Protokoloa Protokolo Osagarria, Viena 2000*), nazioartea konturatu da zoritxarrez esklabotza oraindik indarrean dagoela, eta indarkeria modu horri aurre egiteko tresnak eta ulertzeko moduak berriz formulatu behar direla.

Aipatutako hitzarmen horretan, 148 herrialde bildu ziren Palermon 2000ko abenduan. 121 herrialdek Hitzarmena sinatu zuten, baita Espainiak ere, eta 80k, Protokolo Osagarria.

a) Pertsonen salerosketa

Esanahia: pertsonak biltzea, toki batetik bestera eramatea, transferitzea, giltzapean edukitzea edo jasotzea,

baliabideak: mehatxuak edo indarra erabiltzea; edo hertsadura, abdukzio, iruzur edo gezurrak erabiltzea; boterearen abusua edo ahultasun-egoeraren abusua; edo ordainketak edo etekinak

jasotzea, beste pertsona bat kontrolatzen duen pertsonaren baimena lortzeko, esplotatzeko helburuz.

Esplotazioak hauek hartuko ditu kontuan, gutxienez: prostituzio-esplotazioa edo sexua esplotatzeko beste era batzuk, behartutako lana edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren antzeko praktikak, murrizte edo organoak ateratzea.

Pertsonen salerosketako biktimak artikulua honen a) azpi-paragrafoan azaldutako esplotazioa onartzeak ez du garrantzirik izango, a) azpi-paragrafoan aipatutako bitartekoak erabili direnean.

Pertsonen salerosketaren aurkako Protokolo Osagarriaren 3. artikulua. Palermo 2000.

Nazioarteko akordio horrek izugarriko garrantzia izan zuen, batez ere hauek lortu zirelako: baitetik, gai horri buruzko terminologia berdina sortu zen, bai eta *gizakien salerosketaren* definizio bat ere; eta baitetik, herrialde askok sinatu zuten, eta fenomeno hori gaur egungo esklabotza-modutzat hartzen hasi ziren. Hitzarmenak eta Protokoloek garrantzi txikiagoa dute, biktimak babesteko neurriak aitortzeari dagokionez. Izan ere, jasotako neurri apurrak hautazkoak dira estatuentzat, ez dira derrigorrezkoak.

Datuak. Kalkuluen arabera, zenbat emakumeri eragiten dio? Inguru geografikoak identifikatzen al dira?

Nazioarteko Lan Erakundearen *Una Alianza Global contra el Trabajo Forzoso* txostenaren arabera I (B) txostena, 93. Batzarra, 2005, 12.300.000 pertsona (gizonak nahiz emakumeak) ari dira bortxazko lanak egiten, eta pertsonen salerosketan, salerosketa bortxazko lanaren zati espezifizatzen hartuta, 2.450.000 pertsona sartuta daude.

Nazioarteko Lan Erakundeak berak dioenez, kalkulu hori oso zuhurra da eta behetik hartuta, zenbait lurraldek ezin baitute daturik eman, edo ematen dituzten datuak ez baitira fidagarriak edo kalitatekoak.

Salerosketa pairatzen duten bortxazko langileen banaketa eskualdeka	
Asia eta Pazifikoa	1.360.000
Herrialde industrializatuak	270.000
Latinoamerika eta Karibe	250.000
Ekialde Erdikoa eta Ipar Afrika	230.000
Trantsizioan dauden herrialdeak	200.000
Saharaz hegoaldeko Afrika	130.000
Guztira	2.450.000


Iturria: SAP-FL.

AEBko Estatu Departamentuaren iturri bat erabiltzen da fenomeno horretan zenbat emakume dauden inplikaturik kalkulatzeko. Iturri horrek, 2000. urtetik aurrera, pertsonen salerosketari buruzko txosten bat biltzen ari da, bai eta herrialdeak hiru segmentutan edo *tier* delakoetan sailkatzen ere, fenomeno horren aurkako borrokan duten inplikazio-mailaren arabera (www.state.gov/g/tip/rls/tiprpt/2008/105383.htm).

Azken txostenean, 2008an argitaratutakoan, kalkulatu zen urtero 800.000 pertsona salerosketaren biktima direla, eta pertsona horien %70 emakumeak zirela, eta %50, adinez txikiak.

Nazio Batuen beste iturri batzuek eta GKE batzuek kopuru handiagoak aipatzen dituzte: 2,5 milioitik 4,2 milioira arteko emakume dira salerosketaren biktima mundu osoan.

Pertsonen salerosketaren eragina helmuga-herrialdeetan



Iturria: Nazio Batuen Drogaren eta Krimenaren aurkako Bulegoa 2007ko "Patrones Globales" txostena, www.hoffmanpr.com/world/UNODC/

Zer emakume-motari eragiten diote gehien bortxaketa-modu horiek? "Biktima" ideiar buruzko hausnarketa

Hasteko, lan honetan erabiltzen ari garen "biktima" kontzeptua argitu behar da. "Biktima" ideiak pertsona bakoitzari irudi jakin bati buruz pentsarazten digu: babesik eza, indarkeria edo umiliazioa. *ESPERANZA* Proiektua (www.proyectoesperanza.org) 10 urtean aritu da babes integrala ematen 500 emakumeri, eta proiektu horren arabera, "biktima" da pertsonen salerosketaren esperientzia pasatu duen emakume bat, eta kasu bakoitzak berekin dakarren giza eskubideen urraketa pairatu duena.

Biktima ez da duintasunik gabeko pertsona bat, baizik eta duintasuna urratu zaion pertsona bat. Ez da pertsona babesgabe bat, baizik eta ahultasun-egoera batean jarri duten norbait. Ezaugarri horiek hautematen zailak dira, baina horiei esker, ematen dugun emakumeen profileen ahalmenak eta gaitasunak nabarmentzen ditugu, lesioez eta zauriez gain.

Emakumeen profila zehazten hasteko, lehenbizi emakumea zer egoeratan dagoen behatu behar da, eta egoera hori kontzeptualizatu behar da. Hala ere, emakumearen egoerari behatzean, ez diogu baliarik kendu behar emakumeari, ez eta indarririk ere. Esperientzia hori pasatzen duten emakumeek ez dute inolako errurik, batzuetan hala uste duten arren. "Tuntunak" ere ez dira; hau da, ez da guztiz egia egoera berean dauden beste emakume batzuk ez direla erortzen esplotazio-egoeran.

Baliagarriagoa da ahultasun-egoerataraz bultzatu nahi dituzten sistema antolatuen eskuetan erori diren emakumeei laguntzea. Egoera horiei aurre egiteko, emakumeek eta emakumeekin esku hartzen duten ekipamenduek erresistentzia eta indarberritzea sustatu behar dute.

Artikulu hau nahiko laburra denez, ezin ditugu xehetasun gehiegi aipatu. Gure lanean, 22 herrialde baino gehiagoko emakumeak aurkitu ditugu, batez beste 25 urte zituztenak. Emakume horiek familia-zamak eta hezkuntza-maila ertainak dituzte, eta funtsean, oso aukera gutxi dituztenez, ekonomikoak nahiz sozialak, migratzera behartuta daude. Beraz, ahultasunaren oinarriak ez daude pertsonan (emakumean), baizik eta bizi duten pobrezia-inguruan eta aukera-gabeztan.

Zer oinarritzko eskubide urratzen dira gaj praktikatzen denean? Pertsonen salerosketa egungo esklabotza-mota bat da

Palermoko Protokoloak, lehen aipatu dugunak, gizakien salerosketa espezifikoki aztertzen du, eta horri esker, esklabotzaren kontzeptu tradizioaletik bereiz daiteke. Esklabotza, esplotazio "historikotzat" hartuta, egoera estatikoa da, estatuskoa, une jakin batean bizi den egoera bat. Pertsonen salerosketa, egungo esklabotzat hartuta, egoera dinamikoa da, prozesu-egoera bat eta ekintza-multzo bat eragiten du; ekintza horiek jada pertsonen salerosketa dira, nahiz eta bukatuta ez egon.

Pertsonen salerosketak giza eskubideak urratzen ditu. Kontzeptu hori salerosketaren fenomeno osatzen duten elementu "dinamikoen" analisisan oinarritzen da (atzematea, engainua, derrigortzea, toki batetik bestera eramatea eta esplotazioa, besteak beste), fenomenoaren etapa bakoitzean oinarritzko eskubideak zapaltzen direla identifikatzeko.

Pertsonen salerosketan zapaltzen diren eskubideak	
Printzipioa	Nola zapaltzen den
Bizitzarako eta segurtasun psikorako eskubidea.	Mehatxuak, sexu-erasoak, indarkeria fisikoa eta psikikoa.
Pertsonaren duintasunerako eskubidea Osotasun fisikorako eskubidea Tratu ankerra, jasangaitza edo apalgarria debekatzea.	Bizi-baldintza negargarrietan jartzea, osasun-zerbitzuak ukatzea.
Mugimendurako askatasuna.	Giltzapean edukitzea, bahitzea, kontrolatzea, jazartzea.
Esklabotza, morrontza, bortxazko lanak edo derrigortutako lanak debekatzea.	Norberaren bizitza aukeratzeko eta kontrolatzeko gaitasuna kentzea.
Lan-eskubideak (soldata eta ordainketa, bidezko lan-baldintzak, atsedenerako eskubidea).	Abusuzko lan-baldintza engainagarriak, lana ez ordaintzea edo gaizki ordaintzea, atsedean hartzen ez uztea.
Diskriminaziorik ezaren printzipioa.	Generoagatik, nazionalitateagatik, arrazagatik, etniagatik edo prostituzioan aritzeagatik diskriminatzea.

Iturria: Esperanza Proiektua www.proyectoesperanza.org

Gaj mota hori migrazioak eragiten ari al da?

Funtsezkoa da pertsonen salerosketaren, trafikaren eta migrazio-prozesuen artean zer harreman dagoen ulertzea, sexu- eta lan-esplotazioaren fenomenoak ulertzeko.

Euskaraz, *trafikatu* hitza merkataritza-ekintzei buruz aritzeko erabiltzen da, oro har, merkataritza-ekintza irregularrei edo bidegabeko erabilera dutenei buruz aritzeko. Beraz, arma-, droga- edo organo-trafikoa, edo legez kontrako beste ekintza batzuk daudela esan dezakegu. Harluxet Entziklopediaren arabera: trafikatzeko "legez kanpoko den salerosketan edo merkataritzan aritzea da". *Pertsonen salerosketa* kontzeptuak, ordea, beste esanahi bat du. Ikusi dugunez, historian zehar, gizakiak salerostea bi adierazpenekin lotu izan da: *emakume zurien salerosketa* eta *gizakien salerosketa*.

Azkenik, Palermoko Protokoloaren itzulpen ofizialak aukeratu zuen ingelesezko *Trafficking* "salerosketa" itzultzea (*traite*, frantsesez), eta ez "trafiko". Halaber, *Smuggling* itzultzeko "trafiko" hitza erabili zuen (*trafic*, frantsesez), eta ez "ezkutuan sartzea" edo "kontrabandoa".

Terminologia hutsaz haratago, salerosketaren eta trafikoaren arteko aldea nabarmena da. Biak lotuta daude. Izan ere, pertsonen salerosketak nahiz immigrazio irregularrak pertsonak herrialde batetik bestera eramaten dituzten sareen bidez funtziona dezakete, eta lekualdaketa hori legez kontrako taldeen edo gutxi gorabehera antolatutako taldeen bidez egin daiteke. Horiek dira bien arteko kointzidentziak.

Hala ere, esan bezala, beharrezkoa da bi gai horien artean zer alde dauden zehaztea. Sareen bidezko legez kontrako immigrazioan, pertsonak beti legez kontra sartzen dira helmuga-herrialdeetan. Pertsonen salerosketan, aldiz, sarritan, biktimak legez sartzen dira herrialdeetan, hiru hilabeteko bisarekin. Hala ere, epe hori igaro eta gero, biktimen egonaldia legez kontrako bihurtzen da.

Desberdintasun objektibo horretaz gain (herrialdean legez edo legez kontra sartzea), bada beste desberdintasun subjektibo bat: biktimari egiten zaion engainua (lan-motari eta lan-baldintzei buruz) eta salerosketaren biktima helmugara iristen denean esplotazio-baldintzetan lan egitera behartzea.

Legez kontrako immigrazio-sareek atzerritarrak legez kontra sartzen dituzte herrialde batean, haien beharraz aprobetxatzeko, eta garraioaren truke diru kopuru handiak eskatzeko, eta muga pasatu eta gero, atzerritarrak lana bilatzen du bere kabuz. Pertsonen salerosketaren biktimak, beriz, esplotatzen hasten dira helmuga-herrialdera iristen direnean.

Zer irtenbide planteatzen eta garatzen ari dira?

Legegintza-neurriak eta estatuen erantzuna

Palermoko Protokoloan (2000) oinarrituta, Europako Kontseiluak Gizakien Salerosketaren aurka-ko Ekintza Hitzarmena idatzi du. Nazioarteko definizioa onartu du, eta argi eta garbi bereizten ditu gizakien salerosketa (*trafficking*) eta immigranteen trafikoa (*smuggling*), hauek kontuan hartuta: intenzionalitatea, lehenengoak jendea esplotatzen duela eta bigarrenak pertsonak legez kontra herrialdetik herrialdera pasatzen dituela.

Horrez gainera, Protokoloan ageri ez diren balio batzuk aintzat hartzen dira. Batetik, biktimen giza eskubideak babesteko ikuspuntua sendotzea, ezarritako estandarrak handituz; eta bestetik, fenomenoaren gunea handitzea, hau da, "krimen antolatuz" gain, talde txikien eta norbanakoen ekintza kriminalak ere salerosketatzat hartzea.

Hitzarmenari esker, kontinente osoa arazoaz ohartu zen, eremu geografiko osoan estaldura handiena duen erakundearen bidez. Halaber, Hitzarmenak erabaki zuen estatu sinatzaileetan egungo esklabotzari aurre egitea. Estatu horiek esplotazio-kate osoan parte hartzen dute: batzuk jatorri-herrialdeak dira; beste batzuk, iraganbide-herrialdeak; eta azkenik, beste batzuk, helmuga-herrialdeak.

Pertsonen Salerosketaren aurka Borrokatzeko Europako Hitzarmena 2008ko otsailaren 1ean jarri zen indarrean, eta jada, Europako Kontseilua osatzen duten 47 herrialdetatik 38k sinatu dute.

Espainiari dagokionez, 8/00 Lege Organikoaren bidez 4/00 Lege Organikoa¹¹⁵ aldatu eta haren arautegi-garapena egin zenetik, eta nazioarteko zenbait tresna berretsi zirenetik, Espainiak biktimen eskubideak defendatzeko lege-esparru egokia du. 2008ko abenduan Pertsonak Sexu-esploztaziorako Saltzearen aurkako Plan Nazionala onartu zenean, eta Europako Hitzarmena berretsi zenean, lege-esparru hori handitu egin zen. Espainiak pertsonen salerosketari aurre egiteko tresnak eskuratu ditu, baina oraindik delitu horren aurka egiteko ikuspuntua sakondu behar da, biktimen giza eskubideak babestea ardatz nagusitzat hartuta.

Zoritzarrez, delitu horren biktimen eta Administrazioaren arteko harremana hartu-emanen oinarritzen da soilik (*quid pro quo*): justiziari laguntzen zaio. Laguntza eta babesa *lankidetzaren* araberakoa da, alderdi askori dagokienez: emakumeak *informazio garrantzitsua* eskaintzen du, eta trukean, gizarte-zerbitzuak jasotzen ditu. Eskubideak izateak ez du arretarik sortzen, biktimak lankidetzaren bidez eskubidea *erosteko* ahalmenak sortzen du arreta.

Lankidetzari hori berez desitxuratzaileria da, eta alderdien konpromisoak eta arriskuak asimetrikoak dira. Izan ere, emakumeak bera eta bere familia arriskuan jartzen ditu: mafien errepresaliak, jazarria izatea, etxer aldatu behar izatea eta abar. Administrazioak, aldiz, zerbitzuak (beti ez dira zehazten) eta dokumentuak iritziaren arabera eman ditzake (beti ez dira garaiz iristen). Laburbilduz, baliabide horiek ezinbestekoak dira emakumeak bere egoerari eusteko.

Egoera hori deigarria da: emakumeak merkataritza-eremu batetik ihes egiten du, non bera eta pertsona gisa duen duintasuna salerosi egiten diren, eta beste merkataritza-eremu batean sartzen da, non lehen galdu duena berreskuratzeko ordaindu egin behar duen, beste txanpon baten bidez bada ere.

Gizarte zibilak emandako irtenbideak. Politikaren bidez sentsibilizatzea eta eragina izatea beharrezkoa da

Teknikoki, nazioarteak jada definitu eta onartu du pertsonen salerosketaren egoera. Hala ere, gizarteak ez du oraindik oso ondo ulertzen fenomeno horrek zer esanahi duen. Halaber, gizarteak oraindik ez daki estatuek zer arriskatzen duten gizakiak, batez ere emakumeak eta neskatokak, erabili eta salerosten dituzten mafien, eta talde antolatuen edo gutxi gorabehera antolatuen aurka ari direnean.

Tekniko-juridikoaren eta erakundeek nazioarteko foroetan ematen dituzten diskurtsoen artean tarte handia dago. Halaber, herritarren artean axolagabetasuna da nagusi, eta ez dute arazoa behar bezala hautematen. Horren ondorioz, prebentzio- eta deuseztatze-politikak eta biktimen arretarako politikak ezartzeko garaian, gaizki bideratzen dira. Pertsonen salerosketaren aurkako borrokan, delitua zapaltzeko estrategiak erabiltzen dira batez ere, krimen antolatuko sareak desegitea gehiago interesatzen zaielako, giza eskubideen urraketaren sentsibilitateak baino. Tokiko politikak garatzen jarraitzen dute, eta politika horiek kaleetatik prostituzioa ateratzera bideratuagoak daude, prostituziorako esplotazioaren konplexutasuna ulertzera baino.

¹¹⁵ Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritarrak gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa (urtarrilaren 12ko BOE 10. zenbakia), eta abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoa (abenduaren 23ko 307 zenbakia), irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoa (irailaren 30eko BOE 234. zenbakia) eta azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa (irailaren 21eko BOE 279. zenbakia) lege horri buruz emandako xehetasunak. Azaroaren 7ko Konstituzio Auzitegiaren 236/2007 epaiak aldatu zuen lege hori (abenduaren 10eko BOE 295. zenbakia –Eranskina-).

Pertsonen beste salerosketa-modu batzuk oharkabean pasatzen dira, interes-multzorretan murgilduta (ordena publikoa, hiritarren segurtasuna, hiriaren irudia, osasun-kontrola, etab.), hala nola etxe-zerbitzurako esplotazioa, morroi-ekontzak, bortxazko lanak eta organo-trafikoak.

Egoera hori dela eta, pertsonen salerosketaren aurka borrokatzen diren gizarte-eragileek gehienbat emakume biktimen oinarritzko arretan jardun behar dute, beharren arabera eman behar diren zerbitzuak eskainiz. Halaber, sentsibilizazioko, gizarte-mobilizazioko eta politika-eragineko lanak egin behar dituzte.

Aldaketa egiteko proposamena

Gizakiak, batez ere emakumeak eta neskatok, esplotaziorako salerostea giza eskubideak urratzea da funtsean. Ez da migrazio-lekualdatzeen, ordena publikoaren edo delitu antolatuen arazo bat, eta are gutxiago, negozioa egiteko aukera bat. Giza eskubideak oinarritzat hartuta lan egin behar denez, printzipio hauei arreta jarri behar zaie, biktimekin lan egiten denean:

- *Segurtasuna eta bidezko tratua*: pertsonen eskubideak defendatzeko eta aldarrikatzeko prozesuan, beste pertsona batzuen aldean diskriminazio-egoeran ez jartzea edo haien segurtasuna ez urratzea zaindu behar da.
- *Justizia erabili ahal izatea*: hori eskatzen duten emakumeei lagundu behar zaie, auzitegiak eraginkortasunez erabiltzeko aukera izan dezaten, haien kalte moralen ordaina jaso dezaten, eta epaiak prebentzio orokorrerako baliagarriak izan daitezen, bai eta pertsonen salerosketa eragozteko ere.
- *Ekintza zibila eta kalte-ordainketak*: aurreko printzipioaren baldintza beretan, biktimek kalte materialen eta ekonomikoen ordaina jasotzeko eskubidea dute, eta inplikaturako eragile guztiek hartu behar dute kalte horien ardura.
- *Bizilekua*: Espainiako legeriak berariaz hau jasotzen du: agintariei laguntzen dieten delitu horren biktimak (baldintza jakinak betez) erantzukizun administratibotik salbuesita gera daitezke (erantzukizun-salbuespena, herrialdean legez kontra egoteagatik). Hau da, urtebeteko bizileku-baimena eskura dezakete ezohiko baldintzengatik.
- *Osasuna eta zerbitzuak*: orain arte azaldukoaren ildo beretik, giza eskubideak oinarritzat hartzen duen lan-estrategia dela eta, biktimei behar dituzten gizarte- eta medikuntza-zerbitzuak eskuratzen lagundu behar zaie. Hau da, emakumea eraginkortasunez defendatu ahal izateko baldintzak, baliabideak eta erraztasunak (bizilekua, laguntza, ekonomikoki mantentzeko erraztasunak, etab.) eman behar dira.

2.6.2. Asilo-eskubideari eta sexu-esplotaziorako salerosketari buruzko hausnarketak¹¹⁶

Pertsonen salerosketaren kausak eta asilo-eskubidea

Pertsonen salerosketa giza eskubideen urraketarik larrienetako bat da, eta esklabotza modernotzat jo daiteke. Pertsonen salerosketa hainbat motatakoa izan daitekeen arren (batez ere lan- eta sexu-esplotaziorako, organoak ateratzeko edo behartutako ezkontzetarako), asilo-eskubidearen ikuspuntutik, sexu-esplotaziorako helburua duenari jartzen zaio arreta handiena. Izan ere, Espainian asilo-eskaera egin dutenen artean ohikoena da.

¹¹⁶ CEAR (2009a).

Planeta osoan dauden gatazka ugariak dira pertsonen salerosketa eragin dezaketen kausa nagusietakoak. Kausa horri eta beste batzuei gehitu behar zaie zenbait taldek nozitutako jazarpena (arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, iritzi politikoagatik edo gizarte-talde jakin batekoa izateagatik). Emakumeek herrialde askotan bizi duten egoera zaila nabarmendu behar da. Fenomeno horren beste kausetako bat da bai emakumeek, bai beren familiek, bizitza hobeago bat lortu nahi izatea, mugetako ixte- eta militarizazio-politikei aurre egiten saiatzen direnean. Era berean, globalizazio kapitalistaren ondorioek egoera horiek eragiten eta areagotzen dituzte.

Pertsonen salerosketaren ondorioak eta asilo-eskubidea

Pertsonen salerosketak ondorio txarrak eragiten ditu biktimengan, besteak beste. Kontuan izan behar da giza eskubideen urraketa honetan ondorioek biktimei eragiteaz gain, sarritan familiei ere eragiten dietela, sareetako kideen mehatxuengatik eta erasoengatik, edo biktimek hartutako zorrenagatik. Zor horiek estigmatizazio-egoerak eta komunitateak errefusatzea eragin dezakete.

Esan bezala, pertsona bat pertsonen salerosketaren biktima bihurtzeko kausa ugari daude, eta kausa horietako batzuk bat datoz pertsonak errefuxiatutzat aintzatesteko erabiltzen direnekin. Sarritan, salerosketa da jatorrizko herrialdeetatik babes bila ihes egiteko bide bakarra, jazarpena pairatzen ari diren pertsonentzat edo arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoagatik jazarriak izateko beldur diren pertsonentzat. Gauza bera gertatzen da gerra-eremuetan, eta hain zuzen, sareek behar-egoera horiek edo berme-gabezia horiek erabiltzen dituzte, biktimak erakartzeko eta hautemateko.

Halaber, gerta daiteke sexu-esplotazioa nozitu duen pertsona batek jazarpena nozitzeko beldurra izatea bere herrialdera itzultzen bada. Adibidez: zigor- edo migrazio-legeak urratzeagatik (besteak beste: prostituzioan jarduteagatik prostituzioa zigortuta dagoen herrialdeetan, behartuta egin arren; edo herrialdeetara beharrezko legezko betekizunak bete gabe ateratzeagatik), sarearekin "hartutako" zorra ezin ordaintzeagatik, edo jatorrizko komunitatearen estigmatizazio edo ostrazismoagatik, ezin da bizitza duin bat eduki.

Pertsonen salerosketaren biktimen asilo-eskaerak Espainiako Estatuan

Asiloa eskatu nahi duen edo jada eskatu duen pertsonen salerosketaren biktimari edo ustezko biktima bati laguntzeko zenbait zailtasun daude. Lehen zailtasuna da salerosketaren biktima gisa identifikatzea, ondorio horretara iristea ez baita erraza. Zenbaitetan, biktimaren identifikazioa erraz dezaketen aztarnak daude, besteak beste: nortasun- eta immigrazio-agiririk ez izatea (pasaporte eta/edo egoitza-baimena); bizilekua, zer pertsonekin bizitzen den eta etxez borondatez aldatzeko ezintasuna; normalean erakundeetara, gailuetara edo zerbitzuetara itzultzaile gisa jarduten den "herritar" batekin¹¹⁷ batera joatea; nekea, zain daudenean askotan lo geratzen dira, eta batzuetan itxura nahiko narrasa izaten dute; komunikatzeko zailtasunak izatea, gure herrialdean aldi batean bizitzen egon arren, eta prostituzioan dabilen jendearen berezko hizkuntza erraz erabiltzea; elkarriketetan gogogabe aritzea eta informazioa ezkatzea, ikasitako diskurtsoa erabiltzeko ohitura izatea, jarraibideei jarraituz jokatzeko eta sarritan sakelakora deiak jasotzea; eta mugitzeko eta izapidetzeak egiteko (hala nola erroldatzea eta osasun-txartela eskuratzea) mugak izatea.

¹¹⁷ Askotan, beste emakume batekin batera joaten dira. Litekeena da emakume hori duela asko etorri izana Europara, eta urteetan sexu-esplotazioa pairatu ondoren, eta ekarri zuen sarearekin egindako zorra ordaindu eta gero, biktima berriak kontrolatzen aritzea.

Beste zailtasun nabarmen bat da normalean biktimek beren benetako egoeraren berri emateko beldurra dutela, batez ere sarearen boterepean edo eraginpean daudenean. Horren guztiaren adierazgarri dira emakume nigeriarren asilo-eskaerak, besteak beste. Sarritan, emakume horiek sareko kideek agindutakoa esaten dute Espainiako agintarien aurrean (normalean, gatazka etnikoak edo erlijiosoak, behartutako ezkontzak...), eta ezin dituzte erantzun egiten zaizkien galderak eta ez dute agindu ez zaien ezer esaten.

Halaber, ohikoa da sareek eskatzaileei "aholkatzea" berena ez den nazionalitate bat erabiltzeko, normalean gatazka larri bat duen herrialde batekoa (adibidez: Sudan eta Somalia). Izan ere, hala ez omen dituzte beren herrialdera itzularazten edo ez omen dituzte herrialdetik botatzten. Hala ere, gehienetan "aholku" horrek kaltetu baino ez ditu egiten, beren alegazioak sinesgaitzak izaten baitira.

Salerosketaren biktimen asilo eskaerak espainiako Estatuan

Espainiako Estatuan jazarpena noizteagatik zailtasun horiei guztiei aurre egin behar dietenez, sarritan, salerosketaren biktimen asilo-eskaerak ez dira onartzen edo uko egiten zaie, egiazkotasunik ez dutelako edo inkoherenteak edo inkongruenteak direlako. 2008an, gutxienez hamabi pertsonak, ia gehienak Saharaz Hegoaldeko herrialdeetakoak (Kolonbiako eta Dominikar Errepublikako emakume batzuk izan ezik), asiloa eskatu zuten Barajas aireportuan (asilo-eskaera mugan) eta, pertsonen sexu-esplotazioan jarduten zen sare baten biktimak zirela berariaz aitortu zuten, edo beren alegazioengatik eta jokabideengatik ondoriozta zitekeen salerosketaren biktimak izan zitezkeela. CEAREk emakume horietako hiruri eman zien abokatu-laguntza (Sudangoa, Nigeriakoa eta Ghanakoa ziren). Eskatzaile guztietatik bakar baten izapidea onartu egin zen, bost ez ziren onartu, eta sei, mugan onartu ez arren, Espainian sartzeko baimena eman zieten, sarreara onartzearen aldeko ACNURen txostenari esker.


Lurralde nazionalen aurkeztutako asilo-eskaerei dagokienez, Nigeriako herritarren kopurua nabarmena izan zen, bai eta Saharaz Hegoaldeko Afrikako beste herrialdeetako herritarrena ere, besteak beste, eta batez ere, Sudango herritarrenak. Kasu guztietan pertsonen salerosketaren biktimatzat jotzeko azterna argiak zeuden: emakume asko norbaitekin batera joaten ziren Asilo eta Babes Bulegoaren (OAR) ateraino, ez zuten inolako agiririk, beren eskaera gertaera beretan oinarritzen zen, eta ez zitzaizen interesatzen Asilo eta Bales Bulegoaren Gizarte-laneko Unitateak eman ziezaiekeen laguntza edo asilo-eskatzaileentzako harrera-zentro batera joatea.

Era berean, idatzirik utzi behar da Red Española contra la Trata de Personas¹¹⁸ sareko zenbait erakundetako kideek Atzerritarrak Barneratzeko Zentroetan (CIE) zeuden zenbait errusiar neskekin elkarriketatu zirela. Emakume horiek hainbat probintziatiko prostituzio-etxeetan egindako sarekadatan atxilotuak izan ziren. Batek baino ez zuen egin asilo-eskaera eta izapidetzea onartu zen. Era berean, Venezuelako pertsona transexual batek asiloa eskatu zuen. Pertsona horrek salerosketaren biktima izateko azterna ageriak zituen, eta bere eskaeraren izapidetzea ere onartu zen. Izapidetzeko onartu ziren eskaera horiek guztiak, 2007an egindako beste batzuen moduan, behin betiko erantzunaren zain daude, asilo-estatutua eman edo ukatu zaien jakiteko.

Azkenik, asiloa eskatzen duten salerosketaren biktimekin lotutako beste arazo handi bat nabarmendu behar da: Espainiak sinatutako hitzarmenen arabera, batez ere Dublingo Hitzarmena esa-

¹¹⁸ Hau da web-orria: www.redconlatratra.org

ten zaionaren arabera, eskaera zer estatuzko aztertzea dagokion. Espainiara ekarri eta esplotatzen zituzten sareetatik edo mafietatik ihes egitea lortu zuten biktime ugari kasuak daude. Segur-tasun-arrazoiengatik Europako beste herrialde batzuetara joan ziren, baina Espainiara bidali zituzten berriz, lehenago asiloa gure herrialdean eskatu baitzuten (sarritan talde horien eraginpean). Estatuek adostu zuten bidaltze hori, legezketasuna mekanikoki aplikatuz. Ez zuten aintzat hartu eskatzailearentzat arriskutsua izan zitekeela, ihes egin zuen sareko kideak Espainian baitzeuden.



V. Espainiako asilo-sistema Asilo Lege berria

1. Testuinguru globaletik tokiko konpromisora

1951ko Genevako Hitzarmena Espainiako Estatuan eta beste herrialde batzuetan asilo-eskubidea aintzatesteko oinarria da. Asiloa bilatzeko eta asiloa izateko eskubidea 1948ko *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren* 14. artikuluan jasotako giza eskubide bat da. Espainiako Estatuak, Hitzarmen horren sinatzaile gisa, asilo-eskubidea aintzatesten du Konstituzioaren lehen tituluan, "oinarrizko eskubide eta eginbeharra" izenpean. Batez ere nabarmena da 2009ko urrian Espainiako Asilo Lege berria onartu zela, *urriaren 30eko 12/2009 Legea, asilo-eskubidea eta ordezkoko babesa arautzen dituena*. Kapitulu honetan, testu horrek genero-arrazoiengatik jazarpenaren aintzatespenean zer eragin izan duen aztertuko da, emakumeak emakume izateagatik nozitutako jazarpena nahiz joera afektibo-sexuala eta genero-identitatea kontuan hartzen dituen ikuspuntutik.

2. Mehatxatutako eskubidea: asilo-eskubidea Espainiako Estatuan

Oro har, oinarrizko eskubide hori aintzatesten duen esparru juridikoa izan arren, egiatan, Espainiako Estatura iristen diren errefuxiatuen egoera oso desberdina da.

Azken bost urteetan, biztanleko errenta handieneko 50 herrialdeetan asilo-eskaerak murriztu egin dira: eskaeren kopuruaren erdia aurkeztu dira soilik, Europako gobernuak mugak ixteko praktikatu dituzten politiken ondorioz. Azken bi hamarkadetako mailarik baxuena izan da (AC-NURen datuak¹¹⁹). Politika horien ondorioz, mugak pixkana jatorrizko herrialdeetan ezarri dira eta aberriratzeko masiboak egin dira. Horiek guztiek asilo-prozedura eskuratzeko eskubidea urratzen dute, bai eta *ez itzultzea*¹²⁰ printzipioa ere, 1951ko Genevako Hitzarmenaren muina.

Fluxuen eta segurtasunaren kontrola beti babesaren gainetik daude, eta askotan, babes bila da-tozen pertsona guztien giza eskubideen urraketa larriak dira.

Espainiako Estatura iristea lortzen duenari sistematikoki asilo-eskubidea urratzen zaio (1951ko Genevako Hitzarmena ez da betetzen). Espainiako gobernuak gutxi gorabehera jasotako asilo-eskaeren %95ari uko egiten dio, nahiz eta errefuxiatu gutxien iristen diren Europako herrialdeetako bat izan. 2008ko datuen arabera, 4.517 pertsonak eskatu zuten asiloa Espainian, azken 20 urteetako zifrarik baxuena (1989tik), %41,06 gutxiago 2007an baino (7.664 eskaera). Eskaera horietatik, 151ri baino ez zitzaizen onartu errefuxiatu-estatutua, eta 126ri ordezkoko babesa eman zitzaizen¹²¹.

Oro har, asilo-eskubidea ez bada ematen, ukatze sistematikoko politiko hori bi aldiz kaltegarriagoa da genero-arrazoiengatik jazarritako pertsonentzat. Gehiegitan egiaztatzen den bezala, berdintasunerako eskubidea, diskriminatua ez izateko eskubidea eta jazarria ez izateko eskubidea formalki aintzatestea ez da nahikoa, emakumeen aurkako eta gay, lesbiana, bisexual eta transexualen aurkako indarkeria kasuetan. Izan ere, giza eskubideak sustatzeko eta defendatzeko tres-

¹¹⁹ Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa.

¹²⁰ Nazioarteko Zuzenbideak estatuei jarritako debeku bat da: ezin da pertsona bat herrialde batetik bota edo edozein herrialdetako lurraldera itzuli, baldin eta pertsona horren bizia edo askatasuna mehatxatuta badago, edo torturak, tratu jasan ezinak edo apalesgarriak, edo oinarrizko giza eskubideen urraketa larriak nozitzeko arriskua badu.

¹²¹ Asilo Legeak bere 4. artikuluan hau ezartzen du: ordezkoko babeserako eskubidea beste herrialdeetako pertsonen edo herrigabeei ematen zaiena dela, baldintza hau kontuan hartuta: nahiz eta asiloa eskuratzeko edo errefuxiatutaz aintzatesteko betekizunak ez bete, arrazoi egiaziak baleude pentsatzeko Lege honen 10. artikuluan aurreikusitako kalte larriren bat nozitzeko benetakako arriskua dutela, beren jatorrizko herrialdera itzultzean (nazionalak), edo beren ohiko bizileku izan zenera itzultzean (herrigabeak).

nak ikuspuntu androzentriko batetik egin eta implementatzen dira. Talde horien oinarriko eskubideak urratzea ez da salbuespenezkoa, ohiko egoerak dira, eta oro har, ez dira zigortzen.

3. Zer aldaketa dakartza Asilo Lege berriak errefuxiatuen babeserako?

3.1. Orokorrak

2009an onartutako Asilo Legearen ondorioz¹²², giza eskubideen urraketetatik ihes egiten duten pertsonak babesteko konpromisoa lortzen atzera egin da. Izan ere, lege horrek Espainiako Estatuan asiloa eskuratu ahal izateko oztopoak areagotu egiten ditu. 2009ko urriaren 31n Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako testu horrek oztopoak gehitzen dizkio antzinako Legeari. Oztopo horiek 1951ko Genevako Hitzarmenaren aurkakoak dira, eta gainera, giza eskubideen urraketeta larrietatik ihes egiten duten pertsona askok nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea erabiltzea eragotziko dute.

Hala, CEARrek eta Amnistia Internazionalek Lege berri horren oztopo hauek nabarmentzen dituzte¹²³ :

- Europako Erkidegoko herritarrek asiloa eskatzeko eskubidetik baztertzea. Genevako Hitzarmenaren aurkakoak da, eskubide horren izaera unibertsala urratzen baitu, eta Espainiako Konstituzioaren¹²⁴ 13.4 artikulua aurkakoak baita.
- Espainiako enbaxadetan asilo eskatzeko eskubidea desagertzea. Nahiz eta Legeak ezarri Espainiako Estatura eramateko aukera aintzatesten duen prozedura bat, ondoren erregelamendu bidez garatu beharko dena, kezagarria da erabakia enbaxadorearen eskuetan gertatzea. Orain arte aintzatesitako bide diplomatikoa desagertzea atzerapen larria da, Espainian prozedura hori erabili ahal izateko jada oztopoak daudela kontuan hartuz gero.
- Pertsona batek asiloa eskatzean baztertua izateko kausak areagotzea, formula juridiko zehaztugabeen bidez (hala nola "Espainiako segurtasunarentzat arriskutsua da" eta "Erkidegorako mehatxu bat da"). Formula horiek argi eta garbi urratzen dute Genevako Hitzarmenaren testua.
- Eskaera ez onartzeko kausa gisa "hirugarren herrialde segurua" kontzeptua erabiltzea. Kontzeptu horrek Genevako Hitzarmenean jasotako betekizun hau urratzen du: kasu bakoitza banaka aztertu behar da. Halaber, nazionalitate-arrazoiengatik ez diskriminatzeke printzipioa ere urratzen du, Hitzarmen horren 3. artikuluan jasotakoa.
- Mugan geldiarazteko epeak luzatzea, gehienez 16 egunera. Egun, ACNURek asilo-eskaera onartzeko aldeko txostena egiten badu, herrialde jazartzailerak itzularazteko prozesua geldiarazteko bermea da. Berme hori ere kendu egin nahi dute.
- Asilo-eskaera izapidetzeko zenbait prozedura ezartzea. Aniztasun hori dela eta, asilo-eskatzaileentzat bermeak murriztu egiten dira, babesa eskatzen duten legearen arabera. Esaterako: muga egindako asilo-eskaerak errefuxiatu-izaera lortzeko zailtasun gehiago izango dituzte.

¹²² *Urriaren 30eko 12/2009 Legea, asilo-eskubidea eta ordeko babesa arautzen dituen.*

¹²³ Amnistia Internazionala eta CEAR (2009).

¹²⁴ I. kapitulua. Espainiarrak eta atzerriarrak. 13.4. artikulua. *Legeak ezartzen du beste herrialde batzuetako herritarrek eta herrigabeek Espainian asilo-eskubidea izateko zer baldintza izango dituzten.*

- Lurraldean aurkeztutako eskaerak berriz aztertzeko aukera desagertzea, eskaera bati uko egin bazaio eta ebazpena berrikusteko aukera ematen duten probak lortzen badira.
- Jatorrizko herrialdean nagusi diren egoerek baldintzatzen dute genero-arrazoiengatiko, joera afektibo-sexualagatiko edo genero-identitategatiko jazarpenaren aintzatespena, eta arrazoi horiek berak beren kabuz ez dira nahikoak¹²⁵ jazarpena aintzatesteko.

Errefuxiatuei nazioarteko babes bermatzeko konpromisoa Espainiako Estatuaren legezko bete-beharra eta erantzukizun politikoa da, giza eskubideen urraketa larrien aurrean. Une honetatik aurrera, praktika administratiboari eta judizialari jarri behar zaio arreta, eskubide hori idazki huts ez bihurtzeko. Ikuspuntu horretatik garatzen da argitalpen honetako VI. kapituluaren aurkeztutako azterketa.

3.2. Genero-arrazoiengatiko jazarpenarekin lotutakoak

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoak (Berdintasun Legea), bere hogeita bederatzigarren xedapen osagarrian aginduzko mandatu bat sartu zuen garai hartan indarrean zegoen Asilo Legerako: 3. artikuluko 1. atalean xedatutakoa aplikatuko zaie, genero-arrazoiengatiko jazarpena jasateko beldur egietsia duten eta euren jatorrizko herrialdeetatik ihes egiten duten emakume atzerritarrei. Genero-arrazoiengatiko jazarpenetik (GAJ) ihes egiten duten pertsonen asiloaren babesari hel dakioketela aintzatesi zuen espresuki¹²⁶.

Asilo Lege berriak, ordea, ez du Berdintasun Legearen aginduzko mandatu hori osorik jasotzen. Genero-arrazoiengatiko jazarpena aipatzen du (joera afektibo-sexualagatiko eta genero-identitategatiko jazarpenak barne), baina adierazten du arrazoi horiek beren kabuz ez direla nahikoak, baizik eta "jatorrizko herrialdean nagusi diren egoeren" arabekoak izango direla.

3.2.1. Asilo Lege berriaren atalen inguruko hausnarketak

TITULUA, 7. artikulua: Jazarpenaren arrazoiak.1. puntuaren azken paragrafoan hau ezartzen du:

En función de las circunstancias imperantes en el país de origen, se incluye en el concepto de grupo social determinado un grupo basado en una característica común de orientación sexual o identidad sexual, y, o, edad, sin que estos aspectos por sí solos puedan dar lugar a la aplicación del presente artículo. En ningún caso podrá entenderse como orientación sexual, la realización de conductas tipificadas como delito en el ordenamiento jurídico español.

Asimismo, en función de las circunstancias imperantes en el país de origen, se incluye a las personas que huyen de sus países de origen debido a fundados temores de sufrir persecución por motivos de género y, o, edad, sin que estos aspectos por sí solos puedan dar lugar a la aplicación del presente artículo.

¹²⁵ Kapituluaren hurrengo atalean xehetasun handiagoz azaltzen dira Asilo Lege berriari jasotako genero-arrazoiengatiko jazarpenarekin lotutako alderdiak.

¹²⁶ Berdintasun Legeak emakume atzerritarak aipatzen ditu, baina ez gizonak. Gizonen ere genero-arrazoiengatiko zenbait jazarpen mota nozitzeko arriskua dute. Hala ere, Lege horren helburua emakumeek nozitutako diskriminazioa desagerraraztea da. Beraz, emakumeak gizonetik berdintasun-egoeran ez dauden arloak esplizituki adierazten dituela pentsa daiteke. Hala, genero-arrazoiengatiko jazarritako pertsonen asiloaren babes eskura dezakete, testu horren arabera.

Idatzi horrek Berdintasun Legean aurreikusitakoa mugatzen du, jatorrizko herrialdean nagusi diren egoerek baldintzatzen baitute genero-arrazoiengatik asiloa aitortzeko aukera, genero-arrazoiengatiko jazarpena (GAJ) kausatzat aintzatetsi gabe (errefuxiatutzat aintzatesteko garaian, emakumeek hainbat oztopori aurre egin beharko diote, hala nola beren jatorrizko herrialdean ihes egiten duten jazarpena delitu gisa tipifikatzea). Jarrera horrek adierazten du emakumeen eta LGBT taldearen giza eskubideak bigarren mailako eskubidetzat hartzen direla, berezko garrantzirik gabeko eskubidetzat.

Muga hori oztopo gaindiezin bat da Espainiara jazarpen mota horretatik ihesi datozen pertsonentzat. Eskualde horietako giza eskubideen erakundeek eta gizarte-taldeek adierazten dutenez, oso zaila da giza eskubideen urraketek buruzko informazio sinesgarria biltzea. Horrez gainera, eskualde horietan gizarte eskubide horiek oraindik ez dira erabat giza eskubidetzat hartzen, eta estatuko egiturek eta estatuz kanpoko egiturek urraketa horiek ezkutuan gordetzen dituzte. Beraz, gertatutakoa argitzeko eta egileak epaitzeko ikerketa egiteak jazarpena pairatzeko arriskua dakar.

Baldintza horrek CEARrek¹²⁷ eta giza eskubideen beste eragile batzuen aldarrikapena sendotzen du: batzorde bat sortzea beharrezkoa da bulego iraunkor gisa funtzionatuko duen adituen batzorde bat sortzea. Batzordea Plan Nacional de Derechos Humanos planaren jarraipen- eta ebaluazio-mekanisмотan kokatuta egongo litzateke. Batzordea paritarioa izango litzateke arlo horretan eskumena duten ministerioen ordezkariak aurkeztutako hautagaien eta gizarte zibilaren erakundeak sustatzen dituztenen artean (unibertsitateetako giza eskubideen aldeko zentroak, giza eskubideak defendatzeko eta sustatzeko elkarteak...). Batzorde horrek hainbat herrialderi buruzko txostenak egingo lituzke aldi-aldi, COI¹²⁸ arauen eta aldeek ikertzeko aurkeztutako materia edo kasu zehatzei buruzko irizpenen aplikazioa oinarri hartuta.

Asilo Lege berriak pertsona bat genero-arrazoiengatik, joera afektibo-sexualagatik eta genero-identitateagatik errefuxiatu-izaera aintzatestea kontzeptu juridiko zehaztugabe baten mendean jartzen du: "jatorrizko herrialdean nagusi diren egoerak".

Hala ere, testuak aurrerapen garrantzitsu batzuk ere baditu:

ATARIKO TITULUA. 3. artikulua. Errefuxiatu-izaera.

La condición de refugiado se reconoce a toda persona que, debido a fundados temores de ser perseguida por motivos de raza, religión, nacionalidad, opiniones políticas, pertenencia a determinado grupo social, de género u orientación sexual, se encuentra fuera del país de su nacionalidad y no puede o, a causa de dichos temores, no quiere acogerse a la protección de tal país, o al apátrida que, careciendo de nacionalidad y hallándose fuera del país donde antes tuviera su residencia habitual, por los mismos motivos no puede o, a causa de dichos temores, no quiere regresar a él, y no esté incurso en alguna de las causas de exclusión del artículo 8 o de las causas de denegación o revocación del artículo 9.

¹²⁷ CEAR (2009b).

¹²⁸ Jatorrizko Herrialdeari buruzko Informazioa, ingelesezko sigletan. Azken urteetan, *Jatorrizko Herrialdeari buruzko Informazioaren* (COI) buruzko gaia Europako agendako eztabaidagai nagusienetako bilakatu da asiloaren testuinguruan. ACNURek, gobernuz kanpoko erakundeek eta epaileek COIrekin lotutako estandar nagusiak eta irizpideak laburbiltzen dituzten parametroak egin dituzte.

Genero-arrazoiengatik jazarpenak hauek barne hartzen ditu: emakumeek emakume izateagatik, lesbien, gayen, bisexualen eta transexualen taldeak eta pertsonen salerosketaren biktimek nozitutako bortxaketa larriak edo sistematikoak edo iraunkorrak.

I. TITULUAN. Nazioarteko babesa:

CAPÍTULO I. De las condiciones para el reconocimiento del derecho de asilo. Artículo 2. Los actos de persecución definidos en el apartado anterior podrán revestir, entre otras, las siguientes formas:

a) actos de violencia física o psicológica, incluidos los actos de violencia sexual;

f) actos de naturaleza sexual que afecten a adultos o a niños.

Ekintza horietan barne hartzen dira pertsonak sexu-esplotaziorako salerostea eta bortxaketa gerrarako arma gisa erabiltzea. Ekintza horiek esplizituki aintzatestea garrantzitsua den arren, are garrantzitsuagoa da jazarpen moduak adieraztean "besteak beste" idaztea; hau da, zerrenda ez ixtea. Emakumeek eta LGBT taldeak nozitutako giza eskubideen urraketak ez dira duela gutxikoak, baizik eta gizateriaren historia osoan gertatu dira eta gertatzen ari dira. Hala ere, ezkutuan gorde direlako, arreta gutxi jarri zaielako, eta aintzatetsi gabe daudelako, azken hamarkadan "jazarpen modu berriak" ere esan zaie, eta egungo testuinguruan eragindako beste jazarpen modu batzuen barruan sartu dira, besteak beste globalizazio kapitalistaren inpaktuarekin lotutako jazarpenen barruan (hala nola ingurumenaren degradazioak eragin duen behartutako leku-aldatzeak).

Atal hau bukatzeko, adierazi behar da f) atalaren idazkerak nahasketak eragiten dituela: zer ekintza motari buruz eta zer jazarpen-egoerari buruz ari da?

CAPÍTULO III. Disposiciones comunes. Artículo 13. Agentes de persecución o causantes de daños graves.

a) el Estado;

b) los partidos u organizaciones que controlen el Estado o una parte considerable de su territorio;

c) agentes no estatales, cuando los agentes mencionados en los puntos anteriores, incluidas las organizaciones internacionales, no puedan o no quieran proporcionar protección efectiva contra la persecución o los daños graves.

Estatuz kanpoko eragileek berriaz aipatzea aurrerapen handia da, aurreko legeak ez baitzituen aipatzen eta gai horri zegokionez bidegabekeria handiagoak egin baitzitezkeen.

Estatuz kanpoko eragileak emakumeek nozitzen dituzten oinarriko eskubideen urraketa gehien egileak dira.

II. TITULUA, 17.5. Eskaera aurkeztea

La Administración adoptará las medidas necesarias para que, cuando sea preciso, en la entrevista se preste un tratamiento diferenciado por razón del sexo de la persona solicitante. De este trámite se dejará debida constancia en el expediente administrativo.

Murguialday La Administración adoptará las medidas necesarias para que, cuando sea preciso, en la entrevista se preste un tratamiento diferenciado por razón del sexo de la persona solicitante. De este trámite se dejará debida constancia en el expediente administrativo Murguialday.

Artikulu hau aurrerapen bat da asiloa eskuratzeko prozedurari dagokionez. Izan ere, artikulu horrek ezartzen du Administrazioak beharrezko neurriak hartuko dituela asiloa eskuratzeko elkarriketatik, elkarriketatutako pertsonaren sexuaren arabera.

Asilo-prozedura ziurtatu ondoren, beharrezkoa da prozedura hori baldintza egokietan garatzea, generoaren ikuspuntutik.

Hauetako nabarmendu behar dira, besteak beste: prozeduran zehar erantzukizunak dituzten langileek generoaren gaiari buruz prestakuntza egokia izatea, berezko izaera duten asilo-eskaerak identifikatu ahal izateari arreta jartzea (pertsona bat asilo-eskatzailaren laguna denean, hala nola eskatzailaren emaztea) eta elkarriketarako baldintza egokiak. Legearen atal horrek alderdi horri erantzuten dio.

V. KAPITULUA. Ebazpenaren ondoreak. 36. artikulua. Asilo-eskubidea edo ordezkoko babesaren ematearen ondoreak.

1. La concesión del derecho de asilo o de la protección subsidiaria implicará el reconocimiento de los derechos establecidos en la Convención de Ginebra sobre el Estatuto de los Refugiados, en la normativa vigente en materia de extranjería e inmigración, así como en la normativa de la Unión Europea, y, en todo caso:

f) el acceso a la educación, a la asistencia sanitaria, a la vivienda, a la asistencia social y servicios sociales, a los derechos reconocidos por la legislación aplicable a las personas víctimas de violencia de género, en su caso, a la seguridad social y a los programas de integración, en las mismas condiciones que los españoles;

Urtero, Espainiako Estatuak edozein nazioarteko babes mota ukatzen dio gutxi gorabehera eskatzen duten pertsonen %95ari. Hori dela eta, kezka handia dago, babesik jasotzen ez duten eta genero-indarkeriaren biktimak izan daitezkeen emakume errefuxiatuak muturreko zaurgarritasunera bulkatuta baitaude. Atzerritarren Legeak arautzen du onartu gabeko eta babesaren ukatu zaien pertsonen egoera administratiboa. Lege horren arabera (egungo idazkeran¹²⁹) lege kontrako egoeran dagoen emakume atzerritar batek salatzen badu genero-indarkeriaren biktima dela, egoera administratibo horretan egoteagatik hasitako zehapen-espeditentia¹³⁰ geldiarazi egingo da, genero-indarkeriaren prozesua ebatzi arte. Neurri horrek salaketan aurkezpenak murrizten ditu -berez, salaketa gutxiago daude erasoak baino-, biktimak lege kontrako egoeran egoteagatik zigortuak izateko beldur baitira.

Halaber, neurri horrek adierazten du tratu txarren errealitateari buruzko ezjakintasun handia dagoela. Izan ere, sarritan, tratu txarrak ez dira kondenatzen, frogarik ez dagoelako eta emakume batzuek salaketa kentzen dutelako prozesua bukatu baino lehen.

¹²⁹ Abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duena, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei buruzkoa, eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa.

¹³⁰ 53.1a) artikulua.

Bukatzeko, neurri horri esker gehiegikeriak eragozten direla argudiatzeak (hau da, salaketak egoitza-baimenak lortzeko erabil daitezkeela) adierazten du ez dela ikusi nahi legeak behar adina mekanismo dituela iruzurrak eragozteko, salaketa jartzera joaten diren emakume horiek guztiak susmagarritzat hartu gabe.

Genero-indarkeriaren biktima den edozein emakumek indarkeria horretatik babesteko eskubidea du, bere egoera administratiboa edozein izanda ere.

Emakumeen babesak lehenetasun handiagoa izan behar du egoera administratiboak baino.

III. TITULUA. Nazioarteko babesa lortu duten pertsonen familia-unitatea. 40. artikulua. Asilo-eskubidea edo ordezkotako babesa lortzeko eskubidea senideei hedatzea.

1. (...) Asimismo, por extensión familiar, podrá obtener el derecho de asilo o la protección subsidiaria de la persona refugiada o beneficiaria de esta protección su cónyuge o persona ligada por análoga relación de afectividad y convivencia, salvo los supuestos de divorcio, separación legal, separación de hecho, distinta nacionalidad o concesión del estatuto de refugiado por razón de género, cuando en el expediente de la solicitud quede acreditado que la persona ha sufrido o tenido fundados temores de sufrir persecución singularizada por violencia de género por parte de su cónyuge o conviviente.

Ezkontza aintzatesteaz gain, garrantzitsua da ezkontzaren antzeko afektibitate- eta bizikidetzaharremanak ere aintzatestea. Izan ere, harreman mota horiek oso ohikoak dira zenbait herrialdeetan, hala nola Latinoamerikan. Era berean, oso garrantzitsuak dira sexu bereko pertsonen ezkontza debekatuta dagoen, baina beste bateratze zibilak onartzen diren herrialdeetan.

Halaber, garrantzitsua da aintzat hartzea gertuko pertsonen (hala nola ezkontideak edo bikotekideak, edo senideek) beste pertsonak jazar ditzaketela, batez ere emakumeak.

V. TITULUA. Adingabeak eta beste pertsona ahul batzuk. 46. artikulua. Babes-erregimen orokorra.

1. En el marco de la presente Ley, y en los términos en que se desarrolle reglamentariamente, se tendrá en cuenta la situación específica de las personas solicitantes o beneficiarias de protección internacional en situación de vulnerabilidad, tales como menores, menores no acompañados, personas con discapacidad, personas de edad avanzada, mujeres embarazadas, familias monoparentales con menores de edad, personas que hayan padecido torturas, violaciones u otras formas graves de violencia psicológica o física o sexual y víctimas de trata de seres humanos.

Zortzigarren Xedapen Osagarria —Urteko txostena *El Gobierno remitirá a las Cortes Generales un informe anual sobre el número de personas que han solicitado asilo o protección subsidiaria, el número de personas a las que les ha sido concedido o denegado tal estatuto, así como del número de reasentamientos que se hayan efectuado y número de personas beneficiarias de la reagrupación familiar; ceses y revocaciones y situación específica de menores u otras personas vulnerables.*


Espainiako Estatuan asiloari buruzko datuak izateko pausu bat izan daiteke urteko txostena egi-tea. Aurkeztutako asilo-eskaeren sexuaren arabera sailkatutako datuak biltzen eta sozializatzen

jarraitu beharko da. Espainiako Estatuan oso nekeza da jazarpen horretatik ihesi etorri diren pertsonen egoeraren berri izatea, eta zaila ere bada, ez baitago gai horri buruzko informazio ofizialik. Datu orokorrenak (guztizko kopurua, jatorrizko herrialdea...) soilik daude sailkatuta sexuaren arabera.

Berdintasun Ministerioa CIARren¹³¹ sartu da, hitza eta botoa izango du, eta 2009ko azaroko bilkuran ere parte hartu du. Aurrerapen handia da, Ministerioak ekarpen handia egin baitezake emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan, eta genero-ikuspuntua sartu baita Batzorde horren interpretazioetan eta erabakietan.

Beraz, Lege hori onartzeak berekin nolabaiteko aurrerapena dakar genero-arrazoiengatiko jazarpenaren aintzatespen formalean. Hala ere, jatorrizko herrialdean nagusi diren egoerek ez lukete aintzatespen hori baldintzatu behar. Genero-arrazoiengatiko jazarpenaren aintzatespena asilo integraleko politika baten bidez burutu beharko litzateke, jatorrizko eskualdeetatik ihesi egin behar duten pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatzen dituen politika baten bidez, hain zuzen. Aintzatespen formala ez da nahikoa. Premiazkoa eta beharrezkoa da 1951ko Genevako Hitzarmena betetzen duen asilo-politika bat egitea. Praktikan, izugarritzko aldea dago eskubide hori izatearen eta eskubide hortaz baliatzearen artean. Hala egiaztatzen dute Espainiako Estatuak urtero ematen dituen babes-indize baxuek. Argitalpen honen VI. kapituluan, jasotako analisiak ere hori guztia berresten du. Oro har, pertsona errefuxiatuen estatutuak gutxi aintzatesten badira, genero-arrazoiekin lotutako jazarpenak direnean, egoera hori are nabarmenagoa da.

¹³¹ Asilorako eta Babeserako Ministerio arteko Batzordea. Barne Arazoetako Ministerioan, Lan eta Immigrazio Ministerioan, Justizia Ministerioan, Kanpo Arazoetako eta LanKideztako Ministerioan eta Berdintasun Ministerioan integratuta dago. Era berean, ACNURen ordezkari bat ere badago, hitzarekin baina botorik gabe



VI. Analisia: Genero-arrazoiengatiko jazarpenen kasuetan emandako epaien analisia

1. Zertan datza asilo prozedura?

Asilo-prozedura estatu batek abiatzen duen prozesua da –Espainiak, kasu honetan–, pertsona jakin batek asilo-estatutuaren jabe izateko baldintzak betetzen dituen edo ez aztertzeko. Liburu honetan argitaratutako azterketa osatzeko, 2005eko urtarriletik 2009ko maiatzera bitartean emandako epaiak aztertu ditugu. Horrenbestez, epai horiek eman ziren Lege zaharra –*martxoaren 26ko 5/1984 Legea, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzeari buruzkoa, maiatzaren 19ko 9/1994 Legeak aldatzen duena* (aurrerantzean 5/1984 Legea)– eta hura garatzeko arautegia indarrean ziren bitartean. Hobe uler daitezten ikerlan honen egitura, analisia eta ondorioak, labur azalduko dugu 2009ko urrira bitartean indarrean egon zen asilo-prozeduraren egitura:

Asilo-eskaeraren aurkezpena

Errefuxiatuak, asilo-eskaera egitean, eskabidean zehaztu behar du jatorrizko herrialdetik ihes egitera behartu duen jazarpena zer gertaeratan oinarritzen den. Asilo-eskaera hiru leku hauetan aurkez daiteke: lurraldean, mugan edo, bide diplomatikotik, enbaxaden eta kontsul-bulegoen bidez.

Izapidetzeko onartzearen prozedura

Prozeduraren lehen fase horretan, Asilo eta Babes Bulegoak (aurrerantzean ABB), Barne Ministerioari atxikiak, asilo-eskaerak jasotzen ditu eta erabakitzen du eskabideok merezi duten ala ez saskon aztertzea; hau da, erabakitzen du eskaerak izapidetzeko onartu ala ez.

60 eguneko epean, gehienez ere, erabaki eta jakinarazi behar da asilo-eskaerak izapidetzeko onartu diren ala ez. Epe horretan, eskatzaileak bere egoeraren egiaztagiriak jasotzen ditu, baimena ematen diotenak behin-behinekoz Espainian egoteko. Prozedura horren bidez aztertzen dira eskaera bakoitzaren formazko alderdiak. Ez da sekula aztertzen eskabideen edukia, edukia *argi eta garbi sinesgaitza* denean izan ezik.

Prozedura hori sartu zen 5/1984 Legearen 1994ko aldaketan. *Izapidetzeko ez onartzearen kausak* arautzearekin batera, hainbat “kontzeptu juridiko zehaztugabe” agertu ziren; haien kontra borrokatu behar izan dute asilo-eskubidearen defendatzaileak. 1994. urtetik, milaka asilo-eskaera ez dira onartu prozeduraren lehen fase horretan, “argi eta garbi oinarririk ez dutela” uste izanagatik; hau da, 1951ko Genevako Hitzarmenean bildutako arrazoiekin [5/1984 Legeko 5.6 b) artikulua] bat ez etortzeagatik, jazarpena frogatzen duen daturik edo elementurik eman ez izanagatik, sinesgarritasun ezagatik edo inkoherenteak izateagatik.

Administrazioak arrazoi horiei heltzen die gehien; hots, eskabidea *argi eta garbi oinarririk gabetzat* jotzeari, eta alegazioak *argi eta garbi faltsuak, gezur-itxurakoak edo egun indarrean ez direnak* izateari, dela sistematikoki zalantzan jartzen delako aurkeztutako frogaren egiazkotasuna, dela pertsonak *herrialde seguru* batetik datozela uste delako, dela –jarraian epaiak aztertzean ikusiko dugun moduan– aurkeztutako agiriak nahikoa ez direla uste delako.

Eskaera izapidetzea onartzen bada eskatzaileak baimena izango du Espainiako lurraldean egoteko espedientea izapidetu bitartean (hau da, hari asilo-estatutua ematea edo ukatzea erabaki bitartean).

Aitzitik, eskaera ez bada izapidetzeko onartzen, jakinaraziko da derrigor irteteko eginbidea; betiere, eskatzaileari ez bazaio babes osagarriaren estatutua ematen. Derrigorrezko irtetea hamabost egune-

ko epean bete beharko da. Ez bada betetzen, hasiera eman dakioko zigor-espediente bati; horrek eskatzailea egozteko agindua ekar dezake, Espainian egoera "irregularrean" egoteagatik.

Espainian, urtero, ez da izapidetzeko onartzen aurkeztutako eskaeren % 60; hau da, eskaera gehienak sakon aztertu ere egin gabe ukatzen dira. Fase hori ezin gaindituzko oztopo bihurtu da asiloa eskatzen duten milaka pertsonentzat.

Asilo-Estatutuaren ebazpenerako prozedura

Asilo-eskaera izapidetzeko onartzen bada, espedientearen instrukzioari ekiten zaio. Eskabidea aztertzen da, froga-elementuak bildu eta aztertzen dira, eta asilo-estatutua ematearen aldeko edo kontrako irizpidea ematen da. Asilorako eta Babeserako Ministerio arteko Batzordeak (CIAR)¹³² espedientea eta txostena aztertzen ditu eta ebazpen-proposamena helarazten dio Barne Ministerioari; hark du azken hitza asiloak eskaintzen duen nazioarteko babes emateari edo ukatzeari buruz. Ministerioak erantzuna ematen du, CIARen ebazpen-proposamena oinarri hariturik. Erantzuna hiru hauetako bat izan daiteke:

- **Asilo-estatutua ematea:** Espainiako Estatuak –kasu honetan– errefuxiatu-izaera aitortu dien pertsoneri eskaintzen dien nazioarteko babes ematea. Pertsona horiek ez itzularazteko printzipioaren babes izango dute. Printzipio horrek debekatzen du aipatutako pertsonak jatorrizko herrialdera itzularaztea edo haien bizitza arriskuan egon daitekeen beste herrialde batera kanporaztea. Gainera, baimena izango dute Espainian bizi eta lan egiteko, nortasun-agiriak eta –beharrezkoa denean– bidaiatzeko agiriak egingo zaizkie, eta arau zehazturiko gizarte- eta ekonomia-laguntza izango dute.
- **Babes osagarriko estatutua ematea:** 5/1984 Legeko 17.2 artikuluan ezartzen da, arrazoi humanitario edo interes publikoko arrazoiak medio, baimen daitekeela Espainian egotea eskabidea ukatu zaien edo izapidetzeko onartu ez zaien pertsonak; bereziki, jatorrizko herrialdea politika-, etnia- edo erlijio-gatazka edo -istilu larrien ondorioz utzi behar izan badute. Jatorrizko herrialdean aipatutako egoerak gertatzen badira, baina pertsona eskatzaileak ez baditu betetzen –CIARen iritziz– asilo-estatutuaren babes izateko 1951ko Genevako Hitzarmenean ezarritako baldintzak, Barne Ministerioak ordezkoko babes hori eman diezaioke eskatzaileari.
- **Asilo-estatutua ukatzea:** Espainiako Estatuak erabaki dezake pertsona bat errefuxiatutzat ez onartzea, bere iritziz ez dituelako betetzen 1951ko Genevako Hitzarmeneko baldintzak. Asilo-estatutua ukatzeak berekin dakar derrigor irteteko eginbidea jakinaraztea; betiere, eskatzaileari ez bazaio eman babes osagarriaren estatutua. Derrigorrezko irtetea hamabost eguneko epean bete beharko da. Ez bada betetzen, hasiera eman dakioko zigor-espediente bati; horrek eskatzailea egozteko agindua ekar dezake, Espainian egoera "irregularrean" egoteagatik.

Iparraldeko estatuak 1951ko Genevako Hitzarmenaren gero eta interpretazio murriztaileagoa egiten ari dira, eta horrek krisialdi sakona eragin du asiloaren ezarpenean. Egunez egun, gero eta

¹³² Erakunde hori osatzen dute Barne Ministerioa, Lan eta Immigrazio Ministerioa, Justizia Ministerioa eta Atzerri Arazoetako eta Lan-kidetzako Ministerioa ordezkari banak. Batzorde horren bileretara joaten da, halaber, ACNURen ordezkari bat, hitza duena baina ez bozkatzeko eskubiderik. Berdintasun Ministerioa CIAReko kide da 2009ko urriaren 30etik; hau da, urriaren 30eko 12/2009 Legea, asilo-eskubidea eta ordezkoko babes arautzen duena, indarrean sartu zenetik. Aipatutako Ministerioak hitza eta botoa du Batzorde horretan.

gutxiago dira errefuxiatutzat onartzen diren pertsonak, eta ematen diren babesen artean, gora egin du babes osagarrien kopuruak, eta behera, asilo-estatutuarenak.

Espainiako Estatuak urtero ukatzen du jasotzen dituen asilo-eskaeren % 95 inguru.

Barne Ministerioaren ebazpenei jarritako auzibide-errekurtsoak

Zer aukera ditugu asilo-eskaeren ukoen eta izapidetzeko ez onartzeen ehuneko handiaren aurrean? Babesgabetasun sistematiko horren aurrean, pertsona errefuxiatuek Barne Ministerioaren ebazpenen kontrako auzibide-errekurtsoak aurkeztu behar izan dituzte.

- 2004ra arte:

Administrazioarekiko auzi-errekurtso guztiak –hau da asilo-eskaera izapidetzeko ez onartzearen kontrakoak, asilo-estatutua ukatzearen kontrakoak eta babes osagarriko estatutua onartzearen kontrakoak- Auzitegi Nazionalean aurkeztzen ziren lehen auzialdian eta, azken horrek errekurtsoak ezetsiz gero, errekurtsoak Auzitegi Gorenean aurkez zitezkeen.

- 2004tik aurrera:

Asilo-eskaera izapidetzea ez onartzearen kontra, eskatzaileak Epaitegi Zentraletan aurkez dezake administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Horretarako, bi hilabeteko epea du izapidetzeko ez onartzearen jakinarazpenaren datatik aurrera. Hura ezesten bada, eskatzaileak Auzitegi Nazionalean aurkez dezake errekurtsoa .


Asilo-estatutua ukatzearen kontra nahiz babes osagarriko estatutua onartzearen kontra, pertsona eskatzaileak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake Auzitegi Nazionalean, ukatzea jakinarazi eta bi hilabeteko epean. Hura ezesten bada, eskatzaileak Auzitegi Gorenean aurkez dezake errekurtsoa.

Babes osagarriko estatutua ordezeko babesa da, berekin ez dakarrena jatorrizko herrialdeko jazarpenaren aintzatespena, ez eta jazarpen horrek 1951ko Genevako Hitzarmenean ezarritako arrazoiekin izan dezakeen loturarena ere. Babes mota horren kontra errekurtsoak aurkez daitezke uste denean nahikoa ez dela eta, gainera, izan daitekeenean aldarrikapen politikoa eta jurisprudentzia sortzeko modua.

2008. urtean, Barne Ministerioak ez zituen izapidetzeko onartu 2531 asilo-eskaera, eta 2289 ukatu zituen. Denbora tarte horretan, administrazioarekiko 1522 auzi-errekurtso jarri ziren izapidetzeko ez onartzearen kontra, eta beste 490, ukatzeen kontra. Ez dakigu zenbat errekurtso aurkeztu ziren guztira babes osagarriko estatutua ematearen kontra.

Datu horiek erakusten dute asiloa eskatzen duten pertsonen ehuneko handi batek bere burua derrigorturik ikusten duela bide judicialari ekiteko babesa lortzeko.

Asilo prozeduraren eskema



*AAE: Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa.

* Berraztertzea: Berrezartze Errekurtsoa.

2. Metodologia

Ikerketaren helburua

Argitalpen honen lehen kapituluetan azaldu dugu nola gauzatzen den munduan genero-arrazoiengatiko jazarpena eta zer lotura duten ekintza horiek asilo-eskubidearekin. Ikerlan honen xedea da aztertzea eta agerian jartzea Espainiako Estatuak jazarpen mota horitatik ihesi bertara iristen diren pertsonen ematen dien erantzuna. Horretarako, aztertuko dugu Espainiako Estatuaren asilo-sistemaren aplikazioa bide judizialean.

Barne Ministerioak du, OARen bidez, Espainian aurkezten diren asilo-eskaerak izapidetzeko ardura. Nolanahi ere, txostenetan ez dira ematen datu guztiak sexuaren arabera sailkatuta, eta ez dira zahazten ere errefuxiatuak ihes egitera behartu dituzten jazarpenen arrazoiak. Horrez gain, asilo-espedienteen konfidentzialtasun logikoak bilaketa- eta sistematizazio-lanak zailtzen ditu.

Aipatutakoa gogoan, erabaki dugu aztertzea Administrazioak hartutako erabakien kontra aurkeztutako errekurtsoei buruz Auzitegi Nazionalak nahiz Auzitegi Gorenak eman dituzten epaiak. Epai bakoitzean, ondoko hauek aztertu dira:

- Genero-arrazoiengatiko jazarpenagatik asilo-estatutua ematearen edo izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak.
- Genero-arrazoiengatiko jazarpenagatik asilo-estatutua ematearen edo izapidetzeko onartzearen aldeko argudioak.

CEARen dugun informazio bakarra da, ikerketa honen epean bide administratibotik emandako asilo-estatupei dagokienez, erakundearen aholkuei jarraituz errekursoak jarri dituzten pertsonen buruzkoa.

Gogoan hartu behar dugu Barne Ministerioak urtero asilo-eskaeren % 60ez dituela izapidetzeko onartzen, eta % 95 ukatzen dituela.

Espainiako botere judizialak erabakitzen du, azken batean, estatuak zer egoeratan babestu behar duen pertsona bat eta zer egoeratan ez duen egin behar.

Ikerketaren unibertsoa

Ez dugunez daturik denbora-tarte horretan administrazioak ebatzitako genero-arrazoiengatiko asilo-eskabideei buruz, ezin dugu kalkulatu Auzitegietan errekursoak jarri zaizkien ebazpenen ehunekoa.

Horrela, erabaki dugu lan egitea legegintzako eta jurisprudentziako datu-base baten bidez, bide ematen diguna Auzitegi Nazionalak nahiz Auzitegi Gorenak ebatzitako genero-arrazoiek eragindako jazarpenari buruzko epaien testu osoa eskuratzeko.

Azterketa-aldia hautatzeko orduan, kontuan izan dugu gizonen eta emakumeen berdintasun eraginkorrerako *3/2007 Lege Organikoaren 2007ko onarpena; haren bidez, xedapen gehigarri bat gehitzen zaio*¹³³ 5/1984 Legeari, azken hori aplika dakien, halaber, genero-arrazoiengatiko jazarpena pairatzeko beldur egietiak bultzaturik jatorrizko herrialdeetatik ihes egin duten emakume atzerritarrei.

Horrela, 2005eko urtarriletik eta 2009ko maiatzera bitartean eman diren 110 epei aztertu ditugu guztira.

Asilo-prozedura arrunta urtebetean edo bi urtean ebatzi ohi da. Auzitegietan aurkeztzen bada ebazpenaren kontrako errekursoa, hau da, bide judizialari ekiten bazaio, prozesua luza daiteke, gutxienez, beste bi urtez. Horregatik, kontuan izan behar dugu aztertu ditugun epaietako batzuk izan daitezkeela 2004. urteaz aitzin aurkeztutako asilo-eskaerei eta errekursoei buruzkoak.

1. Taula: Justizia Epaitegiei ebatzitako genero-arrazoiengatiko jazarpenei buruzko epaiak

	Auzitegi Nazionala	Auzitegi Gorena	Guztira
Izapidetzeko ez onartzea	34	26	60
Asiloaren ukatzeak	39	7	46
Babes osagarria	3	1	4
Guztira	76	34	110

¹³³ HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA: 3. artikuluko 1. atalean xedatutakoa aplikatuko zaie genero-arrazoiengatiko jazarpena pairatzeko beldur egietiak bultzaturik jatorrizko herrialdeetatik ihes egin duten emakume atzerritarrei.

Ikerketaren diseinua

Informazioa biltzeko bi modu ezarri ditugu:

- **Kuantitatiboa.** Hainbat proba estatistikoren bidez, aldagai hauek aztertu ditugu:
 - Sexua.
 - Errekurtsoa jarri zaion ebazpena: izapidetzeko ez onartzea, asilo-estatutua ukatzea, babes osagarriko estatutua ematea (nahikoa ez dela uste izateagatik).
 - Ebazpenaren data.
 - Epaiaren data.
 - Erabakia hartu duen Auzitegia.
 - Errekurtsoaren ebazpena.
- **Kualitatiboa.** Oinarri hartu dira errekurtsioa baiesteko edo ezesteko erabakigarritzat jo diren faktoreak; adibidez:
 - Frogak.
 - Eskatzailea beste herrialde seguru batean egon izana.
 - Berandutzea eskabidea aurkeztean.
 - Nazionalitate-frogaren baliozkotasuna.
 - Jatorrizko herrialdean jazarpena delitu gisa tipifikatuta egotea.
 - Jatorrizko herrialdean harreman homosexualak despenalizaturik egotea.
 - Kontakizunaren sinesgarritasuna.
 - Jatorrizko herrialdearen barruan leku batetik bestera mugitu izana.
 - Jazarpen mota.
 - Jazarpenaren eragilea.
 - Jazarpena banakakotzat jotzeko inguruabarrak.
 - Jatorrizko herrialdearen egoerari buruzko txostenak.

Ikerketaren gure unibertsoa errekurtsioa jarri zaion ebazpenaren arabera sailkatu dugu, bakoitzak xede desberdina baitu eta hainbat auzialditan apelatzen baita. Horrela, ondoko hauek aztertu ditugu:

- Asilo-eskaera izapidetzeko ez onartzearen kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak.
- Asilo-estatutua ukatzearen kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak eta babes osagarriko estatutua ematearen kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak.

3. Analisi kuantitatiboa

Modu kuantitatiboan ezagutu ahal izateko Barne Ministerioak hartutako erabakien kontrako errekurtsioei Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak eman dieten erantzuna, ondoko hauek aztertu ditugu:

- Asiloa eskatu duten pertsonen alegatutako jazarpen mota.

- Barne Ministerioaren zer ebazpenen aurka aurkeztu diren errekurtsioak: izapidetzeko ez onartzea, asilo-estatutua ukatzea edo babes osagarriko estatutua ematea.
- Zer erantzun eman dieten Auzitegiek jarritako errekurtsioei.

3.1. Eskatzaileek alegatutako jazarpenak

Aztertutako 110 epaiak eskatzaileek alegatutako genero-arrazoiengatiko jazarpen motaren araberako sailkatu ditugu. Horrela, 8 kategoriatan banatu ditugu. Jazarpen motak lotura dute beren artean. Hori dela eta, epai batzuetan bi jazarpen mota aurkitu ditugu. Hizpide ditugun kasuek lotura izan ohi dute genitalen mutilazioarik eta behartutako ezkontzarik ez pairatzeko ihes egiten duten emakumeekin; edo, behartuta ezkondurik, familia barruko indarkeria-egoeratik ihes egiten duten emakumeekin. Horregatik, aztertutako epaietatik, alegatutako 121 jazarpen mota aterra ditugu.

2. Taula: Sexuagatik alegatutako jazarpenak

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Ehunekoak
Joera afektibo-sexuala	8	41	49	40,50
Genero-identitatea	1	1	2	1,65
Behartutako ezkontza	20	0	20	16,53
Emakumeen genitalen mutilazioa	12	2*	14	11,57
Familia barruko tratu txarrak	15	0	15	12,40
Sexu-indarkeria eta -gehiegikeriak	14	0	14	11,57
Pertsonen salerosketa	3	0	3	2,48
Bortxaketa gerrarako arma gisa erabiltzea	4	0	4	3,31
Guztira	77	44	121	100,00

* Hizpide dugun praktikaren kontra dauden gizonak dira biak.

Oro har, azpimarra dezakegu alegatutako arrazoi gehienek zerikusia dutela joera afektibo-sexualarengatiko jazarpenarekin (guztizkoaren % 40,50). Haren ondotik dira, hurrenez hurren, behartutako ezkontzagatiko jazarpena (% 16,53), familia barruko tratu txarrak (% 12,40), emakumeen genitalen mutilazioa eta sexu-indarkeria eta -gehiegikeriak (biek ala biek % 11,57 dutelarik).

(*) Taulan ikus daitekeen moduan, bi gizonetako asiloa eskatu dute emakumeen genitalen mutilazioagatik jazarpenagatik. Hizpide dugun praktikaren kontra dauden pertsonak dira biak. Bietako bat, Ginea Conakrykoa, mehatxaturik dago alabari emakumeen genitalen mutilazioa egin nahi ez izateagatik. Bestea, togoarra, mehatxupearan dago arrebari praktika horretatik ihes egiten laguntzeagatik.

Bi kasu horietan izan ezik, genero-arrazoiengatik gizonetako alegatutako jazarpena bi kategoriatan banatzen da: joera afektibo-sexualagatik jazarpena –41 gizonetako (% 83,67) eta 8 emakumetako alegatu dute jazarpen mota hori– eta genero-identitatea –gizonetako 1ek (% 50) eta emakumetako 1ek (% 50) alegatu dute-.

3.2. Errekurtsoak jarri zaizkien Barne Ministerioaren ebazpenei buruzko epaiak

3. Taula: Errekurtsoak jarri zaizkien Barne Ministerioaren ebazpenak eta horien gaineko epaiak eman duen Auzitegia

	Auzitegi Nazionala	Auzitegi Gorena	Guztira
Izapidetzeko ez onartzea	34	26	60
Asilo-estatutua ukatzea	39	7	46
Babes osagarria ematea	3	1	4
Guztira	76	34	110

Auzitegi Nazionalak ebatzi ditu aztertutako errekurtso gehienak (% 69,09). Gogoan har dezagun asilo-estatutua ukatzearen kontrako eta babes osagarriko estatutua onartzearen kontrako errekurtsoak Auzitegi Nazionalan aurkezten direla, eta Auzitegi Gorenera heltzen direla soilik beharrezkoa izanez gero (hau da, Auzitegi Nazionalaren erabakiaren kontra errekurtsoak aurkezten bada).

2004tik aurrera, izapidetzeko ez onartzearen kontra jarritako errekurtsoak ez dira Auzitegi Gorenera iritsi, Auzitegi Nazionalan geratzen dira azken auzialdian. Hori dela eta, txosten honetan aztertu ditugun Auzitegi Gorenak izapidetzeko ez onartzei buruz emandako epaiak, nahiz eta 2005eko urtarriletik 2009ko maiatzera bitartean emanak izan, denbora-tarte hori baino lehen aurkeztutako errekurtsoei buruzkoak dira.

Errekurtsoak jarri zaizkien Barne Ministerioaren ebazpenei buruzko epaiak (sexuaren arabera sailkatuta):


4. Taula: Errekurtsoak jarri zaizkien Barne Ministerioaren ebazpenak, sexuaren arabera sailkatuta

	Guztizko datuak			Ehunekoak		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Izapidetzeko ez onartzea	21	39	60	35,00	65,00	100,00
Asilo-estatutua ukatzea	22	24	46	47,83	52,17	100,00
Babes osagarria ematea	1	3	4	25,00	75,00	100,00
Guztira	44	66	110	40,00	60,00	100,00

Azkenik, azpimarratu beharra dago, nahiz eta ez egon Sexua eta Errekurtsoa jarri zaion Ebazpena aldagaien arteko lotura zuzenik, emakumezkoen ehunekoak gizonazkoena baino handiagoa delaa izapidetzeko ez onartzei buruzko epaietan (% 65,00). Aitzitik, asilo-estatutua ukatzearen kontrako errekurtsoetan, gizon eta emakumeen ehunekoak parekatuagoak daude (gizonazkoak % 47,83 eta emakumezkoak % 52,17).

Errekurtsoak jarri zaizkien Barne Ministerioaren ebazpenei buruzko epaiak (urtearen arabera sailkatuta):

1. Grafikoa: Errekurtsoa aurkeztu zaien Barne Ministerioaren ebazpenen bilakaera



Lotura meharra dago errekurtsoa jarri zaien Barne Ministerioaren ebazpen motaren eta ebazpenaren urtearen artea; hau da, 2005etik 2009ra bitarteko denbora-tartea¹³⁴. Ikus daitekeen moduan, denbora-tarte horretan behera egin dute izapidetzeko ez onartzeen kontrako errekurtsoek eta, aitzitik, asilo-estatutua ukatzearen eta babes osagarriko estatutua ematearen kontrako errekurtsoek gora egin dute arinki. Nahiz eta lotura meharra izan, baliteke azken urteotan Auzitegi Gorenak sortu duen jurisprudentzia medio gora egin izana izapidetzeko onartzeek. Aurrerago ikusiko dugun moduan, Auzitegi Gorenak baietsi du izapidetzeko ez onartzeen kontrako errekurtsoen % 61,54 eta, horren ondorioz, genero-arrazoiengatiko jazarpen-kasuak sakontasunez aztertu behar izan dira.

3.3. Aurkeztutako errekurtsoei Justizia Auzitegiek emandako erantzunak Erantzunak, alegatutako jazarpenaren arabera


5. Taula: Alegatutako jazarpen motaren arabera Auzitegiek emandako erantzuna (ehunekoa)

	Baietsia	Ezetsia	Parcial ¹³⁵	Guztira
Joera afektibo-sexuala	16,33	83,67	0,00	100,00
Genero-identitatea	0,00	100,00	0,00	100,00
Behartutako ezkontza	20,00	80,00	0,00	100,00
Emakumeen genitalen mutilazioa	28,57	71,43	0,00	100,00
Familia barruko tratu txarrak	13,33	80,00	6,67	100,00
Sexu-indarkeria eta -gehiegikeriak	28,57	71,43	0,00	100,00
Pertsonen salerosketa	0,00	100,00	0,00	100,00
Bortxaketa gerrarako arma gisa erabiltzea	25,00	50,00	25,00	100,00

¹³⁴ 2009ko datuak ezin dira alderatu gainerako urteetakoekin, ez baitira urte osoko datuak bildu (maiztara bitartekoak soilik).

¹³⁵ Partzial kontzeptuaren bidez adierazten da ebazpena partzialki baietsi dela; hau da, pertsonen asilo-estatutua ukatzearen kontra errekurtsoa jarri ostean auzitegiek babes osagarriko estatutua eman dietela.

2. Grafikoa: Alegatutako jazarpen motaren arabera Auzitegiek emandako erantzuna



Ikus daitekeen moduan, hauek dira baiespunen ehunekorik handiena izan duten jazarpen motak: emakumeen genitalen mutilazioarekin eta sexu-indarkeria eta –gehiegikeriekin lotutako kasuak (bietan % 28,57); bortxaketa gerrarako armatzat aldagaiaren kasuan, errekurtsoen % 25 baietsi da (kasu horretan, nolahi ere, aipatutako datua ez da adierazgarria, epaiak 4 izan baitira guztira); eta behartutako ezkontzagarriko jazarpenen kasuan, % 20.

Bestetik, nabarmentzeko modukoa da genero-identitateari (2 kasu) eta pertsonen salerosketari (3 kasu) buruzko auzietan errekurtsio guztiak ezetsi direla. Gainera, badira partzialki baietsi diren 2 ebazpen; hau da, asilo-estatutua ukatzearen kontra errekurtsioa jarri duten bi emakumeri babes osagarriko estatutua eman zaie: bata Irakekoa da, eta familia barruko indarkeriagatik ihes egin du; bestea Kongoko Errepublika Demokratiko emakume bat da, bortxaketa pairatu duena, gerrarako arma gisa erabilita.

Erantzunak, eskudun organoaren eta errekurtsioa jarri zaion ebazpenaren arabera

Izapidetzeko ez onartzearen aurka jarritako errekurtsioei buruzko epaiak

6. Taula: Izapidetzeko ez onartzearen aurka aurkeztutako errekurtsioen banaketa eta emandako epaiak (ehunekoa)

	Auzitegi Nazionala	Auzitegi Gorena
Ebazpen ezetsia	91,18	38,46
Ebazpen baietsia	8,82	61,54
Guztira	100,00	100,00

Aztertuz gero eskaerak izapidetzeko ez onartzearen kontrako errekurtsioen ebazpenen eta horiek ebatzi dituen Auzitegiaren arteko lotura, ikus dezakegu bi aldagai horien artean lotura handia dagoela. Auzitegi Nazionalak ia errekurtsio guztiak ezetsi ditu (% 91,18); Auzitegi Gorenak, berriz, errekurtsioen % 61,54 baietsi du. Gogoan izan dezagun Auzitegi Gorena dela jurisprudentzia sortzen duena, eta Auzitegi Nazionalak nahiz Epaitegi Zentralak –hala badagokio– eta Administrazioak jurisprudentzia horretan ezarritako irizpideak bete beharko litzuketela.

Asilo-estatutua ukatzearen aurka jarritako errekurtsoei buruzko epaiak

7. Taula: Asiloa ukatzearen aurka jarritako errekurtsoen banaketa eta emandako epaiak (ehunekoa)

	Auzitegi Nazionala	Auzitegi Gorenak
Ebazpen ezetsia	92,31	75,00
Ebazpen baietsia	2,56	25,00
Ebazpen partziala	5,13	0,00
Guztira	100,00	100,00

Asilo-estatutua ukatzearen kontra errekurtsoa jarri den 47 epaietan, lotura dago, berriz ere, epaiaren ebazpenaren eta ebazpena eman duen organoaren artean. Bi Auzitegiek (Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak) errekurtso gehienak ezetsi badituzte ere, esanguratsua da Auzitegi Gorenaren baiespenen ehunekoa: Auzitegi Gorenak heldu zaizkion genero-arrazoiengatiko eskaerei buruzko epaien % 25 baietsi du.

Babes osagarriko estatutua ematearen aurka jarritako errekurtsoei buruzko epaiak (errekurtsoa jarri duen pertsonak uste izateagatik estatutu hori ez dela nahikoa)

8. Taula: Babes osagarria ematearen aurka jarritako errekurtsoen banaketa eta emandako epaiak (ehunekoa)

	Auzitegi Nazionala	Auzitegi Gorenak
Ebazpen ezetsia	66,67	0,00
Ebazpen baietsia	33,33	100,00
Guztira	100,00	100,00

Nahiz eta estatistikoki oso adierazgarria ez izan, babes osagarriko estatutua ematearen kontrako lau errekurtsoetatik Auzitegi Nazionalak bat baietsi du, eta Auzitegi Gorenak, beste bat.

Erantzun guztiak, eskudun organoaren eta errekurtsoa jarri zaion ebazpenaren arabera

9. Taula: Aurkeztutako errekurtsoen banaketa eta emandako epaiak (ehunekoa)

	Auzitegi Nazionala	Auzitegi Gorenak	Guztira
Ebazpen ezetsia	90,79	47,06	77,27
Ebazpen baietsia	6,58	52,94	20,91
Ebazpen partziala	2,63	0,00	1,82
Guztira	100,00	100,00	100,00

Berealdiko garrantzia du erabakia hartu duen organoaren eta hartutako erabakiaren arteko loturak, ageriko baita Auzitegi Gorenak baietsi duela genero-arrazoiengatiko jazarpen-kasuei buruzko errekurtsoen erdia baino gehiago (% 52,94); Auzitegi Nazionalak, aldiz, ia errekurtso guztiak (% 90,79) ezetsi ditu.

4. Analisi kualitatiboa: izapidetzeko onartzearen fasea

Martxoaren 26ko 5/1984 Legeak, maiatzaren 19ko 9/1994 Legeak errotik aldatu duenak, eta asilo-eskubidea nahiz errefuxiatu-izaera arautzen duenak (aurrerantzean 5/1984 Legea) 5.6 artikuluan ezartzen du zer inguruabarretan erabaki dezakeen Barne Ministerioak Espainiako Estatuan aurkeztutako asilo-eskaeren izapidetzea ez onartzea¹³⁶.

Azterlan honen bidez ondoriozta dezakegu Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak oinarritzat hartzen dituztela, asilo-eskaeren izapidetzea ez onartzearen kontrako errekurtsoak ezesteko, aipatutako artikuluko b), d) eta f) atalak.

5.6 artikuluko b) atala^{vi}: *El Ministerio del Interior, a propuesta del órgano encargado de la instrucción de las solicitudes de asilo, previa audiencia del representante en España del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Refugiados podrá, por resolución motivada, inadmitirlas a trámite, cuando concurra en el interesado algunas de las circunstancias siguientes:*

- b) Que en la solicitud no se alegue ninguna de las causas que dan lugar al reconocimiento de la condición de refugiado*
- d) Que la solicitud se base en hechos, datos o alegaciones manifiestamente falsos, inverosímiles o que, por carecer de vigencia actual, no fundamenten una necesidad de protección.*
- f) Cuando el solicitante se halle reconocido como refugiado o tenga derecho a residir o obtener asilo en un tercer Estado, o cuando proceda de un tercer Estado cuya protección hubiera podido solicitar. En ambos casos, en dicho tercer Estado no debe existir peligro para su vida o su libertad ni estar expuesto a torturas o a un trato inhumano o degradante y debe tener protección efectiva contra la devolución al país perseguidor, con arreglo a la Convención de Ginebra de 1951.*

4.1. Analisi honen egituraketa

Azterlan honetan aztertu dira Auzitegi Nazionalaren eta Auzitegi Gorenaren 110 epai. Haietatik 60 izapidetzeko ez onartzearen kontra jarritako errekurtsoei buruzkoak dira. 41 ezetsi egin dira, eta 19k aurrera egin ahal izan dute espedientearen instrukzioarekin (asilo-estatutuaren ebazpena).

Izapidetzeko ez onartzearen kontrako errekurtsoak ebazten dituzten aztertutako 60 epaietatik 19 baiespenekoak dira (bata, lehen auzialdian, eta 18, bigarren auzialdian). Hauek dira epaiak:

- Auzitegi Nazionalaren epaiak (2 bigarren auzialdian ebatzi dira, eta bat lehen auzialdian).
 - AN, 2005eko maiatzaren 31koa, 830/2002 errekurtsoa (ebazten duena, lehen auzialdian, joera afektibo-sexualagatik ihes egin duen kubatar gizon baten kasua).
 - AN, 2008ko urriaren 8koa, 100/2008 errekurtsoa ebazten duena bigarren auzialdian, emakumezko baten kasua –haren nazionalitatea ez zen jaso epaian, eta emakumeen genitalen mutilazioatik ari zen ihesi).
 - AN, 2009ko otsailaren 25ekoa, 40/2009 errekurtsoa (ebazten duena, bigarren auzialdian, emakumezko baten kasua –haren nazionalitatea ez zen jaso epaian, eta emakumeen genitalen mutilazioatik ari zen ihesi).

¹³⁶ 1994ko zuzenketaren bidez asilo-prozeduran sartu zen izapidetzeko onartzeko fasea.

- Bigarren auzialdian ebatzi diren Auzitegi Gorenaren epaiak:
 - AGE, 2005eko apirilaren 12koa, 5085/2001 errekurtsua (gerrarako arma moduan erabilitako bortxaketatik ihes egiten duen sierraleonar emakume baten kasua).
 - AGE, 2005eko apirilaren 12koa, 5799/2001 errekurtsua (familia barruko indarkeria-egorrietatik ihes egiten duen errusiar emakume baten kasua).
 - AGE, 2005eko maiatzaren 31koa, 1836/2002 errekurtsua (somalier emakume baten kasua, ihesi dabilena jotzen zuen errefuxiatu-esparruetako indarkeriagatik eta sexu-gehiegikeriengatik).
 - AGE, 2005eko ekainaren 23koa, 2469/2002 errekurtsua (gerrarako arma moduan erabilitako bortxaketatik ihes egiten duen sierraleonar emakume baten kasua).
 - AGE, 2005eko irailaren 9koa, 3428/2002 errekurtsua (somalier emakume baten kasua, ihesi dabilena bere herrialdeko nahiz jotzen zuen errefuxiatu-esparruetako indarkeria eta sexu-gehiegikeriengatik).
 - AGE, 2005eko azaroaren 10ekoa, 3930/2002 errekurtsua (somalier emakume baten kasua, ihesi dabilena jotzen zuen errefuxiatu-esparruetako indarkeria eta sexu-gehiegikeriengatik).
 - AGE, 2005eko azaroaren 30ekoa, 6006/2002 errekurtsua (joera afektibo-sexualarekin lotutako jazarpenetik ihes egiten duen moldaviar gizon baten kasua).
 - AGE, 2006ko apirilaren 21ekoa, 2851/2003 errekurtsua (joera afektibo-sexualarekin lotutako jazarpenetik ihes egiten duen kubatar gizon baten kasua).
 - AGE, 2006ko ekainaren 23koa, 4881/2003 errekurtsua (behartutako ezkontzatik ihes egiten duen nigeriar emakume baten kasua).
 - AGE, 2006ko irailaren 15ekoa, 6627/2003 errekurtsua (behartutako ezkontzatik ihes egiten duen nigeriar emakume baten kasua).
 - AGE, 2006ko otsailaren 28koa, 735/2005 errekurtsua (behartutako ezkontzatik ihes egiten duen nigeriar emakume baten kasua).
 - AGE, 2006ko urriaren 6koa, 6597/2003 errekurtsua (emakumeen genitalen mutilazioatik ihes egiten duen nigeriar emakume baten kasua).
 - AGE, 2006ko abenduaren 22koa, 9012/2003 errekurtsua (joera afektibo-sexualarekin lotutako jazarpenetik ihes egiten duen kubatar emakume baten kasua).
 - AGE, 2006ko abenduaren 14koa, 8638/2003 errekurtsua (joera afektibo-sexualarekin lotutako jazarpenetik ihes egiten duen kubatar gizon baten kasua).
 - AGE, 2007ko uztailaren 25ekoa, 1447/2004 errekurtsua (joera afektibo-sexualarekin lotutako jazarpenetik ihes egiten duen kubatar gizon baten kasua).
 - AGE, 2007ko urriaren 4koa, 1981/2004 errekurtsua (joera afektibo-sexualarekin lotutako jazarpenetik ihes egiten duen errusiar gizon baten kasua).

Honela bana ditzakegu Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak emandako epaien oinarriak:

1. Genero-arrazoiengatiko jazarpena: alegatutako kausak.
 - Ondorioak¹³⁷.
2. Froga
 - Asilo-eskaerak izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak.
 - Asilo-eskaerak izapidetzeko onartzearen aldeko argudioak.
 - Ondorioak.
3. Epaien arrazoitzerik eza
 - Asilo-eskaerak izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak.
 - Asilo-eskaerak izapidetzeko onartzearen aldeko argudioak.
 - Ondorioak.
4. Ez onartzearen kausak.
 - Asilo-eskaerak izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak.
 - Asilo-eskaerak izapidetzeko onartzearen aldeko argudioak.
 - Ondorioak.

Ondorio hauek atera ditugu egin dugun azterketatik:

- Administrazioak eta Lehen auzialdiko Auzitegiak¹³⁸ arrazoi bide berberak erabili ohi dituzte eskubideak izapidetzea ez onartzeko. Auzitegi Gorenak (AG) hizpide dugun egitatea hauteman du: (...) *akats hori gertatu da, halaber, lehen auzialdiko epaian, Auzitegiak eutsi egin baitio Administrazioaren irizpideari (...)*(AGE, 2005eko apirilaren 12koa, 5085/2001 errekurtsua).
- Auzitegi Gorenak izan da, gehienbat, aldeko epaiak eman dituenak, alor horretan jurisprudentzia ugari sortuz.

4.2. Genero-arrazoiengatiko jazarpena: alegatutako kausak

- Emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten jazarpena: Aztertu ditugun epai gehienetan aipatzen dira emakumezkoen giza eskubideak larriki urratzen dituzten egoerak: behartutako ezkontza (% 21,43) emakumeen genitalen mutilazioa (% 14,29). Bi egitate horiek loturik egon ohi dira familia barruko tratu txarrekin (%10,00), eta sexu-indarkeria eta gehiegikeriekin (% 12,86), pertsonak salerostarekin prostituzioan beharturik aritu daitezela (% 1,43) eta gerrarako arma moduan erabiltzen den bortxaketarekin (% 4,29).

Aztertu dira guztira prozedurako fase horri dagozkion 60 epai. Haietatik 45etan arrazoi horietakoren bat aipatzen da. Jazarpen horiek emakumeen kontrakoak dira.

- Joera afektibo-sexualagatiko jazarpena: Aztertu ditugun prozeduraren fase horri buruzko epai guztietatik 24 dira joera afektibo-sexualagatiko jazarpenari buruzkoak (% 34,29).

¹³⁷ Legeen eta epaien hitzez-hitzezko aipamenak argitaratu diren jatorrizko hizkuntzan jaso ditugu.

¹³⁸ Taulatan jaso ditugu atal bakoitzeko ondorioak.

Emakumezkoek nahiz gizonezkoek pairatzen dute jazarpen mota hori. Aztertu ditugun epai guztietatik 19 gizonezkoenak izan dira eta 5 emakumezkoenak.

- **Genero-identitateगतिको jazarpena:** Aztertutako epai guztietatik, bat da genero-identitateगतिको jazarpenari buruzkoa, gizonezko transexual batek pairatutakoa (% 1,43).

10. Taula: Alegatutako jazarpena (ehunekoa)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Behartutako ezkontza	31,25	0,00	21,43
Emakumeen genitalen mutilazioa	16,67	9,09	14,29
Familia barruko tratu txarrak	14,58	0,00	10,00
Sexu-indarkeria eta -gehiegikeriak	18,75	0,00	12,86
Pertsonak behartutako prostituziorako edo sexu-esplotaziorako salerostea	2,08	0,00	1,43
Bortxaketa gerrarako arma gisa erabiltzea	6,25	0,00	4,29
Joera afektibo-sexuala	10,42	86,36	34,29
Genero-identitatea	0,00	4,55	1,43
Guztira	100,00	100,00	100,00

- Emakumeek emakume izateगतिक pairatzen duten jazarpenaren arrazoiei dagokienez, ez dugu aurkitu Auzitegi Nazionalaren edo Auzitegi Gorenaren epairik prostituzioan beharturik aritu daitezen pertsonak salerosteari buruz. CEAR-Euskadik hauteman du izapidetzeko ez onartzearen kontrako errekurtsio baten atzean salerostea egon daitekeela. Auzitegiak, nolahi ere, aipatutako errekurtsioa atzeritartasun-auria dela iritzi dio, eta horren ondorioz, ezetsi egin du eta ez du sakon aztertu. Bizipenek CEARI erakutsi diote aipatu berri dugun Administrazioaren eta Auzitegien jokamoldea ohikoa dela hizpide ditugun kasuetan.

Zailtasun handiak daude salerosketaren biktima izan diren emakumeei errefuxiatu-izaera aitortzeko: besteak beste, sareek presio handia eragiten dutelako emakume horien gain emakumeok beren egoera aitortu behar dutenean xede-herrialdeko agintarien aurrean. Emakumeok informazioa ezkutatzeko dute elkarrizketetan, aurrez ikasitako arrazoibideak kontatzen dituzte eta ageriko beldurra dute benetako haien egoera zein den azaltzeko. Sarri askoan, halaber, sareek aholkatzen diete emakume eskatzaileei beraienaz bestelako nazionalitatea erabil dezatela. Hori guztia emakumeon kalterako da, gezur-itxurako bihurtzen baititu haien alegazioak.

Nahiz eta fenomeno berria ez izan, salerosketa duela gutxi sartu da nazioarteko babesaren esparruan, eta ia ez da agerian jartzen. Hori beste oztopo bat da.

- Gizonezkoek emakumezkoek baino asilo-eskaera gehiago egin dituzte joera afektibo-sexualगतिको jazarpena oinarri harturik. Horrek lotura du emakumezko lesbianek pairatzen duten diskriminazio bikoitzarekin (homofobia eta sexismoa), lesbianen ikusezintasunarekin eta ez existitzeko haien kondanarekin. Emakumezkoek, hortaz, gizonezkoek baino zailtasun handiagoak dituzte herrialde seguru batera "ihes" egiteko.
- Genero-identitateगतिको jazarpenari buruzko epai bakarra aurkitu dugu. Datu horrek berresten du pertsona transexualek bizi dutela beste kolektibo batzuek baino diskriminazio, estigmatizazio eta ikusezintasun handiagoa.

4.3. Frogak

- Izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak

Aztertutako epai batzuetan, asiloa eskatzen duen pertsonari eskatzen zaio jazarpen zuzena eta banan-banakoa frogatzea, eskubidea izapidetzeko onartze aldera.

(...) Estas alegaciones del recurrente no han sido, sin embargo, avaladas, siquiera mínimamente, por prueba alguna (AN, 2003ko azaroak 11koa, 602/2002 errekurtsoa. Joera afektibo-sexualagatik jazarpena jasan duen kubatar gizon baten kasua -).

(...) no habiéndose acreditado mínimamente que el recurrente haya sufrido persecución por pertenecer a un grupo social, étnico, político o religioso determinado (...) (AN, 2005eko martxoaren 25ekoa, 1381/2002 errekurtsoa, behartutako ezkontzatik ihes egiten zuen emakume baten kasua -).

Es de señalar que ni en vía administrativa ni ante esta jurisdicción se ha aportado prueba alguna más allá del relato de la recurrente, relato genérico e impreciso en cuanto a los hechos de la persecución que se pretende hacer valer (...) (AN, 2005eko martxoaren 31koa, 1217/2003 errekurtsoa - behartutako ezkontzatik ihes egiten zuen emakume baten kasua -).

- Izapidetzeko onartzearen aldeko argudioak

Auzitegi Gorenak, nolahi ere, epai askotan behin eta berriz adierazi du izapidetzea onartzeko fasean asilo-eskaera aztertzeko ez dela frogarik egon behar –ezta frogak adierazgarriak ere– kontakizunaren egiazotasunaren gain.

(...) en este sentido ha sido reiterada la doctrina del TS que considera que en el examen de la admisión a trámite de una petición de asilo no resulta precisa la existencia de una prueba plena sobre la veracidad del relato expuesto, ni siquiera indiciaria, por lo que basta el examen relativo a la verosimilitud del relato expuesto en dicha solicitud para acordar la admisión o no a trámite del procedimiento sin necesidad de aportar pruebas sobre su existencia o realidad. (2004ko urriaren 14koa, 2004ko ekainaren 1ekoa, 2004ko ekainaren 22koa eta 2004ko uztailaren 20koa eta 27koa, 3. aretoa, 5. sekzioa).

Hortaz, *(...) no cabe suscitar en fase de admisión a trámite de la solicitud de asilo si existen o no pruebas suficientes de la persecución invocada, pues, como hemos dicho en numerosas sentencias, basta que en la solicitud de asilo se exponga una persecución protegible para que la solicitud merezca el trámite, a fin de dar al solicitante la oportunidad de probar sus afirmaciones.*

Por eso, la Sala de instancia confunde la perspectiva de análisis correcta cuando se refiere a la falta de indicios de la persecución relatada por el solicitante (...). Las eventuales dudas que aquel relato pudiera suscitar no pueden resolverse con la inadmisión a trámite de la solicitud de asilo, sino que, por el contrario, sólo pueden despejarse tramitando el procedimiento y decidiendo finalmente si procede o no la concesión del asilo solicitada (...). Será, pues, al término del procedimiento, una vez recabados los preceptivos informes y practicadas las indagaciones y pruebas pertinentes, cuando se pueda deducir si existen o no los indicios suficientes, según la naturaleza del caso, para decidir que se cumplen o no los requisitos a que se refiere el artículo 3 de la Ley de Asilo. (AGE, 2007ko uztailaren 25ekoa, 1447/2004 errekurtsoa eta, zentzu berean, AGE, 2006ko abenduaren 22koa, 9012/2003 errekurtsoa).

Tal como hemos dicho en numerosas sentencias, es un requisito positivo (descripción de una persecución) junto con un requisito negativo (que no haya manifiesta falsedad o inverosimilitud), lo que abre el trámite. Y aunque la diferencia pueda creerse demasiado sutil, no lo es: la Administración –y, derivativamente, los Jueces y Tribunales– no deben juzgar, en fase de admisión a trámite, si hay indicios suficientes de la persecución alegada, sino si el relato describe una persecución y si es o no manifiestamente falso o inverosímil; basta esto para que la solicitud merezca el trámite (AGE, 2005eko maiatzaren 31koa, 1836/2002 errekurtsua; 2006ko apirilaren 21ekoa, 2851/2003 errekurtsua; 2007ko urriaren 4koa, 1981/2004 errekurtsua; 2006ko abenduaren 14koa, 8638/2003 errekurtsua; eta 2005ko irailaren 9koa, 3428/2002 errekurtsua, besteak beste).

La Ley 5/84 se refiere a los “indicios suficientes” al tratar de los requisitos para la concesión del asilo (artículo 8^o), es decir, tal y como literalmente dice, “para que se resuelva favorablemente la solicitud de asilo”. Por el contrario, para la mera admisión a trámite de la solicitud, basta, por lo que se refiere a los requisitos de fondo, que “se describa una persecución” (art. 5.6b) y que la solicitud no se base en hechos, datos o alegaciones manifiestamente falsos, inverosímiles o que, por carecer de vigencia actual no fundamenten una necesidad de protección (artículo 5.6.d) (AGE, 2006ko apirilaren 21ekoa, 2851/2003 errekurtsua).

La norma contenida en ese artículo 5.6.b) permite adoptar una resolución de inadmisión a trámite de la solicitud de asilo cuando en la solicitud no se alegue ninguna de las causas que dan lugar al reconocimiento de la condición de refugiado; lo cual no es el caso, pues la interesada adujo una persecución por motivos de su orientación afectivo-sexual y, por tanto, una de las que son susceptibles de determinar el reconocimiento de aquella condición (artículos 1.A.2. de la Convención de Ginebra de 1951, del Protocolo de Nueva York de 1961 y 3.1. de la Ley 5/1984). Con mayor razón si se considera que dicha circunstancia trascendió al plano político, educativo y sindical (...) A partir de lo anterior, la imprecisión de la solicitud y las dudas que pueda suscitar acerca de si hay o hubo una propia persecución no pueden zanjarse con una resolución de inadmisión a trámite de la solicitud de asilo, sino que, por el contrario, deben zanjarse tramitando el procedimiento y decidiendo finalmente si procede o no la concesión del asilo solicitada.

Se deduce así con toda nitidez de lo dispuesto en los artículos 17 y 18 del Reglamento de aplicación de la Ley 5/1984, aprobado por Real Decreto 203/1995, que exigen que las causas de inadmisión a trámite concurren de modo manifiesto (AGE, 2006ko abenduaren 22koa, 9012/2003 errekurtsua).

Hallándonos, pues, ante una resolución de inadmisión a trámite (...), la perspectiva desde la que ha de enjuiciarse una resolución administrativa de esa índole es, debe ser, la de si la Administración ha motivado de manera suficiente y razonable que concurre la concreta causa de inadmisión que aprecia: de suerte que, de ser necesario, será sobre ella, sobre la Administración, sobre quien pese la carga de justificar que la solicitud de que se trata se

¹³⁹ Lehen auzialdiko Auzitegi esaten diogu errekurtsuak aurkezten diren lehen auzitegiari; haren epaien kontra errekurtsuak jar daitezke, bigarren auzialdian, beste auzitegi batean.

8. artikulua: Asilo-eskaera onartzeko, nahikoa izango da agertzea –kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera– eskatzaileak Lege honetako 3. artikuluko 1 zenbakian adierazitako baldintzak betetzen dituela ondorioztatzeko nahikoa zantzu.

3.1. artikulua: Errefuxiatu-izaera aitortuko eta, beraz, asiloa emango zaie Espainiak berretsi dituen nazioarteko tresna guztietan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten atzerriar guztiei: bereziki, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Hitzarmenean –Geneva, 1951ko uztaillak 28– eta Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloan –New York, 1967ko urtarilak 31– aurrez ikusitako baldintzak.

subsume en la causa de inadmisión aplicada, y no sobre el solicitante la de acreditar lo contrario, esto es, que no concurre. Ello es así, porque la inadmisión a trámite de una solicitud sin aquella motivación suficiente y razonable y, por ende, con la consiguiente incertidumbre sobre si concurre o no una de esas causas tasadas: primero, vulnera la expresa exigencia de motivación que impone dicho artículo 5.6 en el primero de sus párrafos; segundo, no satisface la razón de ser de la reforma que introdujo en este particular la Ley 9/1994, de 19 de mayo (...); y tercero, no cumple lo ordenado en los artículos 17.1 y 18 del Reglamento de aplicación de la Ley 5/1984, aprobado por Real Decreto 203/1995, de 10 de febrero, que exigen para que la Oficina de Asilo y Refugio pueda proponer la inadmisión a trámite en el procedimiento ordinario, o para que pueda ser aplicado el procedimiento de inadmisión a trámite en frontera, que la concurrencia de alguna de las circunstancias previstas en el apartado 6 del artículo 5 de la Ley lo sea de modo manifiesto (en el primero de dichos preceptos), o de forma manifiesta y terminante (el segundo de ellos). Dando un paso más en el razonamiento (...), hemos dicho en reiteradas sentencias, primero, que la inverosimilitud manifiesta debe resultar de lo que obre en el expediente administrativo, bien de los datos en sí mismos que en éste se contengan, bien del razonamiento que a tal fin haga la Administración; segundo, que las posibles dudas sobre si los hechos, datos o alegaciones son, o no, manifiestamente inverosímiles, no permiten trasladar al solicitante la carga de acreditar que no lo son, sino que obliga a la Administración a admitir a trámite la solicitud y llevar a cabo los actos de instrucción que puedan despejarlas (siendo en la tramitación del procedimiento cuando pasa a ser de cargo del solicitante la aportación de los indicios suficientes que exige el artículo 8 de la Ley de Asilo); y tercero, que, si esas dudas persisten, no le es dable a la Administración dictar una resolución de inadmisión a trámite, sino de apertura de éste a fin de decidir lo que finalmente proceda en la resolución definitiva del expediente (AGE, 2005eko apirilaren 12koa, 5085/2001 errekurtsoa).

Auzitegi Gorenak zalantzan jarri du, halaber, Administrazioak eta lehen auzialdiko Auzitegiak (kasu honetan, Administrazioarekiko Auzien 10. Epaitegi Zentralak) eskatutako frogen praktikotasuna:

A lo largo del procedimiento la actora ha aportado una documental suficiente para deber ser analizada por la Administración, consistente en copia del acta de nacimiento así como un acta notarial de manifestaciones de su país (en el procedimiento judicial), que aunque no traducida al idioma castellano lo cierto es que no es éste el momento para apreciar su posible o no validez. Por consiguiente, las dudas sobre su identidad derivadas de la aportación de un permiso de residencia y pasaporte falsos o a nombre de otra persona se han solventado con la aportación de la copia de acta de nacimiento en su país, lo que justificaría por su edad la ausencia de documentación de identidad (AN, 2007ko urriak 8koa, 100/2008 errekurtsoa —genitalen mutilazioatik ihes egiten duen emakume baten kasua; haren nazionalitatea ez zen jaso epaian).

Era berean, Auzitegi Nazionalak ez egiaztatutaz jo zuen Administrazioak eskatzailearen kontaktuzuna zalantzan jartzeko erabili zuen "iritzia":

No es tampoco descartable que la actora haya podido obtener la ayuda de su tío por el mero hecho de ser hombre, dado que ello supone realizar un juicio de valor por parte de la Administración no esencialmente acreditado en autos (AN, 2009ko otsailak 25ekoa, 40/2009 errekurtsoa —genitalen mutilazioatik ihes egiten duen emakume baten kasua-).

- Prozeduraren fase horretan, Administrazioak eta Auzitegiek zenbaitetan eskatzen dute jazarpen zuzena eta banan-banakakoa justifikatzen duten frogak egotea.
- Eskakizun hori 1951ko Genevako Hitzarmenaren kontrakoa da, azken horretan ezartzen baita pertsona errefuxiatutzat hartuko direla *jazarpena pairatzeko beldur izateko arrazoi egie-tsiak* dituztenak; asilo-eskubidearen izaeraren kontrakoa ere bada, litekeena baita jazarpenetik ihes egin behar duen pertsonak askotan ez edukitzea jazarpena frogatzeko agirik. Mintzagai dugun eskakizuna 5/1984 Legearen kontrakoa ere bada, azken horrek ezartzen baitu izapidetzeko onartze-fasean soilik epaitu beharra dagoela kontatutako gertakizunak jazarpena diren ala ez.
- Bestetik, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziatik hainbat ondorio atera ditugu:
 - 5.6 artikuluko b) atala:
 - Izapidetzeko onartze-fasean epaitu beharra dago kontatutako gertaerak jazarpena ote diren ala ez. Ez da epaitu behar jazarpenaren "behar adina zantzu" ba ote dagoen.
 - *Behar adina zantzu* adierazpideak erreferentzia egiten die asilo-estatutua emateko baldintzei (espediente bideratzea).
 - 5.6 artikuluko d) atala:
 - Izapidetzeko onartze-fasean epaitu beharra dago, halaber, kontatutako gertaerak argi eta garbi diren faltsuak edo gezur-itxurakoak.
 - Frogaren zama Administrazioari dagokio; hots, azken horrek frogatu beharko du eskaeran izan badela alegatutako ez onartzearen kausa (ebazpen arrazoitua). Errekurtsoa jarri duen pertsona ez da aipatu berri duguna frogatu behar duena.
 - Eskatzaileak 5/1984 Legeko 8. artikuluan adierazten diren *behar adina zantzu* horiek aurkeztu beharko ditu espediente bideratzean (asilo-estatutuaren ebazpenean).
 - Gertaeren, datuen edo alegazioen gaineko zalantzek Administrazioa derrigortzen dute eskaera izapidetzeko onartzera, eta zalantzok uxatzeko beharrezkoak diren instrukzio-egintzak gauzatzera, asilo-estatutua emateko edo ukatzeko fasean.

4.4. Epaien arrazoiterik eza

- Izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak

Administrazioak behar ez bezala eskatzen dizkie eskatzaileei kontakizuna egiaztatzen duten frogak. Nolanahi ere, ebazpen generikoen bidez, ez ditu onartzen eskaerak izapidetzeko. Hauteman dugu lehen auzialdiko Auzitegiek emandako epai askotan ez dela arrazoirik ematen eta eusten diotela Administrazioak eskaera izapidetzea ez onartzeko ezarritako irizpideari; hau da, ikusi dugu erantzun orokorra eman zaiela jazarpen desberdinei buruzko istorio eta kontakizunei.

(...) esta Sala ya se ha pronunciado sobre la cuestión en anteriores ocasiones, así en las sentencias de esta Sección 1ª de 16 de julio de 1999 y 8 de febrero de 2002, y de la sección 8ª de 24 de julio de 2000 y 7 de marzo de 2001, en todas las cuales pretensiones muy similares, de solicitantes de asilo de nacionalidad nigeriana que huyen de matrimonios forzados han sido desestimadas. Ello, entre otras razones, (...) porque el perseguidor no es el Estado, sino un tercero, y no nos consta, ni se ha realizado esfuerzo probatorio y de argumentación, de que tal Estado tolere, fomente, permita o esté impotente ante tal persecución (AN, 2003ko uztailak 3, 08/2001 errekurtsua). Ebazpenean argudiatzen da behartutako ezkontzan

oinarritutako nigeriar emakumeen asilo-eskaerak ez direla onartuko, Auzitegi Nazionalak aldez aurretik erabaki hori hartu izan duelako.

Azpitarratu beharra dago ebazpen horietako batean asilo-eskubideari buruzko definizio zehaztugabea aurkitu dugula. Hona hemen: *La institución del refugio es regulada en la Convención de Ginebra de 1951 y en las leyes españolas de 26 de marzo de 1984 y 19 de mayo de 1994 como una protección a personas injustamente perseguidas en su país por pertenencia a etnia concreta, por profesar ideas o creencias que en un momento histórico determinado no son acordes con las políticamente dominantes* (AN, 2005eko azaroak 3, 0182/2003 errekurtsua).

- Izapidetzeko onartzearen aldeko argudioak

Auzitegi gorenak arrazoibide horiek zalantzan jarri ditu behin baino gehiagotan, 5.6 artikuluan ezartzen baita *ebazpen arrazoitua* eman beharra dagoela artikuluan bertan aipatu diren inguruabarretako bat biltzen duten asilo-eskabideak izapidetzea ez onartzeko. Zalantzan jartzen du, halaber, lehen auzialdiko Auzitegiak besterik gabe eustea errekurtsua ezesteko Administrazioak erabili duen irizpidea.

(...) la administración aplicó indebidamente el tan citado artículo 5.6 d) de la Ley de Asilo, por no justificar de forma suficientemente motivada las razones por las que consideraba inverosímil el relato de la actora; error en el que asimismo incurre la sentencia de instancia al haberse limitado a remitirse al criterio de la Administración.

(...) la sentencia de instancia, tal vez porque parece redactada conforme a un formulario reiteradamente empleado en otros supuestos en los que se dirimen cuestiones relacionadas con peticiones de asilo inadmitidas a trámite o rechazadas, altera la razón de decidir de la Administración y cambia los términos de la controversia, ya que, lejos de resolver si efectivamente el relato de la actora era o no manifiestamente inverosímil (art. 5.6 d) de la Ley de Asilo), apenas dedica unas líneas a esa cuestión (limitándose a remitirse al expediente, y más concretamente al cuestionario planteado a la actora sobre datos de Sierra Leona) (...) (AGE, 2005eko apirilaren 12koa, 5085/2001 errekurtsua —gatazka armatuan sexu-indarkeria pairatzen zuen sierraleonar emakume bat—).

- 5/1984 Legeko 5.6 artikuluko b) eta d) atalak erantzun generiko bihurtu dira, giza eskubideak larriki, sistematikoki edo etengabean urratu izanaren ondorio diren jazarpen-egoera eta -istorio bereziak ez onartzeko. Jokabide horrek talka egiten du fase horretan frogak behar ez bezala eskatzearekin, eta ez ditu kontuan hartzen pertsona bakoitzaren inguruabarrak, istorioa eta pertsona bakoitzak pairatzen duen jazarpena bakarra eta desberdina dela.
- 5/1984 Legeko 5.6 artikuluan ezarri da Barne Ministerioak *ebazpen arrazoitu bidez* asilo-eskaeren izapidetzea ez onartzea erabaki dezakeela, baldin eta artikuluko horretan aipatzen diren inguruabarretako bat gertatzen bada. Baina Administrazioak eta Justizia Epaitegiek frogaren zama alderantzizkatzen dute eta hura asiloa eskatu duten pertsonen gain jarri. Azken horiek frogatu behar dute pairatu duten jazarpena benetakoa dela eta ez bertan ez dagoela hura ez onartzeko kausarik.

4.5. Ez onartzearen kausak

4.5.1. Iraganbide-herrialdeak: 5/1984 Legeko 5.6 f) artikulua

5/1984 Legeko 5.6 artikuluko f) atalean aipatutako iraganbide-herrialdeei dagokienez, azterlan honetan haiei buruzko kasu aurkitu ditugu.

a) 1951ko Genevako Hitzarmena sinatu zuten beste herrialde batzuetan zehar iragaitea

- Izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak

Aztertutako epai batzuek, 5.6 artikuluko f) paragrafoa aplikatuz, asilo-eskaera ez onartzeko arrazoitza hartzen dute bidaiatzearen ondorioz aipatutako hitzarmena sinatu duten herrialdeetatik igaro izana.

(...) procede de países firmantes de la Convención de Ginebra que ofrecen todo tipo de garantías para la protección de su vida, libertad y demás principios de la citada Convención, pudiendo haber solicitado en dichos países la protección ahora requerida en España, sin que existan causas que justifiquen la mencionada omisión (...) ha pasado por Rumania, Hungría (1 día), Austria, Alemania, Países Bajos (1 día), Bélgica (un día) y Francia (1 día) (...) (AN, 2002ko ekainak 21, 922/1999 errekurtsua).

- Izapidetzeko onartzearen aldeko argudioak

Nolanahi ere, aipatutako epaiaren kontra Auzitegi Gorenak aurkeztutako kasazio-errekurtsioan (AGE, Administrazioarekiko Auzien 3. aretoa, 2005eko azaroaren 30ekoa, 6006/2002 errek.), hau adierazi du: *el mero tránsito, breve e ininterrumpido (salvo en lo exigido por las mismas necesidades del viaje), por Estados intermedios para llegar a España, no puede calificarse a los efectos previstos en el citado apartado f) del artículo 5.6.*

b) Herrialde seguru batetik datorren pertsona

- Izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak

Azpimarratu behar da Administrazioak eta Auzitegi Nazionalak zer modutan aplikatu duten 5.6 artikuluko f) atala, somaliar emakume baten kasuan; hain zuzen, gatazka armatuko sexu-indarkeriatik ihes egiten zuen, eta Yemengo pasaportearen zuzen, han bizi izan baitzen lehenago.

Administrazioak hau hartu zuen oinarri eskaeraren izapidetzea ez onartzeko: *la aplicación de la concurrencia de la circunstancia contemplada en la letra f) del artículo 5.6 de la Ley 5/1984, por cuanto el solicitante procede de Yemen, país firmante de la Convención de Ginebra de 1951 sobre el Estatuto de los Refugiados en el que existen campos de refugiados somalíes y que ofrece todo tipo de garantías para la protección de su vida, libertad y demás principios indicados en la citada Convención (...)* (Barne Ministerioaren ebazpena, 2003ko uztailak 29). Auzitegi Nazionalak arrazoibide hori bere egin du errekurtsua ezesteko, eta arrazoi hauek eman ditu: *Yemen ofrece todo tipo de garantías para la protección de la vida, libertad y demás principios de la Convención de Ginebra de 1951 que ha firmado y que otorga protección a los refugiados somalíes.* (AN, 2005eko martxoak 16, 767/2003 errekurtsua).

Biziki interesgarria da ondorioak ateratzea Auzitegi Nazionalaren 2005eko martxoaren 16ko epaitik –767/2003 errekurtsua–; haren bidez, ezetsi egin zen Yemengo pasaportearen zuzen somaliar emakume baten eskaeraren izapidetzea ez onartzearen kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsua. Administrazioak eta Auzitegi Nazionalak iritzi hau dute Yemen herrialdeari buruz: *ofrece todo tipo de garantías para la protección de la vida, libertad y demás principios de la Convención de Ginebra de 1951.* Hartara, herrialde horretako zenbait datu emango ditugu, eskabidea aurkeztu zen urteari (2003) eta errekurtsua aurkeztu zen urteari (2005)¹⁴⁰ buruzkoak:

¹⁴⁰ Escola de Cultura de Pau-tik hartutako datuak (Universitat Autònoma de Barcelona).

- 2003ko irailaren 16an ACNURek salatu zuen Somalitik Yemenera zihoazen 161 pertsonari eraso egin zietela eta uretara salto egitera behartu zituztela, kostatik zenbait kilometrora zeudenean. 111 pertsona bizirik erreskatatu zituzten, eta 21, hilik aurkitu. Aipatu berri dugun jazoera era horretako bigarrena izan zen hiru astean.
- 2003ko irailaren 24an Amnistia Internazionalak jakinarazpen baten bidez adierazi zuen nahigabeturik zegoela legedia antiterrorista berriaren sarreragatik, bide ematen baitu inkomunikazio-erregimenean atxiloteta arbitrarioak egiteko, prentsa-askatasuna urratzeko eta asilo-eskatzaileak nahiz immigranteak erbesteratzeko.
- 2005eko martxoaren 8an, giza eskubideen abokatu defendatzaileak atxilotu ondoren, Amnistia Internazionalak polizia-zaintzako zentroetako tortura eta tratu txar kasuak salatu zituen.

Gainera, *hirugarren herrialde seguru* moduko zenbait kontzeptu erabiltzearen eta *Dublingo Hitzarmena* aplikatzearen ondorioz –biak 5.6 f) artikulua horretan aipatzen direnak–, asilo-prozedurarako sarbidea amaierarik ez duen oztopo-lasterketa bihurtu da.

- Hirugarren herrialde segurua

5/1984 Legearen arabera, ondoko baldintza hauek bete behar dira hirugarren herrialdea segurutzat hartzeko: *no debe existir peligro para su vida o su libertad* (pertsona errefuxiatuarena) *ni estar expuesto a torturas o un trato inhumano o degradante y debe tener protección efectiva contra la devolución al país perseguidor, con arreglo a la Convención de Ginebra de 1951* (5.6f. artikulua).

Kontzeptu hori erabiltzea oztopo erantsia da genero-arrazoiengatiko jazarpenetik ihes egiten duten pertsonentzat. *Errefuxiatu-izaera aitortzeko edo ukatzeko estatu kideek aplikatu behar dituzten prozeduren gutxieneko arauei buruzko Kontseilu Europarraren zuzentzauek*¹⁴¹, herrialde bat segurutzat hartzeko irizpideak ezartzeaz gainera¹⁴² aukera ematen du II. eranskinean ezarritako irizpideen arabera herrialde seguruaren zerrendak egiteko. Aipatutako estatuetan nazionalizaturik dauden edo bertan egoitza duten pertsonen asilo-eskabideak oinarri gabetzat hartuko dira. Kontseiluak edo estatuak ezar ditzakete arestian aipatutako zerrendak. Kontseiluak ezartzen dituen zerrendak lotesleak izango dira estatu kide guztientzat. Naiz eta ofizialki osatu ez, CEAREk hauteman du badirela Administrazio espainiarrak "ez-ofizialki" segurutzat jotzen dituen hainbat herrialde.

- Dublingo Hitzarmena

Europar Batasuneko estatu kide guztien arteko hitzarmena da; haren bidez ezarri da estatu kideetara sartzeko inguruabarren arabera, zer estatu kideri dagokion asilo-eskabidea aztertea. 2003. urtean, haren lekua hartu zuen *Kontseilu Europarraren Erregelamenduak, asilo-eskaera zer estatuk aztertu behar duen erabakitzeak*. Bigarren horrek bere egin zituen lehenengo dokumentuaren xedapenak. Akordio horri, nolahi ere, Dublingo II. Hitzarmena deritza jargoi juridikoan.

Legedi horrek agintzen du eskabidearen azterketaren arduradun izango dela eskatzaileari, bi-satua egitearen bidez edo hura bisatua edukitzetik salbuestearen bidez, sartzeko baimena eman dion estatua; eskatzailea Europar Batasunean modu "irregularrean" sartzeko bide eman duen estatua; edo eskabidea aurkezten den lehen estatua, betiere, aurreko irizpideetako bat ere aplikatzeko ez denean.

¹⁴¹ Europar Batasuna. Europako Kontseiluaren 2005/85/EE zuzentzara, 2005eko abenduaren 1ekoa, errefuxiatu-izaera aitortzeko edo ukatzeko estatu kideek aplikatu behar dituzten prozeduren gutxieneko arauei buruzkoa.

¹⁴² 27. artikulua.

Arautegi horren ondorioz, asiloa eskatzen duten pertsoneri ezarri zaie iristen diren Batasuneko lehen estatuan eskabidea aurkezteko betebeharra, eta debekatu zaie asiloa berriz eskatea haien eskaria aurretiaz baztertu bada.

1951ko Genevako Hitzarmenaren kontrakoa da estatu bat segurutzat hartzea kontuan izan gabe pertsona jakin bati jazarpena pairatzea eragin diezaioketen zehaztasunak.

Gainera, kontuan izan behar dugu emakumezkoek zein lesbianek, gayek, bisexualek eta transexualek (LGBT) pairatu izan dutela eta egun pairatzen dutela jazarpena "giza eskubideak biziki errespetatzen dituzten" herrialde demokratikoetan.

4.5.2. Eskarera ez da alegatzen errefuxiatu-izaera aitortzeko aintzatesten den inolako arrazoirik: 5/1984 Legeko 5.6 b) artikulua

- Izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak

Aztertutako epai batzuetan hauteman dugu Auzitegi Nazionalak onartzen duela 5.6 artikuluko b) atalean adierazitako ez onartzearen arrazoia, uste baitu asilo-eskabideek ez dituztela alegatzen pertsona errefuxiatuaren izaera aitortzeko arrazoietatik bat ere ez; hau da, genero-arrazoiengatiko jazarpenak ez duela lekurik asilo-eskubidearen esparruan.

En la solicitud no se hace mención alguna a la existencia de una persecución personal contra la recurrente por parte de las autoridades de su País, por alguna de las causas que dan lugar al asilo, sino que se refiere una conflictiva situación familiar (...), sin que conste que en tales hechos participaran las autoridades nigerianas a las que ni siquiera consta que presentara denuncia alguna y el eventual resultado de ésta (...) (AN, 2005eko martxoak 8koa, 1305/2003 errekurtsioa - behartutako ezkontzatik ihesi zebilen nigeriar emakume baten kasua).

(...) no se está poniendo de manifiesto un relato de persecución por alguno de los motivos encuadrables en la Convención de Ginebra pues, al menos hasta la fecha la llamada "violencia doméstica" no está comprendida dentro de las causas que, a tenor de la Ley de Asilo y/o Convención de Ginebra de 1951 permitiría la admisión a trámite de una solicitud de asilo (AN, 2006ko otsailak 8koa, 119/2005 errekurtsioa. –familia barruko indarkeria-egoeratik ihesi egin duen emakumea; epaian ez zen zehaztu zer nazionalitatetakoa zen–).

(...) tampoco estaríamos en presencia de una persecución personal (...) sino la sospecha de que un familiar pudiese tomar represalias contra ella por no querer casarse con un hombre mayor que ya tenía cuatro mujeres. Hechos estos que no pueden amparar y justificar una petición de asilo (AN, 2005eko apirilak 8koa, 613/2003 errekurtsioa –behartutako ezkontzatik ihesi egin duen emakumea; epaian ez zen zehaztuz zer nazionalitatetakoa zen–).

- Izapidetzeko onartzearen aldeko argudioak

Nolanahi ere, Auzitegi Gorenak zalantzan jarri du aipatu berri dugun jokabidea hainbat kasazio-epaitan, hauxe adierazi baitu: *tanto la administración como la Sala de instancia aplicaron indebidamente el artículo 5.6. b) de la Ley 5/84 (...)* (AGE, 2005eko maiatzaren 31koa, 1836/2002 errekurtsioa; 2006ko apirilaren 21ekoa, 2851/2003 errekurtsioa; 2006ko abenduaren 22koa, 9012/2003 errekurtsioa; 2006ko irailaren 15ekoa, 6627/2003 errekurtsioa; 2005eko irailaren 9koa, 3428/2002 errekurtsioa; 2005eko apirilaren 12koa, 5799/2001 errekurtsioa, besteak beste).

Horrela, jurisprudentzian ezarri da genero-arrazoiengatiko jazarpena sartzen dela asiloaren esparruan eta emakumeak "gizarte-talde jakin bat" direla.

(...) esta Sala Tercera ya ha tenido ocasión de declarar en distintas sentencias que una situación de desprotección y marginación social, política y jurídica de las mujeres en su país de origen, que vulnere de forma evidente y grave sus derechos humanos es causa de asilo (SSTS de 7 de julio de 2005, rec. nº 2107/2002), que la persecución por razón de sexo resulta encuadrable sin duda entre las persecuciones sociales (STS de 31 de mayo de 2005 –rec. nº 1836/2002–, 9 de septiembre de 2005 –rec. nº 3428/2002– y 10 de noviembre de 2005 –rec. nº 3930/2002), y más concretamente, que una situación de hostigamiento y amenazas contra una mujer para obligarla a casarse reviste carácter protegible por resultar encuadrable sin duda entre esas persecuciones sociales (SSTS de 28 de febrero y 23 de junio de 2006, recs. (Auzitegi Gorenaren Epaiak, 2006ko irailaren 15koa, 6627/2003 errekurtsoa; 2006ko ekainaren 23koa, 4881/2003 errekurtsoa; 2006ko urriaren 6koa, 6597/2003 errekurtsoa, besteak beste).

(...) ha sido reiterada la Jurisprudencia del Tribunal Supremo que ha considerado los actos de violencia de género sobre la mujer supuestos de persecución incluidos en la ley de asilo 5/1984 (STS 15.2.2007, 15.9.2006 y 31.5.2005, por todas) (AN, 2008ko urriak 8, 100/2008 errekurtsoa eta AN, 2009ko otsailak 25, 40/2009 errekurtsoa – biak ere genitalen mutilazioa-praktikatik ihes egiten zuten emakumeen kasuei buruzko epaiak dira–).

(...) esta Sala considera que sí concurren las causas que dan lugar a la concesión de asilo, que se encuentran previstas -por remisión del artículo 3 de la expresada Ley reguladora del Derecho de Asilo principalmente en la Convención sobre el Estatuto de los Refugiados, hecha en Ginebra el 28 de julio de 1951, y se resumen en la concurrencia de temor fundado de ser perseguido por motivos de raza, religión, nacionalidad, pertenencia a determinado grupo social u opiniones políticas en su país de origen, pues concurre un fundado temor a sufrir persecución cuando se teme sufrir un atentado contra su integridad física -mutilación genital- por razón de su pertenencia a un determinado grupo social –las mujeres- (...) (AGE, 2006ko urriaren 6koa, 6597/2003 errekurtsoa –genitalen mutilazioa-praktikatik ihes egiten duen nigeriar emakume baten kasua–).

Zehazki, Auzitegi Gorenak erakutsi du behartutako ezkontzari eta antzeko jazarpen zehatzei buruzko bere jarrera: (arrazoibideetan aipatu du ACNURen txosten bat; hain zuzen, Nigeriako emakumeen giza eskubideen egoerari buruzkoa) *estas afirmaciones se recogen, incluso con mayor amplitud, en un informe del propio ACNUR unido en periodo probatorio a las actuaciones de instancia, que está encabezado por una comunicación de este Organismo en la que se indica que "esta Oficina desea hacer constar que el matrimonio forzoso es una práctica que podría constituir persecución por motivos de género si se cumplen los requisitos de la definición del artículo 1 de la Convención de Ginebra de 1951, teniendo en cuenta que el matrimonio forzoso constituye una práctica en violación del artículo 16 de la Convención sobre la Eliminación de todas las formas de Discriminación contra la Mujer y el artículo 23.3 del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, entre otros". Proyectadas estas consideraciones sobre el caso que ahora nos ocupa, no puede sino concluirse que la recurrente expuso en su relato una persecución protegible, en términos suficientes para que, al menos, se tramite su solicitud. Será al término del procedimiento, una vez recabados los preceptivos informes y practicadas las*

indagaciones y pruebas pertinentes, cuando se pueda deducir si existen o no los indicios suficientes (AGE, 2006ko irailaren 15ekoa, 6627/2003 errekurtsua); joera afektibo-sexualagatiko jazarpenari buruzkoa. (...) *el interesado alega una persecución por causa de su orientación afectivo-sexual, incardinable entre las contempladas en la Convención de Ginebra de 1951 y en la propia Ley de Asilo 5/1984, y ello es suficiente para que la solicitud haya de ser admitida a trámite* (...) (AGE, 2006ko abenduaren 14koa, 8638/2003 errekurtsua. eta, zentzu berean, AGE 2007ko uztailak 25ekoa, 1447/2004 errekurtsua); familia barruko tratatu txarrei buruzkoa, (...) *ha sido reiterada la Jurisprudencia del Tribunal Supremo que ha considerado los actos de violencia de género sobre la mujer como supuestos de persecución incluidos en la Ley de Asilo 5/1984* (AGE, 2007ko otsailaren 15ekoa, 2006ko irailaren 15ekoa eta 2005eko maiatzaren 31koa, guztietan) (AN, 2009ko otsailak 25ekoa, 40/2009 errekurtsua; AN, 2008ko urriak 8koa, 100/2008 errekurtsua), sexu-indarkeria eta -gehiegikeriei buruzkoa. (...) *describió una situación de grave y continuada persecución por razón de sexo (encuadrable sin duda entre las persecuciones sociales), plasmada en actos de violencia y agresiones sexuales contra las mujeres en los campos de refugiados a los que se iba desplazando. (...) De este relato fluye, pues, con evidencia que la solicitante del derecho de asilo, en contra de lo que afirma la Administración, adujo, para impetrar ese derecho, una causa prevista en los aludidos instrumentos internacionales ratificados por España para que se le reconozca la condición de refugiada, expuesta en términos suficientes para que, al menos, se tramite su solicitud, visto que del tenor de su relato se desprende que su huida vino dada por la necesidad de escapar de una situación donde -según expone- las mujeres -y ella misma- eran objeto de malos tratos y vejaciones graves y constantes* (AGE, 2005eko azaroaren 10ekoa, 3930/2002 errekurtsua eta, zentzu berean, AGE, 2005eko irailaren 9koa, 3428/2002 errekurtsua; AGE, 2006ko abenduaren 22koa, 9012/2003 errekurtsua).

- Administrazioak eta lehen auzialdiko Auzitegiek adierazi dute, behin baino gehiagotan, genero-arrazoiengatiko jazarpenak ez duela lekurik asilo-eskubidearen esparruan.
- Adierazpen hori ACNURen bi artezpideen kontrakoa da: *1951ko Genevako Hitzarmeneko 1. artikularen testuinguruan, genero-arrazoiengatiko jazarpenarekin lotura duen nazioarteko babesari buruzko artezpidea; eta gizarte-talde jakin batekoa izatearekin lotura duen nazioarteko babesari buruzko artezpidea.*
- Gainera, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak zehazten du:
 - Genero-arrazoiengatiko jazarpena asilo-eskubidearen esparruan sar daitekeen kausa dela.
 - Gainera, espresuki aipatzen du pertsonen kontra gauzatzen den joera afektibo-sexualagatiko jazarpena sar daitekeela Genevako Hitzarmenean eta 5/1984 Legean.
 - Emakumeak "gizarte-talde jakin bat" direla asiloaren esparruan.

4.5.3. Eskaren izapidetzea ez onartzea justifikatzeko 5.6 artikuluko b) atalean oinarritutako beste argudiatze batzuk

a) Alegatutako jazarpena ez da ez pertsonala, ez zuzenekoa

- Izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak

Aztertutako epai batzuetan uste da alegatutako jazarpena ezin sar daitekeela asiloaren esparruan, ez delako ez pertsonala, ez zuzenekoa.

(...) la demanda rectora del proceso abunda en el relato que hemos transcrito más atrás y pone especial énfasis en la situación social de Nigeria y en la posición de la mujer en dicho país, terminando por impetrar la concesión del asilo. Visto cuanto antecede, es de notar que la demandante no ha aportado documento alguno que acredite su identidad o nacionalidad, cual ya se puso de manifiesto por la Administración demandada en la instrucción del expediente, sin que tampoco se hayan ofrecido razones justificativas de dicha carencia, a lo que es de añadir que las alegaciones de dicha parte no configuran una persecución personal en los términos de la Convención de Ginebra y, además, carecen de la necesaria verosimilitud en relación con los propios hechos objeto de la narración habida cuenta la edad y el lugar de residencia de la actora, y todo ello amén de la demora en la presentación de la solicitud de asilo, de donde que proceda la desestimación del recurso (...) (AN, 2005eko apirilaren 7koa, 284/2003 errekurtsua —genitalen mutilazioatik eta behartutako ezkontzatik ihes egiten duen nigeriar emakume baten kasua—).

Espainiako praktika administratiboan eta judizialean maiz erabiltzen den argudio hori 1951ko Genevako Hitzarmenaren kontrakoa da, azken horretan ez baita eskatzen pairatutako jazarpenak pertsonala eta zuzena izan behar duenik.

1951ko Genevako Hitzarmenak ezartzen du zer jazarpen-kausak bihurtzen duten pertsona bat errefuxiatu, baina ez du kontzeptu hori definitzen. Asiloaren esparruan, jazarpenzat hartzen da pertsona baten giza eskubideak larriki, sistematikoki edo modu jarraituan urratzea, arraza-arrazoientzatik, erlijio-arrazoientzatik, nazionalitate-arrazoientzatik, gizarte-talde jakin bateko kide izateagatik edo iritzi politikoagatik. Ezaugarri horiek ezin dakizkiokete bata besteari gehitu. Hori ondorioztatzen du CEAREk bere eskarmentutik, nazioarteko jurisprudentziatik eta *Errefuxiatu-izaera aitortzeko edo ukatzeko estatu kideek aplikatu behar dituzten prozeduren gutxienezko arauak* buruzko Kontseilu Europarraren zuzentarautik.

Jazarpenaren definizio hori oinarri harturik, diskriminazioa —larria, sistematikoa edo jarraitua baldin bada— "jazarpen" izan daiteke eta, ondorioz, asilo-eskubideak babestu behar du.

b) Estatuko eragileen eraginak ez diren gatazka pribatuak eta familiako edo komunitateko gatazkak

- Izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak

Aztertutako epai batzuetako arrazoibideetan, sarri askoan adierazi da aipatutako jazarpenak gatazka pribatuak, familiako gatazkak edo komunitatekoak direla eta, beraz, ez direla asilo-arrazoi.

(...) El relato de persecución de la demandante (...) consiste en una persecución que procede de su propia familia (...) (AN, 2006ko otsailak 8koa, 119/2005 errekurtsua —familia barruko indarkeria jasan zuen emakumezko baten kasua; epaian ez da jaso emakumezkoaren jatorrizko herrialdea—).

(...) el solicitante aduce (...) como motivo de persecución, su condición sexual, al ser discriminado en su familia y en su trabajo por ser homosexual. No hace referencia a ninguna persecución por parte de las autoridades de su país por dicha homosexualidad y no consta tampoco que éstas persigan o marginen a las persona con la orientación afectivo-sexual que se invoca (AN, 2007ko irailak 19koa, 97/2007 errekurtsua —joera afektibo-sexualagatik jazarpena jasan duen aljeriar gizon baten kasua).

(...) la persecución que se pretende hacer valer, y que hace referencia a atavismos socio-culturales que de ser persecución, en todo caso, es de carácter extraoficial y no hay datos ni indicios de que la persecución de que dice fue objeto haya sido promovida por las autoridades de su país o que tales autoridades hayan permanecido inactivas ante la misma (...) (AN, 2005eko martxoak 8koa, 1305/2003 errekurtsioa - behartutako ezkontzatik ihesi zebilen nigeriar emakume baten kasua).

- Género-arrazoiengatik emakumezkoen nahiz LGBT taldearen kontra gauzatzen diren jazarpenen ezaugarri nagusietako bat da jazarpenok egiten dituztela estatuko eragile ez direnek; hau da, familiak, komunitateak edo gertuko jendeak.
- 1951ko Genevako Hitzarmenaren helburua da jazarpenaren biktimak babestea, jazarpenaren eragilea estatukoa izan edo ez. Nolanahi ere, Espainiako Estatuak egin duen interpretazio murriztailea izan da, uste baitu jazarpenak gobernuak izan behar duela, eta gobernukotzat hartu du, soilik, jatorrizko herrialdeko agintariek gauzatzen duten jazarpena, bazter utzi duen jatorrizko herrialdeko agintariek agintzen, sustatzen, edo toleratzen duten jazarpena, edo hari aurre egiteko gaitasunik ez duten jazarpena.
- *Urriaren 30eko 12/2009 Legeak, asilo-eskubidea eta ordezkoko babesa arautzen duenak* (aurrerantzean, 12/2009 Lege berria izango denak) artikuluetan berariaz hartu ditu jazarletzat estatuko eragile ez direnak, betiere, asiloaren esparruan. Hori aurrerapauso handia da 1951ko Genevako Hitzarmena betetzeko bidean.

4.5.4. Eskaera gertakari, datu edo argudio faltsu eta sinesgaitzetan oinarritzen da edo egun ez dago indarrean: 5/1984 Legeko 5.6 d) artikulua

- Auzitegien argudioak, justifikatzeko kontatutako gertakariak *argi eta garbi sinesgaitzak* direla:

a) Asilo-eskaera egin duen pertsonaren nazionalitateari buruzko zalantzak

- Izapidetzeko onartzearen kontrako argudioak

Aztertutako epai batzuetan esaten da asiloa eskatu duen pertsonaren nazionalitateari buruzko zalantzak izateak jazarpenari buruzko kontakizuna *argi eta garbi sinesgaitz* bihurtzen duela.

(...) la solicitante no presenta ningún documento acreditativo de su identidad, existiendo dudas sobre su pretendida nacionalidad sudanesa, ya que manifiesta hablar el dinka e inglés, idioma este último en que efectúa la solicitud, cuando el idioma oficial de Sudán es el árabe; b) existen contradicciones respecto al lugar del que es natural, ya que manifiesta ser de "Nimba" y también de "Zagaway", sin que ninguno de estos dos lugares se corresponda con localidad sudanesa alguna (...) por lo que debe ponerse en duda su verosimilitud (AN, 2009ko martxoak 11koa, 693/2008 errekurtsioa – joera afektibo-sexualagatikoz jazarpena jasan duen Sudango gizon baten kasua).

Pertsona eskatzaileak nazionalitatearen egiaztagiririk izan ez eta Administrazioak zalantzak baditu haren nazionalitateari buruz, Administrazioak eskatzaileari jatorrizko herrialdeari buruzko galderez osatutako azterketa egin diezaike. Eskatzaileak azterketan ematen dituen erantzunak aztertuz, Administrazioak eta Auzitegiek gezur-itxurakotzat har dezakete jazarpenaren istorioa.

Interesgarria da, kasu horretan, Auzitegi Nazionalan lehen auzialdian aurkako boto partikularra eman zela (AN, 2006ko martxoaren 24koa, 429/2004 errekurtsioa). Auzitegi Nazionalak Barne Ministerioaren ukatzearen aurkako errekurtsioa baietsi zuen partzialki, eta babes osagarriko estatutua onartu zuen. Boto partikularrak egiaztatuz jotzen zuen errekurtsio-gileak genero-arrazoiengatiko jazarpen larria pairatu zuela, gizarte-talde batekoa izateagatik. Hori dela eta, zegokion asilo-estatutua onartu behar zela uste zuen, eta Auzitegi Gorenak bigarren auzialdian, onartu egin zuen.

(...) aclara el informe del ACNUR que “una mujer que se haya negado a contraer matrimonio o a sufrir la MGF puede que no sea recibida con facilidad por sus familiares o por miembros de su comunidad en otra parte del país (...) abandonar la familia supone la exclusión social y económica para la mayor parte de los nigerianos y particularmente para las mujeres (...) la única salida para las mujeres que se encuentran en estos casos es la prostitución (...)”.

CEAR batzordekoek, gure esperientzia kontuan hartuta, ezinbestekotzat jotzen dugu jatorrizko herrialdearen egoera ezagutzeko txostenak erabiltzea. Dena den, praktika administratibo eta judizialean gabezia eta inkoherentzia asko hautematen ditugu haien erabileran:

- Kezkagarria da Administrazioak dituen txostenei buruzko informazio eta gardentasunik eza.
- Halaber, kezkagarria da zer iturri erabiltzen diren txosten horiek egiteko, norik egiten dituen, nola taxutzen diren eta zer-nolako maiztasunez eguneratzen diren.
- Eta bereziki kezkagarria da txosten horiek erabakigarri bilakatzen direla asilo-estatutua onartzeko edo ukatzeko; batez ere, emakumeek eta LGBT taldeak genero-arrazoiak direla-eta pairatzen dituzten jazarpen egoeratan. Izan ere, jazarpen hori, sarritan, eremu pribatuan, familian edo komunitate barnean gauzatzen da.

Argitalpen honetako V. kapituluaren ikus daitekeenez, 12/2009 lege berrian idatzitakoak Berdintasun Legean ezarritakoa mugatzen du. Izan ere, genero-arrazoiengatiko asiloa onartzeko aukera “jatorrizko herrialdean nagusi diren egoerek” baldintzatzen dute, eta genero-arrazoiengatiko jazarpena ez da onartzen berezko kausa gisa. Jarrera horrek agerian jartzen du emakumezkoen eta LGBT taldearen giza eskubideak bigarren mailako eskubidetzat jotzen direla, berezko garrantzirik gabeko eskubidetzat.

Baldintza hori eragozpen ia gaindiezina da Espainiako lurraldera jazarpen mota horretatik ihesi iristen diren pertsonentzat. Eskualde horietako giza eskubideen erakundeek eta gizarte-taldeek adierazten dutenez, oso zaila da giza eskubideen urraketek buruzko informazio sinesgarria biltzea. Horrez gainera, eskualde horietan gizarte eskubide horiek oraindik ez dira erabat giza eskubidetzat hartzen, eta estatuko egiturek eta estatuz kanpoko egiturek urraketa horiek ezkutuan

gordetzen dituzte. Beraz, gertatutakoa argitzeko eta egileak epaitzeko ikerketa egiteak jazarpena pairatzeko arriskua dakar.

Modu horretan, CEAR batzordeak eta giza eskubideen aldeko beste eragile batzuek adituen batzorde bat sortzeko premiari buruz egindako aldarrikapena indartzen da: adituen batzorde horrek bulego iraunkor gisa funtzionatzea eskatzen da, Giza Eskubideen Plan Nazionalaren jarraipena egiteko eta hura ebaluatzeko mekanismoen barnean. Era berean, batzorde horrek hainbat herrialderi buruzko txostenak landuko lituzke aldian-aldian, COI¹⁴⁹ arauak eta aldeek ikertzeko aurkeztutako materia edo kasu zehatzei buruzko irizpenak aplikatuz.

6. Ondorio orokorrak

6.1. Analisi kuantitatiboa

Ikerketa hau egiteko Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak¹⁵⁰ igorritako 110 epairen lagina hartu da abiapuntutzat. Epai horiek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ostean emanak dira, eta genero-arrazoiek eragindako jazarpena alegatu duten asilo-eskaerei buruzkoak dira: joera afektibo-sexuala, genero-identitatea, behartutako ezkontza, emakumeen genitalen mutilazioa, familia barruko indarkeria, sexu-indarkeria eta -gehiegikeriak, pertsonen salerosketa edo bortxaketa gerrarako armatzat.

Analisi honek agerian utzi du emandako erantzunen (baiestekoak, partzialki baiestekoak¹⁵⁰ eta ezestekoak) eta ebazpena ematen duen organoaren arteko lotura (Auzitegi Nazionala edo Auzitegi Gorena). Hala, hau nabari da:

Auzitegi Nazionalak:

- Izapidetzeko ez onartzearen aurkako errekurtsoen % 8,82 baietsi du.
- Asilo-estatutua ukatzearen aurkako errekurtsoen % 2,56 baietsi du.
- Asilo-estatutua ukatzearen aurkako errekurtsoen % 5,13 partzialki baietsi du.

** Halaber, babes osagarriko estatutua onartzearen aurkako errekurtsoen % 33,33 baietsi du; dena den, datu hori 3 errekurtsori buruzkoa da.*

Auzitegi Gorenak:

- Izapidetzeko ez onartzearen aurkako errekurtsoen % 61,54 baietsi du.
- Asilo-estatutua ukatzearen aurkako errekurtsoen % 25 baietsi du.

¹⁴⁹ Jatorrizko Herrialdeari buruzko Informazioa, ingelesezko siglak. Azken urteetan, *jatorrizko herrialdearen informazioari* (COI) buruzko gaia asiloarekin lotutako Europako gai-zerrendako eztabaidagai nagusienetako bilakatu da. ACNUR agentziak, gobernuz kanpoko erakundeek eta hainbat epailek jatorrizko herrialdearen informazioarekin (COI) lotutako oinarriko erreferentzia-ereduak eta irizpideak laburbiltzen dituzten parametroak landu dituzte.

¹⁵⁰ Ikerketa honetan aztertutako 110 epai horietatik:

- 76 Auzitegi Nazionalak ebatzitako administrazioarekiko auzi-errekurtsei buruzkoak dira: 34, izapidetzea ez onartzearen aurkakoak ziren; 7, asilo-estatutua ukatzearen aurkakoak; eta 1, babes osagarriko estatutua onartzearen aurkakoak.
- 34 Auzitegi Gorenak ebatzitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoei buruzkoak dira: 26, izapidetzea ez onartzearen aurkakoak ziren; 7, asilo-estatutua ukatzearen aurkakoak; eta 1, babes osagarriko estatutua onartzearen aurkakoak.

¹⁵¹ Asilo-estatutua ukatzearen aurka ezarritako errekurtsoen epaiak; epai horietan, Auzitegi Nazionalak edo Auzitegi Gorenak babes osagarriko estatutua onartzea ebatzi zuten.

* *Halaber, babes osagarrirako estatutua onartzearen aurkako errekurtsoen % 100 baietsi du; dena den, datu hori errekurtsu bakar bati buruzkoa da.*

lkerketaren datu guztiei erreparatzen badiegu, errekurtsua jarri zaion ebazpena edozein delarik ere, ikus daiteke Auzitegi Gorenak genero-arrazoiek eragindako jazarpenagatik bertan aurkeztu diren asilo-eskaerei dagozkien administrazioarekiko auzi-errekurtsoen % 52,94 baietsi duela.

Gogoan izan behar da Auzitegi Gorena dela jurisprudentzia sortzen duena, eta hala Auzitegi Nazionalak nola Epaitegi Zentralak, dagokionean, nahiz Administrazioak hark jarritako irizpideen arabera jardun behar dutela.

6.2. Analisi kualitatiboa: izapidetzeko onartzearen fasea

6.2.1. Froga eta epaien arrazoitzerik eza

Aztertutako epai batzuetan, hau ikus daiteke:

- Asilo-eskaera izapidetzeko onartzeko beharrezkoak ez diren frogak eskatzea.
- Instantziako Auzitegiek igorritako epai askotan arrazoirik ez agertzea. Epai horiek Administrazioak ez onartzeko ezarritako irizpidearen arabera taxutzen dira.
- Frogaren zama iraultzea, asilo-eskatzaileengan ezarrita; izan ere, haiek frogatu behar dute jazarpena pairatzen dutela eta kontakizunean ez onartzeko kausarik ez dagoela.

5/1984 Legean ezartzen denez:

- Izapidetzeko onartzeko fasean kontakizunean azaldutako gertakariak jazarpen modura har daitezkeen soilik epaitu behar da, ez hura berresteko *behar adina zantzu* dauden eta eskaera kontakizun faltsu edo sinesgaitzetan oinarritzen den.
- Asilo-eskaeren izapidetzea ez onartzea *arrazoitutako ebazpen* baten bitartez egin behar da. Frogaren zama Administrazioari dagokio, eta hark frogatu beharko du eskaeran alegazioa ezarri zaion ez onartzeko kausa hori izan badela.

Auzitegi Gorenak horri buruzko jurisprudentzia naroa osatu du, eta ezartzen du gertakari, datu edo argudioei buruzko zalantzek eskaeraren izapidetzea onartzera eta asilo-estatutuaren ebazpenean zalantzak uxatzeko instrukzio-egintza gauzatzera derrigortzen dutela Administrazioa.

- AGE, 2004/10/14; 2004/06/01; 2004/06/22; 2004/07/20 eta 27; 3. aretoa, 5. sekzioa.
- AGE, 2005eko apirilaren 12koa, 5085/2001 errekurtsua.
- AGE, 2005eko maiatzaren 31koa; 1836/2002 errekurtsua; 2006ko apirilaren 21koa, 2851/2003 errekurtsua; 2005eko irailaren 6koa, 3428/2002 errekurtsua; 2007ko urriaren 4koa, 1981/2004 errekurtsua; 2006ko abenduaren 14koa, 8638/2003 errekurtsua; 2005eko irailaren 9ko AGE, 2006ko apirilaren 21koa, 2851/2003 errekurtsua.
- AGE, 2006ko abenduaren 22koa, 9012/2003 errekurtsua.
- AGE, 3428/2002 errekurtsua; besteak beste.

- AGE, 2007ko uztailaren 25ekoa, 1447/2004 errekurtsua, besteak beste.

6.2.2. Ez onartzeko kausak

a) Eskaeran ez da alegatzen errefuxiatu-izaera aitortzeko aintzatesten den inolako arrazoirik: 5/1984 Legeko 5.6 b) artikulua

Aztertutako epai batzuetan, pertsona errefuxiatuaren izaera aitortzeko inolako kausarik ez da goela alegatzen da Auzitegi Nazionalak emandako argudio batzuetan. Beraz, haien arabera, genero-arrazoiengatiko jazarpena ezin da asilo-eskubidea lortzeko arrazoiaren barnean aintzatesti.

Argitalpen honetan, genero-arrazoiengatiko jazarpena 1951eko Genevako Hitzarmenean ezarritako definizioan sartzen dela adierazten duten Hitzarmenak, ACNUR agentziaren Artezpideak, legeak eta epaiak aipatu dira.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziari jarraituz:

- Genero-arrazoiengatiko jazarpena asilo-eskubidearen barnean koka daiteke; bai emakumeek pairatzen duten genero-arrazoiengatiko jazarpena, bai pertsona homosexualek pairatzen duten genero-arrazoiengatiko jazarpena.
 - Emakumeek *gizarte-talde jakin* bat osatzen dute asiloari dagokionez.
- AGE, 2005eko maiatzaren 31koa, 1836/2002 errekurtsua; 2005eko irailaren 9koa, 3428/2002 errekurtsua; eta 2005eko azaroaren 10ekoa, 3930/2002 errekurtsua.
- AGE, 2005eko uztailaren 7koa, 2107/2002 errekurtsua.
- AGE, 2005eko azaroaren 10ekoa, 3930/2002 errekurtsua.
- AGE, 2006ko otsailaren 28koa eta ekainaren 23koa, 735/2003 eta 4881/2003 errekurtsuak.
- AGE, 2006ko irailaren 15ekoa, 6627/2003 errekurtsua; 2006ko ekainaren 23koa, 4881/2003 errekurtsua; 2006ko urriaren 6koa, 6597/2003 errekurtsua, besteak beste.
- AGE, 2006ko urriaren 6koa, 6597/2003 errekurtsua.
- AGE, 2006ko abenduaren 14koa, 8638/2003 errekurtsua; AGE, 2007/02/15, 2006/09/15 eta 2005/05/31, guztietarako.

a) 1. *Estatuz kanpoko eragileek eragindako gatazka pribatuak, familiakoak eta komunitatekoak*

Deigarria da Auzitegi Nazionalak izapidetzea ez onartzearen aurkako errekurtsuak ezesteko argudiatu duela jazarpenak ez direla estatuko eragileek eginak izan.

Asilo-estatutuaren eta babes osagarriaren ebazpenari buruzko ondorioetan ikus daiteke zer ezartzen duten praktika horri buruz Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak eta 12/2009 Lege berriak.

b) Eskaera gertakari, datu edo argudio faltsu eta sinesgaitzetan oinarritzen da edo egun ez dago indarrean: 5/1984 Legeko 5.6 d) artikulua

Auzitegiek emandako argudioak, kontakizunean azaldutako gertakariak *erabat sinesgaitzak* di-rela ondorioztatzen:

b) 1. Asilo-eskaera egin duen pertsonaren nazionalitateari buruzko zalantzak

Administrazioak nazionalitate-test (jatorrizko herrialdeari buruzko galderak) bat egitera behar-tzen du pertsona eskatzailea, nazionalitateari buruzko zalantzak dituenean hura ziurtatzeko agi-
ririk aurkeztu ez duelako. Administrazioaren eta Auzitegi Nazionalaren irizpideari jarraituz, az-
terketa horretan emandako erantzunek sinesgaitz bilaka dezakete alegatutako jazarpena, eta
halaxe jarri da agerian epai batzuetan .

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian ezartzen denez, jatorrizko herrialdeari buruzko oinarritzko
ezagutzarik ez izatea ez da alegatutako jazarpena sinesgaitza dela ondorioztatzeko arrazoia; be-
reziki, ez Administrazioak ez lehen auzialdiko Auzitegiak ez badituzte zehazten zein diren eza-
gutzen ez diren kontuak (arrazoirik ez egotea) eta ez badute kontuan hartzen pertsonaren kultu-
ra-maila.

- AGE, 2005eko apirilaren 12koa, 5085/2001 errekurtsua.
- AGE, 2005eko ekainaren 23koa, 2469/2002 errekurtsua.

b) 2. Hilabeteko epea iristen denetik eskaera aurkezteko:

Auzitegi Nazionalak ezesteko epaietako batean argudiatu zuenez, lurralde nazionalera iritsi
ondoren asilo-eskaera hilabete baino gehiagoko atzerapenaz aurkezteak jatorrizko herrialde-
ra itzultzeko *beldurrik ez dagoela* pentsaraz dezake, eta horrek *kontakizunaren sinesgaitzasuna*
berresten du.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziari jarraituz:

- Pertsona eskatzaileak beldurra edo erreparoa izan dezake Espainiako agintarien eta segur-
tasun-indarren aurrean aurkezteko.
 - Sexu-indarkeriarekin lotutako jazarpenak kontatzeko lotsa izan dezake
 - Asiloa eskatzen du bere eskubide guztiak ongi ezagutzen dituenean
 - Hilabete igaro delako ezin daiteke ondorioztatu eskaera egiteko oinarritzat hartutako ger-
takariak, datuak edo argudioak faltsuak edo sinesgaitzak direnik
 - Jazarpenak indarraldia galdu izanaren ustea horren aurkako froga bidez hutsaldu daiteke-
en ustea da.
- AGE, 2005eko irailaren 9koa, 3428/2002 errekurtsua.
 - AGE, 2006ko ekainaren 23koa, 4881/2003 errekurtsua.
 - AGE, 2006ko urriaren 6koa, 6597/2003 errekurtsua.

*b) 3. Behartutako ezkontzagatik edo genitalen mutilazioagatik asiloa eskatu duen emakumea-
ren adina*

Auzitegi Nazionalaren epaietan irakur daitekeenez, emakumearen adina ez onartzeko arrazoi
izan daiteke. Izan ere, kontakizuna "erabat sinesgaitza" bilakatzen da, auzitegi horrek uste badu
jazarpen horiek adin txikitasunean soilik gertatzen direla.

Auzitegi Nazionala bera argudio horren aurka azaldu zen 2009an, azken aukerako epai batean. Han adierazten denez, ezin da baztertu praktika hori ezkontzeko zain diren adin nagusiko emakumeen artean gertatzea.

- AN, 2009ko otsailaren 25ekoa, 40/2009 errekurtsua.

ACNUR agentziak Nigeriako emakumeen egoerari buruz egindako txostenak oinarritzat hartuta, Auzitegi Gorenak ezarri du haurdun dauden emakumeek genitalen mutilazioa pairatzen dutela lehen astetik lehen semea edo alaba izaten duten arte.

- AGE, 2006ko urriaren 6koa, 6597/2003 errekurtsua.

b) 4. Alegatutako jazarpena delitu gisa tipifikatuta egotea jatorrizko herrialdean

Nigeriatik etorritako emakumeei buruzko epai batzuetan, Auzitegi Nazionalak adierazi du jatorrizko herrialdean jazarpen bat delitu gisa tipifikatzen bada ezin daitekeela jazarpen-kausatzat hartu, eta tipifikazio hori egin arren jazarpena gauzatzen bada, jatorrizko agintarien aurrean salatu ez izanak *erabat sinesgaitz* bilakatzen duela.

Hala ere, Auzitegi Nazionalak berak, 2009ko azken aukerako epai batean, hau ezarri zuen:

- Alegatutako jazarpena jatorrizko herrialdean delitu gisa tipifikatuta egoteak ez du esan nahi mota horietako praktiken aurrean erabateko babes eraginkorrik dagoenik.
- AN, 2009ko otsailaren 25ekoa, 40/2009 errekurtsua, genitalen mutilazioa kasu batean.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziari jarraituz:

- Gerta daiteke alegatutako jazarpena estatuko agintarien aurrean ez salatzea, hori egiteak ekar ditzakeen ondorioen beldurra izateagatik.
- AGE, 2006ko otsailaren 28koa, 735/2003 errekurtsua, behartutako ezkontza kasu batean.

b) 5. Administrazioak edo Lehen Auzialdiko Auzitegiak dituen datu eta txostenen arabera sinesgaitzak diren jazarpenak

Aztertutako epai batzuetan, eskaeraren izapidetzea ez onartzea Administrazioak jatorrizko herrialdeari buruz dituen datu eta txostenetan oinarrituta argudiatzen da, eta lehen auzialdiko Auzitegiak onartu egiten ditu; esate baterako, *behartutako ezkontzen praktika ez dator bat eskaizalea bizi den herrialdeko eremuarekin*¹⁵², edo emakumeak pairatutako jazarpena errekurtsogileak herrialdeko beste leku batera joanez¹⁵³ konpon zezakeen "arazotzat" hartzen da.

5/1984 Legean ezartzen denez, izapidetzea onartzeko fasean, kontakizunaren sinesgaitzasuna *oso agerikoa* izan behar da.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak Administrazioak jarraitzen duen prozedura hori kritikatu du, informazio horri buruzko daturik ematen ez duenean eta iturriak edo edukia ezagutzeko

¹⁵² AN, 1217/2003 errekurtsua.

¹⁵³ AN, 2005eko urriaren 26koa, 235/2005 errekurtsua.

baliagarri izan daitekeen beste dokumentu edo frogarik eranstean ez duenean. Hala, epai batean informazio hori oinarri gabetzat jo zuen.

- (AGE, 2007ko urriaren 4koa, 1981/2004 errekurtsioa)

1951ko Genevako Hitzarmenean ez da inon ere aipatzen 'herrialdearen barneko lekualdatzearen' alternatiba babeserako berme modura.

6.3. Analisi kualitatiboa: Asilo-Estatutuaren eta Babes Osagarriaren Ebazpena

6.3.1. Froga eta kontakizunaren sinesgarritasuna

Kontakizunaren sinesgarritasuna onartzeko, elementu subjektiboaren (jazarpena pairatzeko *beldurra*), elementu objektiboaren (*egietsia*, hots, jatorrizko herrialdean pertsona eskatzaileak bizi duen egoeran oinarritzen dena) eta ihesaren arteko barne-koherentzia aztertzen da. Administrazioak eta, hala dagokienez, Auzitegiek kontakizunaren muina aztertu behar dute. Pertsona eskatzaileak sinesgarritasuna egiaztatzeko *behar adina zantzu* aurkeztu behar ditu.

Administrazioaren eta Auzitegien erabakiaren mende dago froga bat adierazgarritzat jotzea, eta haren baliozkotasuna horri buruz egiten duten interpretazioaren arabera da. Sarritan, aurkeztutako frogak ez dituzte adierazgarritzat ere jotzen, pairatutako jazarpena justifikatzeko nahikoa froga aurkeztu ez delako edota aurkeztu diren frogak frogagarritzat jotzen ez direlako.

Kontakizunaren sinesgarritasuna hura orokorki hartuta aztertu behar da, eta ez bertan ageri diren berezitasunak aintzat hartuta.

5/1984 Legean ezartzen denez, asilo-estatutua lortzeko ezinbestekoa da froga adierazgarritz erakustea pertsona eskatzaileak jazarpenaren beldur izateko arrazoiak dituela.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian ezartzen denez, asilo-eskubidea onartzeko ez da beharrezkoa eskatzaileak jatorrizko herrialdean jazarpena pairatu izanaren froga argigarria aurkeztea; aski da nahikoa zantzu izatearekin; betiere, kasu bakoitzaren nolakotasuna kontuan izanik.

- (Auzitegi Gorenaren Epaiak: 1991ko maiatzaren 21ekoa, 1993ko martxoaren 30eko bi epai, eta 1994ko ekainaren 23koa)

6.3.2. Ukatzearen arrazoiak

a) Eskaeran ez da alegatzen pertsona errefuxiatuaren definizioan aurreikusitako kausa bakar bat ere: 1951ko Genevako Hitzarmeneko 1.A.2 artikulua

Epaien azterketan agerian geratu denez, asilo-estatutuaren ebazpenean Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak baiesten dute genero-arrazoiengatikoz jazarpena asiloaren testuinguruan koka daitekeela (hala 1951ko Genevako Hitzarmenean ezartzen den pertsona errefuxiatuaren definizioaren arabera nola 5/1984 Legearen arabera)

Horrela, Auzitegi Nazionalak ezartzen duenez:

- 1951ko Genevako Hitzarmena genero-ikuspegitik interpretatu behar da eta, horrenbestez, jazarpenaren barnean aintzatetsi behar dira, besteak beste, sexu-indarkeriagatik, etxeko na-

hiz familiako indarkeriagatik edota balio eta ohitura moralak urratzeagatik zigorrengatik, behartutako ezkontza eta emakumeen genitalen mutilazioa barne, egiten diren asilo-eskaerak. Izan ere, halakoak sexu-arrazoiengatiko jazarpen espezifikoa dira, sufrimendu eta min sakona eragiten dute, bai burukoa eta bai fisikoa, eta estatuko eragileen zein eragile partikularren jazarpenaren adierazleak dira.

- Genero-indarkeria 1951ko Genevako Hitzarmeneko 1.A.2. artikuluko *gizarte-talde jakin bateko kide* arrazoiaren barnean koka daiteke.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia ugari igorri du horri dagokionez, eta 2009ko maiatzaren 11ko epaian (3155/2006 errekurtsua), besteak beste, hori aipatzen da:

- Jatorrizko herrialdean emakumeek babesik eza izatea eta haien giza eskubideak argi eta larriki urratzen dituen bazterkeria sozial, politiko eta judiziala pairatzea asiloa eskatzeko kausa da.
 - AGE, 2005eko uztailaren 7koa -2107/2002 errekurtsua-, eta 2008ko uztailaren 8koa -2316/2005 errekurtsua-.
- Sexu-jazarpena gizarte-jazarpenen barruan koka daiteke zalantzarik gabe
 - AGE, 2005eko maiatzaren 31koa, 1836/2002 errekurtsua; 2005eko irailaren 9koa, 3428/2002 errekurtsua; eta 2005eko azaroaren 10ekoa, 3930/2002 errekurtsua.
- Emakumeak ezkontzera derrigortzeko jazarpena eta mehatxuak pairatzen dituenean, babesa jasotzeko premian dela ulertzen da, gizarte-jazarpen horien barnean kokatzen delako
 - AGE, 2006ko otsailaren 28koa -735/2003 errekurtsua-, 2007ko otsailaren 15koa, -9300/2003 errekurtsua- eta 2008ko urtarrilaren 31koa -4773/2004 errekurtsua-; Nigerialatik etorritako asilo-eskaera egin duten pertsonen buruzkoak dira.
- Horrez gain, joera afektibo-sexuala da Asiloaren Legean eta 1951ko Genevako Hitzarmenean aintzatesten diren arrazoen artean txerta daitekeenetako bat.
 - AGE, 2007ko abenduaren 13koa, 4529/2004 errekurtsua.

b) Estatz kanpoko eragileek eragindako jazarpena

Auzitegi Nazionalak asilo-eskaera batzuk ukatu egiten ditu, kontakizunetik ez delako ondorioztatzen jatorrizko herrialdeko agintariak jazarpen hori bultzatu edo baimendu dutenik edo haien egitekoa bete ez dutenik, ezta pertsonak babesa eskatu ezin izan duenik ere. Ondorio horretara iristeko nahikoa da herrialdeko agintarien esku-hartze bat egiaztatzea, oso txikia izanagatik ere, edo interesdunak salaketarik jarri ez izana.

Auzitegi Nazionalak, 2006ko ekainaren 21eko epaian (1076/2003 errekurtsua) eta 2009ko urtarrilaren 13ko epaian (1528/2007 errekurtsua), hurrenez hurren, behartutako ezkontzatik eta emakumeen genitalen mutilazioatik ihes egiten duen nigeriar emakume bati eta familia barneko indarkeriatik ihes egiten duen aljeriar emakume bati buruzkoetan, hau erabaki zuen:

- Jardun horiek debekatuta egotea ez da nahikoa arrazoi, edozein kasutan ere, haiek pairatzeko benetako arriskurik ez dagoela ondorioztatzeko.
- Jardun mota horiek eremu pribatuan burutzen dira eta, gehienetan, familiak eta gizarteak onetsita. Hala, gobernuko agintariak, sarritan, ez dira gai izaten babes eraginkorrik emateko,

alde batetik, emakumeen gizarte-egoeratik eta, bestetik, jarduera horiek gizartean oso barneratuta daudelako.

- Praktika horiek pairatzen dituztenek ez dute salaketa jartzen, hori egiteak hala familia-esparruan nola gizartearen testuinguruan ekarriko lituzkeen ondorioen beldur direlako; modu horretan, justifikaturik geratzen da salaketa horiek agintarien aurrean jarri ez izana.
- Estatuak, arrazoi politiko edo praktikoengatik, eskubide jakin batzuk ez aitortzea eta gehiegikeria larrien aurrean babesik ez ematea jazarpenatzat har daiteke.
- Gerta daiteke estatuzko kanpoko eragile baten jazarpena pairatzeko arriskuak zerikusirik ez izatea Hitzarmeneko arrazoiekin, baina estatuak babesia emateko gaitasunik ez izatea eta uko egitea Hitzarmeneko arrazoi batengatik gertatzen da.

12/2009 Legean berariaz aipatzen dira estatuz kanpoko eragileak asiloaren testuinguruan jazarpena eragiten duten eragileen artean. Hori 1951ko Genevako Hitzarmena betetzeko urratsa da.

c) Alegatutako jazarpena delitu gisa tipifikatuta egotea jatorrizko herrialdean

Auzitegi Nazionalaren hainbat epaitan ukatu egiten da jazarpena dagoenik, edozein kasutan, jatorrizko herrialdean delitu gisa tipifikatuta dagoenean edo agintariak alde aurretik jarritako salaketa baten alde azaldu direnean (bereziki emakumezkoen genitalen mutilazioari eta behartutako ezkontzari dagokionez, Nigerian).

Gainera, homosexualitatea jatorrizko herrialdean delitu gisa tipifikatuta egotea, LGBT taldearen giza eskubideen urraketa larria izanik, ez da erabakigarria asilo-eskubidea aitortzerakoan.

1951ko Genevako Hitzarmenean adierazten denez, pertsona errefuxiatua da *jazarpena pairatzeko beldur frogatuak* dituen eta *herrialdeak ematen dion babesia hartu ezin duena edo, beldur horien ondorioz, babes hori hartu nahi ez duena*. Pertsona errefuxiatuaren definizioak barnean hartzen du jatorrizko herrialdean egoteko beldurra izatea eta beste herrialde bati babesia eskatzeko eskubidea izatea.

Auzitegi Gorenak emakumeen genitalen mutilazioatik ihes egiten duen nigeriar emakume baten epaian ezarri zuenez, jazarpena jatorrizko herrialdean delitu gisa tipifikatuta egoteak ez du babesia jasotzea bermatzen.

- AGE, 2009ko maiatzaren 11koa, 3155/2006 errekurtsua.

d) Jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa

Administrazioak, kontakizunaren egiazkotasuna erakusten duen froga eskatzeaz gain, jatorrizko herrialdearen egoerari buruzko txostenak erabiltzen ditu asilo-eskaerak ukatzeko oinarri modura. Auzitegiek Administrazioak ezarritako irizpideei jarraitu ohi diete.

Deigarria da aztertutako epai batzuetan instrukzioarearen txostenak Internetetik jasotako datuen arabera taxutu direla. Bestalde, talde jakin batzuek bizi duten jazarpen-egoera dokumentatuz erakunde ofizialek egiten dituzten txostenak ez dira garrantzitsutzat hartzen errekurtsua baiesteko. Hala, ohikoa da izapidegileak aurkeztutako txostenei garrantzi handiagoa ematea, aldeak aurkeztutakoei baino.

CEAR batzordekoek, gure esperientzia kontuan hartuta, ezinbestekotzat jotzen dugu jatorrizko herrialdearen egoera ezagutzeko txostenak erabiltzea. Dena den, praktika administratibo eta juridizialean gabezia eta inkoherentzia asko hautematen ditugu haien erabileran:

- Kezkagarria da Administrazioak dituen txostenei buruzko informazio eta gardentasunik eza.
- Halaber, kezkagarria da zer iturri erabiltzen diren txosten horiek egiteko, nork egiten dituen, nola taxutzen diren eta zer-nolako maiztasunez eguneratzen diren.
- Eta bereziki kezkagarria da txosten horiek erabakigarri bilakatzen direla asilo-estatutua onartzeko edo ukatzeko; batez ere, emakumeek eta LGBT taldeak genero-arrazoiak direla- eta pairatzen dituzten jazarpen-egoeratan, izan ere, jazarpen hori, sarritan, eremu pribatuan, familian edo komunitate barnean gauzatzen da.


Auzitegi Gorenaren 2009ko maiatzaren 11ko epaia (3155/2006 errekurtsioa) nabarmentzekoa da. Bertan agerian geratzen da, ACNUR agentziak igorritako txostenen bidez, Nigeriako emakumeen giza eskubideak ohikotasunez urratzen direla, haurren ezkontzak oraindik ere egiten direla eta emakumeen % 60k genitalen mutilazioa pairatzen duela, debekatuta egon arren.

Epai hori joan den urtean eman zen, modu horretako praktikatik ihes egiten zuten nigeriar emakumeek aurkeztutako errekurtsio asko ezetsi ondoren.

Jatorrizko herrialdearen egoerari buruzko txostenak oso garrantzitsuak izan dira 12/2009 Lege berria idazterakoan. Izan ere, lege horretan, genero-arrazoiengatiko asiloa aitortzeko zilegitasuna *jatorrizko herrialdean bizi diren egoeren baldintzapean* geratzen da, eta ez da onartzen genero-arrazoiengatiko jazarpena berezko kausa gisa.

CEAR batzordeak eta giza eskubideen aldeko beste eragile batzuek bulego iraunkor gisa funtzionatuko duen batzorde bat sortzea aldarrikatzen dute; batzorde horrek hainbat herrialderi buruzko txostenak egingo lituzke aldian-aldian, COI¹⁵⁴ arauen aplikazioa oinarri hartuta.

¹⁵⁴ Jatorrizko Herrialdeari buruzko Informazioa, ingelesezko siglak. Azken urteetan, *jatorrizko herrialdearen informazioari* (COI) buruzko gaia asiloari buruzko Europako gai-zerrendako eztabaidagai nagusienetako bilakatu da. ACNUR agentziak, gobernuz kanpoko erakundeek eta hainbat epailek jatorrizko herrialdearen informazioarekin (COI) lotutako oinarriko erreferentzia-ereduak eta irizpideak laburbiltzen dituzten parametroak landu dituzte.



Bibliografia

1. Bibliografía documental

- ACNUR (2002): *Directrices sobre Protección Internacional: La persecución por motivos de género en el contexto del Artículo 1A(2) de la Convención de 1951 sobre el Estatuto de los Refugiados, y/o su Protocolo de 1967*, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa.
- ALDARTE (2006): *Mujeres lesbianas y transexuales: una doble discriminación*, NO ENTRA kanpainarekin lotutako txostena, Bilbo.
- Amnistía Internacionala (1999): *Pakistán. Homicidios de niñas y mujeres por motivos de honor*, EDAI, Madril.
- Amnistía Internacionala (2001): *Crímenes de odio, conspiración de silencio. Tortura y malos tratos basado en la identidad sexual*, EDAI.
- Amnistía Internacionala (2004a): *Arabia Saudí: La exclusión de las mujeres de las elecciones frenó el avance del progreso*, Data: 2004.11.17; Al indizea: MDE 23/015/2004.
- Amnistía Internacionala (2004b): *El suma y sigue de la violencia contra las mujeres. Datos y cifras*, EDAI, Madril.
- Amnistía Internacionala eta CEAR (2009): *El Congreso ratifica una Ley que convierte el conseguir asilo en una carrera de obstáculos*. Asilo Lege berriari buruzko prentsa-oharra. 2009ko urriaren 15a, Madril.
- APRAMP (2008): *Guía Básica para la Identificación, Derivación y Protección de las Personas Víctimas de Trata con fines de Explotación*, Asociación para la Prevención, Reinserción y Atención de la Mujer Prostituida elkarte, Madril.
- Balzer, Carsten eta SUESS, Astrid (2009): *Entrevista con Belissa Andía Pérez, Representante del Secretariado Trans de ILGA*, Liminalis.
- CALDH (2006): *Informe de seguimiento al cumplimiento por parte del Estado de Guatemala de las recomendaciones de la relatora especial de las Naciones Unidas sobre la violencia en contra de las mujeres*, Centro para la Acción Legal en Derechos Humanos zentroa, Guatemalako Hiria.
- CEAR (2009a): "La concesión de protección internacional a las víctimas de trata de personas", in *La situación de las personas refugiadas en España. Informe 2009. Hacia una nueva Ley de Asilo*, Etnema, Madril.
- CEAR (2009b): "Propuestas de CEAR ante el proyecto de nueva Ley de Asilo", in *La situación de las personas refugiadas en España. Informe 2009. Hacia una nueva Ley de Asilo*, Etnema, Madril.
- CEAR (2009c): "25 años de la Ley de Asilo de 1984, un balance necesario", in *La situación de las personas refugiadas en España. Informe 2009. Hacia una nueva Ley de Asilo*, Etnema, Madril.
- CEAR-Euskadi (2005a): *Informe de la campaña NO ENTRA: por el reconocimiento del derecho de asilo de las mujeres perseguidas por motivos de género*, Bilbo.
- CEAR-Euskadi (2005b): *Informe de la campaña NO ENTRA: Derecho de Asilo y Persecución por Motivos de Género: contexto internacional*, Bilbo.
- CEAR-Euskadi (2006): *Diccionario de Asilo*, Bilbo.
- CEAR-Euskadi (2008): "El derecho de asilo y los derechos sexuales y reproductivos", in *Cuadernos de Teoría de CEAR-Euskadi*, 3. alea, Bilbo.

- CEAR-Madrid (2005): *Situación de los Derechos Humanos de gays, lesbianas, bisexuales y transexuales*, Madril.
- Charlesworth, Hillary (1997): ¿Qué son los "derechos humanos internacionales de la mujer?", in COOK, Rebecca J. (argitaratzailea): *Derechos humanos de la mujer. Perspectivas nacionales e internacionales* (Iván Zagarra eta Helena Uribe, itzultzaileak), PROFAMILIA, Bogota.
- Chiarotti, Susana (2002): "Trata de Mujeres: Conexiones y Desconexiones entre Género, Migración y Derechos Humanos", in Conferencia Hemisférica sobre Migración Internacional: Derechos Humanos y Trata de Personas en las Américas, CEPAL, Santiago, Txile.
- Colombia Diversa (2005): *Situación de los derechos humanos de lesbianas, gays, bisexuales y transgeneristas en Colombia. Informe 2004 y 2005*.
- Comité Helsinki de Hungría batzordea (2007): "Resumen ejecutivo en castellano", de *COI en el procedimiento de asilo. La calidad como criterio jurídico de la UE*. COI Network III.
- Ecodiario (2009): *Karzai firmó la ley que permite violar a las mujeres porque no la leyó correctamente*, Agencias, 2009ko apirilaren 27a.
- El País (2009): *Violaciones de mujeres como arma de terror político*, 2009ko abenduaren 10a.
- Estatuko Burutza (2009): *Ley 12/2009, de 30 de octubre, reguladora del derecho de asilo y de la protección subsidiaria*. BOE 263. zk, I. sekzioa, 90860-90884 or., 2009ko urriaren 31. Facio, Alda: "Protocolo Facultativo de la CEDAW fortalece derechos de las mujeres", in Revista María, UNIFEM, Ekuador.
- Folgera, Pilar (2006): "La equidad de género en el marco internacional y europeo", in *Mujeres, globalización y derechos humanos*, Ediciones Cátedra, Universitat de València eta Instituto de la Mujer, Madril.
- Fontela, Marta (2008): "Patriarcado. ¿Qué es el patriarcado?", in *Diccionario de estudios de Género y Feminismos*, Ed. Biblos, Buenos Aires.
- Gago, Cándida (2006): *Atlas de las mujeres en el desarrollo del mundo*, Ed. IEPALA eta Ediciones SM, Madril.
- Giza Eskubideentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa (2006): *Informe E/CN.4/2006//009, de 20 de enero de 2006, sobre la situación de los derechos humanos en Colombia*.
- Groome, Helen (2007): "Dónde y con qué derechos estamos seguras", in *Con qué Derechos estamos seguras. Seguridad Humana con enfoque de género*, PTM-Mundubat, Gakoa Liburuak, Donostia.
- Grupo Guatemalteco De Mujeres (2009): *Ley contra el femicidio y otras formas de violencia contra las mujeres. Comentarios y concordancias*, Guatemala.
- Guasch, Óscar (2007): *La crisis de la heterosexualidad*, bigarren edizioa, Laertes, Bartzelona.
- La Haine (2009): *México, Estado feminicida*, La Haine, desobediencia informatiboko proiektua, 2009ko azaroaren 24a.
- Lagarde y de los Ríos, Marcela (2005): *Claves feministas para mis socias de la vida*, in Cuadernos inacabados, Horas y HORAS la editorial, Madril.

- Lagarde y de los Ríos, Marcela (1997): *Género y feminismo. Desarrollo humano y democracia*, in Cuadernos inacabados, Horas y HORAS la editorial, Madril.
- López, Irene (1999): "La dimensión de género en los derechos humanos y la cooperación internacional", 1999, in LÓPEZ, I. eta ALCALDE, A.R.: *Relaciones de género y desarrollo. Hacia la equidad de la cooperación*, La Catarata IUDC/UCM, Madril.
- López, Irene (2005): "Género en la agenda internacional del desarrollo. Un enfoque de derechos humanos", 2005, in Revista Académica de Relaciones Internacionales, 2. alea, 2005eko ekaina. UAM-AEDRI, Madril.
- Magally, Ilvia eta ruiz, Miriam (2002): *Cimac, periodismo con perspectiva de género*, Mexiko Hiria.
- Magallón, Carmen (1989): "La situación de las mujeres en el ejército: argumentos para un debate", in En pie de paz, 14. alea, hirugarren hiruhilekoa.
- Magallón, Carmen (2006): *Mujeres en pie de paz*, Siglo XXI España Editores S.A., Madril.
- Maquieira, Virginia (2006): *Mujeres, globalización y derechos humanos*, Ediciones Cátedra, Universitat de València eta Instituto de la Mujer, Madril.
- Montes, Laura (2007): "Asesinatos de mujeres: expresión del feminicidio en Guatemala", in Puentes, 28. alea, 2007ko iraila, Madril.
- Mugarik Gabeko Medikiak (2009): *Vidas destrozadas. La atención médica inmediata, vital para las víctimas de violencia sexual*, Brusela.
- Murguialday, Clara eta Gómez Isa, Felipe (2000): "Derechos humanos de las mujeres", in Pérez de Armiño, Karlos (zuz.): *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Hegoa e Icaria, Bilbo.
- Murguialday, Clara eta vázquez, Norma (2000): "Violencia contra las mujeres", in Pérez de Armiño, Karlos (zuz.): *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Hegoa e Icaria, Bilbo.
- Musalo, Karen (2005): "La Convención de 1951 sobre el Estatuto de la Persona Refugiada y la protección de las mujeres frente a las violaciones de sus derechos fundamentales", in Revista de Derecho Migratorio y Extranjería, 8. alea, Universitat Jaume I.
- Nazio Batuen Batzar Nagusia (1994): *Declaración sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer*, 1993ko abenduko A/RES/48/104 Ebazpena.
- Ottosson, Daniel (2009): *Homofobia de Estado. Un Informe Mundial sobre las leyes que prohíben la actividad sexual con consentimiento entre personas adultas. Un informe de ILGA*, Asociación Internacional de Lesbianas, Gays, Bisexuales, Trans e Intersex, 2009ko maiatza.
- Pereda, Ferran (2004): *El cancanero: diccionario petardo de argot, gay, lesbi y trans*, Laertes, Bartzelona.
- Pérez de Armiño, Karlos eta Areizaga, Marta (2000): "Seguridad humana", in Pérez de Armiño, Karlos (zuz.): *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Hegoa e Icaria, Bilbo.
- PNUD (1995): *Informe sobre Desarrollo Humano 1995*, Harla S.A., Mexiko.
- Rico, Ángela (2007): *Las otras formas de persecución: mujeres lesbianas refugiadas*. Doktorego-tesirako ikerketa-proiektua. Soziologia II Saila, "Modelos y áreas de investigación en Ciencias Sociales" doktoretza, Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU.

Ruiz-Bravo, Patricia (1999): "Una aproximación al concepto de género", in *Sobre Derecho y discriminación*. Peruko Pontificia Universidad Católica unibertsitatea-Defensoría del Pueblo, Lima, Peru.

Sandá, Roxana (2009): "La guerra en el cuerpo. Entrevista a Rita Segato", in *Página 12* egunkaria, 2009ko uztailearen 17a.

Segato, Rita (2006a): *Qué es un feminicidio. Notas para un debate emergente*. Serie Antropología, Brasilia.

Segato, Rita (2006b): "Territorio, soberanía y crímenes de segundo estado: la escritura en el cuerpo de las mujeres asesinadas en Ciudad Juárez", in M. L. Femenías: *Perfiles del feminismo Iberoamericano/2*, Buenos Aires, Catálogos, 2005, 175.-200. or.; egile berarena: «¿Qué es un feminicidio: Notas para un debate emergente», in *Mora*, 12. alea, 2006, 21.-32. or., besteak beste.

Transgender Europe (2009): *Liminalis*, Revista para la Emancipación y Resistencia de los Sexos/Géneros, on-line zientzia-aldizkari eleaniztunarekin lankidetzan egindako txostena. Carsten Balzer-ek datuak bildu eta taulak egin ditu.

UNFPA (2008): *Estado de la población mundial 2008. Ámbitos de convergencia: cultura, género y derechos humanos*, Nazio Batuen Biztanleriaren Funtsa.

Van der Gaag, Nikki (2005): *En lucha: las mujeres y sus derechos*, in *Dossiers para entender el mundo* bilduma, Intermón-Oxfam, Bartzelona.

Virseda, Cristina eta Villa, Selva (2001): "Migración y Prostitución", in *Revista Mujer y Salud*, 4. alea, Red de Salud de las Mujeres de América Latina y el Caribe.

2. Aztertutako epaiak

Auzitegi Nazionalaren epaiak – Administrazioarekiko Auzien Sala

2005eko urtea

- 2005eko urtarrilaren 19koa, 0008/2003 errekurtoa
- 2005eko otsailaren 2koa, 313/2003 errekurtoa
- 2005eko otsailaren 8koa, 124/2003 errekurtoa
- 2005eko martxoaren 8koa, 1305/2003 errekurtoa
- 2005eko martxoaren 9koa, 338/2004 errekurtoa
- 2005eko martxoaren 9koa, 350/2004 errekurtoa
- 2005eko martxoaren 15koa, 1381/2002 errekurtoa
- 2005eko martxoaren 16koa, 767/2003 errekurtoa
- 2005eko martxoaren 17koa, 794/2003 errekurtoa
- 2005eko martxoaren 30koa, 819/2003 errekurtoa
- 2005eko martxoaren 31koa, 1217/2003 errekurtoa
- 2005eko apirilaren 1koa, 652/2003 errekurtoa
- 2005eko apirilaren 7koa, 284/2003 errekurtoa
- 2005eko apirilaren 8koa, 613/2003 errekurtoa
- 2005eko apirilaren 8koa, 696/2003 errekurtoa
- 2005eko maiatzaren 5koa, 903/2003 errekurtoa

- 2005eko maiatzaren 20koa, 414/2003 errekurtsua
- 2005eko maiatzaren 31koa, 830/2002 errekurtsua
- 2005eko ekainaren 8koa, 21/2005 errekurtsua
- 2005eko ekainaren 15ekoa, 1039/2003 errekurtsua
- 2005eko irailaren 28koa, 149/2004 errekurtsua
- 2005eko urriaren 26koa, 235/2005 errekurtsua
- 2005eko azaroaren 3koa, 0182/2003 errekurtsua
- 2005eko azaroaren 16koa, 1052/2003 errekurtsua
- 2005eko azaroaren 23koa, 1162/2003 errekurtsua
- 2005eko azaroaren 24koa, 91/2005 errekurtsua

2006ko urtea

- 2006ko urtarrilaren 20koa, 110/2005 errekurtsua
- 2006ko urtarrilaren 27koa, 433/2005 errekurtsua
- 2006eko otsailaren 8koa, 119/2005 errekurtsua
- 2006ko martxoaren 14koa, 457/2004 errekurtsua
- 2006ko ekainaren 21ekoa, 1076/2003 errekurtsua
- 2006ko uztailaren 3koa, 343/2005 errekurtsua
- 2006ko uztailaren 17koa, 690/2005 errekurtsua
- 2006eko azaroaren 29koa, 372/2004 errekurtsua

2007ko urtea

- 2007ko urtarrilaren 30ekoa, 278/2005 errekurtsua
- 2007ko otsailaren 27koa, 451/2004 errekurtsua
- 2007eko martxoaren 21ekoa, 302/2006 errekurtsua
- 2007ko maiatzaren 23koa, 412/2004 errekurtsua
- 2007ko ekainaren 8koa, 790/2005 errekurtsua
- 2007ko uztailaren 4koa, 118/2007 errekurtsua
- 2007ko irailaren 19koa, 97/2007 errekurtsua
- 2007ko urriaren 4koa, 639/2006 errekurtsua
- 2007ko urriaren 10ekoa, 579/2006 errekurtsua

2008ko urtea

- 2008ko urtarrilaren 11koa, 653/2006
- 2008ko apirilaren 30ekoa, 720/2007 errekurtsua
- 2008ko maiatzaren 5ekoa, 987/2007 errekurtsua
- 2008ko ekainaren 10ekoa, 145/2007 errekurtsua
- 2008ko ekainaren 25ekoa, 29/2008 errekurtsua
- 2008ko uztailaren 21ekoa, 679/2006 errekurtsua
- 2008ko irailaren 1koa, 35/2008 errekurtsua
- 2008ko irailaren 17koa, 1045/2006 errekurtsua
- 2008ko irailaren 17koa, 54/2008 errekurtsua
- 2008ko urriaren 8koa, 100/2008 errekurtsua

- 2008ko urriaren 17koa, 718/2007 errekurtoa
- 2008ko urriaren 22koa, 1388/2007 errekurtoa
- 2008ko urriaren 27koa, 1580/2007 errekurtoa
- 2008ko azaroaren 7koa, 1563/2007 errekurtoa
- 2008ko azaroaren 19koa, 134/2008 errekurtoa
- 2008ko abenduaren 10ekoa, 1592/2007 errekurtoa
- 2008ko abenduaren 19koa, 1399/2007 errekurtoa
- 2008ko abenduaren 19koa, 1438/2007 errekurtoa
- 2008ko abenduaren 19koa, 672/2006 errekurtoa

2009ko urtea

- 2009ko urtarrilaren 13koa, 1528/2007 errekurtoa
- 2009ko urtarrilaren 14koa, 198/2008 errekurtoa
- 2009ko urtarrilaren 14koa, 331/2008 errekurtoa
- 2009ko urtarrilaren 21ekoa, 1465/2007 errekurtoa
- 2009ko otsailaren 11koa, 379/2008 errekurtoa
- 2009ko otsailaren 25ekoa, 1350/2007 errekurtoa
- 2009ko otsailaren 25ekoa, 40/2009 errekurtoa
- 2009eko martxoaren 11koa, 100/2009 errekurtoa
- 2009eko martxoaren 11koa, 693/2008 errekurtoa
- 2009eko martxoaren 25ekoa, 1131/2008 errekurtoa
- 2009eko apirilaren 1koa, 149/2009 errekurtoa

Auzitegi Gorenaren epaiak – Administrazio Auzibideetarako Hirugarren Sala

2005eko urtea

- 2005eko urtarrilaren 26koa, 3039/2001 errekurtoa
- 2005eko apirilaren 06koa, 6266/2001 errekurtoa
- 2005eko apirilaren 12koa, 5085/2001 errekurtoa
- 2005eko apirilaren 12koa, 5799/2001 errekurtoa
- 2005eko apirilaren 29koa, 830/2002 errekurtoa
- 2005eko maiatzaren 31koa, 1836/2002 errekurtoa
- 2005eko ekainaren 23koa, 2469/2002 errekurtoa
- 2005eko ekainaren 23koa, 7273/2001 errekurtoa
- 2005eko uztailaren 07koa, 2107/2002 errekurtoa
- 2005eko irailaren 9koa, 3428/2002 errekurtoa
- 2005eko urriaren 11koa, 4178/2002 errekurtoa
- 2005eko azaroaren 10ekoa, 3930/2002 errekurtoa
- 2005eko azaroaren 30ekoa, 6006/2002 errekurtoa
- 2005eko abenduaren 22koa, 6889/2002 errekurtoa

2006ko urtea

- 2006ko otsailaren 28koa, 735/2003 errekurtoa
- 2006ko martxoaren 30ekoa, 2037/2003 errekurtoa

- 2006ko apirilaren 21ekoa, 2457/2003 errekurtsua
- 2006ko apirilaren 21ekoa, 2851/2003 errekurtsua
- 2006ko maiatzaren 19koa, 3729/2003 errekurtsua
- 2006eko ekainaren 23koa, 4881/2003 errekurtsua
- 2006eko ekainaren 30ekoa, 5097/2003 errekurtsua
- 2006ko irailaren 15ekoa, 6627/2003 errekurtsua
- 2006ko irailaren 29koa, 4511/2003 errekurtsua
- 2006ko urriaren 6koa, 6597/2003 errekurtsua
- 2006ko abenduaren 14koa, 8638/2003 errekurtsua
- 2006ko abenduaren 22koa, 9012/2003 errekurtsua

2007ko urtea


- 2007ko urtarrilaren 18koa, 9138/2003 errekurtsua
- 2007ko otsailaren 15ekoa, 9300/2003 errekurtsua
- 2007ko uztailaren 25ekoa, 1447/2004 errekurtsua
- 2007ko urriaren 4koa, 1981/2004 errekurtsua
- 2007ko abenduaren 13koa, 4529/2004 errekurtsua

2008ko urtea

- 2008ko urtarrilaren 09koa, 592/2004 errekurtsua
- 2008ko uztailaren 04koa, 2005/2005 errekurtsua
- 2008ko uztailaren 18koa, 2308/2005 errekurtsua
- 2008ko azaroaren 28koa, 5265/2005 errekurtsua
- 2008ko abenduaren 19koa, 6806/2005 errekurtsua

2009ko urtea

- 2009ko maiatzaren 11koa, 3155/2006 errekurtsua



Eranskinak

1. eranskina:

Emakumeen eta LGBT taldeko pertsonen giza eskubideak babesteko tresnak

Aurkibidea:

1. Emakumeen eta LGBT taldeko pertsonen giza eskubideak babesteko tresna espezifikoak:
 - 1.1. Nazioartean
 - Adierazpenak
 - Hitzarmenak
 - Beste ekimen batzuk
 - 1.2. Europan
2. Asilo-eskubidea:
 - 2.1. Nazioartean
 - 2.2. Europan
3. Beste tresna batzuk:
 - 3.1. Nazioartean
 - Adierazpenak
 - Hitzarmenak
 - Itunak
 - Beste ekimen batzuk
 - 3.2. Europan

1. Emakumeen eta LGBT taldeko pertsonen giza eskubideak babesteko tresna espezifikoak

1.1. Nazioartean

Adierazpenak

- Emakumeen aurkako Diskriminazioa Deuseztatzeari buruzko Nazio Batuen Adierazpena, 1967
 - Batzar Nagusiak 1967ko azaroaren 7ko 2263 (XXII) ebazpenaren bidez aldarrikatua.
- Emakumeen aurkako Diskriminazioa Deuseztatzeari buruzko Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Adierazpena, 1993
 - Emakumearen aurkako indarkeria berariaz aztertu zuen giza eskubideen arloko nazioarteko lehen tresna.
 - *Emakumearen aurkako indarkeria* terminoa nola ulertu behar den ezarri zen (1. 1): art.): sexu femeninokoa izatean oinarritutako indarkeria-ekintza oro, emakumearen oinaze edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten duena edo eragin dezakeena, edota halako ekintzak egitearekin mehatxatzea, hertsatzea zein arbitrarioki askatasuna kentzea, bai bizitza publikoan, bai pribatuan.

- 2. artikulua: artikulua horretan, indarkeria-ekintza horietako batzuk aipatu ziren; edonola ere, ez da zerrenda hertsia:
 - a) Familian gertatzen den indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa - esaterako, tratu txarrak, emakumezko haurren aurkako sexu-gehiegikeriak etxean, ezkonsariarekin lotutako indarkeria, senarrak eragindako bortxaketa, emakumeen genitalen mutilazioa eta emakumea kaltetzen duten beste praktika tradizional batzuk-, familiako beste kide batzuek eragindako indarkeria-ekintzak eta esplotazioarekin lotutako indarkeria.
 - b) Komunitatean oro har gertatzen den indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa: esate baterako, bortxaketa, sexu-gehiegikeriak, laneko, hezkuntza-erakundeetako edo beste leku batzuetako sexu-jazarpena eta beldurraztea, emakumeen salerosketa eta behar-tutako prostituzioa.
 - c) Nonahi gertatutako eta estatuak gauzatutako edo toleratutako indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa.
- **Emakumeari buruzko Munduko Laugarren Konferentziako Adierazpena eta Ekintza Plataforma, Beijing, 1995**
 - Aurrerapena ekarri zuen emakumeen giza eskubideen onarpen-prozesuan.
 - Xehetasunez deskribatu ziren genero-desberdintasunarekin lotutako arazo garrantzitsuenak eta emakumeen menderakuntzaren kausak, eta berdintasuna lortzeko helburuak eta neurriak finkatu ziren.
 - Atal berezi batean, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako arazo guztiak aztertu ziren: indarkeriaren definizio argia eta osoa egin zen, bai eremu pribatuko zein publikoko indarkeria kontuan hartuta, eta estatuak erantzukizuna zutela ezarri zen, bai indarkeria hori gauzatzeari, bai toleratzeagatik (113. paragrafoa).
 - Lehen aldiz, homosexualitatea aipatu zen, eta sexu-joera babestu beharrezko kategoria zela ezarri zen: "Emakumearen giza eskubidea da, besteak beste, bere sexualitatearekin lotutako gaietan kontrola izateko eskubidea; horrek barnean hartzen ditu sexu- eta ugaltze-osasunerako eskubidea, eta gai horietan erabakitzearen eskubidea, hertsatzerik, diskriminaziorik eta indarkeriarik pairatu gabe". Horrenbestez, lesbianen eskubideak ere errebendika daitezke, diskriminaziorik gabeko tratua jasotzeko eskubidearen barnean.
 - Emakumeen giza eskubideak aintzatesteko eta babesteko prozesu horrek aurrera egitea oztopatzeko, hainbat argudio baliatu dira: adibidez, kultura-aniztasunari eutsi beharra, norberaren identitatearekiko begirunea eta nazio-subiranotasunerako eskubidea. Beijingeko Konferentzian, halako jarrera hartu zuten Latinoamerikako herrialde batzuek, islamiar fundamentalistek eta Eliza katolikoak.
- **LGBT Taldeko Pertsonen Eskubideak Babesteko Nazio Batuen Adierazpena, 2008**
 - 2008ko abenduaren 18an aurkeztu zen NBERen Batzar Nagusian, eta kontinente guztietako 66 herrialdek babestu zuten. Besteak beste, alderdi hauek berretsi ziren:
 - Ez Diskriminatze Printzipioa gizaki guztiei aplikatu beharrezkoa da, bakoitzaren sexu-joera eta genero-identitatea zeinahi izanik ere.
 - LGBT taldeko pertsonen giza eskubideen urraketak salatu ziren.

- Sexu bereko pertsona helduen arteko adostutako harremanak despenalizatzeko eskatu zitzaizen estatu guztiei.
- Besteak beste, Ez Diskriminatze Printzipioa berretsi zuten, eta haren helburua zehaztu: "giza eskubideen berdintasunezko aplikazioa bermatzea, banakoaren sexu-joera edo genero-identitatea zeinahi izanik ere". Gainera, kezka azaldu zuten, "banakoen sexu-joerarekin edo genero-identitatearekin lotutako arrazoiengatik gertatzen diren giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketengatik", bai eta "sexu-joera edo genero-identitatea dela-eta mundu osoko pertsonak pairatzen duten indarkeriagatik, jazarpenagatik, diskriminazioagatik, bazterketagatik, aurreiritziengatik eta estigmatizazioagatik" ere, eta halako praktikak "gehiegikeria horiek pairatzen dituzten pertsonak gizarteratzeko eta haien duintasuna bermatzeko oztopo" direla adierazi zuten. Horrez gain, estatuei eskatu zitzaizen "ziurtatzeko sexu-joerarekin edo genero-identitatearekin lotutako giza eskubideen urraketak ikertuko direla eta erantzuleak epaituko direla".

Hitzarmenak

- Emakumeen aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Deuseztatzeko Hitzarmena (CEDAW), 1979
 - Lehenengoz, *emakumeen aurkako diskriminazioa* terminoa definitu zen (1. 1): art.): sexua oinarri duen bereizketa, bazterketa eta murrizketa oro, helburu duena emakumeen giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen aintzatespena gutxieste edo deuseztatzea, bai eta emakumeek, gizonetik berdintasunezko egoeran, eskubide horiek politika-, ekonomia-, gizarte- eta kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan erabiltzeko aukeraren aintzatespena ere, beren egoera zibila zeinahi izanik ere.
 - 5. a) artikulua: Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte, helburu hauetarako: gizonezkoen nahiz emakumezkoen jokabide-eredu soziokulturalak aldatzea, sexueta baten gutxiagotasunean edo nagusitasunean edota gizon eta emakumeen funtzio estereotipuetan oinarritutako aurreiritziak, ohiturazko praktikak edo beste edozein motatakoak amaiazteko.

Beste ekimen batzuk

- CEDAWren Protokolo Fakultatiboa , 1999.
 - 1999ko abenduan onartu zen Nazio Batuen Batzarrean, aho batez. 2000. urteko abenduaren 22an jarri zen indarrean, berronetsi zuten estatu guztietan. Ordutik, 75 herrialdek baino gehiagok berronetsi dute.
 - CEDAWren Protokolo Fakultatiboa mekanismo juridiko bat da, baina ez ditu eskubideak sortzen. Bi prozedura ezartzen ditu, emakumeek aukera izan dezaten kexak azaltzeko –edo jakinarazpenak, Protokoloan aipatzen den bezala- eta ikerketak eskatzeko, CEDAWen ezarritako eskubideen urraketak gertatzen direnean.
 - Protokoloa, beraz, nazioarteko baliabide garrantzitsua da, bide ematen baitu banakoen eskubideen urraketak jakinarazpenen bidez ordainak ezartzeko. Kasu estrategikoak aurkez daitezke, ez soilik emakume kaltetuarentzako edo kaltetuentzako ordaina eskatzeko; gainera, estatuei emakumeen aurkako diskriminazio mota oro amaiazteko betebeharra betearazteko, nonahi gertatuta ere.

- **Emakumeen genitalen mutilazioa tortura eta tratu krudel eta umiliagarria dela adierazi zuten**
 - Hala adierazi zuten, besteak beste, erakunde hauek: Europako Kontseiluko Parlamentarien Batzarra, ACNUR, MOE, UNICEF, UNIFEM, UNESCO, Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Bulegoa, Garapenerako Nazio Batuen Programa eta Afrikarako Nazio Batuen Ekonomia Batzordea.
- **Sexu-joerarekin eta Genero-identitatearekin lotutako Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren Aplikazioari buruzko Yogyakarta Printzipioak¹⁵⁵, 2006**
 - Europako Parlamentuak (EP), Europako Kontseiluak (EK) eta Amerikako Estatuaren Erakundeak (OAS) printzipio horiek babesten dituzten ebazpenak onartu zituzten.
 - 4. printzipioa (bizitzeko eskubidea):
 - Pertsona orok bizitzeko eskubidea duela ezartzen du. Ezein pertsonari ezin izango zaio arbitrarioki bizitza kendu ezein arrazoiengatik; horrek barnean hartzen ditu sexu-joerarekin edo genero-identitatearekin lotutako arrazoiak.
 - Estatuak eskatu zitzaizkien geldiarazteko sexu-joerarekin edo genero-identitatearekin lotutako arrazoiengatik pertsonen bizitzaren aurka gertatzen diren estatuak babestutako edo toleratutako eraso guztiak, eta ziurtatzeko, halako erasoak gertatzen direnean, bai funtzionario publikoen eskutik, bai edozein banako edo talderen eskutik, gertaera horiek zorrotzasunez ikertuko direla eta, frogak aurkituz gero, erantzuleak jazarri eta epaituko direla eta dagokien zigorra ezarriko zaiela.
 - 5. printzipioa (norberaren segurtasunerako eskubidea):
 - Adierazten du pertsona orok duela, bere sexu-joera edo genero-identitatea zeinahi izanik ere, norberaren segurtasunerako eskubidea eta estatuaren babesa izateko eskubidea, funtzionario publikoek edo edozein banako, talde edo erakunde eragindako norberaren osotasunaren aurkako indarkeriazko ekintzak edo erasoak pairatzen dituenean.
 - Estatuak esku-hartze hauek egitea eskatu zitzaizkien:
 - a) polizia-neurriak eta beharrezko gainerako neurriak hartzea, sexu-joerarekin eta genero-identitatearekin lotutako arrazoiengatik gertatzen diren indarkeria eta jazarpen mota guztiei aurrea hartzeko, eta erasoak pairatzen dituztenak babesteko.
 - b) beharrezko lege-neurriak hartzea, pertsona baten zein talde baten sexu-joerarekin edo genero-identitatearekin lotutako arrazoiengatik indarkeriazko ekintzak egiten dituztenei zigor penalak ezartzeko, bai eta indarkeria erabiltzearekin mehatxu egiten dutenei eta jazartzera edo indarkeria erabiltzera bultzatzen dutenei ere, bizitzeko esparru guztietan, familia barne.
 - c) lege- eta administrazio-neurriak eta beharrezko gainerako neurriak hartzea, biktimaren sexu-joera edo genero-identitatea ez dadin erabili indarkeria hori justifikatzeko edo zuzitzeko, edota halako ekintzei garrantzia kentzeko.
 - d) halako indarkeriazko ekintzak zorrotzasunez ikertuko direla ziurtatzea, bai eta, frogak aurkituz gero, erantzuleak jazarri eta epaituko direla eta dagokien zigorra ezarriko

¹⁵⁵ Testuak oinarritzko erreferentzia-eredu batzuk ezartzen ditu, Nazio Batuek nahiz estatuak LGBT taldeko pertsonen giza eskubideen babesa bermatzeko aurrerapenak egin dituzten. 2006. urtean, 54 estatuak lesbianen, gayen, bisexualen eta pertsona transgeneroen giza eskubideen urraketa larriak salatzen zituzten; egoera horri erantzuteko landu zuten aipatutako testua.

zaiela ere, eta biktimari baliabideak eta ordainak emango zaizkiola, kalte-ordainak barne.

- e) sentsibilizazio-kanpainak abiatzea, bai publikoari oro har bai indarkeria erabiltzen du-
tenei eta erabil lezaketenei zuzenduta, sexu-joerarekin edo genero-identitatearekin
lotutako arrazoiengatiko indarkeriaren atzean dauden aurreiritziak gainditzeko.

1.2. Europan

- Kontseiluaren 2000ko abenduko 2000/74/EE zuzentaraua, laneko tratu-berdintasunari buruzkoa
 - Besteak beste, berariaz debekatzen du sexu-joeragatiko eta genero-identitateagatiko dis-
kriminazioa.
- Europako Parlamentua
 - 2001/2035(INI) ebazpenean, emakumeen genitalen mutilazioa salatu zuen, eta oina-
rriko eskubideen oso urraketa larritzat jo zuen, kultura- zein erlijio-tradizioekiko edo
bestelakoekiko begiruneak justifikatzen ez duena, ezta hastapen-erritualen testuingu-
ruan gertatzeak ere; gainera, halako praktikak medikalizatzearen aurka egin zuen.
 - 2006ko otsailaren 6an onartutako Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borro-
karen egungo egoerari eta aurrera begira bideratu beharreko ekintzei buruzko ebaz-
penean (2004/2220(INI)).
 - Herrialde kideei eskatu zitzairen emakumeen genitalen mutilazioa indarkeriazko legez
kanpoko ekintzatzat tipifikatzeko, eta ez onartzeko kultura-praktikekin duen lotura zir-
kuntantzia aringarritzat.
 - Eskatu zitzairen aplikatzeko arlo horretarako lege-xedapen espezifikoak eta auzipetzeko
hura praktikatzan duten pertsona guztiak.
 - Azkenik, Europako Parlamentuaren 2009ko martxoaren 24ko ebazpenean, EBn prakti-
katzen den emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako borrokari buruzkoan, hau
dago jasota:
 - Emakumeen genitalen mutilazioa giza eskubideen urraketa dela; eta kontuan hartzen
da alabei genitalak moztea onartzen ez duten gurasoek, jatorrizko herrialdean pairatzen
dituzten mehatxuak direla eta, asilo-eskubidea eskatzeko aukera izan beharko luketela.

2. Asilo-eskubidea

2.1. Nazioartean

- Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmena, 1951
 - Pertsona errefuxiatuak babesteko nazioarteko oinarriko testua, 1967ko New Yorkeko
Protokoloarekin batera.
 - Hauek dira hitzarmen horretako bi ekarpen nagusiak:
 - Pertsona errefuxiatuaren definizioa: "arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gi-
zarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarpina pairatzeko bel-
dur izateko arrazoiak dituen pertsona oro, bere nazionalitateari dagokion herrialdetik

kanpo dagoena edo nazionalitaterik ez duena, eta beldur hori dela eta, ohiko bizileku izan duen herrialdera ezin itzul daitekeena edo itzuli nahi ez duena”.

- Ez itzularazteko printzipioa, 33. artikuluan jaso: printzipio hori beti aplikatu beharrekoa da estatuak neurri jakin bat hartzeko asmoa duenean asilo-eskatzaila edo errefuxiatua herrialde jakin batera itzularazteko, eta horrek berekin dakarrenean pertsona horren bizitza edo askatasuna arriskuan egotea, edota pertsona horrek jazarpena pairatzeko arriskua izatea; horrek barnean hartzen du mugara iristean pertsona hori atxilotzeko edo baztertzeko arriskua, edota zeharka itzularaztearen arriskua.
- **Emakume Errefuxiatuei eta Nazioarteko Babesari buruzko Lehen Konklusioa, 39. Konklusioa, 1985**
 - ACNUReko Batzorde Betearazleak onartu zuen 1985ean. Haren bidez, onartu zen “estatuak, beren subiranotasuna erabiltzean, askatasuna dutela interpretazio hau egiteko: asiloa eskatzen duten emakumeak, bizileku zuten gizarteko gizarte-ohituren aurka egiteagatik tratatu krudelak eta ankerrak pairatzeko arriskua dutenak, gizarte-talde jakin bat bezala har daitezkeela, 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmeneko 1. artikulua A sekzioko 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera”.
- **Nazioarteko Babesari buruzko Artezpideak: genero-arrazoiengatikoz jazarpena, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Hitzarmenaren 1A(2) artikulua edo/eta haren 1967ko Protokoloaren testuingurua, 2002**
 - ACNURek argitaratu zituen, 2002ko maiatzean, eta hau ezarri zuten: “genero-arrazoiengatikoz asilo-eskaerak barnean hartzen dituztela, oro har, sexu-indarkeriazko ekintzak, etxeko eta familiako indarkeria, behartutako familia-plangintza, emakumeen genitalen mutilazioa, balio eta ohitura moralak hausteagatik ezarritako zigorrak eta homosexualen aurkako diskriminazioa”.
 - Indarkeria mota horiek guztiak jazarpen gisa definitu zituzten.
 - Gizarte-talde jakin bateko kide izatea zer den definitu zuten: “Jazarpena pairatzea ez den beste ezaugarri bat berdina duen pertsona taldea, gizarteak talde gisa hautematen duena. Askotan, ezaugarri hori jaiotzetikoa edo aldagaitza izaten da, edota funtsezkoa identitaterako, kontzientziarako eta norberaren giza eskubideak erabiltzeko. Beraz, *gizarte-talde* kategorian sar daiteke. Izan ere, agerikoa da emakumeek gizarteko azpitalde bat osatzen dutela, talde horrek jaiotzetik ezaugarriak eta ezaugarri aldagaitzak dituela, eta eskuarki gizonek ez bezalako tratua jasotzen duela. Ezaugarri horiek direla eta, gizarteak talde gisa identifikatzen ditu, eta herrialde batzuetan, desberdintasunezko tratua eta arauen mende jartzten ditu”.

2.2. Europa

- **Europako Kontseiluaren Tampereko bilkura, 1999**
 - Bilkura horretan, Europar Batasuneko kide diren estatuak konpromisoa hartu zuten Europarako asilo-erregimen bateratua ezartzeko, 1951ko uztailaren 28ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmenaren eta haren 1967ko urtarrilaren 31ko New Yorkeko Protokoloaren aplikazioa oinarri hartuta.

Asilo-erregimen bateratua garatzeko, Europar Batasuneko Kontseiluak zuzentarau hauek ezarri zituen:

- 2003ko urtarrilaren 27ko 2003/9/EE zuzentaraua, estatu kideetan asilo-eskatzailak hartzeko gutxienerako arauak ezartzen dituenak
- 2004ko apirilaren 29ko 2004/83/EE zuzentaraua, alderdi hauei buruzko gutxienerako arauak ezartzen dituenak: beste herrialde batzuetako naziotasuna duten pertsonen edo aberrigabeen errefuxiatu-izaeraren onarpena eta estatutua, bai eta bestelako nazioarteko babesaren behar duten pertsonena ere, eta emandako babesaren edukia
 - 4. artikuluko 3.c atalean ezartzen da nazioarteko babesaren izateko eskaeren balorazioan kontuan hartu behar direla eskatzailearen banako baldintzak; besteak beste, sexua. Horrez gain, adierazten da jazarpen mota berariaz emakumeen aurkakoa denean, kontuan hartu behar dela jazarpen hori sexuarekin lotutako arrazoiengatik gauza litekeela, sexu-indarkeriaren bidez edota beste bitarteko espezifiko batzuen bidez.
 - 9. artikuluan, jazarpen-ekintzei buruzkoan, 2. atala azpimarra daiteke; bereziki emakumeen aurka gauzatzen diren jazarpen motak aipatzen dira: adibidez, sexu-indarkeria, eta lege-, administrazio- eta polizia-neurri zein neurri judizial diskriminatzaileak edota modu diskriminatzailean aplikatzen direnak.
 - 10. artikuluan, jazarpenaren arrazoiei buruzkoan, modu esplizituan adierazten da "herrialde jakin bateko egoeraren arabera, *gizarte-talde* kontzeptuaren barnean sar litezkeela sexu-joerarekin lotutako ezaugarriren bat berdina duten taldeak", eta "kontuan har litezkeela pertsonaren sexuarekin lotutako alderdiak".
- 2005eko abenduaren 1eko 2005/85/EE zuzentaraua, errefuxiatu-izaera onartzeko edo baztertzeko estatu kideek aplikatu beharreko prozedurei buruzko gutxienerako arauak ezartzen dituenak
- Europako Parlamentuaren ebazpenak
 - Parlamentuaren ebazpenak legez lotesleak ez badira ere, Europar Batasuneko organo legegilearen iritzia dira, eta beraz, lotesleak dira moralaren ikuspegitik.
 - 1984an, Europako Parlamentuak eskaera hau egin zion estatuei: erlijio- edo gizarte-ohiturak hausten zituzten emakumeak "gizarte-talde berezitat" hartzeko, pertsona errefuxiatuaren estatutua zehaztean.
 - 1996ko azaroan, Parlamentuak eskaera bat egin zion Batasuneko estatu kideei, asiloa eskatzen duten emakumei buruzko artezpideak betetzeko, ACNURen Batzorde Betearazleak ezarritakoarekin bat.
 - 1998an, Europako Kontseiluko Parlamentarien Batzarrak eskatu zion estatu kideei finkatzeko lehenbailehen asiloa eskatzen duten emakumei buruzko irizpideak eta artezpideak (1374 gomendioa, 6 j paragrafoa).
 - 2003ko azaroan, Europako Parlamentuak, emakumeen eskubideen urraketari eta Europar Batasuneko nazioarteko harremanei buruzko ebazpenean, estatu kideei eskatu zion asilo-eskaerak aztertzean eta pertsona errefuxiatuaren estatutua onartzean, kontuan hartzeko emakumeak emakume izateagatik paira dezakeen jazarpena edo jazarpena pairatzeko izan dezakeen beldurra.
 - Parlamentuak, 2004ko urtarrilaren 15ean Immigrazio, Integrazio eta Enplegu Batzordeak adostutako jakinarazpenari buruzko ebazpenean, estatu kideei eskatu zion kontuan hartzeko, asilo-eskaerak aztertzean eta pertsona errefuxiatuaren estatutua onartzean, ema-

kumeak emakume izateagatik pairatzen duen jazarpena edo jazarpena pairatzeko izan dezakeen beldurra.

3. Beste tresna batzuk

3.1. Nazioartean

Adierazpenak

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948
 - 2. artikulua: Pertsona orok ditu adierazpen honetan aldarrikatutako eskubide eta askatasun guziak, inolako bereizketarik egin gabe arrazagatik, koloreagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, iritzi politikoengatik edo bestelako iritziengatik, nazio- edo gizarte-jatorriagatik, ekonomia-egoeragatik, jaiotzagatik edo beste edozein arrazoiengatik.
 - 3. artikulua: Pertsona orok du bizitzeko eskubidea eta askatasunerako nahiz norberaren segurtasunerako eskubidea.
 - 5. artikulua: Ez zaio inori torturarik eragingo, ezta zigor edo tratu krudelik, ankerrik edo umiliagarrikerik ere.
- Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren Adierazpena eta Ekintza Programa, Kairo, 1994
 - IV. kapitulua, sexuen arteko berdintasuna eta parekotasuna eta emakumearen gaitzuntasuna. B) Emakumezko haurra: hauek dira helburuak: emakumezko haurren aurkako diskriminazio mota oro amaiaraztea, bai eta gizonezkoarekiko zaletasun handiagoaren oinarritzeko kausak ere, eta kontzientzia publikoan emakumezko haurrekiko begirunea areagotzea eta haien autoestimua sendotzea. (...) Gobernuak emakumezko haurren eta gazteen behar bereziei egokitutako ikuspegi integratua landu beharko lukete, osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-beharren arloetan, eta ezkontzak ezkongaien askatasunez hala erabakita soilik izan daitezkeen bermatzeko legeak zorrotasunez betearazi beharko lituzkete. Gobernuak eskatzen zaie debekatzeko emakumeen genitalen mutilazioa, eta hartzeko beharrezko neurriak haur-hilketarik ez gertatzeko, jaiotze aurretik sexuaren arabera hautaketarik ez egiteko, emakumezko haurren salerosketa geldiarazteko eta haur horiek prostituziorako eta pornografiarako ez erabiltzeko.
 - VII. kapitulua, ugaltze-eskubideak eta ugaltze-osasuna. D) Giza sexualitatea eta sexuen arteko harremanak: helburuak bi dira: Sexualitate arduratsuen garapen egokia sustatzea, bide eman dezaten bi sexuen arteko berdintasunezko eta begirunezko harremanak ezartzeko, eta gizonek zein emakumeek informazioa, hezkuntza eta beharrezko zerbitzuak izan ditzaten arduratzea, ugalketarekin lotutako gaietan sexu-osasun egokia izan dezaten, bai eta beren eskubideak erabiltzeko eta erantzukizunak beren gain hartzeko aukera izan dezaten ere. (...) Gobernu eta komunitateei gomendatzen zaie hartzeko berehala beharrezko neurriak emakumeen genitalen mutilazioa amaiarazteko, eta babesteko emakumeak eta emakumezko haurrak beharrezkoak ez diren halako praktika arriskuetsuetatik.
- Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzian onartutako Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa, 1993
 - 18. paragrafoa: Lehenengoz aldarrikatu zen emakumeen eta emakumezko haurren eskubideak giza eskubide unibertsalen parte besterenezina eta bananezina direla. Horrez gain,

onartu zen emakumearen aurkako edozein motatako indarkeria, sexu-jazarpena eta esplotazioa, kultura-aurreiritzien eta pertsonen nazioarteko salerosketaren ondorio dena barne, bateraezina dela gizakiaren duintasunarekin, eta amaiarazi egin behar dela. Gatazka armatuetan gertatzen diren giza eskubideen urraketak giza eskubideen oinarriko printzipioen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketak direla adierazi zuten. Nolanahi ere, ez zen kontuan hartu gizadiaren aurkako krimenez jotzeko eta zigortzeko eskaera.

Hitzarmenak

- Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Anker eta Umiliagarrien aurkako Nazio Batuen Hitzarmena, 1984
 - 1.1.artikulan, *tortura* kontzeptua definitzen da.
 - Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmenean (GEEH) bezala, hau jaso zen: ezin izango dela inoiz kanporatu tortura edota tratu krudela edo umiliagarria pairatzeko arriskua duen pertsonarik.
- Haurren Eskubideen Hitzarmena, 1989
 - 2.1. artikulua: Estatu kideek hitzarmen honetan aipatutako eskubideak errespetatuko dituzte, eta ziurtatuko dute beren jurisdikziopeko haur guztiei aplikatuko zaizkiela, inolako bereizketarik egin gabe haurren, haren gurasoen edo legezko ordezkarien arrazagatik, koloreagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, iritzi politikoengatik edo bestelako iritziengatik, nazio-, etnia- edo gizarte-jatorriagatik, ekonomia-egoeragatik, urritasun fisikoengatik, jaiotzagatik edo beste edozein arrazoiengatik.
 - 19.1. artikulua: Estatu kideek lege-, administrazio-, gizarte- eta hezkuntza-neurri egokiak hartuko dituzte haurra babesteko, ez dezan inolako kalterik edo gehiegikeria fisikorik zein psikikorik pairatu, ezta zaintza-gabeziarik edo tratu axolagaberik, tratu txarrak edo esplotaziorik ere, sexu-gehegikeriak barne, haurra gurasoen, legezko ordezkari baten edo beste edozein pertsonaren zaintzapean dagoenean.
 - 24.3. artikulua: Estatu kideek neurri eraginkorrak eta egokiak hartuko dituzte haurren osasunerako kaltegarriak diren praktika tradizionalak deuseztatzeko.
 - 39. artikulua: Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte haurren osatze fisikoa nahiz psikologikoa eta gizarteratzea sustatzeko, egoera hauetakoren bat pairatu duenean: edozein motatako abandonatzea, esplotazioa edo gehiegikeria; tortura edota bestelako tratu edo zigor krudelak, ankerrak edo umiliagarriak; edo gatazka armatuak.

Itunak

- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1966
 - Eskubide zibil, politiko eta sozioekonomikoen arloan emakumearen eskubideak aldarrikatzea mugimendu feministaren beste estrategia bat izan da, emakumeak giza eskubideen testuinguruan aintzatesteko¹⁵⁶.
 - 2. artikulua:

¹⁵⁶ Maquieira, Virginia (arg.) (2006).

1. Itun hau sinatu duten estatu kideek konpromisoa hartzen dute bertan onartutako eskubideak errespetatzeko eta beren lurraldeko eta jurisdikziopeko banako guztiei eskubide horiek bermatzeko, inolako bereizketarik egin gabe arrazagatik, koloreagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, iritzi politikoengatik edo bestelako iritziengatik, nazio- edo gizarte-jatorriagatik, ekonomia-egoeragatik, jaiotzagatik edo beste edozein gizarte-arrazoiengatik.
 - 3. artikulua: Itun hau sinatu duten estatu kideek konpromisoa hartzen dute gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko, itun honetan aipatutako eskubide zibil eta politiko guztiak erabiltzeko aukeran.
 - 7. artikulua: Ez zaio inori torturarik eragingo, ezta zigor edo tratu krudelik, ankerrik edo umiliagarrikerik ere.
 - 26. artikulua: Pertsona guztiak berdinak dira legearen ikuspegitik eta legearen babesa izateko eskubidea dute, inolako diskriminaziorik gabe. Arlo horretan, legeak diskriminazio oro debekatuko du eta bermatuko du pertsona guztiek babes berdina eta eraginkorra izango dutela diskriminazioa pairatzen dutenean arrazagatik, koloreagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, iritzi politikoengatik edo bestelako iritziengatik, nazio- edo gizarte-jatorriagatik, ekonomia-egoeragatik, jaiotzagatik edo beste edozein gizarte-arrazoiengatik.
- **Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-Eskubideen Nazioarteko Ituna, 1966**
 - 2.1. artikulua: Itun hau sinatu duten estatu kideek konpromisoa hartzen dute eskura ditzuten baliabide guztiak erabiliz beharrezko neurriak hartzeko, batez ere neurri ekonomikoak eta teknikoak, bai beren kabuz bai nazioarteko laguntzaren eta lankidetzaren bidez, pixkana lege-neurriak ezartzeko, itun honetan onartutako eskubideak askatasunez erabiltzea lortzeko.
 - 2.2. artikulua: Itun hau sinatu duten estatu kideek konpromisoa hartzen dute bertan onartutako eskubideak erabiltzeko aukera bermatzeko, inolako diskriminaziorik egin gabe arrazagatik, koloreagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, iritzi politikoengatik edo bestelako iritziengatik, nazio- edo gizarte-jatorriagatik, ekonomia-egoeragatik, jaiotzagatik edo beste edozein gizarte-arrazoiengatik.
 - 3. artikulua: Itun hau sinatu duten estatu kideek konpromisoa hartzen dute gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ziurtatzeko, itun honetan aipatutako ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideak erabiltzeko aukeran.

Beste ekimen batzuk

- **Exekuzio arbitrarioei, sumarioei eta judizioz kanpokoei buruzko ebazpena, 2004**
 - NBEren Giza Eskubideen Batzordeak onartu zuen, 60. bilkuran. Sexu-joera aipatzen da, babesa eskatu ahal izateko kausatzat.

3.2. European

- **Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutua, 2000**
 - Estatutu horretan, genero-arrazoiengatik delituei buruzko xedapen espezifikoak jaso ziren. Adierazi zen bortxaketa, sexu-esklabotza, behartutako prostituzioa, haurdunaldia eta esterilizazioa, eta beste sexu-indarkeria mota batzuk gerra-krimenak direla gatazka ar-

matuen testuinguruan gertatzen direnean, eta gizadiaren aurkako krimenak direla beste egoera jakin batzuetan.

- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, 1950
 - Hitzarmen horretako 3. artikuluan, edozein gizakiri torturak edota zigor nahiz tratu kru-
delak edo umiliagarriak eragitea debekatzen da.
 - 1984ko Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Anker eta Umiliagarrien aurkako
Hitzarmenean bezala, jasotzen da ezin dela inoiz kanporatu tortura edo tratu krudela edo
umiliagarria pairatzeko arriskua duen pertsonarik. Artikulu horren interpretazio zabala
egiteak bide eman du Europako Hitzarmena helburu honetarako erabiltzeko: jatorrizko
herrialdean torturak (giza eskubideen urraketak eta gehiegikeriak) pairatzeko arriskua du-
ten pertsonak babestea, itzularaz ez ditzaten.
 - Hitzarmen horrek zenbait protokolo ditu. 12. protokoloaren 1. artikuluan, arrazoi hauek
jaso ziren, besteak beste, diskriminazioaren definizioan: sexua, arraza, kolorea, hizkuntza,
erlijioa, iritzi politikoa, eta gizarte- edo nazio-jatorria.
- Amsterdamgo Ituna, 1997
 - Itun horren bidez, sorrerako itunak aldatu ziren: Europar Batasuneko Hitzarmenaren 13.
artikuluan, espezifikoki jaso zen sexu-joeragatiko diskriminazioaren aurkako borroka.
- Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Europako Gutuna, 2003an Nizan aldarrikatua, 2003
 - 21. artikuluan, berariaz jasotzen da sexu-joeragatiko diskriminazioaren debekua.
- Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 2004/83/EE/ zuzentaraua
 - Alderdi hauei buruzko gutxieneko arauak ezartzen ditu: beste herrialde batzuetako nazio-
tasuna duten pertsonen edo aberrigabeen errefuxiatu-izaeraren onarpena eta estatutua,
bai eta bestelako nazioarteko babesaren behar duten pertsonena ere, eta emandako babesar-
ren edukia.
 - 6. artikulua: onartzen du jazarpenaren eragilea estatuz kanpoko eragilea izan daitekeela,
"estatuak edo estatua edo haren zati bat kontrolatzen duten nazioarteko alderdi eta era-
kondeek babesaren eman ezin dutenean edo nahi ez dutenean".
 - 9. artikulua: jazarpen-ekintzat onartzen ditu indarkeria fisikoa edo psikikoa eragiten
duten ekintzak, sexu-indarkeriazko ekintzak barne, eta ezartzen du kontuan hartu ahal
izango direla pertsonen sexuarekin lotutako alderdiak gizarte-talde jakin bat era dezake-
en ezaugarri multzo gisa, gizarte-talde jakin bateko kide izatearekin lotutako jazarpenak
aintzatestean.

2. eranskina:

LGBT taldearen eskubideak aintzatesten dituzten tokiko legeriak

Iturria:

- Ottosson, Daniel (2009): *Homofobia de Estado. Un Informe Mundial sobre las leyes que prohíben la actividad sexual con consentimiento entre personas adultas. Un informe de ILGA.* Asociación Internacional de Lesbianas, Gays, Bisexuales, Trans e Intersex. 2009ko maiatza.

LGBT taldearen aurkako diskriminazio motak amaiarazteko helburuarekin egin diren lege-aurre-rapen batzuk aipatuko ditugu orain:

Sexua aldatzeko tratamenduaren ostean generoa onartzeko legeria espezifikoak dituzten herrialdeak (15 herrialde):

- Afrika: Hegoafrika (2004).
- Asia: Turkia (1988), Japonia (2004).
- Europa: Suedia (1972), Alemania (1981), Italia (1982), Herbehereak (1985), Errumania (1996), Finlandia (2003), Erresuma Batua (2005), Belgika (2007), Espainia (2007).
- Ipar Amerika: Panama (1975), eta Kanadako eta Estatu Batuetako leku gehienetan.
- Ozeania: Australia, Zeelanda Berria (1995).
- Hego Amerika: ezein herrialdek.
- Horrez gain, herrialde askok generoa aldatzeko ebakuntzaren ostean genero "berria" onartzen dute eta egoera horretan dauden pertsonen eskubidea onartzen diete, lege orokorren zein jurisprudentziaren bidez.

Genero-identitatearekin lotutako arrazoiengatiko laneko diskriminazioa debekatzeko duten herrialdeak (16 herrialde):

- Afrika: ezein herrialdek.
- Asia: ezein herrialdek.
- Europa: Hungaria (2004), Suedia (2009ko urtarrilaren 1ean). Gainera, pertsona transgeneroen diskriminazioaren debekua genero-arrazoiengatiko diskriminazioaren debekua barnean aintzatesten da, herrialde hauetan: Austria, Belgika, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Alemania, Irlanda, Italia, Letonia, Herbehereak, Polonia, Eslovakia eta Erresuma Batua.
- Ipar Amerika: Ipar-mendebaldeko Lurraldeak (2004), Kanadan, eta Estatu Batuetako leku batzuetan.
- Ozeania: Australia.
- Hego Amerika: Argentinako Rosario hiria (2006).

Genero-identitateगतिको gorroto-krimenak zirkunstantzia larrigarritzat jotzen dituzten herrialdeak (1 herrialde):

- Afrika: ezein herrialdek.
- Asia: ezein herrialdek.
- Europa: ezein herrialdek.
- Ipar Amerika: Estatu Batuetako leku batzuetan.
- Ozeania: ezein herrialdek.
- Hego Amerika: Uruguai (2003).

Sexu-joerगतिको gorrotoa sustatzea debekatzen duten herrialdeak (17 herrialde):

- Afrika: ezein herrialdek.
- Asia: ezein herrialdek.
- Europa: Norvegia (1981), Danimarka (1987) Irlanda (1989), Herbehereak (1992), Espainia (1996), Islandia (1996), Luxenburgoko (1997), Lituania (2003), Errumania (2000), Belgika (2003), Kroazia (2003), Suedia (2003), Ipar Irlanda (2004), Erresuma Batua, Frantzia (2005), Estonia (2006), Portugal (2007).
- Ipar Amerika: Kanada (2004).
- Ozeania: Australiako eskualde batzuetan.
- Hego Amerika: Uruguai (2003).

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza baimentzen duten herrialdeak (8 herrialde):

- Afrika: Hegoafrika (2006).
- Asia: ezein herrialdek.
- Europa: Belgika (2003), Herbehereak (2001), Norvegia (2009ko urtarrilaren 1ean), Espainia (2005), Suedia (2009ko maiatzaren 1ean).
- Ipar Amerika: Kanada (2005); Estatu Batuetako estatu batzuk: Connecticut (2008), Iowa (2009ko apirilaren 27an), Maine (2009ko irailaren 14an), Massachusetts (2004) eta Vermont (2009ko irailaren 1ean)); eta Mexiko (Mexiko DF hiria, 2009ko abenduan).
- Ozeania: ezein herrialdek.
- Hego Amerika: ezein herrialdek.

Sexu bereko bikoteei ezkonduak dituzten eskubideetako asko edo guztiak onartzen dizkieten elkartze zibilen legeak dituzten herrialdeak (8 herrialde):

- Afrika: ezein herrialdek.
- Asia: ezein herrialdek.

- Europa: Danimarka (1989), Islandia (1996), Alemania (2001), Finlandia (2002), Erresuma Batua (2005), Suitza (2007).
- Ipar Amerika: Estatu Batuetako estatu batzuetan.
- Ozeania: Zeelanda Berria (2005), eta Australiako leku batzuetan.
- Hego Amerika: Kolonbia (2007-2009).

Sexu bereko bikoteek elkarrekin adin txikikoak adoptatzea baimentzen duten herrialdeak (10 herrialde):

- Afrika: Hegoafrika (2002).
- Asia: Israel (2008).
- Europa: Herbehereak (2001), Suedia (2003), Andorra (2005), Espainia (2005), Erresuma Batua (2005), Belgika (2006), Islandia (2006), Norvegia (2009).
- Ipar Amerika: Kanadako probintzia gehienetan, eta Estatu Batuetako leku batzuetan.
- Ozeania: Australia: Hiriburuaren Lurraldean (2004) eta Mendebaldeko Australian (2002).
- Hego Amerika: Brasilgo São Paulo hirian (2005).
- Gainera, sexu bereko bikoteetako bigarren aitak edo amak adoptatzea legezkoa da herrialde hauetan: Danimarka (1999); Alemania (2005); Australia: Tasmanian (2004); eta Kanada: Albertan (1999).

3. eranskina:

LGBT taldeko pertsonen aurkako jazarpena

Iturriak:

- Ottosson, Daniel (2009): *Homofobia de Estado. Un Informe Mundial sobre las leyes que prohíben la actividad sexual con consentimiento entre personas adultas. Un informe de ILGA.* Asociación Internacional de Lesbianas, Gays, Bisexuales, Trans e Intersex. 2009ko maiatza.
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.

LGBT taldeko pertsonen aurkako jazarpén mota batzuk zehaztuko ditugu orain:

Jazarpén-legeak: Gobernuek ez dute aipatzen trans motarik legeetan, baina trans pertsonék beste sexu-gutxiengo batzuek bezalako jazarpénak pairatzen dituzte:

- Munduko 80 herrialdek homosexualitatea legez kanpokotzat jotzen dute (2009ko maiatzeko datuen arabera). Herrialde horietako bostetan (Iran, Mauritania, Saudi Arabia, Sudan eta Yemen), eta Nigeriako eta Somaliako leku batzuetan, heriotza-zigorra ezar daiteke ekintza homosexualengatik. Iranen, harreman homosexual mota guztiak zigortzen dira; hau da, sexu bereko pertsonen arteko –gizon zein emakume- edozein motatako sexu-ukipenak, musu ematea barne, familia bereko kideak ez badira.
 - Antigua eta Barbuda, Barbados, Bhutan, Dubai eta Abu Dhabi, Cook uharteak, Salomon uharteak, Jamaika, Liberia, Namibia, Nigeria, Sierra Leona, Trinidad eta Tobago, Tunisia eta Zimbawe: sodomia espetxe-zigorraz zigortzen da. Kode batzuetan zehazten da zigor hori bai gizonekin bai emakumeekin praktikatzan denean ezartzen dela; eta askotan, atal berean animaliekin praktikatzeko harremanak eta "bestialismoa" aipatzen dira. 15 urteko espetxe-zigorrek edota bizi artekoak ezar daitezke horregatik.
 - Dominika: Auzitegiak egokituz jotzen badu, atxilotua ospitale psikiatriko batean sartzea agin dezake, trata dezaten.
 - Saudi Arabia: Ez dago Zigor Kode dokumentaturik. Horren ordez, *Sharia* islamiar lege zorrotza aplikatzen da herrialdean. Interpretazio hori oinarri hartuta, sodomia zigortu egiten da. Ezkontutako gizonzkoek harrikatze bidezko heriotza-zigorra ezartzen zaie. Gainera, ezkontzatik kanpoko sexu-harreman guztiak legez kanpokoak dira, emakumeen arteko sexu-harremanak barne.
 - Herrialde askotan lege homofobo horiek sistematikoki aplikatzen ez badituzte ere, halako legeak indarrean egoteak beldurraren kultura hedatzea eta herritar askok ezkutuan bizi behar izatea eragiten du.

"Moralari eta praktika onei eusteko" arauak:

- Poliziaren eta Herritar Bizikidetzaren Legea (Honduras).
- Espetxe-zigorrek prostituzioagatik (Egipto).
- Espetxe-zigorrek eta bestelako zigorrak "ohitura lizunak izateagatik", "erlijioa mespretxatzeagatik" eta "ekintza limuriengatik" (Egipto, Etiopia, Uganda, Zambia, Malawi, Papua Ginea Berria).

- Horrez gain, munduko lau herrialdetan LGB pertsonak sartzea debekatzen da: Afrikan, Lesotho eta Swazilandian; eta Ipar Amerikan, Belizen eta Trinidad eta Tobagon.

Poliziaren jazarpen-praktikak:

- "Moral publikoaren aurkako erasoak" direla argudiatzen dute/ prostituzioaren jazarpena.
- Atxilotze arbitrarioak.
- Prozesu judizialik gabeko atxilotetak.
- Babes judizial eragingarriaren urraketa.
- Poliziaren basakeria eta poliziek eragindako sexu-gehiegikeriak.

Gobernuaren onespena jazarpenari eta ikusezintasunari:

- Transexualen aurkako jazarpena ez ikertzea.
- Transexualen aurkako jazarpena ez zigortzea.
- Ikusezintasuna: ez da zigortzen. Izan ere, ez dago jazarpenik sexu-gutxiengoak existitzen ez direlako eta, beraz, ez dago sexu-gutxiengoen aurkako indarkeriaren salaketarik.
- Transen jazarpena ohiko indarkeriatzat jotzen da, eremu publikoan gertatzen delako, prostituzioa praktikatzeko den ingurunetan.

Gaixotasuntzat jotzea:

- Homosexualitatea gaixotasuntzat jotzen 1945. urtera arte. Orduan, Evelyn Hooker estatubatuar psikiatrak azaldu zuen ez dituela buruko gaixotasun gisa definitzeko baldintzak betetzen. Hala ere, MOEk ez zuen buruko gaixotasunen zerrendatik kendu 1992ra arte. Gaur egun, hala ere, gizon eta emakume asko buru-gaixotzat jotzen dira oraindik ere herrialde jakin batzuetan, gizar-te-ordena jakin bat zalantzan jartzen dutelako, eta haren iraupena, arriskuan.
- Amerikako Psikiatria Elkarteak (APA) iragarri zuen buru-nahasmenduei buruzko eskuliburua (Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders, DSM-IV) berrikusiko zuela. Dokumentu hori erreferentzia da nazioartean, halako nahasmenduak diagnostikatzeko eta tratatzeko, eta barnean hartzen du sexu- eta genero-desberdintasuna.
- Txinan, esaterako, "nahasmendu psikologikotzat" jotzen da, duela gutxi arte bertako legeek hala ezartzen zutelako.

Lesbianen eskubideen urraketa, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala oinarri hartuta:

- Berdintasunerako eskubidea:
 - Barnean hartzen du diskriminaziorik ez pairatzeko eskubidea. Lehen eskubidea urratzean, bigarrena ere urratzen da. Hori da gainerako urraketak pairatzeko abiapuntua.
- Askatasunerako eskubidea:
 - Lesbianek ezin dute askatasunez bizi beren joera afektibo-sexuala.
- Pertsonaren eta haren familiaren intimitaterako eskubidea
 - Lesbianen aurkako erasoak eta indarkeria bizitza intimoan, estatuak zein gizarteko sektore jakin batzuek eraginda.

- Munduko 8 herrialdek soilik baimentzen duten sexu bereko pertsonen arteko ezkontza; horrenbestez, lesbianei familia eratzeko eskubidea ukatzen zaie.
- Bizitzeko eskubidea:
 - Estatu askotan, homosexualitatea delitutzat hartzen da, eta heriotza-zigorraz zigortzen da. Horrez gain, halako erasoak zigorrik gabe geratzen dira; batez ere, eraso lesbofoboak.
- Torturarik edota tratu krudel, anker eta umiliagarririk ez pairatzeko eskubidea:
 - Herrialde askotan, atxilotze arbitrarioak eta poliziaren indarkeria ez dira salbuespenak, ohiko arauak baizik.
 - Emakume lesbianen kasuan, halako erasoak sexu-erasoak izan ohi dira (adibidez, sexu-joera "zuzentzeko" bortxaketak).
- Mugitzeko askatasuna:
 - Sexu bereko emakumeak ez dira bikote gisa aintzatesten, eta ez zaie ezkontzen uzten. Gainera, nazionalitate desberdinekoak badira, ez dute bizileku erregular bat finkatzeko aukerarik, ez baitira halako harremanak onartzen.
- Adierazpen- eta manifestazio-askatasuna, eta biltzeko eta elkartzeko askatasuna:
 - Emakume lesbianen giza eskubideak defendatzen dituzten eragileek jazarpena pairatzen dute.
- Familia eratzeko askatasuna:
 - Emakume lesbianen bikoteak ez dira familia gisa onartzen. Horren ondorioz, seme-alabak badituzte, kustodia ukatzen zaie, amen sexu-joeragatik.
- Erljio-praktikarako eskubidea:
 - Sinesmen eta eliza askoren ustez, LGBT taldeko pertsonak "*ordena moralaren eta naturaren aurka egiten duten espezipimenak*" dira; hori dela eta, haien existentzia ukatzen dute eta beren egituretatik kanpo uzten dituzte; batez ere, emakume lesbianak; haiek pairatzen dute gehien ikusezintasuna eta ez existitzearen egoera, gizon homosexualak baino are gehiago.
- Lanerako eskubidea:
 - Enplegu-politiketan eta gobernuak eta enpresariak aurrera eramaten dituzten praktike-tan, diskriminazioa pairatzen dute (adibidez, justifikatu gabeko kaleratzeak).
- Prozesu bidezkoa izateko eskubidea:
 - Administrazioaren eta epaileen aurreiritziak.
- Osasun fisikoa eta psikikoa izateko eskubidea:
 - Politika eta praktika diskriminatzaileak, osasun-arloko profesionalen jarrera lesbofoboak eraginda.
 - Profesional horien prestakuntzarik eza, pertsona horien sexu-joerari dagokionez.
 - Estatu batzuetan, sexu-joera edo genero-identitatea gaixotasun edo nahasmendu psikiatrikotzat jotzen da, eta halako joera dutenak ospitale psikiatrikoetan sartzen dituzte.

- Hezkuntza-eskubidea:

- Askotan, emakume lesbianek segurtasunik gabeko giroa bizi dute, hezitzaileek zein ikasleek eraginda.

Gizarteko sektore batzuek eragindako pertsona transexualen jazarpena:

- "Gizarte-garriketa" eta "justizia zuria" aldarrikatzen duten taldeen jomuga nagusietako bat sexu-gutxiengoak izan ohi dira, eta estatuek ez ikusiarena egiten duten halako gertaeren aurrean (Ekuador).
- Eskuin muturreko taldeek eragindako jazarpena (Errusia).

2008. urtearen hasieratik, 3 egunean behin trans pertsona bat hiltzen dute batez beste. Transgender Europeanen (TGEU) eta *Liminalis* online zientzia-aldizkari eleaniztunaren arabera, 2008. urtean eta 2009ko lehen 6 hilabeteetan 204 trans pertsona hil zituzten munduan. Horiek dira publikoari jakinarazitako kasuak eta Interneten aurki daitezkeenak. Beste askotan, ordea, halako gertaerak ez dira erregistratzen, edota homosexualen hilketa gisa erregistratzen dira. Hori kontuan hartuta, Brasil, esaterako, halako hilketak gehien erregistratzen dituen herrialdea izan daiteke, baina horrek ez du adierazten herrialde horretan gertatzen direnik gehien. Herrialde horretan, hain zuzen ere, trans pertsonen behaketan esperientzia handia duen GKE bat dago.

Egin diren erregistroetan jasotako datuen arabera, 2008an 22 herrialdetan izan ziren trans pertsonen hilketak, eta 17 herrialdetan, 2009ko lehen sei hilabeteetan. Biktimitako 9 adin txikikoak ziren, 10 torturatu edo mutilatu egin zituzten, eta 3 polizia-etxean hil zituzten. Txostenean ez dira bereizten transexual femeninoak, maskulinoak edo beste aldaera transgenero batzuk, baina lanbideak zehazten dira. Gehienetan erregistrorik jasotzen ez bada ere, erregistro gehienetan prostituzioan aritzen ziren pertsonen kasuak jaso dira.

Brasilgo Grupo Gay da Bahia (GGB) LGBT-erakundeak 1980tik argitaratu ditu Brasilgo LGBT taldeko pertsonen hilketei buruzko datuak. Datu horien arabera, 2008an LGBT taldeko pertsonen hilketak % 55 areagotu ziren, aurreko urteekin alderatuta: guztira, 190 kasu erregistratu zituzten. GGBk "gorroto-krimen" gisa erregistratzen ditu LGBT taldeko pertsonen hilketak.

ⁱ Testuak oinarrizko erreferentzia-eredu batzuk ezartzen ditu, Nazio Batuek nahiz estatuek LGBT taldeko pertsonen giza eskubideen babesa bermatzeko aurrerapenak egin ditzaten. 2006. urtean, 54 estatuk lesbianen, gayen, bisexualen eta pertsona transgeneroen giza eskubideen urraketa larriak salatu zituzten; egoera horri erantzuteko landu zuten aipatutako testua.